Landa-eremua EAEn: egungo argazkia, etorkizuneko aukerak

Leire Milikua Larramendi

ueu

Landa-eremua EAEn: egungo argazkia, etorkizuneko aukerak

Leire Milikua Larramendi

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2015

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Leire Milikua Larramendi

ISBN: 978-84-8438-574-5
Lege-gordailua: BI-1970-2015

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Maria Paz Elorriaga Garitaonandiari (amama Maripaz) *eta Maria Begoña Larramendi Elorriagari* (ama) *eskainia*

Esker onak

Ondorengoak ESKERTU nahiko nituzke:

Nire etxekoak, Mikel Milikua, Bego Larramendi eta Josune Milikua, ni urrun egon arren, zuek gertu maite izan nauzuelako beti; kuadrilla, lagunak, zaharrak eta berriak (izenik ez, inor ez ahazteko); Matienako Taldea, Durangoko Xokotarrak, eta Bilboko familia. Iñaki Landa Fuentes.

Ula Iruretagoiena Busturia, haren tutoretzapean burututako Arkitektura ikasketetako karrera-amaierako proiektuan baitauka lan honek sorburua.

Iratxe Arriola Alzola, Maider Uriarte Idiazabal eta Aitor Bilbao Uribarri, beraien denbora eta ezagutza pusketa bat eskaintzearren; UEUko «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» (2014-2015) graduondoko ikasle eta irakasleak; Aldiritarrak.

Atxondoko Udala, bere laguntzagatik; dei, email eta elkarrizketa bidez burututako hainbat kontsulta erantzun dizkidaten administrazio ezberdinetako langileak.

Zuetako bakoitzaren zatitxo bat dauka liburu honek, dudarik ez. MILESKER.

Aurkibidea

SARRERA **11**

I. ATALA **13**

1. ZEIN DA EUSKARRIA? **15**
1.1. Erliebea 15
1.2. Ibaiak 17
1.3. Klimak 18
1.4. (Berezko) landareria 19
1.5. Bestelakoak 21

2. EUSKARRI HORREK ZERI BIDE EMAN DIO? BIDE HORREK NOLA MOLDATU DU EUSKARRIA? **23**
2.1. Demografia 23
2.1.1. Aldaketak, testuingurua 24
2.2. Lurralde-dinamikak 25
2.2.1. Biztanleria-dinamikek eragindakoak 25
2.3. Lurren arteko lehia: nekazaritza eta abeltzaintzako lur-erabilera vs artifizializazioa eta basotzea 41
2.3.1. NAEa 42
2.3.2. Artifizializazioa 42
2.3.3. Basotzea 45
2.3.4. Ondorioak 46

3. EUSKARRI HORREN IZENDAPEN ETA SAILKAPENAK **47**
3.1. Mendi Nekazaritzako Guneak 47
3.1.1. Euskal Herriko landa-eremuaren mugaketaren hastapenak 48
3.1.2. Euskal mendiaren dibertsitatea. Lurralde-politiketarako tipologia-saiakera 49
3.2. Natura 2000 Sarea 54
3.2.1. Bateragarritasunak EAEn 56
3.3. Orain arteko politikak eta (haien) ondorioak 56

4. EKONOMIA..... 59
4.1. Hiru sektoreen bilakaera 59
4.2. EAEko nekazaritza- eta basogintza-sektoreen diagnostikoa 60
4.2.1. Nekazaritza 60
4.2.2. Basogintza..... 68
4.3. Turismoa 77
4.4. Landa-inguruneko sustapen-politikak..... 77

5. NEKAZARITZA 81
5.1. Funtzio-aniztasuna nekazaritzan..... 81
5.2. Funtzio-aniztasuna basogintzan..... 84
5.3. Paisaia 85
5.3.1. Paisaiaren Europako Hitzarmena..... 85
5.3.2. 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa. 87
5.3.3. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (NBALAP)..... 87

6. POLITIKAK ETA LEGERIA..... 91
6.1. 17/2008 Legea; 193/2012 Dekretua; 126/2012 Dekretua, eta Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana 92
6.1.1. Nekazaritza-lurzoruari dagozkion alderdiak..... 93
6.1.2. Lur-funtsak..... 97
6.1.3. Agroguneak eta agroaldeak 98
6.1.4. Ekoizpen-metodoen inguruan 99
6.2. 84/1993 Dekretua; 168/1997 Dekretua, eta 19/1995 Legea 102
6.3. Landa Garapenerako 10/1998 Legea; EAEko 2007-2013rako Landa Garapen Iraunkorreko Programa (LGIP); EAEko 2015-2020rako Landa Garapeneko Programa (LGP); LAGen Berrikuspena, eta NBALAP..... 104
6.3.1. LAGen berriskupenean sakontzen 110
6.3.2. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea 122
6.3.3. NBALAPren esparru-juridikoa, labur..... 123
6.4. Beste arlo batzuetako legeak..... 125
6.4.1. Titulartasun partekatua..... 125
6.4.2. Gizarte-asegurantza 125
6.4.3. EAEko legerian: 17/2008 Nekazaritza eta Elikadura Legea 125
6.4.4. Emakume baserritarren estatutua..... 126

6.4.5. Baserritarren eskubideen deklarazioa 126
6.4.6. Europako egungo nekazaritza-ereduaren nondik norakoa 126
6.5. Mundu-mailako legeriak: Merkataritza eta Inbertsio Lankidetza Transatlantikoa (TTIP) 128

II. ATALA 131

1. SARRERA 133

2. DESAGRARIZAZIOAREN KOSTUAK 135

3. LEGEDIA 141
3.1. LAA-ak 141
3.1.1. Elikadura-burujabetza (eta agroekologia) 144
3.2. NBALAPn ere badago zer hobetu 149
3.3. HAPOk eskaintzen dituen aukerak 149

4. ETA HIRIETAN ZER? 151
4.1. Hiriak, zikloak 151
4.1.1. Hiri-ereduaren eta nekazaritza-sistemaren arteko harremana 153
4.2. Hiriko eta hiri-inguruetako nekazaritza zenbait plangintzatan 155
4.3. Merkaturatzeko Bide Laburrak (MBLak) 157
4.4. Kontsumoa, ekintza politikoa 158

5. LURRALDEA 161
5.1. Lur-inportazio birtualak 163

6. BEGIRADA BERRIRO ERE LANDA-EREMURA BUELTATUTA, ZER? 165

7. LANDA-EREMUAREKIKO ETA ELIKADURA-GAIEKIKO INTERESA 167

8. ONDORIOZ 169
8.1. Trantsizioa 170
8.2. Metabolismoak 171
8.3. Nekazaritza-produktuen autohornikuntza 171

III. ATALA 175

1. SARRERA 177

2. KASU PRAKTIKOA: ATXONDO 179
2.1. Udalerria 179
2.1.1. Ingurune fisiko eta naturala 179
2.1.2. Mugak 179
2.1.3. Geologia eta geomorfologia 179
2.1.4. Hidrologia 179
2.1.5. Ezaugarriak 179
2.1.6. Ekonomia 180
2.1.7. Paisaia 180
2.1.8. Komunikazioak 181
2.1.9. Zergatik Atxondo? 181
2.2. Materialaren lorpena 182

3. FITXA TIPOAK: MEDEA METODOLOGIA 183

4. I FITXA TIPOA 185

5. PARAMETROAK 195
5.1. Azalera 195
5.2. Malda 195
5.3. Distantzia 196
5.4. Denbora 196

6. INFORMAZIO OSAGARRIA 197
6.1. Basoak 197
6.1.1. Balio handiko espezieen landaketa baso mistoetan 198
6.2. Elikagai-segurtasuna: Atxondoko biztaleentzat ekoitzitako elikagaien kalkulua 199
6.3. Bideragarritasun ekonomikoa 200

7. II FITXA TIPOA 203

8. EMAITZAK 213

9. ONDORIOAK 219

BIBLIOGRAFIA 221

Sarrera

Sarri, izenburu baten atzean izenburu horrek dioena zehatz-mehatz aurkitzea espero dugu, egileak —XVIII. mendeko naturalisten gisara— lagin bat bakandu, eta modu trinko eta kontzentratuan era isolatuan interpretatuta. Gauzek horrela funtzionatzen ez dutela jakin badakigun arren —interdependentzia, elkarrekintza eta abarrak—, esku artean izaten dugun hori salbuespena den esperantza izaten dugu beti, halabeharrez.

Liburu honetan ere ez duzue halako lurrinik aurkituko, usain eta lurringai ezberdinen dantza orkestratua baizik. Hala ere, dosiak egokiak eta argibideak zehatzak izan badira, behar bezalako kalitatezko emaitza jaso beharko luke irakurleak.

Egia esan, landa-eremuaren erretratua egiteko orduan ugariak dira kontuan hartu beharreko faktoreak: ezaugarri fisiko jakin batzuk izango ditu oinarrian, klima bat eta horren ondoriozko berezko jazoerak, bizi edo erabiltzen duen gizartearen nolakotasunak, gizarte horrek burututako ekintzak, ekintza horiek mugatu edo bultzatzen dituzten legeak, testuinguru sozio-ekonomiko-politikoa... Gainera, aipatutako faktore horiek eremuan dute eragina (faktore > eremu), baina beste noranzkoan (eremu > faktore) bere berezko izaeratik ondorioztatzen diren hainbat alderdi hasiak dira lekua hartzen. Azken aldiko lege eta araudiek bolo-bolo darabiltzate eremuon «funtzio-aniztasuna» edo «ingurumen edo ekosistemen zerbitzuak» bezalako kontzeptuak, eta ezin da ukatu berezko izaera horretatik ondorioztatutako ezaugarrion pisua migrazio-joera konkretuetan. Liburua osatzen duten hiru ataletatik lehena izango da testuinguru konplexu hori sortzearen arduraduna.

Hasierako argazki hori oinarri, bigarren atalean, modu prospektiboan jarriko gara, izenburuko etorkizuneko aukerei begira. Aukera horien artean, muturreko bi kasu aurkeztuko ditugu: bata, desagrarizazio-prozesuari lotutakoa, balizko desagrarizazio-mailen kasuistika eta ondorioen kuantifikazioa erakutsiz; bestea, elikadura-burujabetzaren hautu politikoaren ingurukoa, lurraldea horren jarduteko eremu estrategikotzat hartuta. Hari horri tiraka, begirada hiri-eremura irekiko dugu lehenik, eta mundu mailara gero, berriro ere gurean bukatzeko.

Azkenik, lurra zaintzearen beharra praktikara eramanez, legedien sailkapen orokorretik haratago doan landa-lurren inbentario bat egiteko gidalerro batzuk proposatzen dira, MEDEA metodologia osatuko dutenak. Horren helburua, eskalaz jaitsiz eta tokira hurbilduz, lurron egungo egoeren erretratu bat egitea da, berau era argi eta grafikoan deskribatzeko. Metodologia horrek badu pedagogikotik, egun

jazotzen diren lurralde-dinamiken ondorioetako batzuk bat-batean ulertzeko gakoak eskain baitiezazkiguke, izan gaian jantzia edo ez. Liburuko hirugarren atala azalpen horri eskainiko zaio, eta metodologia hori aplikatzeko kasu praktiko bat gauzatuko da Bizkaian kokatutako Atxondo herriko landa-lur batzuetan.

I. atala

«(...) Euskal Herria askotariko lurraldeek eta askotariko gizarteak osatzen dute. Europako toki gutxitan aurkituko ditugu hainbeste kontraste hain eremu murritzean (…). 7.300 km² eskasetan klima atlantikotik mediterraneora igarotzen gara, erliebe korapilatsu menditsutik leun izurtutako haran zabaletara, pagadi eta hariztietatik Mediterraneoko landare usaintsuetara. Aldi berean, batetik, itsasoko, kostako eskualdea da eta izan da, kanpora eta urrutiko herrialdeen eraginetara irekia, eta, bestetik, Ebroko bailara eta Gaztelako mesetara begiratzen duen barruko eskualdea. Bertako biztanleek ingurune natural berezitu horiek beren garapenerako egokiak ziren baliabideen bila moldatu dituzte, eta lurraldea modu nolabait autonomoan antolatu dute isurialde kantauriarraren eta mediterraneoaren banalerroko mendigunearen alde banatan» (Galdós eta Ruiz, 2008: 13; egileak itzulia).

1. Zein da euskarria?

Liburuan zehar aztertuko den bilakaera baldintza konkretuak dituen toki zehatz batean gorpuzten da, eta ez beste batean. Hori dela-eta, pixkanaka gure azterketa-eremuko ezaugarriak xehatzen joango gara.

Jarraian, EAEk berezkoak dituen atributuak aurkeztuko dira, era laburrean (Galdós eta Ruiz, 2008: 25-67).

1.1. ERLIEBEA



1.1. irudia. EAEko mapa hipsometrikoa. Egilea: Sergio Gallego -Ambientalia21. Iturria: GeoEuskadi.

EAE lurralde menditsua da, Pirinioen mendebaldeko muturraren eta Kantauriar mendikatearen artean kokatua. Garaiera xumeko mendilerroen segidak osatutako isurialde atlantikoko eta mediterraneoko uren banalerroak lurraldea banatu eta guneko geomorfologia baldintzatzen du. Lerro zuzenean neurtuz gero, kostatik 40 kilometro baino gutxiagora kokatzen da.



1.2. irudia. EAEko erliebe-unitateen mapa. Iturria: Egileak egina eta itzulia, Galdós Urrutia eta Ruiz Urrestarazuren erliebe-unitateen mapa oinarri (2008: 32).

Morfologia honek Kantauri itsasoan itsasoratzen diren eta distantzia laburrean altuera-tarte nabarmena zeharkatzen duten ibai-arroen segida ahalbidetzen du ipar isurialdean. Euskal Autonomia Erkidegoko kostaren luzera ez da 200 kilometrotara iristen. Bihurgune gutxiko profil zuzena aurkezten du, hozkak urriak eta sakonera gutxikoak dira eta itsaslabarrak dira nagusi. Gertu kokatutako mendilerroak, askotan, oztopo izan dira itsasoaren eta barnealdearen arteko harreman zuzenerako; ibaien bailarak izan dira oztopo hori gainditzeko gakoa. Oro har, ipar-hego norabide argiari jarraitzen dioten bailarak dira, Ibaizabal ibaiaren salbuespenarekin; horrek ekialde-mendebalde norabidea du.

Ebroko isurialdean erliebea leundu egiten da, eta banalerroko mendiek bailara kantauriarrekiko agertzen duten altuera-ezberdintasun handia murriztu egiten da, ibai mediterraneoen oinarri-altuera 600 metroren inguruan kokatzen baita. Arabako Lautadak erdiguneko goi-ordoki handi bat osatzen du. Zadorra ibaiak zeharkatzen du, eta alboetan Ebroko Sakonunetik banatzen duten gune menditsu ugariak ditu.

Laburbilduz, iparretik hegora, kostarekiko paralelo kokatutako mendilerroen segida aurkituko dugu, bata eta bestearen arteko tarteetan sakonuneak utziz. Behetik gora: Toloño mendilerroa, Ebro ertzeko terrazekin lotzen duten arrapala leunak okupatuz, Arabako Errioxa hegoaldean uzten duena. Ondoren, Trebiñoko Konterria zeharkatzen duen Ibaiuda ibaia. Hurrengo goraguneak Gasteizko mendiak dira, zeinek Kuartangoko sakonunea eta Gasteizko Lautada jasotzen dituen korridoreari bide ematen baitiote. Iparraldean, kostara heldu baino lehen, Euskal Mendiak ageri dira[1].

1.2. IBAIAK

Isurialde hidrografiko ezberdin biri dagozkie Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak: atlantikoa eta mediterraneoa. Aurrez, uren banalerroa kostatik 40 kilometro baino gutxiagora kokatzen dela aipatu dugu, eta, orain, baieztapen horri kostatik Ebro ibaira arteko distantzia 100 kilometrotara iristen ez dela gehituko diogu.



1.3. irudia. EAEko unitate-hidrologikoak. Egilea: Sergio Gallego -Ambientalia21. Iturria: GeoEuskadi.

1. <http://enciclopedia.us.es/index.php/Geografía_física_del_País_Vasco> webgunetik jasotako informazioa, egileak itzulia [kontsulta: 2015-10-30].

Atlantikoko isurialdea (Galdós eta Ruiz, 2008: 44)[2]:

- Beren urak Kantauri itsasora isurtzen dituzten lurrak, lurralde osoaren % 63.
- Isurialde kantauriarreko ibaien arroek, goi-ibarretatik hasi eta itsasora arte, 50 bat kilometroko zerrenda estua hartzen dute, Bidasoatik Kantabriarekiko mugaraino.
- Luzera laburra.
- Emari absolutua xumea, baina elikatzen dituzten arroen tamaina murritza kontuan hartuz, emaritsuak.
- Batez besteko malda handiak (% 2-2,5 inguru).
- Uhar-izaera.

Mediterraneoko isurialdea (Galdós eta Ruiz, 2008: 58)[3]:

- Beren urak Mediterraneo itsasora isurtzen dituzten lurrak, lurralde osoaren % 37.
- Bailara zabalagoak.
- Itsasoratzera hurbildu ahala, beraien emari espezifikoa nabarmen murrizten da.
- Altuera-tarte txikiagoak libratu behar dituzte.
- Uhartasun-indize txikiagoa (uholde-arrisku handiena, elurren urtze azkarra).

1.3. KLIMA[4]

Kantauri itsasoaren ertzeko gainontzeko guneak bezala, EAEko ipar isurialdeak hego ikutuko klima ozeanikoa du.

Barnealdeko klima ozeaniko edo azpiatlantikoa aurkituko dugu babes orografikoek hegoaldeko eraginetatik ondoen gordeta dauden eremuetan, eta azpimediterraneoa hegoaldera zabalduen dauden behe-arroetan.

Arabako Errioxa Ebro ibaiaren eta Toloño mendilerroaren artean kokatzen da, ibai horren sakonunean zehar garatzen den eremu natural zabalago baten parte delarik. Mendilerroak eragin atlantikotik babesten du. Klima mediterraneo argia du.

2. Egilearen itzulpena.
3. Egilearen itzulpena.
4. Galdós eta Ruiz, 2008: 37., 54. eta 60. or.



1.4. irudia. Euskal Herriko gune klimatikoak. Iturria: Egileak egina eta itzulia, Galdós Urrutia eta Ruiz Urrestarazuren Euskal Herriko gune klimatikoen mapa oinarri (2008: 38).

1.4. (BEREZKO) LANDAREDIA

Isurialde atlantikoa (Galdós eta Ruiz, 2008: 47-49):

Giza esku-hartzeek era drastikoan aldatutako landaredia dauka eremu menditsuenetan izan ezik, isurialde atlantikoko eta isurialde mediterraneoko uren banalerroan bereziki, non bertako espezieek hedapen handiena okupatzen duten. Lurraldearen gainontzeko eremuek landaredia naturaleko txatalak baizik ez dituzte.

Landaredia natural horrek degradazio latza jasan izan du azken mendeetan ustiapen intentsiboaren ondorioz: ontzigintza, burdinolentzako ikatza, egurra, bazka-aprobetxamendua, eta abar.

XX. mendearen bigarren erdian, hazkunde azkarreko basotzeek —insignis pinua batez ere— eta larreek monopolizatu zuten urbanizatu gabeko espazioa.



1.5. irudia. EAEko landaredia naturalaren inguruneak.
Iturria: Egileak egina eta itzulia, Galdós Urrutia eta Ruiz Urrestarazuren landaredia naturalaren ingurunearen mapa oinarri (Galdós eta Ruiz, 2008: 38).

Itsasoaren gertutasunak eta topografiak hiru eremu biogeografiko bereizten dituzte: kostako zerrenda, bailara atlantikoak eta mendi atlantikoak. Jarraian, isurialde atlantikoko landarediaren ezaugarriak:

- Bailara kantauriarretako landarediak Bizkai eta Gipuzkoako azaleren zatirik handiena, Arabako ipar-mendebaldea, eta Arabako isurialde mediterraneoko zati txiki bat okupatzen ditu.
- Bailara atlantikoetako eremua nagusi da 600 metro arteko bailara-hondo eta mendi-mazeletan; hor dago estai muinotarraren eta estai menditarraren arteko banaketa.
- Askotariko eremuak ezberdintzen dira: haritzak, erkametz eta arteak.
- Haritzen eremuan, egun itxuratze hedatuenak labore-larreak eta espezie arrotzen baso-landaketak izan arren, bertako landaredi potentzial esanguratsuena hostozabalen baso mistoak eta harizti azidofiloak dira.
- Aurrekoez gain, hauek ere topa daitezke: ameztiak mendi-mazela eta hareharriz osatutako muinoetan, pagadiak ibar eta sakan itzaltsuetan, haltzadiak erreka-ertzetan, eta urkidiak, kareharrizko arroiletako baso mistoak eta haritz kandugabeko hariztiak kokaleku zehatzetan.

– 500-700 metrotik gora, mendi atlantikoen landarediaren eremua hasten da: pagadien nagusitasun osoa.

Isurialde mediterraneoa (Galdós eta Ruiz, 2008: 59):

– Arabako erdiguneko eskualdea flora-aniztasun handiko eta kontraste ugariko eremua da.
– Kostako probintziekin alderatuta, tokiko espezieen kontserbazio-maila hobea da; ingurumen- eta paisaia-aberastasun nabarmena.
– Hain eremu txikian, 4 landaredi-eremu natural bereizten dira: bailara azpiatlantikoak, mendiak eta trantsizioko bailara altuak, bailara azpimediterraneoak, eta hegoaldeko mendiak.

Orain arte ikusi dugun bezala, Arabako Errioxak eremu berezia osatzen du (Galdós eta Ruiz, 2008: 62):

– Landaredia naturala, zoruaren nekazaritza-erabilera intentsiboak asko pobretua, nekazaritzarako egokiak ez diren gune batzuk okupatzen dituen garriga mediterraneoak eta kokapen fresko eta hezeagoak okupatzen dituzten erkamezti urri eta txikiek ordezkatzen dute.
– Abarizti eta erromero-sailek eraikitzen dituzte sastrakadi esanguratsuenak, eta larre xerofiloak hazten dira horien ordez, gizakiaren eskuak eragindako suteek suntsitzen dituztenean.

1.5. BESTELAKOAK[5]

EAEko substratu geologikoak ez du aberastasun askorik eskaintzen, lehengai edo energia-iturriei dagokienez. Hala ere, Bizkaiko burdina (Gallarta) eta Maeztuko asfaltoak (Araba) dira ustiapen garrantzitsuenak.

Ur-oparotasuna da ondasunik[6] nabarmenetarikoa. Batetik, eremu mediterraneo eta azpimediterraneoetan izan ezik, baso-ekoizpenerako aprobetxa daitekeen landaredi naroa ahalbidetzen du, tokiko zein atzerriko espezieei dagokienez. Baldintza klimatiko hauen arabera, eremu atlantikoa basogintza eta abeltzaintzara zuzentzen da, eta eremu mediterraneoa, aldiz, nekazaritzara.

Topografia malkartsu eta malda handiek zerikusi zuzena dute lurren higaduran. Lurren erosioa eta arroen uhartasuna dira arrisku nagusiak. Basogintzako jarduera ezegokiek (matarrasaren erabilera, lurpeko lanketak landaketetan eta baso-pistak kontrolik gabe eraikitzea) fenomeno kaltegarri hori laguntzen dute. Lurraldearen

5. Galdós eta Ruiz, 2008: 63-65.

6. Erreferentziatzat hartutako liburuan baliabideez hitz egiten denero, guk ondasun esango dugu, liburu honetako 3. atalean azalduko den bezala.

% 2,7 higadura-prozesu larrien eraginpean dago, eta lurraldearen % 26,2 neurriko higadura-prozesuen eraginpean[7].

Giza jarduerak daude desoreka nagusien atzean:

- Eraikuntzek ibai kantauriarren ibarrak ia guztiz okupatzen dituzte, uholde-arrisku sorrarekin.
- Ibaien eta atmosferaren kutsadura-mailak onartezinak dira.
- Akuiferoen kutsadura.
- Sistema ekologiko zinez konplexu eta delikatuen kostako eta estuarioetako eremuen antropizazioa.
- Espezie bakarrez osatutako basotzeak, sute eta izurriteekiko sentikorrak.
- Paisaia-inpaktu ugariak.
- ...

7. Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen higadura-mapa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, 2005.

2. Euskarri horrek zeri bide eman dio? Bide horrek nola moldatu du euskarria?

Coste de la no agricultura en el País Vasco[8] liburuak planteatutakoari jarraituz, «lurraldearen eta biztanleriaren arteko binomioaren dinamika aztertzea beharrezkoa da zeren biztanleria horrek burututako presio handiago edo txikiagoak, eta habitataren gaineko eskakizun eta eskariak zein jarduera ekonomikoenak, lurralde-eremu batzuetan produkzio-jardueretara eramaten baitu presio hori, are gehiago nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretara, zeintzuen produkziorako baliabiderik funtsezkoena lurra den, eta modu gutxi gorabehera orokorrean, landa ingurunera» (Murua *et al.,* 2006: 29)[9]. Hori dela-eta, azpiatal honetan binomio horren nondik norakoak aztertuko dira, jarduera ekonomikoen bilakaeran, demografia-garapenean, migrazio-fluxuetan eta horietatik eratorritako fenomenoetan oinarrituz.

2.1. DEMOGRAFIA

XX. mendean zehar eta XXI. mendearen hasierako urteetan izan zuen EAEk bere historiako hazkunde demografiko gorena. Hiri-industria eta landa-eremuen arteko kontraste espazialik handienak hedapen industrialeko urteetan izan ziren, 1950-1975 artean. Industria-jarduera udalerri gutxi batzuetan polarizatzeak emigrazio-korronte garrantzitsu bat eragin zuen, bai probintziako bertako landa-eremuetatik bai Espainiako beste eskualde batzuetatik.

Honela laburbil daiteke XX. mendeko demografia-bilakaera EAEn[10]:

– Hiru demografia-ziklo handi:

- XX. mendearen hasieratik Gerra Zibilera artekoa.
- Industria Iraultzatik 70eko hamarkadara artekoa.
- 80ko hamarkadako industria-krisian egindako birmoldaketa eta jaiotza-tasen beherakadari dagokiona.

8. Murua, J.R. *et al.* (2006): *Coste de la no agricultura en el País Vasco,* Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz [ISBN 84-457-2441-X].

9. Egileak itzulia

10. Picavea Salbide, P.: *La poblacion del País Vasco : pasado, presente y futuro,* <http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur16/16picav/16picav.htm> [kontsulta: 2015-12-16].

– Eredu ezberdin bi:

- Kostakoa: dinamikoa, mende-hasieratik jasotzen du hazkuntza-tasa handia.
- Barrukoa: atzerapenarekin batzen zaio modernizazio industrialari.

Kasu bietan gertatzen da lehen sektoreko eskulana eskulan industrial bihurtzeko birmoldaketa. Egungo krisialdiak batean zein bestean duen eragin ezberdinak 60ko hamarkadako demografia-prozesuaren intentsitatearekin du zerikusia.

– Hazkunde begetatiboa eta migrazioak dira bilakaeren eragileak.

  Migrazioek paper garrantzitsua jokatu dute biztanleriaren garapenean.

– Eskualde-desoreka handiak.

  Tamaina handiko metropoli-eremuen aurrean, jendez hustutako Araba barrualdeko eremuak existitzen dira batetik, eta Gipuzkoako lurraldeak bestetik, non biztanleria modu orekatuagoan banatzen den. Hori dela-eta, hiriburuek egiteko ezberdinak dituzte.

2.1.1. Aldaketak, testuingurua

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak[11] liburuko «Kontraurbanizazioa EAEn: lurralde-antolamendu orekaturako arazoa» kapituluan, Roberto Torres Elizburuk modu argian jasotzen du demografia-joeretan izandako aldaketaren testuingurua:

> Industrializazio goiztiarra izan zuten herrialde garatu gehienetan antzeko fenomenoak antzematen hasi ziren; dentsitate handiko hiriguneetan populazio-hazkuntza ahuldu edo zentzu negatiboa hartzen zuen bitartean, inguruetako herri eta hiri txikietan populazio-hazkundeak nabarmenduz joan ziren. Beste era batean adierazita, populazioaren deskontzentrazio-prozesu bat gertatzen hasi zen, ziklo ekonomikoaren aldaketarekin harremanetan omen zegoena: aldi industrialean zehar populazio zein jarduera ekonomikoen kontzentrazio espaziala nagusitu zen bitartean, aldi postindustrialari populazio zein jardueren deskontzentrazioa zegokion. Aurreko hamarkadetako landa-exodoak faktore ekonomikoekin harreman handia izan zuen, baina egoera berri honetan eragiten duten faktoreak desberdinak dira: familien ahalmen ekonomikoaren handitzea, garraiobide zein telekomunikabideen garapena, hiri-lurzoruaren prezioaren garestitzea, baita hainbat faktore psikosozial ere (landa-esparruen birbalorizazioa, adosatu edo eraikin atxikien moda...) (Torres, 2010: 115).

EAEn aurreko mendeko azken hamarkadatik aurrera hasi zen hautematen era argian, eskualde-mailan bai, baina udalerri-mailan batez ere, 80ko hamarkadatik zetorren joera. Populazioaren mugimenduetan sumatutako tendentzia-aldaketak aurreko hamarkadetakoekiko kontrako zentzua zuen. Ordura arte landa-espazioetatik

11. Arbaiza, J.K. eta Lozano, P. (2010): *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak,* UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7].

eremu hiritarretarako noranzkoa zuen migrazioa nagusi bazen ere (landa-exodoa), hirietatik atera eta landa-eremuetara abiatzen zen populazio-korronte berria agertzen hasi zen.

2.2. LURRALDE-DINAMIKAK

> Lurralde-kontrasteak sortzen dira eskualde eta udalerrien artean denboran zehar gailendu diren prozesu sozioekonomiko eta espazialen arabera: industrializazioa, urbanizazioa, nekazari-exodoa, periurbanizazioa suburbanizazioa eta tertziarizazioa (Galdos eta Urrestarazu, 2008: 187)[12].

2.2.1. Biztanleria-dinamikek eragindakoak

Eztabaida eta arazo kontzeptual ugari sortu ditu 2.1.1. atalaren amaieran deskribatu berri den joera horren izendapenak, eta emaitza bezala xehetasun zehatzak jasotzen dituzten izendatze ugari topa daitezke gaur egun. Ondoren, nagusiak jasoko dira:

- Desurbanizazioa (Van den Berg, 1982): hiri-biztanleriaren desazkunde-prozesu orokorra.
- Exurbanizazioa (Van den Berg, 1982) [13]: hiri-kokaleku handietako biztanleriak kokaleku handi horiek uztea kokaleku txikiagoetan kokatzeko, oro har, horien eragin-eremuan.
- Kontraurbanizazioa (Berry, 1976): urbanizazio-prozesuaren erabat kontrakoa den adierazpena. Hiritik espresuki modu ezberdinduan sortutako habitat-eremu berrien agerpenean datza. Hiriarekiko urruntasunak, dentsitate baxuak eta nolabaiteko homogeneotasunak bereizten ditu.
- Rururbanizazioa (Bauer, G eta Roux, 1976): hirietatik gertuen dauden landa-eremuen urbanizazio-prozesua. Hiri handienen inguruetan 30 minutuko isokronora hel daitezke, baita gehiago ere.

Prozesu berriez gain, espazio edo gune berriak ere izendatu dira[14]:

- Periurbanoa: hiriaren inguruan kokatzen den lursailen zerrenda, zeinak berez hiri-eremuarenak diren lurzoruen erabilerak (industria, zerbitzu, bizitegi) landa-eremuarenak propio direnekin partekatzen dituen (nekazaritza, abeltzaintza).

12. Egileak itzulia

13. Desurbanizazioaren beste forma bat dela ulertzen du egile honek.

14. Hiru termino hauek hemendik jaso dira: <http://www.erf.cat/php/cas/print.php?id_text=142> [kontsulta: 2015-10-31]. Egileak itzulia.

– Paraurbanoa: teorian hiri-lurzoruak ez diren eremuetan eraiki eta finkatzen den eta ezaugarri hiritarrak dituen espazioa da.
– Vorurbanoa: zehazki hiritarrak diren guneen eta gune rururbanoen artean hilzorian dauden hondar-landaguneak.

Liburu honetan «kontraurbanizazioa» terminoa erabiliko da fenomeno hori izendatzeko.

2.2.1.1. Kontraurbanizazioa EAEn

1991. eta 2006. urteen artean EAEko udalerriek izan duten hazkunde demografikoaren intentsitatea eta haren banaketa espaziala jasotzen dituzten mapa eta grafikoak egin ditu Torresek.



2.1. irudia. Populazioaren hazkundea ehunekoetan 1991-2006.
Iturria: Torres, 2010: 117.

Jakina da populazioaren hazkundea mugimendu naturalak eta migrazio-mugimenduak osatzen dutela. Bada, migrazio-saldoak direla-eta, orain dela hamarkada eskas bat arte saldo negatiboak zituzten landa-izaerako eskualde gehienek saldo positiboa erakusten dute orain.

EAEko udalerriak beren populazioaren tamainaren arabera taldetan antolatuta azaltzen dituen grafiko bat dakargu jarraian, talde bakoitzaren joera bereizteko (Torres, 2010: 118-119).

20.000-100.000 biztanle arteko udalerriek galera demografikoak jasan dituzte migrazioak direla-eta, galdu egin dute jadanik industrializazio-garaian zuten erakargarritasuna.

20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek hazkunde nabarmena ezagutu dute; oso deigarria da 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kasua; izan ere, ez dute hazkunde-tasa handirik saldo naturala oraindik negatiboa dutelako, baina migrazio-saldoa ikaragarri altua dute, neurri handi batean udalerri txiki hauek izan direlako udalerri dentso eta industrializatuenetatik ateratako populazioa hartu dutenak.

Kontraurbanizazioaren funtsezko ezaugarria azaltzen da beraz: hirigune handi eta ertainek (3 hiriburuak izan ezik) populazioa galtzen dute hiri txiki eta herrien alde.



2.1. grafikoa. Populazioaren batez besteko urteko hazkunde-tasa eta haren osagaiak 1991-2006. Iturria: Torres, 2010: 119.

2.2.1.1.1. Barne-migrazioen pisua

Aztertzen gabiltzan fenomeno honen barnean, udalerri txikietan eta landa-inguruneetan kokatzen den populazioaren zati handi bat hiri-inguruneetan bizitzetik dator, eta horren ondorioz barne-migrazioek funtsezko garrantzia dute. Barne-migrazioak bakarrik kontuan hartzen dituen Torresek egindako beste mapa bat dugu hemen:



2.2. irudia. Helburuko barne-migrazioen urteko batez besteko tasa 1991-2006. Iturria: Torres, 2010: 120.

Liburuan bertan egiten den interpretazioarekin bat, ondorengoak dira udalerri erakargarrienak populazioarentzat: Gasteiz inguratzen duten nekazari-udalerri guztiak, bai eta Gasteiz-Miranda ardatzean daudenak ere, Bizkaiko Eskuinaldeko udalerriak (Plentzia-Mungia eskualdea eta Urdaibai inguruak) eta Gipuzkoan Donostialdeko eta Tolosaldeko udalerri bakan batzuk N-1 ardatzaren inguruan (Torres, 2010: 119).

Populazio berriaren kokapenak lurraldearen gain duen lehendabiziko eragina etxebizitzen hazkundea izaten dela azpimarratzen du Torresek, hiritartze-prozesua alegia, eta prozesua intentsitate handienaz jasan duten udalerri askotan gaur egun dauden etxebizitzen laurdena baino gehiago azkenengo bi hamarkadetako eraikinak izan direla, etxebizitza berriek gehienetan gune tradizionalarekin zerikusi gutxi dutelarik (Torres, 2010: 119-120).

Kontraurbanizazioak hasiera batean landa-eremuen berpizkundearen ideia iradoki badiezaguke ere, errealitatean landaren heriotzaren ideiatik hurbilago dago. Bertara bizitzera hurbiltzen direnek ez dute inguru horrekin lotutako aktibitateetan ekiteko asmorik. Aurreko garaietako landatik hiriguneetarako migrazioak motibazio ekonomikoek sustatu bazituzten ere, oraingo kontrako joera, aldiz, klase-, pertsona- eta familia-espektatibek eragiten dute. Are gehiago, datu esanguratsu bat: «EAEko landa-eremuko udalerrien % 82,7an, udalerriaren barruan lan egiten duten biztanleen kopurua % 50 baino txikiagoa da» (Murua *et al.,* 2006: 59)[15].

15. Egileak itzulia.



2.2. grafikoa. Etxebizitzen hazkundea 1991-2001. Iturria: Torres, 2010: 120.

Ildo berberari jarraituz, ondorengo ezaugarriak azpimarratzen dira *Coste de la No Agricultura en el País Vasco* liburuan (Murua *et al.,* 2006: 67)[16]:

- Bizitegien eskaintza biztanleria dinamizatzeko garrantzi handiko faktorea da landaguneetan.
- Egun, landa-eremuko udalerri batean kokatzeko orduan, lanpostuen eskaintza eta lan egiteko aukera ez dira faktore erabakigarriak. Biztanle etorri berriek gune hiritar edo erdi-hiritarretako lanpostuak mantentzen dituzte. Pisu handiagoa dute sarbide ona eta zenbait zerbitzu izateak, ingurune erakargarrian kokatuta egoteak edo gune hiritar edo erdi-hiritarren batetik gertu izateak.
- Biztanleriaren dinamikaren eta nekazaritza-jardueraren arteko harremana nahikoa ahula da gaur egun, eta edonola ere, aurki daitezkeen loturek zeharkakoak izateko joera izango dute.

Gizarte hiritarrak inkontziente kolektiboan eraman izan du landa-eremuarekiko irudi idilikoa (*rural idyll*). Horrek eragin berezia izan du industrializazio-aro biziaren ondoren hustutako guneak kolonizatu nahi izateko orduan.

Deigarriak dira, landarako buelta horretan parte hartu dutenen profilek dituzten atributu komunak: formakuntza eta kualifikazio profesional altua, eta familia-prototipo oso zehatza (heldu bi eta haur bat edo gehiago) (Torres, 2007: 85-105).

2.2.1.1.2. Ezaugarri nagusiak

Kontraurbanizazioaren ezaugarri nagusiak honela laburbil daitezke (Torres, 2010: 121-122 orrietan oinarritua):

16. Egileak itzulia.

- Dentsitate baxuko formak izaten dira.
- Kokatzen diren guneetan integrazio eskasa izaten dute.
- Askotan modu sakabanatuan egituratzen da.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako lurren erabilerarako espazioa atzera bueltarik gabe okupatu eta zatitzen du.
- Lursailek nekazaritza-balioa galdu eta eraikuntzaren merkatuan sartzen dira; beraien erabilera espektatiba urbanistikoen menpe geratzen da.
- Urteetako ingurunearen kudeaketak sortutako paisaiak eraldatzen dituzte.
- Eredua eraginkorra ez izateaz gain, garestia da. Zerbitzuen hornidura askoz arazotsuagoa da.

Torres Elizburuk kontraurbanizazioaren hedapenaren arriskuetako bat hiritartze difusoa (Indovina) dela ohartarazten digu bere kapituluan, eta edozein espazio erresidentzia berriak eraikitzeko bidera badaiteke, lurralde osoa espazio hiritartu ez-jarraitua izango dela, hiri-espazioaren eta landa-espazioaren arteko muga edo trantsizioa erabat ezabatuz.

2.2.1.1.3. Hiri-espazioa, landa-espazioa. Muga?

Muga horien inguruan,

> lehen landa-lur eta hiri-lur kategorien arteko ertza horma zen bezala, hots, lerro fisiko eta administratibo zehatz bat, denborarekin, lerro abstraktu bihurtu, eta fisikoki eremu bilakatu da, zabaldu eta loditu ere. Hiri kontsolidatu eta diskretuaren ereduaz gain, beste hainbat eredu azaldu direnez gero —dispertsoak, geruza aniztunak, mundu-mailakoak, tartekoak— hiri-ertzaren kontzeptua aniztunagoa da egun. Lerro administratiboak mantentzen baldin badira ere, materialtasunari, formari eta kontzeptuari dagokienez ere, hiriarekin batera ertza zabaldu eta konplexuagotu egin da[17].

Gauzak horrela, eta EAEko izaera artifizializatuari erreparatuz, landa-eremua/hiria dikotomiak zentzua galtzen du, ertzeko lerro zabalago horretan elkarrekin bizi baitira biak[18]. Egungo arazoa bizikidetza horren baldintzak dira, elkarbizitza zintzotik baino bortxatik duelako gehiago, landa-eremua hiriaren euskarri fisiko soiltzat hartuz: landa-eremua, hiriak nahi ez duen bitartean hiria ez den hori da antza, berariazko ezaugarririk gabea, inolako ahotsez gabetua.

17. Maider Uriarte Idiazabalekin izandako solasaldian jasotako informazioa, bere *Paisaia-ikuspegia eta bere Lau Dimentsioak: Metodo Interpretatzaile konstruktibista baten proposamena Bilboaldeko Hiri Bazterreko Paisaia menditsuen kasuan aplikatua* doktoretza-tesiaren inguruan (2015).

18. Bien arteko talka-espazioez ari gara hemen, argi dago ezaugarri erabat ezberdinak dituzten hiri- eta landa-eremuak existitzen direla. Baina kasu horietan ere, zein aspekturi erreparatzen diogun, mugak ez lirateke hain zurrunak. Non legoke hiriaren eta landaren arteko muga, bizimodu eta bizimolde hiritarrei eusten dien pertsona talde bat eremu landatar baten erdian kokatzen denean?

Eta, egile berak, hedadurari dagokionez,

> hiriak ez duela ertzik eta ezin dela isolatu hiria dena eta hiria ez dena; ezin berezitu daitezkeela eremu landatarra eta eremu hiritarra, alegia (Schmid, 2005). Beste modu batean esanda, hiria lurralde osoan zehar barreiatu egin dela, mundu-mailako eragin-esparrua hartu duen arte (Brenner & Schmid, 2011) (Uriarte, 2015: 489).

2.2.1.1.4. Formak

Esparru bakoitzean nagusitzen diren habitatak formaren araberakoak izango dira (Torres, 2010: 122):

– Isurialde mediterraneoan

  Habitata bildua da, herrixka txikietan biltzen delako populazioa; prozesua herri hauen periferietan gauzatu da, txaletez osatutako bizitegi-auzo berriak gune tradizionalari atxikitzen zaizkiolarik.

– Isurialde atlantikoan

  Herri nagusietan antzeko formak hartzen ditu, baina herrixka txiki zein baserri-auzoetan, prozesua forma sakabanatuago batean gauzatzen da. Etxe berriek jatorrizko larreak okupatzen dituzte, eremu hiritartuak trinkotasun eskasa duelarik, partzela hiritartuak oraindik nekazaritza-erabilera mantentzen dutenekin tartekatu egiten direlako. Isurialde atlantiko honetan, berezko habitat sakabanatua, partzelen nekazaritza-balioen erabateko desagerpena eta ondoren aztertuko dugun landaguneen figura juridiko berezia izan dira hiritartze difusoaren eragile nagusiak.

  Urbanizazio barreiatuaren bigarren bektore hori da landa-inguruari gehien eragiten diona.

2.2.1.2. Urbanizazio barreiatua eta lurralde-antolamendua

> EAEko hiri-eremuetako asko azalera lau eskaseko eta malda handiko mendi-mazelak dituzten bailaretan kokatzen da. Dentsitate handiei plangintza eza gehitzen zaie, eta hiri-nahasmenduari ingurumen-kutsadura. Demografia-mugimendu hauen oinarrian hiri-lurzoruen garestitzea eta biztanleriaren zati batek kalitate hobea duten bizitegi-espazioak izateko nahia daude, higiezinen eta eraikuntzaren sektoreek ekonomiaren hazkundearen sasoian izandako aparteko dinamismoarekin batera. Xede diren tokien etxebizitza-parkeak gora egin du, eta bereziki kezkagarria den zerbait da, aukeratzen diren dentsitate baxuko morfologiak direla-eta, lurzoruaren kontsumo altu batean oinarrituta egiten baitira. Urbanizazio hauek eraikin berriok landa-izaerako espazioan integratzeko saiakeran aurkitzen dute justifikazioa (Ainz *et al.,* 2011: 373)[19].

19. Egilearen itzulpena.



2.3. irudia. Urbanizazio barreiatua EAEn. Iturria: Ainz *et al.,* 2011: 373.

Baina zein da integratu nahi direneko landa-eremu hori?

Landa-eremu eusko-atlantikoaren berezko populatze barreiatuan, erabat isolaturik dagoen baserria, normalean 4 eta 8 baserriz osatutako taldekatze txikiekin aldizkatzen da, 2 eta 15 unitate artekoak izan daitezkeen arren, gutxieneko espazio komun baten inguruan egituratuta eta hiri-plano batean eratzera iritsi gabe (Ainz *et al.,* 2011: 374)[20].

Laburbilduz, honela deskriba dezakegu landa-eremuen bilakaera[21]:

- Baserri hitzaren lehenengo erreferentzia XIII. mendekoa da.
- Baserriaren bidezko kolonizazio barreiatuak isurialde kantauriarraren gainontzeko eremuetakoa baino handiagoa zen lurraldearen okupazioa ekarri zuen.
- XX. mendearen hasieran, habitat barreiatua funtzionaltasuna galtzen hasi zen, baserriak nekazaritza-ustiapen modura bideragarri izateari uzten dion heinean.
- Gerra Zibilak ekarritako geldialdiaren ondoren, baserrien uzteak auzo osoak erasan zituen, industriaguneekin gaizkien komunikatutakoak batez ere.
- Garraiobideen hobekuntzak, eta bereziki autoaren orokortzeak, denbora partzialeko nekazaritza finkatzea ekarri zuen Bizkaian eta Gipuzkoan; 70eko hamarkadan baserrien uzte-prozesua gelditu eta hurrengo hamarkadan kontrako fenomenoari bide eman zitzaion.

20. Egileak itzulia.

21. Deskribapen labur bat egingo da hemen, oinarritzat hartutako artikuluan gaiaren garapen sakonago bat egiten da (Ainz *et al.,* 2011: 374-375). Egileak itzulia.

- «Baserriak modan daude» (Etxezarreta, 1977: 367). Nekazaritza-ustiapenaren gaineko interesa atzean utzita, bizitegi-erabilera aurki dezakegu moda horren zergatian. Bertan ongi azaltzen den bezala, utzitako baserri asko berreskuratu eta birgaituak izanagatik habitataren ikuspegitik baserriaren hedapen-garai berri bat zetorrela pentsa genezakeen arren, 80ko hamarkadatik aurrera, lehenagoko baserrien inguruan oin berriko familia bakarreko etxebizitza indarrez ugaritzen hasi zen, baserriaren tipologiaren jite argiarekin.

Lurraren araubide eta hiri-antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko 5/98 Legean lehenengo, eta Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzko 2/2006 Legean gero, landa-populatze horren errealitate hori[22] hirigintza-figura bezala aurkezten dute Landagune izenarekin. Figura horrek, Lurzoru Erkide eta Babestuarekin batera, Lurzoru Urbanizaezina sailkatzeko balia daitekeen hiru kategorietako bat osatzen du (Ainz *et al.,* 2011: 374)[23].

2.2.1.2.1. Urbanizazio barreiatuarekin lotutako araudia eta haren eragina

2.2.1.2.1.1. Jatorria: 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako salbuespena

Lurzoru Urbanizaezinaren eraldaketa urbanistikoa modu generikoan debekatu arren, eraikuntza eta instalazio berriei bide ematen zien (85. eta 86. art.). Horrela, Probintziako Hirigintza Batzordeak baimentzeko berariazko prozedura baten bitartez, Lurzoru Urbanizaezinean etxebizitza isolatua eraikitzeko aukera zegoen, betiere «populazio-nukleorik sortzeko aukera existitzen ez bada» (Ainz *et al.,* 2011: 376)[24].

2.2.1.2.1.1. Ondoren, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak

1997an onartu ziren LAA-ak eta garai hartan jada antzematen hasia zen fenomenoaren berri jaso zuten, bai eta hurrengo urteetan izango zuten joera aurreikusi ere. Prozesuari neurria jartzearen alde azaltzen dira hasieratik[25].

Ingurune Fisikoaren Antolaketa erregulatzen duen atalean (8.5. atala), betebeharreko determinazio inportantea jasotzen du, c3 izenekoa: «Debekatuta dago lurzoru urbanizaezinean etxebizitza isolatuak eraikitzea, nekazaritza-ustiategiari loturik daudenean izan ezik». Determinazio horrek landa-espazioan antzematen ari zen hiritartze sakabanatua eragoztea zuen helburu, batez ere isurialde atlantikoan, baserriaren eremuan. Eta prozesua arautu eta bideratzeko, «landa-inguruneko etxebizitza familiabakar edo familiabikoen eskaria landa auzuneetara edo hirigintza-arloan erabilera hori hartzeko sailkatu eta kalifikatutako eremuetara zuzendu» behar zela adierazten zuen (c4 determinazioa) (Torres, 2010: 123).

22. Landa-eremu eusko-atlantikoaren berezkoa dena.
23. Egileak itzulia.
24. Egileak itzulia.
25. Paperean behintzat.

Horrez gain, prozesuaren jarraipenak etorkizunean ekar zezakeen arriskua ere aurreikusten zuen: «Lurzoru urbanizaezinean etxebizitza familiabakarrak eraikitzeko bat-bateko joera geldiarazten ez bada, urte gutxi barru erabat aldatuko da EAEren fisionomia eta paisajea eta oso eragin negatiboak sortuko dira Ingurune Fisikoan» (10.1. atala), eta «Hirigarri ez den lurrean debekatuta dago familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren erabilpena, nekazaritza eta abeltzaintzaren baliabideak ustiatzeari atxikita daudela, fidagarritasunez, egiaztatzen den kasuetan izan ezik» (10.1 art).

> Debeku horri ez zitzaion erantsi nekazaritza-ustiapen bati nahikoa lotura zer zen definitzen zuen inongo arau orokorrik, hortaz, berriro ere interpretazio-irizpideaz baliatu beharra egon zen, harik eta Lurzoruaren 2/2006 Legeak adierazle arauemaile objektibo bat sartu zuen arte, zeinaren arabera, aurkeztutako azkeneko errenta-aitorpenean, eskatzaileak diru-sarrera arrunten % 50 baino gehiago baratzezaintzako edo abelazkuntzako ustiategitik lortu behar dituen (31.1.c art) (Ainz *et al.,* 2011: 376)[26].

Aipatutako autore horiek eginiko honako adierazpen hau kontuan hartzekoa da:

> Zur aski, hala ere, lurzoru urbanizaezinean etxebizitza isolatua eraikitzeko baimena lortzeko helburu soilarekin ez zen amaituko nekazaritza-ustiapenen erosketa edota sorrerarekin, eta araudiaren gogortzeak bide eman diezaioke paisaia-balio handiena duten eremuetako gentrifikazio-prozesu bati (Ainz *et al.,* 2011: 376)[27].

Gaur egun,

> lurzoru urbanizaezineko *urban sprawla* LAGak onartzeko Dekretuak berak jasotako aukera batetik abiatuta gauzatzen da batez ere, zeinak «familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuen eskaria baserrialdean, erabilera hori jasotzeko hirigintzaren aldetik sailkatuta eta kalifikatuta dauden baserri-gune edo eremuetara jo behar dela» adierazten duen (10.2 art.). Bertan aipatutako baserri-gune edo eremuak (hemendik aurrera landagune esango diegu) baserriz osatutako auzo txikiak baino ez dira, guztiz sakabanatutako baserriekin batera, landa habitat eusko-atlantikoa osatzen dutenak (Ainz *et al.,* 2011: 377)[28].

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak liburuko «Kontraurbanizazioa EAEn: lurralde-antolamendu orekaturako arazoa» kapituluan adierazten den bezala (Torres, 2010: 123),

> LAAek prozesua arautu eta bideratzeko xedea bazuten ere, asmo horiek aurrera eramateko instrumentu zehatzik ez zuten. Gainera, hurrengo urtean garai horretan indarrean zegoen Lurzoruaren Legea osatzeko 5/1998 Legea aprobatu zen, Lurraren Araubide eta Hiri Antolaketaren arloko Presako Neurriak zehazteari buruzkoa. Horrek lur urbanizaezinarentzat zenbait kategoria eta hainbat arau jasotzen zituen. Horien artean, «Baserri Aldeko Lur ez Hirigarria» kategoria legeztatu zuen, espazio publiko baten inguruan bildutako sei baserri edo gehiagoko multzoaz osaturiko espazioa, hain

26. Egileak itzulia.
27. Egileak itzulia.
28. Egileak itzulia.

> zuzen ere. Landagune horiek Lur Ez Hiritargarriaren parte izan arren, aprobetxamendu urbanistikoa izan zezaketen, aurretik zegoen etxebizitza kopuruaren bikoitza gainditu gabe, eta betiere gehienezko tamaina 30 unitatetan ezarriz. Aldi berean, planeamentuak ezin zuen eremu horietan ekipamendu edo zabalgune berririk definitu, ezta trazadura berriko bide publikorik ere. Hortaz, garapen urbanistiko berriak posibilitatzen dira landa-eremuetako baserri-auzoetan, baina azpiegitura berrien sorrera galarazten da. Gainera, juridikoki Lur Ez Hiritargarria denez, ez dago karga urbanistikorik ez eta lurzoruaren portzentaje bat lagatzeko obligaziorik ere udalaren alde, lurzoru hiritartu eta hiritargarriaren kasuetan bezala[29].
>
> Lege honek isurialde atlantikoko auzoen hazkundea bideratu du kasu askotan, harik eta 2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Lege berria aprobatu arte, gaur egun indarrean dagoena. Lege horretan ere, aurrekoan sortutako «Baserri Aldeko Lur ez Hirigarria» kategoria hura mantentzen da, baina haren aprobetxamendua apur bat murriztu da, hazkundea aurretik zegoen etxe kopuruaren % 50eraino murriztu egin delako, gune bakoitzean 25 unitateren muga ezarriz, lehenik zeudenak eta berriak batuta.

2.2.1.2.1.3. Landaguneak: zer eragin ditu hirigintza-figura honek?

«Dispersión urbana en el Suelo No Urbanizable del País Vasco: la distorsión del planeamiento en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai» artikuluak zera azaltzen du:

> Lurzoruaren euskal legerian, landaguneak landa-udalerri kontsideratutako hiri-lurzoruetan kokatzen diren guneetatik ezberdindu behar dira, azken horiek gainontzeko hiriguneen araubide juridiko berdin-berdina baitute. Landaguneen kalifikazio hori gorago aipatu diren baserrien multzokatze txikiei ematen zaie, Lurzoru Urbanizaezinean kokatzen direnak. Beraien berezitasuna zera da, lurzoruaren sailkapen honen barnean egon arren, legeak nekazaritza-ustiapenekin lotzen ez diren bizitegi-hazkunde berriak baimentzen dituela. Paradoxikoki, erregimen berezi hau lurzoruaren legeriak eta lurraldearen antolamenduak Lurzoru Urbanizaezinari esleitzen dizkioten helburu estrategikoekin kontraesanean dago (Ainz *et al.,* 2011: 377)[30].

Artikuluak hitzez hitz itzuli eta gureganatzea merezi duen arren, landa-eremuaren urbanizazio barreiatua era nabarmenean elikatu duen eta lur-jabe askoren espekulazio-nahiak gorpuztu dituen gai zehatz batean jarri nahi dugu arreta, hirigintza-figura horrek lurraldean dituen ondorioetan, hain zuzen. Landaguneen nondik norakoa sakon aztertu ondoren, artikuluak honela dio:

> Salbuespena arau orokorra bihurtzearen bidetik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 29. artikuluak Landaguneentzat berariazko araubide bat ezartzen du, eta honela definitzen dira: «6tik 25era arteko baserri-multzoa, izaera ematen dion eremu publiko baten inguruan bildua». 5/98 Legearekiko, Landaguneentzako muga 30 etxebizitzatik 25era murrizten da, eta hortik aurrera legeak[31] anbiguotasunera irekita uzten du hiri-lurzoru bezala sailkatzeko aukera «lege honen arabera hala dagokionean»

29. Aurrerago sakonago aztertuko da gai hau.
30. Egileak itzulia.
31. 2/2006 Legeak.

(29.2 art.)[32]. Hortaz, legegileak udalerriko lehia urbanistikoaren eskumenean uzten du guztiz landagune bat Hiri Lurzoru izatera pasa daitekeen, edota Lurzoru Urbanizaezin bezala gelditu, bertako 11. artikuluan ezarritako bi baldintzen elkartzea nola balioesten duen: lehendik dagoen hiri-bilbean sartzea, eta hiri-zerbitzuak finkatuta izatea, biak ala biak zehatzak ez diren kontzeptu juridikoak.

Zehaztugabetasun hori ez dago ondorioetatik libre, lurzoruon araubide juridiko-ekonomikoen artean funtsezko ezberdintasunak baitaude, zeintzuen emaitza landaguneen garapenerako araubide pribilegiatu bat den (Ainz *et al.,* 2011: 379-380)[33].

Pribilegio horiek klarki ageri dira ondorengo taulan:

	Aprobetxamenduaren banaketa	Derrigorrezko lagapenak	Estandarrak: Babes Publikoko Etxebizitzak
Hiri-lurzoru finkatugabea eta lurzoru urbanizagarria	% 85 pribatua % 15 publikoa (EAEko 11/08 Legea)	Bideak, espazio libreak + sistema orokorrak + urbanizazioa (EAEko 2/06 Legearen 25. art)	BPE % 40 hiri-lurzorua eta BPE % 75 lurzoru urbanizagarria (EAEko 2/06 Legearen 80. art.)
Lurzoru urbanizaezineko landagunea	% 100 pribatua (EAEko 2/06 Legearen 27. eta 29. art.)	Ez dago obligaziorik	Bat ere ez

2.1. taula. Lurzoruaren eta Landa-guneen Araututako Garapenen Legezko Betebeharrak. Iturria: Ainz Ibarrondo, M.J. *eta al.,* 2011: 380. Egileak itzulia.

Hortaz, onurak argiak dira: hasteko, lur-jabeak ondare bihur dezakeen hirigintza-aprobetxamenduaren aldea % 15ekoa da.

5/98 Legeak landaguneen hirigintza-hazkundea baimendu zuen, kokatzen zireneko landa-izaerako lurzoruarekin inolako erlazio funtzionalik gabeko eraikuntzekin. Hortaz, lur-jabeak lursailak higiezinen merkatuan sal zitzakeen eta kontuan hartzeko bezalako mozkinak lortu gero eta baloratuagoa den kokapen pribilegiatuagatik, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien lur-jabeei dagozkien karga-sistemak ezartzen ez zaizkionez, komunitateak gainbalio horietan parte hartu beharrik gabe. Horri, beste ezberdintasun garrantzitsu bat gehitu behar zaio: urbanizazioaren egikaritze-kargen salbuespena, eta udalari doaneko lagapenik egin behar ez izatea (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 25. art.).

32. «Etorkizunari begira, eta legean adierazten ez diren baldintza eta irizpideak direla medio, landagune hauen birklasifikazio urbanistikoa gauza daiteke, haien tamaina mugarik gabe handitu daitekeelarik. Horrela, aurretik baserri-auzo txikiak ziren asko trinko hiritartutako bizitoki-eremu soil bilakatu ahal izango dira, Lurzoruaren Legeak ematen dituen aukera horiek aurrera eramaten badira» (Torres, 2010: 123).

33. Egileak itzulia.

LAGek kalkulu-eredu bat dute, zeinak ezartzen baitu hirigintza-plangintzak eskain ditzakeen gehienezko etxebizitza kopuruaren arauzko-muga loteslea. Kalkulurako arau horrek ez ditu gehienezko eskaintza horren barruan hartzen landagunean planifikatutako etxebizitzak. Ondorioz, landaguneak ugaritzen ari diren udalerrietan etxebizitzen gain-eskaintza bat dago, zeinak, aurrez azaldutako eran, lurzoru urbanizagarriak sustatzen ez diren hirigune txikietan eragiten duen, lehenago aztertutako kostuen aldea dela-eta, eta, finean, zerbitzugune gisa jardungo duen gune egituratzaile baten sorrera galarazten du. LAGek 2015ean jaso dute Egoitza Kuantifikazioari dagokion aldaketa, eta bertan landagunean planifikatutako etxebizitzak jaso gabe daude oraindik[34].

Torresek aurrez aipatutako kapituluan ohartarazten duen bezala, «arazoa oso konplikatua da, fenomeno honen gainean eragiten duten interesak oso desberdinak eta kontrajarriak direlako». Gatazkaren gakoa eskalan kokatzen du gainera.

> Eskualde-eskalatik ikusita, agintariek eta populazioaren gehiengoak, prozesuaren arriskua hautematen dute, eta hura arautu eta erregulatzeko neurrien alde agertzen dira. Baina eskala lokalean gauzak beste era batera ikusten dira; izan ere, udalerri txiki hauetan jendearen arteko harremanak estuak eta aspaldikoak izaten dira, eta arazo hauen aurrean hartzen diren erabakiek sarritan guztiok konforme uztea bilatzen dute (Torres, 2010: 124).

2.2.1.2.1.4. Landaguneen zerrendak

Landagune kopurua zenbatu eta zehazteari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ondorengoa jasotzen du 29.7 artikuluan: «Foru-aldundiek beren lurralde historikoetan dauden landaguneen zerrendak egingo dituzte, landaguneak dituzten udalei entzun ondoren». Zerrenda horien helburua landagune berrien kalifikaziorako muga izatea da, ekainaren 3ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak 7.2 artikuluan ezartzen duen bezala: «Hirigintza-plangintzan ezin izango da landagunerik aurreikusi, adierazitako inbentarioetan izaera hori ez badute».

Foru Aldundiei 2006tik indarrean dagoen obligazioa betetzeak luze jo diela azpimarratu beharra dago, eta horietako batek, Gipuzkoak, oraindik bete gabe duela 9 urteren ondoren.

2.2.1.2.1.4.1. Araba

Berau betetzen lehena Araba izan zen. 78/2009 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, behin betiko onartu zen Arabako lurzoru urbanizaezineko landaguneetako inbentarioa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

34. Agindua, 2015eko maitzaren 27koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baita behin-behineko moduan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroak aldatzea, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

2.4 irudia. Arabako landaguneak. Iturria: Arabako landaguneen zerrenda, Arabako Foru Aldundia, 2009.

2.2.1.2.1.4.2. Bizkaia

Bost urte beranduago, Bizkaiko Foru Aldundiak bertako landaguneen zerrenda-proposamena aurkeztu zuen Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean, 2014ko ekainaren 20an[35]. Landa guneen fenomeno hau bereziki nabarmena da Bizkaian, eta honela adierazi zen: «Landa guneen fenomenoa oso garrantzitsua da, lurralde historikoan horrelako gune asko daudelako, zehazki esateko, indarrean dagoen plangintzaren arabera 540 inguru».

Aldundiak egindako zerrendaren aurkezpenean, jarraitutako prozedura azaldu zen:

> Udalerriek landa guneen inbentarioaren edukiei buruz gehiago jakin eta dibulgazio zabalagoa emateko, eta segurtasun juridiko hobea izateko, Foru Aldundiak inbentarioaren hasierako azterlan bat bidali zien Bizkaiko udalerri guztiei, soilik 213 landa gune zituena katalogatuta, horiek baitziren eskatutako baldintzak betetzen zituzten landa guneak.

35.<http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=13513&Idioma=IN> [kontsulta: 2015-11-07].

Udalek lehendabiziko proposamen horiek aztertu eta ekarpenak egin ondoren, Aldundiko Gobernu Kontseiluak, aurtengo (2014ko) martxoaren 11n, Bizkaiko Lurralde Historikoko Landa Guneen Inbentarioa onetsi zuen; bertan, alegazioak aurkezteko hiru hilabeteko epea ezarri zen, udalek egokitzat jotako alegazioak aurkez zitzaten. Hala ere, tokiko entitateei erraztasunak emateko, ekainaren 10ean alegazioen epea hilabete eta erdiz luzatu zen; hala, epea abuztuaren 10ean bukatuko da. Alegazioak aztertu eta ebaluatu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak inbentarioa behin betiko onetsiko du.



2.5. irudia. Bizkaiko landaguneak. Iturria: Bizkaiko landa guneen zerrendaren hasierako onespena, Bizkaiko Foru Aldundia, 2014.

2.2.1.2.1.4.3. Gipuzkoa

Gipuzkoan, ordea, zerrenda burutu gabe dago. 2014ko maiatzaren 28an, Eusko Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi zion landaguneen zerrenda onartzeko izapidetzeak hasi ez zituela, eta kudeaketa hori «lehenbailehen» burutu beharko zuela azpimarratu[36].

2.2.1.2. Lurralde-desoreka (gehiago)

2.1. atalean XX. mendeko demografia-bilakaeraren ezaugarriak izandatzean, eskualde-desorekak aipatu dira. Baina udalerri-mailan ezberdintasunak are handia-

36. <http://m.noticiasdegipuzkoa.com/2014/05/29/sociedad/lakua-reclama-a-la-diputacion-el-inventario-de-nucleos-rurales> [kontsulta: 2015-10-30].

goak dira: estatistika-irizpideen arabera udalerriak hiru kategoriaren arabera sailka daitezke eta horietatik gehienak landa udalerriei dagozkie (147), erdi-hiritar edo ertainak datoz atzetik (63), eta azkenik udalerri hiritarrak (40). Azken horiek lurraldearen bosten bat okupatu arren, biztanleriaren % 81 jasotzen dute; alderantziz, landa-izaeradun udalerriei, 2.000 biztanletik beherakoei, lurraldearen % 53 dagokie, baina biztanleriaren % 5 inguru baino ez dute jasotzen (Galdós eta Ruiz, 2008: 194).

Desorekatuta dago, orobat, isurialde atlantikoaren eta isurialde mediterraneoaren arteko biztanleriaren banaketa, oso argia da isurialde atlantikoko biztanleria-dentsitate altuaren eta isurialde mediterraneoko dentsitate baxuaren arteko kontrastea. Bizkaiak 519,58 bizt/km²-ko dentsitatea zuen 2014an, Gipuzkoak 358,11 bizt/km²-koa eta Arabak 106 bizt/km²-koa[37].

2.2.1.4. Kontzentrazioaren zantzuak

Industria-jarduera udalerri gutxi batzuetan polarizatzeak emigrazio-korronte garrantzitsu bat eragin zuela esan da aurrerago, horrek gune polarizatu horietan sortutako populazio-kontzentrazioarekin. Fenomeno hori nabaria da lurraldean oraindik orain, dinamikek aldatzera egin duten arren.

Hiru hiriburuetan gertatzen da hori, baina Araban ez bezala, Bizkaian eta Gipuzkoan biztanleria hiriburuen kostako udalerri mugakideetan kokatzen ari da nagusiki.

Egun, EAEko probintzietako hiru hiriburuak erdian dituzten hiru metropoli-eremuek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 72 hartzen dute. Hiru hirigune horietan daude Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen % 71 eta enpleguen % 72[38].

Konurbanizazioak eratu dira eremu horietan, banatuta jaiotako hiriek beren hazkuntza dela-eta fisikoki bat egiten duten espazioak, bakoitzaren autonomia mantendu arren.

Bartzelonako Estudi Ramon Folch-ek «Metropoliko lurralde-espazioa, ondasun urria» deituriko sarrera du bere webgunean[39]. Bertan, gune paraurbanoa arinki urbanizatutako eremu periurbanoek, eremu rururbanoek eta «vorurbano» deitutako eremuek osatzen dutela adierazten da.

Ondoko hausnarketa luzatzen du: «Espazio vorurbano, rururbano, periurbano eta zehazki hiritarra den espazioaren artean, edozein metropoli-eremutan egiazki okupatutako espazioa hirigintza-planoek adierazten dutenaren bikoitza da»[40]. Gure inguruetako hirien metropoli-eremuentzat ere interesgarria da hautematea. Nahikoa

37. EIN, Estatistikako Institutu Nazionala, 2014.
38. LAG berrikuspena EuskalHiria NET, 50. or. CDko 1 eranskina.
39. <http://www.erf.cat/php/cas/print.php?id_text=142> [kontsulta: 2015-10-31].
40. Egileak itzulia.

zabala den lurralde batek espazio libre baino okupatu gehiago baldin baditu, edo eskuragarri duen espazio librea okupazioen mosaiko baten erdian guztiz birrindu eta erdi galdua baldin badago, orduan lurralde horrek ingurumen- eta gizarte-arazoak izango dituela adierazten du ondoren, Bartzelonako kasua jarriz egoera horren eredu.

2.3. LURREN ARTEKO LEHIA: NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO LUR-ERABILERA VS ARTIFIZIALIZAZIOA ETA BASOTZEA

Artifizializazioa eta basotzea dira nekazaritza-lurrekin lehia zuzenean dauden lurzoru-hartze motak. Honen inguruan, Eugenio Ruiz Urrestarazu eta Rosario Galdos Urrutiak 2013an argitaratutako «La pérdida de los espacios agrarios, artificialización del suelo y forestación en España y en el País Vasco» (Galdós eta Ruiz, 2013: 121-133) artikuluan, Espainiako nekazaritza-ustiategien kopuruaren gutxitzea eta nekazaritza-azalera erabilia (NAEa) aztertzen dituzte. Azken horren bilakaera bi lurzoru-hartzek jasandako eraldaketekin lotzen dute, artifizializatutako azalera eta baso-azalerarekin. Analisi hori Espainiako lurraldeari aplikatzen diote lehenik, eta xehetasun handiagoz Euskal Autonomia Erkidegoari ondoren. Atal honen oinarrietako bat lan hori izango denez, erabiltzen duen metodologiaren inguruko aipamen txiki bat egitea beharrezkotzat jotzen da.

Aspektuetako bakoitzaren bilakaera ondorengo datuetan oinarrituta eraiki da (Galdós eta Ruiz, 2013: 123):

> NAEaren bilakaera: azken nekazaritza-zentsuak, 1999 eta 2009. Batean eta bestean erabilitako irizpideak ezberdinak dira, eta 2009koak ustiategien unibertso mugatuagoa hartzen du. Datuak bateratzeko, 1 ha baino gehiakoko lurralde-oinarria duten ustiategiak baizik ez dira kontuan hartu. 2009ko zentsuan honako baldintza hauek betetzen dituzten nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak zentsatu dira bakarrik: gutxienez NAEa 1 ha izatea, edo, gutxiago izatekotan, laborantza intentsibora dedikatzea (baratzezaintza, lorezaintza, eta abar) edo Abeltzaintza Unitate bat edo gehiago izatea eta Guztizko Ekoizpen Estandarra 0,75 Europako Dimentsio Unitateren berdina edo handiagoa izatea. Hortaz, aurrez esandako baldintzak bete ezean, baso-ustiapen hutsak kanpoan gelditzen dira, zentsua berariaz nekazaritzakoak diren ustiategiei baitagokie.
>
> Artifizializatutako azaleraren bilakaera: 1999 eta 2009ko UDALPLAN.
>
> Baso-azaleraren bilakaera: Euskadiko 1996 eta 2005eko Baso Inbentarioak.

Hiru estatistika-iturriek helburu eta metodologia ezberdinak dituzte, eta ez dute denboran tarte guztian bat egiten.

Atal honetan zehar, lan horretako datu eta ondorio nagusiak bilduko dira, beste iturri batzuetakoekin batera.

2.3.1. NAEa

EAEn 66.861 ha galdu dira 1999-2009 tartean. Horrek % 26ko murrizketa erlatiboa adierazten du, murrizketa nabarmenena Bizkaian izanik (Gipuzkoa eta Arabarekin alderatuta) (Galdós eta Ruiz, 2013: 126).



2.6. irudia. NAEaren bilakaera EAEn, 1999-2009.
Iturria: Galdos eta Ruiz, 2013: 127. Egileak itzulia.

250 udalerritatik 200etan nekazaritza-azalera galdu da, eta horietatik 37k erdira baino gutxiagora murriztu dute beren NAEa (Galdós eta Ruiz, 2013: 126).

NAEaren bilakaera modu xehatuagoan jasotzen da 4. «Ekonomia» atalean.

2.3.2. Artifizializazioa

Kutsadura eta artifizializazioa[41] dira EAEko lurzoruen bi degradazio-modu nagusiak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendua Sailaren zenbait txostenek diotenez (2009ko EAEko Ingurumenaren Egoera[42] eta 2013ko Euskadiko Ingurumen Profila[43] txostenak).

41. Lurzoru artifizializatua, bizitegi-lurzoru urbanizatua eta urbanizagarria, eta jarduera ekonomikoetarakoa kontsideratzen dira, okupatuta egon zein hutsik mantendu (Galdós eta Ruiz, 2013: 128).

42. Dokumentua hemen: < http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-6172/eu/contenidos/informe_estudio/estado_medio_ambiente/eu_doc/adjuntos/2009.pdf> [kontsulta: 2015-11-09].

43. Dokumentua hemen: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/libro/perfil_ambiental/eu_doc/adjuntos/2013.pdf > [kontsulta: 2015-11-09].

2009ko txostenaren arabera,

> hirigintza-garapena da, bere zentzurik zabalenean ulertuta (hau da, etxebizitzak, errepideak, industrialdeak edo lurzorua iragazgaiztea eskatzen duen beste edozein eraikin edo azpiegitura eraikitzea), oraindik ere, EAEko lurren artifizializazioaren eta zigilatzearen eragile nagusia.

Horrez gain, zera gehitzen du:

> Lurren artifizializazioak dakarren ordainak 2004koaren berdina izaten jarraitzen du[44], baina prezioa gero eta handiagoa da; izan ere, artifizializazioa handiagotuz joan da, urtez urte, kopuru absolutuetan. Lurraren gainean hormigoi- edo asfalto-geruza bat botatzen dugun bakoitzean, hainbat efektu kaltegarri gertatzen dira: natura-habitat eta -ekosistemak galdu egiten dira, lurrari oztopoak jartzen zaizkio, lur emankorrak galdu egiten dira (eta, horren ondorioz, zura eta elikagaiak ekoizteko dugun ahalmena ere galdu egiten da), lur-mailako atmosfera-tenperatura igoarazi egiten da, lurrera iragaten den euri-ura gutxitu egiten dugu (eta, hortaz, lur azpiko ur gutxiago izango dugu eskura), isurketa-urak gehitu egiten dira (eta, horren ondorioz, uholdeak gertatzeko aukera eta uholdeen arriskugarritasuna handitu egiten dira) eta abar.

Eta ondoko datuak eskaintzen ditu:

> 2005etik 2007ra bitarteko aldian, 811 hektarea berri artifizializatu ziren. Horren ondorioz, 2007an, EAEko azalera artifizializatu osoa 57.322 ha zen; hau da, azalera osoaren % 8.

Lurzoruaren okupazioaren aldaketak Espainian (Espainiako Jasangarritasun Behatokia, 2006) txostenak, EAEko lurren artifizializazio-tasen nolabaiteko moderazio bat onartzen duen arren, artifizializatutako lurzoru gehienak dentsitate baxuko hiri-formei eta urbanizazio barreitatu edo lorategidunei dagozkien aferaren inguruan ohartarazten du, txostenak aztertutako denbora-tartean beraien azalera % 30 gehitu dute eta (Ainz *et al.,* 2011: 371).

Gainera, 1999 eta 2009 urteen artean, Lurzoru Urbanizaezina 1.783 ha okupatzetik 2.572 ha okupatzera pasatu omen zen[45], ia % 45eko hazkundearekin; azken hamar urte horietan, bizitegi-lurzoruaren hazkuntzaren % 60 Lurzoru Urbanizaezinean kontzentratu zen, alegia (Ainz *et al.,* 2011: 377).

Ez dakigu zer izan den bataren eta bestearen datuen aldea justifikatzen duen aldagaia, baina 2009ko txostenak 2007an EAEko azalera osoaren % 8 artifizializatua zegoela adierazten zuen artean, 2013ko txostenak azalera hori % 6,7an kokatzen du 2012an, eta % 6,49 inguruan aipatutako urte horretan.

44. Aurreko EAEko Ingurumenaren Egoeraren buruzko txostena gauzatu zenekoa.
45. Bizkaian.

2013ko txostenaren arabera,

> EAEn lurzoru artifizializatuen ehunekoak gora egin du azken urteetan. Baina, 2010aren ondoren, urtean gertatzen den lurzoru-artifizializazioa moteldu egin dela ikus daiteke (% 1,07ko urte arteko bariazioa 2010ean; % 0,57koa, 2011n; eta % 0,36, 2012an). 2012an artifizializatutako azalera plangintza-berrikuspenei (Arrazua-Barrundia, Aramaio eta Berastegi) eta AP-1 eta AHT eraikitzeari dagokio.

Azalpen horrek grafikoaren malda lausotzea justifikatuko luke, baina inondik inora 1.3 puntutako jaitsiera, hazkundearen moteltzea azpimarratzen baita, ez uzkurdura fenomenoa.



2.3. grafikoa. Hirigintzaren ondorioz artifizializatutako EAEko lurzoruaren ehunekoa. Iturria: 2013ko Euskadiko Ingurumen Profila.

Eta jarraian, EAEn izan duen bilakaeraren mapa:



2.7. irudia. EAEn artifizializatutako lurzoruaren bilakaera erlatiboa, 1999-2009. Iturria: Galdos eta Ruiz, 2013: 128. Egileak itzulia.

2.3.3. Basotzea

Basotzeek dinamika hedakorra eduki dute azken urteetan. Baso-azalerari buruz ari garenean, baso-zuhaizti azalera eta sastrakadia biak batzen dira. Baso-azaleraren gehikuntza fenomeno orokortua dela esan genezakeen arren (udalerri gehienek emendatu dute beren baso-azalera), isurialde atlantikoan intentsoagoa dela somatzen da.



2.8. irudia. EAEko baso-azaleraren bilakaera, 1996-2005. Iturria: Galdos eta Ruiz, 2013: 131. Egileak itzulia.

2.3.4. Ondorioak

Orain arteko datuek joera ongi erretratatu duten arren, balio horiek ezin dira alderaketarako erabili. Nekazaritza-azalerak 66.861 ha egiten du behera, artifizializatuak 6.000 ha eta basotzeek 9.000tik gora egiten duten bitartean. Hein handi batean, aipatutako iturri-dantzari esleitu dakioke desfasea (Galdós eta Ruiz, 2013: 132).

Hortaz, irizpideak bateratzeko, aldi berean hiru lur-hartzeak aztertzea ahalbidetzen duen iturrira jo zuten artikuluaren idazleek lehenik, eta jo dugu guk gero.

> Magnitude hauek erabili diren beste iturriekin alde handia izan arren, barne-koherentzia nabarmena dute. NAEa 22.675 ha murriztu da. Atzerakada belardi eta labore intentsiboei zuzendutako espazioaren galerari dagokio, larrak gora egiten duten artean, abeltzaintza-ustiategi askoren estentsifikazio etengabearekin bat eginez. Gainontzeko lurzoru-erabilerek beren gainazala 21.162 ha handitu dute; zatirik handiena hiri- eta baso-erabilerek osatzen dute. Kasu horretan, hortaz, badago NAEaren galeraren eta artifizializatutako eta basotutako gainazalen arteko harreman bat ezartzerik (Galdós eta Ruiz, 2013: 132)[46].

	1996	2005	2005-1996
Ura	4889	5522	633
Hiri-lurra	33683	40626	6943
Harkaizti eta padurak	6460	10300	3840
Belardiak	111047	92909	-18138
Larreak	21742	27204	5462
Sastrakadiak	52543	55362	2819
Baso-zuhaiztia	381533	388460	6927
Labore intentsiboak	97520	87521	-9999
NAEa	230309	207634	-22675

2.2. taula. Lurzoruaren erabileraren bilakaera EAEn (ha), 1996-2005. Iturria: Galdos eta Ruiz, 2013: 132. Egileak itzulia.

Hurrengo baso-inbentarioak, 2011ko Laugarren Baso Inbentario Nazionala-Euskadi[47] izenekoak, tesi horren balioa argi erakusten du berriz ere hiru erabileren arteko harremana adieraziz. Kasu horretan, IFN3tik IFN4ra % 0,50eko galera jaso du baso-erabilerak eta % 0,13koa nekazaritza-erabilerak. Galera horiek artifizializatutako lurzoruaren mesedetan gertatu dira, % 0,63 igo baita.

46. Egileak itzulia.

47. Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi (2011), Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, Madril, 2013.

3. Euskarri horren izendapen eta sailkapenak

«Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen landa-eremuaren definizioaren arabera (Kontseiluaren 2006/144/EEE Erabakia), EAE nagusiki hiritarra den eskualdea kontsideratzen da, biztanleriaren % 8 (2011) baino ez baita bizi 150 bizt/km² baino dentsitate baxuagoko udalerrietan»[48].

2015-2020 tarterako Landa Garapenerako Programak (LGP) EAEko lurralde-azaleraren % 85 (eta udalerrien % 85) Mendi Nekazaritzarako Gunetzat jotzen du[49].

3.1. MENDI-NEKAZARITZARAKO GUNEAK

Lurralde-hedadura hain zabala jasotzen duen izendapen horrek ez du islarik landa-espazioa babesteko eta antolatzeko premiak landa-irizpideetatik garatzen dituzten lurralde-planeamenduari buruzko udaleko edo udalaz gaindiko dokumentuetan. Aurrerago ikusiko den bezala, EAEko landa-inguruneari —EAEko esparruan— lurraldeen garrantzia defendatzeko ahalmena aitortzen zaio, gainera. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (NBALAP) arabera,

> egoera horren oinarrian informazio-defizit bat dago landa osatzen duten elementuei, horren kontserbazioan inplikatutako prozesuei eta abarri buruz. Defizit horiek gainditzeko, euskal landa-espazioaren lurralde-eredu bat moldatu behar da: nekazaritza- eta basogintza-balio handiena duten lurzoruen inbentarioa, nekazaritza-unitate nagusiak eta horien tipologia definitzea, babestu beharreko natura-guneei erantsi beharreko landa-paisaia garrantzitsuenen inbentarioa egitea...
>
> Sin embargo, la consolidación de un nivel importante de información no es suficiente si se pretende condicionar el planeamiento urbanístico desde la toma en consideración de criterios rurales[50]. Horretarako, funtsezkotzat jotzen diren gaietan gainerako planeamendu-dokumentuak kontuan hartuko dituen lurralde-antolamenduaren eredua da beharrezkoa, eta lurraldeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan sartu behar dira.

48. 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programa. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza, 2015. Egileak itzulia.

49. Aurrerago azalduko dira irizpideak. 2007-2013ko LGPk ere hala jasotzen zuen jada.

50. Berariaz jarri da gaztelaniazko dokumentuko esaldia, euskarazko itzulpenak gaztelaniazko jatorrizko dokumentuak ezartzen duenaren kontrakoa esaten baitu, erabat: «*Dena den, informazio ugari finkatzea ez* da garrantzitsua hirigintza-planeamendua landa-irizpideak kontuan hartuta egin nahi bada».

> Beraz, Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAP honek bete nahi duen funtzio bikoitza da: euskal landa-espazio pluriaktibo eta multifuntzional baten bideragarritasuna ziurtatuko duen lurralde-eredu bat proposatzea, eta lurralde-arloko erabakitze-prozesuetan eredu hori sartzeko bide bat zabaltzea[51].

NBALAPk Inguru Fisikoa Antolatzeko Kategoriak ezartzen ditu, eta LAAetako Inguru Fisikoari buruzko matrizea xehakatu egiten du, kategoriaz kategoria arautuz erabilera sustatua, onargarriak eta debekatuak. Baina interesgarria litzateke egitea lurraldearen % 85 hartzen duen esparru horren inguruan, EAE osoarentzat amankomuna den lurzoruaren kategorizazioaz gain, izaera menditar horren barnean jasotzen diren ezberdintasunak adieraziko lituzketen bestelako sailkapenak ere, mendi-nekazaritzako gunea bakarra eta homogeneoa bailitzan kontsideratu ordez.

3.1.1. Euskal Herriko landa-eremuaren mugaketaren hastapenak

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak liburuan Juan Cruz Alberdi Collantesek (Alberdi, 2010: 175-190) Euskal Herriko landa-eremuak mugatzeko ahalegin gutxi egin direla adierazten du, eta agian, egin direnen artean Urzainkik 1992an egindakoa dela azpimagarriena. Ikertzaileak eremu bakoitzean ikusten duen nekazaritzaren egoera eta garatzeko perspektibaren baitan egiten zuen bere sailkapenaren proposamena, eta emaitzak jarraian jasotzen dira (Alberdi, 2010: 177-178):

> **A. Hiri kanpoko guneak.** Lurraren erabileran konpetentzia gogorrak, espekulazioa, funtzio berrien garapenak, hiritarrentzako ekipamenduen garapena, dena gune hauetara zuzentzen da. Berez, hiri inguruko nekazaritza ereduarekin egingo luke bat, hau da, salmenta zuzenean garatzeko aukera nagusi duena baina, era berean, hiriaren presioari eta honek ematen dituen lan-aukerei aurre egin ezin diena. Talde honetan hiri-inguruetako nekazaritza-eremuak egongo lirateke, baita Gipuzkoako eta Bizkaiko industria haran inguruetan garatzen den nekazaritza-jarduera ere.
>
> **B. Bigarren eta hirugarren mailako jardueretarako errekurtso bereziak garaturik dituzten landa-eremuak** (aisialdia), hondartzak eta bainuetxeen antzera. Herri dinamikoak dira. Aurreko herrien arazo berdinak izan ditzakete baina, agian, hiriarekiko duten distantziak ez du axola, herritik gertu egon daitezke ere. Ustiategiak garatzeko bertako produktuak zuzen saltzeaz gain, turismoaren bitartez errentak dibertsifikatzeko aukera bat irekitzen zaie. Aukera hau kostaldeko eremuetan zabaltzen da bereziki.
>
> **D. Garapenera sarrera duen ohiko landa-eremua,** osagaiak gutxi definituak dituena baina zabaltzen ari den nekazaritza batekin eta espezializaturiko ekoizpenera bideratua. Hegoaldeko eskualdeak egongo lirateke talde honen barruan, Ebro bailararen inguruan daudenak bereziki. Beharbada, ardogintza izango litzateke alde hauen ekoizpen adierazgarrienetarikoa.

51. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala = Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (NBALAP), 47. or.

E. Landa-eremu sakonak, hiritik urruti daudenak, nekazaritza-iraultzaren edo gaur egungo ekoizpen-moduen desafioei erantzuteko aukera gutxirekin. Globala den ekonomia-eredu batean, konpetitiboak izateaz gain, giza mailan gabezi handiak dituzten eremuak dira. Euskal Herriko alde asko egongo lirateke talde honetan, bereziki ekialdeko eskualdeak (Nafarroa Beherea, Zuberoa, Pirinioak, Aurrepirinioak, Oibar, Longida, Urraul…)

F. Natura-ingurumen erakargarri eta hauskor batean parte hartzen duten guneak, espazio artifizial gutxirekin. Inguru hauetan naturaren balioek nekazarien errentak dibertsifikatzeko aukera ematen dute, turismoaren inguruan bereziki. Hala eta guztiz ere, urruntasunari eta zerbitzu ezari aurre egin behar diete. Talde honetako eskualde adierazgarriena Erronkari izango litzateke.

Liburu berean Alberdik jakitera ematen digu Urzainkik egindako sailkapena bere garaian egindako ikusmen baten erantzulea dela, eta egun soilik partzialki dela baliagarria. Egoera kasu batzuetan aldatu egin da, nekazarien kopuruak eskualde gehienetan etengabe behera egin duelako eta hirien presioa nagusitu egin delako. Horrez gain, ohiko eskualde nekazariek etengabe egin dute behera beren jarraipena konplikatuz.

Hori dela-eta, jarraian Rosario Galdós Urrutia eta Eugenio Ruiz Urrestarazuk 2008an euskal mendi-eremuaren inguruan argitaratutako lurralde-politiketarako tipologia-saiakera gureganatzea erabaki dugu, ekarpen egiazki interesgarria baita (Galdós eta Ruiz, 2008a: 31-49).

3.1.2. Euskal mendiaren dibertsitatea. Lurralde-politiketarako tipologia-saiakera

Europar mendialdea, Mendialderako eta Alde Behartsuetarako Nekazaritzaren inguruko 1975eko 75/268 EEE Zuzentarauan hartzen da kontuan lehen aldiz politika bateratuetan. Zuzentarau horrek laguntza berezi batzuk aurreikusi zituen, guneotako natura-ingurunearen mantenuan bertako nekazariek zuten funtsezko funtzioa onartuz. Gune horiek zedarriztatzeko irizpideen ezarpena estatu kide bakoitzaren esku utzi zen. Espainian, Mendi Nekazaritzaren inguruko 25/1982 Legearen 2. artikuluak jasotzen ditu irizpide horiek.

Hiru zedarriztapen egin ziren (1985, 1986 eta 1987), eta EAEko azaleraren % 85 mendi-nekazaritzako gune aitortu zen. Honako hau da Mendi Nekazaritzako Guneen mapa eguneratua:



3.1. irudia. Mendi Nekazaritzako Guneen (MNG) mapa.
Iturria: Galdós Urrutia, R. eta Ruiz Urrestarazu, E. (2008a: 36).

EAEko 250 udalerrietatik 40 baino ez ziren MNG izendapenetik kanpo gelditu, 210 udalerrik osatzen dute hortaz mapa.

Zedarriztapen hori Espainiako Mendien inguruko Ikertzaile Taldeak (CIMA) berea egin eta zuzenketa batzuk gehitu zizkion, ezaugarri menditarrak biltzen ez zituzten udalerriak baztertzeko.

CIMAk burututako lana oinarri hartuta, beste ñabardura batzuk gehitu eta salbuespen batzuk egin zituzten Galdós Urrutiak eta Ruiz Urrestarazuk (2008a) EAEn sailkapenaren aplikazioa errazteko. Honako mapa hau da emaitza:



3.2. irudia. Mendi-udalerrien mapa.
Iturria: Galdós Urrutia, R. eta Ruiz Urrestarazu, E. (2008a: 38).

Bigarren mapa horrek 152 udalerri jasotzen ditu aurreko 210en aldean. 10.000 biztanletik gorako udalerriak kanpo uztearekin nolabaiteko homegeneotasun bat lortzen du, baina beste aspektu askotan, beraien arteko heterogeneotasuna gailentzen da.

Hori guztia kontuan hartuta, beraien artean antz handiena dutenak taldekatzeko tipologia bat bilatzea gomendagarria zela kontsideratu zuten aurrez aipatutako egileek, eta horretarako aldagai ekonomiko, demografiko eta espazial batzuk finkatu zituzten udalerrien ezaugarri sozial eta ekonomikoen arabera, ahalik eta eremu homogeneoenak definitzeko.

Ondorengo mapan adierazten diren 3 multzo definitu ziren EAEko mendieremuan:



3.3. irudia. Mendi-udalerri tipoen mapa. Iturria: Galdós Urrutia, R. eta Ruiz Urrestarazu, E. (2008a:39).

Jarraian, 3 multzoak osatzen dituzten udalerrien ezaugarririk nabarmenenak jasoko dira (Galdós eta Ruiz, 2008a: 46-47 eta I Eranskina)[52]:

3.1.2.1. 1 multzoa (mendi azpiatlantiko eta azpimediterraneoa)

- Biztanleria eta dentsitate oso baxuak.
- Azken urteetan nolabaiteko biztanleria-berreskurapen bat hautematen da kontraurbanizazio-fenomenoek eraginda[53], hala ere, ez da demografia-egituren narriadura gainditzerik lortu, sexu- eta adin-kontuetan oso desorekatuak.

52. Egileak itzulia.
53. Aurrerago aztertuko dugu fenomeno hau.

– Nekazaritza-jarduerak toki gailena izaten jarraitzen du langileen okupazioan eta ekonomian.
– Laborantza-lurrek okupatzen duten azalera altua da gainontzeko jarduerekin konparatuz gero.
– Oso gutxi industrializatu eta urbanizatutako udalerriak dira.
– Gutxi artifizializatutako espazioak dira, bizitegi-erabilera eta ekonomia-jardueretarako azalera txikiak dituztenak.
– Bigarren etxebizitzek hedapen zabala dute.
– Ingurumen-kalitate eta natura-balio bikainak dituzte.

Udalerriak:

Añana	Kanpezu	Iruraitz-Gauna	Donemiliaga
Arraia-Maeztu	Karrantza	Lagran	Gaubea
Barrundia	Kripan	Peñacerrada-Urizaharra	Bastida
Bernedo	Kuartango		Zalduondo

3.1.2.2. 2 multzoa (mendi atlantikoa)

Askoz homogeneoagoak diren lehen multzoko udalerriekin alderatuta, bigarren multzoko udalerriek barne-aberastasun handiagoa aurkezten dute. Lurraldearen plangintzan oso kontuan hartu beharrekoa da hori.

– Bereziki landatarrak diren udalerriak dira.
– Dentsitate ertainak dituzte, eta ez dute despopulatze-arazorik, migrazio-saldo positibo eta hazkunde orokortua baitituzte.
– Demografia-egiturak, hobetu daitezkeen arren, ez daude oso narriatuak.
– Lehen sektorean okupatutako langileen proportzioa ertaina, edo ertain-txikia dute.
– Laborantzarako lur gutxi dituzte, eta modu paraleloan, basotzeen azalera handiak, udalerrion abeltzaintza eta basogintzako bokazioa islatuz.
– Hirugarren sektoreko jarduera gutxi.
– Industriaren presentzia nabaria.
– Lan-kontuekin erlazionatutako udalerrien arteko mugikortasun handia.
– Eraikitako lurzoruaren ehunekoa, bizitegi-erabilera eta ekonomia-jardueretarako, handi samarra da.
– Bigarren etxebizitzak ez dauka berebiziko garrantzirik.
– Udalerriotako landa-eremuek euskal baserriaren paisaia adierazgarria osatzen dute.

– Oro har, urbanizazioek eta baso-landaketek eraldatutako espazioak dira, naturalizazio-maila oso baxudunak.

Udalerriak:

Abaltzisketa	Atxondo	Gaztelu	Munitibar-
Aia	Aulesti	Gizaburuaga	Arbatzegi-
Ajangiz	Aiara	Gordexola	Gerrikaitz
Albiztur	Baliarrain	Hernialde	Mutiloa
Alegia	Bedia	Ibarrangelu	Muxika
Aleiza	Beizama	Idiazabal	Nabarniz
Altzaga	Berastegi	Ispaster	Okondo
Altzo	Berriatua	Itsasondo	Orendain
Amezketa	Berrobi	Kortezubi	Orexa
Amoroto	Bidegoian	Larrabetzu	Orozko
Antzuola	Dima	Larraul	Otxandio
Arakaldo	Elduain	Leaburu	Segura
Arama	Elgeta	Legorreta	Sopuerta
Aramaio	Ereño	Leintz Gatzaga	Turtzioz
Arantzazu	Errezil	Lizartza	Ubide
Artzentales	Errigoiti	Mañaria	Urkabustaiz
Areatza	Etxebarria	Markina-Xemein	Zaldibia
Arrankudiaga	Ezkio-Itsaso	Maruri-Jatabe	Zeanuri
Arrieta	Forua	Meñaka	Zeberio
Artea	Gabiria	Mendaro	Zegama
Artziniega	Gaintza	Mendata	Zerain
Asparrena	Galdames	Mendexa	Zestoa
Asteasu	Garai	Morga	Zigoitia
Ataun	Gatika		Zuia

3.1.2.3. 3 multzoa (industrializatutako mendia)

Aurreko biekiko ezberdintasun handiak aurkezten ditu multzo honek, lehenengo multzoarekiko bereziki.

– Beraien tamaina demografikoagatik, udalerri gehienak erdi-hiritarrak dira.
– Biztanleria-dentsitate handiak dituzte.
– Duela gutxiko hazkundea ahula da.
– Orekatutako demografia-egiturak dituzte.
– Udalerri oso industrializatuak dira.
– Zerbitzuen sektorean gabeziak dituzte.
– Nekazaritza-jarduerak ia-ia bazterreko izaera du.
– Salbuespenak salbu, laborantza-lurren hedapena minimoa da, eta basotutako proportzioa 2 multzoko udalerriena baino txikiagoa.

– Lurzoruaren artifizializazio bizia: bizitegi-erabilera, ekonomia-jarduera eta azpiegiturak.
– Gune natural eta gune babestuen presentzia urria.

Udalerriak:

Abadiño	Elorrio	Legazpi	Urduliz
Abanto eta	Eskoriatza	Legutiano	Urnieta
Zierbena	Gueñes	Lemoa	Urretxu
Aduna	Ibarra	Mallabia	Usurbil
Aizarnazabal	Igorre	Olaberria	Villabona
Amurrio	Ikaztegieta	Ordizia	Zaldibar
Anoeta	Iruña Oka	Urduña	Zalla
Aretxabaleta	Irura	Ormaiztegi	Zaratamo
Balmaseda	Iurreta	Oion	Zierbena
Belauntza	Izurtza	Soraluze	Zizurkil
Berango	Lazkao	Ugao-Miraballes	
Berriz			

Multzoetako bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz, lurralde-politika eta kudeaketa-planak garatzeko zenbait gidalerro proposatzen ditu artikuluak, interesdun eta erabilgarriak.

Bestalde, oso kontuan hartzeko beste sailkapen bat «Naturagune»en babesari lotutakoa da. Egun, EAEko babes-figurarik garrantzitsuena Natura 2000 Sarea da, bai barnean hartzen dituen zuzentarauengatik, baita jasotzen duen azaleragatik ere: EAEko azaleraren % 20,3 hartzen du 148.340 ha okupatuz.

3.2. NATURA 2000 SAREA

Natur-habitatak eta basa-fauna eta -flora kontserbatzeko 92/43/EEE Zuzentaraua (Habitaten zuzentaraua) eta Basa-hegaztiak kontserbatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua (Hegaztien zuzentaraua) aplikatuta, Natura 2000 Sarea sortu zen, Europako sare ekologikoa. Haren xedea biodibertsitateari eustea da, basa-fauna eta -flora eta Garrantzi Komunitarioko Habitatak kontserbatzeko marko erkidea definituta. Zuzentarau horien eranskinetan interes komunitarioko habitatak eta espezieak daude, eta bertan azaltzen da zeintzuk diren lehentasunezkoak.

Berau sortzean indarrean zegoen Euskal Herriko Natura babesteko 16/1994 Legearen[54] bidez sortutako Naturagune Babestuen sarearekin konparatuta, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat ekarri du: «Horrela, parke natural edo biotopo babestuen formulen pean irla-sare bat osatzen duten aitortutako balio ekologikoa duten espazioen kontserbazioaren aurrean, Natura 2000 Sarearen euskal proposamena

54. Aipatutako lege hori 2014ko maiatzaren 20an indargabetu zen, 2014ko maiatzaren 19ko EHAAn 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena argitaratu ondoren.

erkidegoko lurralde guztien balioestean oinarritu da, Habitaten eta Hegaztien zuzentarauetan zehaztutako intereseko habitat eta espezieen presentziaren arabera (Aranburu *et al.,* 2006: 118)[55].

Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremuek (HBBE) eratzen dute. EAEn halako 53 espazio daude. Askotariko izaera dute, hala nola ibai-tarteetakoak, kostakoak edo estuarioak, barnealdeko hezeguneetakoak... Hala ere, tiporik hedatuena mendikoa da, mendikate txikiekin bat datorrena. Baso-erabilera eta nekazaritza eta abeltzaintzako lur-erabilera dira erabilera nagusiak bertan, bazkalekuak eta sasitzak bereziki, abereek modu estentsiboan aprobetxatzen dituztenak. Bestalde, EAEko Natura 2000 Sarean oso eskasak dira gainontzeko nekazaritza-erabilerak, labore-lurrak edo larre lehorrak[56].



3.4. irudia. Naturagune babestuak. Egilea: Sergio Gallego -Ambientalia21. Iturria: GeoEuskadi.

Eremu bat BGL edo HBBE izendatzeak leku horietan bizi diren habitatak eta espezieak egoera onean kontserbatzeko ardura hartzea dakar.

Lurralde bat KBE izendatzeak, aldiz, izendapen horretara eraman duten espezie eta habitatak, kontserbaziorako kudeatu behar izatea dakar. Kontserbazio neurriei buruzko berezko dokumentua eduki behar du, eta kasu bakoitzean modu zehaztuan aztertuko da[57].

55. Egileak itzulia.

56. 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programa, 19. or.

57. Eusko Jaurlaritzaren IHOBE Herri-baltzua, <http://www.ihobe.eus/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=a661cfca-8612-483c-a572-885dfaa85c74&Idioma=eu-ES> [kontsulta: 2015-11-07].

3.2.1. Bateragarritasunak EAEn

EAEn Natura 2000 Sarea bat dator erkidegoko legeriak babestutako naturaguneekin (NGB), Parke Naturalen figurapean batez ere; EAEko Parke Natural guztiak Natura 2000 Sarearen parte dira. Horrez gain, aldiberekotasun-maila altu bat dago Natura 2000 Sarea osatzen duten espazio menditarren eta beste babes figura baten artean ere: Erabilera Publikoko Mendiak. Erabilera Publikoko Mendiak titulartasun publikoa duten baso-lursailak dira, eta foru-aldundietako baso-zerbitzuek babesten dituzte. Natura 2000 Sarearen % 92k baso-erabilera sailkapena du, eta horrek esan nahi du[58] EAEko baso-azaleraren % 27 Natura 2000 Sarearen barnean dagoela. Natura 2000 Sarearen % 72,7 Erabilera Publikoko Mendi bezala katalogatuta dago, ia-ia erabateko nagusitasuna dutelarik mendiguneetan[59].

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren arabera, KBE izendapena duten eremuetan egiten diren edo egingo diren ekintza asko gaur egun indarrean dagoen legepean egongo dira, KBE izendatu aurretik zegoen lege beraren pean.

3.3. ORAIN ARTEKO POLITIKAK ETA (HAIEN) ONDORIOAK

Orain arteko politikek izandako eraginez ohartzeko oso gomendagarria da Jaime Izquierdo Vallinaren *Naturaren Kontserbazio Kulturala* (Izquierdo, 2015) liburua. 1959an ezarri zen Ekonomiaren Egonkortasunerako Plan Nazionaletik Europar Batasunean sartu arte gauzak asko aldatu zirela azaltzen du Izquierdok, eta eraldaketa horien ondoren landa bitan banatu zela: erraz eralda zitekeen zatia nekazaritza intentsiborako erabili zen, eta gainontzekoari, industrializatu ezin zen horri, arima lapurtu zitzaion: «Mendeetan nekazarien ekonomi, antolaketa, erakunde, kultur eta natur lurrak izan direnei, orain, guk besterik gabe erabakita, natur guneak deitu diegu. Horregatik, bazter uztea saihesteko eta kultura eta natura arteko elkarrizketa berreskuratzeko birgaitze prozesuak piztu beharrean —jatorrizko esentziarekiko berezkoak—, espazioa babesteko politika aplikatu genien, eta horrek funtzionarioz eta izendegi biokratikoz (biologiko eta burokratiko) bete zuen nekazarien herria» (Izquierdo, 2015: 7).

Haren hitzetan, XX. mendearen bigarren erdian, kontrajarritako kontzeptu biren inguruan gorpuztu zen natura zaintzearen ideia: «Ondorengotza biologikoa proposatzen zuena —horrek irabaziko zuen Espainian— eta berrikuntzaren alde egiten zuena. Azken hori gainerako Europa mendebaldean nagusituko zen» (Izquierdo, 2015:17).

Honela definitzen ditu kontzeptu biak:

> Ondorengotza biologikoa ekosistema batek giza esku-hartze ororen gabezian izaten duen aldaketa orori deitzen zaio. Espainiako parke nazionalek, Europako gainerakoek

58. Laugarren Baso Inbentario Nazionala Euskadi 2011, 55. or.

59. 2015-2020rako Landa Garapenerako Programa, 19. or.

> ez bezala, kontserbatzea beste ikuspegi batetik ulertu zuten. (...) purutasunean, ondorengotza (ez du paisaiaren egoera mantentzen, beste batean bihurtzea sustatzen du. Kulturatik eta gizakitik zenbat eta urrunago eta hobe) ez da mantentzeko estrategia, bertan behera uztearen estrategia baizik (Izquierdo, 2015: 17).
>
> Berritze biologikoak, bestalde, natura adierazten den modua mantendu nahi du paisaia egoera jakin baten arabera eta ezinbestean gizakiak esku hartuta. Kasu honetan, giza komunitateak (eta horrekin lotuta, kulturalak) arreta ematen dietelako mantentzen dira ekosistemak, eta horri esker, aniztasun biologiko eta paisaia aniztasun maila altua eskura dezakete (Izquierdo, 2015:18).

Aipatu den bezala, Espainiako Estatuan lehenengo bideari jarraitu zitzaiola adierazten du liburuan, Europako herrialde gehientsuetan bigarrena hautatu zelarik. Hala ere, XX. mendearen hasierako Alemaniako kasu adierazgarri bat erabiltzen du adierazteko zer gertatu zen (eta gertatzen den) eremu berezi bat kontserbatu nahian giza esku-hartzea ezabatu zutenean:

> Orduan Luneburgoko txilardia eremu babestu aitortu zuten, mugimendu erromantiko indartsuaren eraginari esker, Goetheren deskribapen zirraragarriak inspiratu zituzten paisaiak kontserbatu nahian. Horretarako, suaren eta ardien artzaintza maisutasunez, ia dosi homeopatikoetan, erabiltzen zituzten nekazarien, turba ateratzaileen, erabilera sekularrak debekatu zituzten.
>
> Ondorioak luze gabe iritsi ziren eta, erabilera kulturala desagertuta, askotariko txilar ugariko otalur koloretsua eta edertasuna gainbehera hasi zen eta urki eta ipuru monotonoek hartu zuten. Kontserbatu nahi zuten hura desegin zuten (Izquierdo, 2015:13-14).

Ondorioa argia dela dio: «Zure lurreko naturaren adierazteko modua kontserbatu nahi baduzu, hura sortu duten kulturak aktibo mantendu behar dituzu» (Izquierdo, 2015: 14).

Eta laburpen hau oso egokia da:

> Berritzearen aldeko apustua egiteak esan nahi du kontserbazioa lurraldeko terminoetan, termino fisiologikoetan eta metabolikoetan ulertzen dela, eredu kultural ekonomiko eta tokiko eredu anitzen eta konplexuen oinarriaren gainean, eta ikuspegi industrialak bideratu gintuen ikuspegi estatikoa eta murriztailea gainditu behar da (Izquierdo, 2015: 18).

Lege eta arauen aferara itzuliz,

> Legediak «espazio natural» deitzen dien arren, egia esan ez dira. Ez espazio, ez naturalak: Funtsean lurraldeak dira, eta beraz, eraikuntza kultural eta historikoak. Edo, nahi bada, landa naturako lurraldeak, hainbat milurtekotan kaudimena izan ostean utzikeriagatik desagerteko prozesuan sartu direnak.
>
> (...) Azken emaitza gisa, modu telegrafikoan laburtuta, esan genezake azken hamarkadetako espazio natural babestuen politikak eragotzi duela hirigintza espekulazioa, eta nekazaritza edo industria arloko intentsifikazioak lurzoruaren erabilera aldaketak saihestu ditu eta landa turismoaren garapen fokalizatua ahalbidetu

> du. Aldiz, gehiegizko protektzionismoarekin eta kutsu biologizista nabarmenarekin aplikatuta, burokrazia korporatiboek eragotzitako kudeaketarekin bideratuta eta herri kultura baliotsuak nahiz tokiko ekonomia agroekologiko bikainak kontuan hartu ez izanagatik, zaindu nahi zen lurraldea babesik gabe geratu zen azkenean (Izquierdo, 2015:25).

Argi dago Izquierdok deskribatutako politika kontserbazionisten eragina. Eta azpimarratzekoa da «herri kultura baliotsuak nahiz tokiko ekonomia agroekologiko bikainak kontuan hartu ez izanagatik, zaindu nahi zen lurraldea babesik gabe geratu zen azkenean» esaldia. Esku-hartzearen ukazioa balio nabarmena zuen mendeetako eta tokiko aberastasuna (kulturala, bere zentzurik zabalenean) gutxieneko batean aintzat hartzearen gainetik ezarri zen, eremu zabalak amortizatu eta aldebiko galera eraginez. Hitzok irakurri eta deskribatutako egoera jazo denarekin bat datorrela ikusi ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Kontserbazio Bereziko Eremuen inguruan egiten dituen adierazpenak jasoko dira jarraian:[60]

> (...) KBEk kontserbaziorako neurriak planteatzen dituenez, eskakizun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta erregionalak kontuan hartu behar ditu (Zuzentarauaren 2. artikulua), garapen iraunkorra bilatuz. Kasu batzuetan neurri horiek, garatzen ari diren ekintzak mantentzea eskatuko dute eta are gehiago, batzuetan espazio hauen kudeaketarako giza erabilera tradizionalen bultzada beharko dute (abeltzaintza estentsiboaren kasuan, argi dago garrantzia handia duten mendiko larreentzat, ekintza hau ezinbestekoa dela).

Aipatutako sail berberak, webgunean bildutako ohiko galderen erantzunetan zera dio, ea izendapenak bertako aktibitateetan (ehiza, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, turismoa) eragingo ote duen galdetua izatean:

> Eremu horretan egiten diren ekintza guztiak aztertu beharko dira, sor ditzaketen inpaktu negatiboak baloratzeko. Zentzu horretan argi geratzen da eremu horren iraupenerako beharrezkoak diren ekintza tradizionalak ez direla mugatuta geratuko, are gehiago, batzuetan indartu egingo dira.
>
> Beste modu batera esanda: KBE Euskadin hoberen kontserbatutako guneei dagokie, orokorrean ekintza tradizional horiei esker kontserbazio egoera horretara iritsi direnei.

Orain arteko joera ikusita behintzat, zinez nahasgarria suertatzen da hitzen eta ekintzen arteko aldea.

Izquierdoren liburuak, ordea, deskribapen egoki bat eskaintzen digu berriz ere: «Landa izaerako lurraldeetan ez litzateke aplikatu beharko alde batetik natura kontserbatzeko politika bat eta beste alde batetik baso, nekazaritza eta abeltzaintzako garapen politika bat. Batek babestu egin nahi du eta besteak garatu (Izquierdo, 2015:13). Eta hori izan da orain arte egin dena, gaur egun aipatutako webguneetan irakurri ditugunak bezalako adierazpenak jasotzen diren arren.

---

60. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3074/eu/contenidos/faq/natura2000/eu_bio/00.html> [kontsulta: 2015-10-30].

4. Ekonomia

4.1. HIRU SEKTOREEN BILAKAERA

Gertuko iraganetik egungo egoerara arteko errepasoari hasiera emateko, Eugenio Ruiz Urrestarazu eta Rosario Galdós Urrutiaren *Geografía del País Vasco* liburuko zati bat jaso dugu:

> 1950ean, Espainian, lehen sektoreko langileek biztanleria aktiboaren % 50 osatzen zuten, eta gainontzeko % 50a bigarren eta hirugarren sektoreen artean banatzen zen, modu berdintsuetan. EAEn, aldiz, industrializazio goiztiarreko eremua izanik, 1950ean bigarren sektoreak biztanleria aktiboaren % 46,8 jasotzen zuen, hirugarrenak % 31, eta lehenengoak % 22,2a. Hurrengo bi hamarkadetan, 50eko eta 60ko hamarkadetan, lanpostuen egituratze berri bat gertatu eta industria-sektorearen nagusitasuna finkatu zen, 1970ean aktiboen %57,9 enplegatuz. Sektore horren hazkundea lehen sektorearen kontura gertatu zen, hamarkada bertsuetan atzerakada latza jasan baitzuen; aktiboen aldaketa hori nekazaritzaren modernizazioak ahalbidetu zuen, zeren eskulana libratu eta nekazari-exodoa bultzatu baitzuen (Galdós eta Ruiz, 2008: 237).

Lehen sektoreko galera handienak, bai erlatiboak baita absolutuak ere, 70eko eta 80ko hamarkadetan izan ziren.

Aurreko paragrafoko ibilbidea 1970eko industria-sektorearen nagusitasunean amaitu den arren, Auñamendi Entziklopediako zatien moldapen batekin eratuko dugu ordutik eta gaur egunerako tartea[61]:

> 1975. urtean krisi ekonomikoa lehertu zen, 80ko hamarkadaren hasieran areagotu eta 1985. urtera arte iraun zuena. Langabeziak gora egin zuen etengabe, eta langabezia-tasak ikaragarriak izan ziren.
>
> 1985-1991 bitartean suspertze ekonomikoa gertatu zen, industriaren sektoreari esker ekonomiak gora egin zuen.
>
> 1992-1993 bitartean ekonomiak atzera egin zuen berriz ere. Gero, duda-mudazko hazkunde ekonomiko bat etorri zen baina ekonomian atzeraldirik izan gabe (1997an izan ezik), nolabaiteko oparotasun ekonomiko batekin: 2005. urtean ekonomia % 3,9 hazi zen. Urte horretan, eraikuntzari zor zaio ekonomiaren hazkundea (sektorearen hazkunde-tasa % 5,3koa izan zen).
>
> Joera hori eten egin zen 2008 eta 2009 urteen artean eztanda egin zuen krisialdiarekin.

61. Auñamendi Eusko Entziklopedia. «Euskal Herriko historia ekonomikoa. XX. mendea eta XXI. mendearen hastapena». Testu osoa hemen: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee27415/136902> [kontsulta: 2015-11-06].

Jarraian datorren taulan, zeinak sektoreek 1976tik 2015era izandako bilakaera jasotzen duen zerbitzuen sektoreari erreparatuz gero, bere pisua bikoiztu duela ikusiko dugu, eta industriarena, aldiz, erdira jaitsi dela. Gainontzeko sektoreen gainbeherak eta «enpresa-zerbitzu»en azpisektorearen igoerak zerikusi zuzena dute gertaera horretan.

	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
1976	8	47,3	8,9	35,63
2005	1,7	26,8	7,9	63,5
2010	1,3	22,3	7	69,4
2015	1,2	20,6	5,6	72,6

4.1. taula. EAEn sektoreen bilakaera ehunekotan 1976, 2005, 2010 eta 2015. Iturria: egileak egina Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI) oinarri. 1976-2005-2010 laugarren hiruhilekoa, 2015 bigarren hiruhilekoa.

4.2. EAE-KO NEKAZARITZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREEN DIAGNOSTIKOA

Landa-eremuaren azterketaren barruan kokatzen da atal hau, eta eremu horretan 79.516 izan ziren guztizko lanpostuak 2012an, EAE osoko lanpostuen % 9 gutxi gorabehera[62].

Datozen orrietan nekazaritza- eta basogintza-sektoreen analisian sakonduko dugu gehienbat landa-eremuaren kudeaketa eta zaintzan duten garrantziagatik, nahiz eta sektore horien eta beste batzuen arteko harremanari ere erreparatuko diogun, turismoari dagokionez kasu.

4.2.1. Nekazaritza

4.2.1.1. Esparrua

NBALAPren arabera, landa-eremu horrek hainbat hirigunerekin eta lur-eskari handia duen azpiegitura-sarearekin dituen harremanek osatzen dute egun, hein handi batean, nekazaritzaren eta, oro har, landa-ingurune bizi baten etorkizunaren esparrua. Ildo horretan, EAEko landa-agertokian gertatzen ari diren aldaketa nagusiek batik bat bi zona motari eragiten dietela zehazten du[63]:

- Batetik, hirigunetik hurbil dauden guneei eta garapen ekonomikoan murgildurik egoteagatik presio handia jasaten dutenei (hiri-erabileren aldeko erabilera-aldaketa).

62. Landa Garapenerako Programa Euskadi 2015-2020, 13. or.
63. NBALAP, 20. or.

Kasu horretan, hiriguneen eta hiriguneetako bizimoduaren hedapenak landa-ingurunearekiko presio handia eragiten duten zonak sortzen ditu: bizitegi-guneak eta industriaguneak hedatzea, horrek lurzoruaren okupazioan duen zuzeneko eraginarekin, eta nekazaritza-lurzoruak hirigintza-espekulazioko dinamiketan sartzea, aisialdiko jarduerak kontrolik gabe zabaltzea, azpiegiturak ugaritzea (horniketarako ur eskasia, pistak asfaltatzea...), fenomeno kutsagarriak agertzea (zabortegiak, isurketak ur-ibilguetara, paisaia-degradazioa...) eta abar. Zona horietan, lurralde-antolamenduaren erronka honetan datza: hainbat jarduera berriz zehaztean, intereseko nekazaritza-lurzoru eta -unitateen kontserbazioan, ingurumen-degradazioaren aurkako borrokan, landa-paisaiak mantentzean eta haien artean oso lehiakorrak diren askotariko erabileren bizikidetza ahalbidetuko duen lurralde-eredua segurtatzean.

- Bestetik, bakandurik eta nekazaritza-gainbeherak jota dauden zonei.

  Bigarren kasu honetan, berriz, nazioarteko lehiakortasunari aurre egiteko arazoak eta hurbileko hiri-merkatuen gabeziak gainbehera, lurrak uztea eta, nekazaritzaren osagarri diren jarduera faltaren aurrean, populazioa zahartzea eta murriztea eragiten dute. Kasu honetan, lurralde- eta arlo-antolamenduak dibertsifikazio ekonomikoa (nekazaritza-jarduera babestuz), gutxieneko zerbitzu-maila eta bizi-kalitate bat mantentzea eta/edo garatzea, tokiko baliabideak baliagarri bilakatzea, etab. bultzatu behar ditu; ekintza horiek lurraldea berregituratzera daude zuzendurik erabilera-gatazkak konpontzera baino gehiago.

4.2.1.2. BPGa

Ondorengo taulan egiazta daitekeenez, nekazaritza-sektorearen ekarpena % 0,4 inguruan egonkortu da, gainerako sektoreekin alderatuta.

	2004	**2005**	**2006**	**2007**	**2008**	**2009**	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014***
Nekazaritza BPGa	0,56	0,58	0,55	0,52	0,38	0,36	0,36	0,37	0,43	0,43	0,39

4.2 taula: Nekazaritza sektorearen ekarpena BPGari dagokionez.
Iturria: EUSTAT (*)Datuen aurrerapena.

4.2.1.3. Enplegua

NBALAPk berak, enpleguari dagokionez, 2009ko nekazaritza-erroldan sartzeko irizpideak betetzen dituzten ustiategiak kontuan hartzen baditugu, sektoreko ustiategi kopuruaren eta enpleguaren bilakaera-koadroa honela geratuko litzatekeela jakinarazten digu:

Urtea	Biztanleria okupatuta sektore guztietan (milaka)	Ustiategiko urteko lan-unitatek (ULUak) nekazal sektorean	%
2001	859,2	23.240	2,70%
2002	902,2	22.992	2,55%
2003	915,2	22.743	2,49%
2004	930,6	22.880	2,46%
2005	945,2	23.016	2,44%
2006	961	21.327	2,22%
2007	977,4	19.637	2,01%
2008	987,1	18.381	1,86%
2009	951,5	17.126	1,80%
2010	948,9	16.569	1,75%
2011	937,6	15.633	1,67%

4.3. taula. Sektoreko ustiategi kopuruaren eta enpleguaren bilakaera-koadroa. Iturria: NBALAP, A dokumentua. Memoria, 13. or.

1998tik hona Mercasak urtero argitaratzen duen Espainiako Elikagaien Ekoizpen, Industria, Banaketa eta Kontsumoaren inguruko 2014ko Txostenak, Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren datuen arabera, lehen sektoreak (nekazaritza, basogintza eta arrantza) 2013an batez besteko 14.250 langile zituela jaso zuen[64].

4.2.1.4. Makromagnitudeak

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Produkzio gordina	**531.801**	**208.369**	**162.165**	**161.267**
Produktuetarako diru-laguntzak	17.122	7.982	5.117	4.023
Produkzioa oinarrizko prezioetan	548.923	216.351	167.281	165.291
Bitarteko kontsumoak	265.889	113.983	72.948	78.958
Oinarrizko prezioei erantsitako balio gordina	283.034	102.368	94.333	86.333
Amortizazioak	55.698	28.547	14.103	13.047
Balio Erantsi Garbia oinarrizko prezioetan	227.336	73.821	80.230	73.286
Zergetako ekoizpen garbirako beste diru-laguntza batzuk	47.389	23.451	10.062	13.876
Balio Erantsi Garbia faktore-kostuetan (nekazarien errenta)	274.726	97.272	90.292	87.162

4.4. taula. EAEko nekazaritza-sektoreko makromagnitudeak, lurraldearen arabera (milaka eurotan). 2013[65]. Iturria: Nekazaritza- eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak. Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

64. EAEri buruzko txostena: <http://www.mercasa-ediciones.es/alimentacion_2014/pdfs/pag_516-523_pais_vasco.pdf> [kontsulta: 2015-10-30].

65. Datuen aurrerapena.

4.2.1.5. EAEko nekazaritza-azaleraren banaketa aprobetxamendu motaren arabera

	Kop.	ha	Ustiategiko batez besteko ha. kopurua
Azalera osoa (AO)	15.835	259.797	16,4
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE)	15.804	187.251	11,8
Lur landuak (LL)	13.277	75.880	5,7
Belarrezko eta lugorriak(*)	11.826	60.485	5,1
Fruta-arbolak	3.876	1.501	0,4
Olibondoak	252	167	0,7
Mahastiak	1.618	13.653	8,4
Beste zurezkoak	69	73	1,1
Larre iraunkorrak	13.611	111.371	8,2
Bestelako lurrak	11.630	72.376	6,2

4.5. taula. EAEko nekazaritza-azaleraren banaketa aprobetxamendu motaren arabera, 2013. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

4.2.1.6. Egiturazko adierazleak

EAEn

	2013	2009	aldakuntza
Ustiategiko batez besteko AO (ha)	16,4	15,8	% 3,8
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), ustiategiko (ha)	11,8	11,5	% 2,6

4.6. taula. Lehen sektorearen egiturazko adierazleak EAEn. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

Ustiategien azalera osoaren eta nekazaritza-azalera erabiliaren batez besteko tamainak 16,4 ha eta 11,8 ha dira hurrenez hurren. Hala ere, probintziaka aztertuta, alde handiak daude bai tamainari berari, baita tamaina horien bilakaerari dagokionez:

Araban

	2013	2009	aldakuntza
Ustiategiko batez besteko AO (ha)	35,9	31,4	% 14,3
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), ustiategiko (ha)	31,5	27,8	% 13,6

4.7. taula. Lehen sektorearen egiturazko adierazleak Araban. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

Bizkaian

	2013	2009	aldakuntza
Ustiategiko batez besteko AO (ha)	9,4	9,5	% –1,1
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), ustiategiko (ha)	5,9	6,6	% –11,8

4.8. taula. Lehen sektorearen egiturazko adierazleak Bizkaian. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

Gipuzkoan

	2013	2009	aldakuntza
Ustiategiko batez besteko AO (ha)	13,6	13,2	% 2,8
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), ustiategiko (ha)	7,6	7,5	% 1,0

4.9. taula. Lehen sektorearen egiturazko adierazleak Gipuzkoan. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

4.2.1.7. EAEko nekazaritzako azken produkzioa

Jarraian, EAEko nekazaritzako azken produkzioa jasoko da, sektore eta lurraldearen arabera, milaka eurotan.

	EAE		**Araba**		**Bizkaia**		**Gipuzkoa**	
	Balioa	**%**	**Balioa**	**%**	**Balioa**	**%**	**Balioa**	**%**
Nekazaritzako amaierako produktua	531.801	100,0	208.369	100,0	162.165	100,0	161.267	100,0
Nekazaritzakoa	258.057	48,5	142.372	68,3	64.896	40,0	50.789	31,5
Abeltzaintza	223.833	42,1	61.994	29,8	68.246	42,1	93.593	58,0
Basoa	40.446	7,6	2.627	1,3	24.524	15,1	13.295	8,2
Bestelako produkzioak	9.464	1,8	1.375	0,7	4.499	2,8	3.590	2,2

4.10. taula. EAEko nekazaritzako azken produkzioa, sektore eta lurraldearen arabera (milaka eurotan). 2013[66]. Iturria: Nekazaritza eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak. Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

4.2.1.8. Ustiategi kopurua, azalera osoa eta nekazaritza-azalera erabilia (NAEa)

NAEaren 1 ha-etik gorako nekazaritza-ustiategien kopurua % 33 jaitsi zen 1999-2009 tartean EAEn, 16.445koa izanik azken nekazaritza-errolda (2009). Joera horrek bere horretan jarraitu du, eta 2009-2013 tartean % 4,3 egin du behera ustiategi kopuruak. Horrez gain, azalera % 0,7 jaitsi da, eta NAEa % 1,6.

	2013	**2009**	**2019-2013 aldakuntza**
Ustiategi kopurua	15.835	16.554	–4,3
Azalera osoa (AO) (ha)	259.797	261.700	–0,7
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), (ha)	187.251	190.273	–1,6

4.11. taula. EAEko ustiategi kopurua, azalera osoa eta nekazaritza-azalera erabilia 2013. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

66. Datuen aurrerapena

Hiru lurralde historikoei erreparatuz, ordea, ustiategi kopuruari dagokionez, hiruretan erregistratu zen jaitsiera 1999-2009 tartean: Bizkaian –% 37, Araban –% 33 eta Gipuzkoan –% 30. 2009-2013 tartean, aldiz, Bizkaia eta Araban galtzen jarraitu arren (–% 4,7 eta –%11,3 hurrenez hurren), Gipuzkoan gora egin zuen: % 0,7.

Aitzitik, azaleran dinamika ezberdinak antzeman dira, eta horrek zenbait hausnarketarako bide ematen digu: Araban ustiategi kopuruen galera handiena jasan arren, azalera osoa % 1,5 hazi da, eta NAEa % 0,8. Horrek esan nahi du gelditu diren ustiategiek beren lurralde-oinarria ez galtzeaz gain handitu egin dutela. Bizkaian behera egin dute aztertutako hiru aldagaiek, eta, Gipuzkoan, aldiz, modu xumean izan arren, gora. Gipuzkoako ustiategien % 0,7ko gorakadak azalera osoaren % 3,5 eta NAEaren % 1,7 gehitzea ekarri du.

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2013	2009	2009-2013 aldakuntza	2013	2009	2009-2013 aldakuntza	2013	2009	2009-2013 aldakuntza
Ustiategi kop.	3.265	3.679	–11,3	6.733	7.064	–4,7	5.837	5.799	0,7
AO (ha)	117.348	115.636	1,5	63.131	69.412	–9,0	79.318	76.651	3,5
NAE (ha)	102.954	102.101	0,8	39.919	44.528	–10,4	44.378	43.644	1,7

4.12. taula. Ustiategi kopurua, azalera osoa eta nekazaritza-azalera erabilia probintziaka 2013. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

Nekazaritza-azalera erabiliari begiratuz gero, azalera hori lurzoruaren zer erabilerari dagokien ikusiko dugu. Ondorengoak dira EAEko erabilerak:

	2013	2009	2019-2013 aldakuntza
Nekazaritza-azalera erabilia (NAE), (ha)	187.251	190.273	–1,6
Lur landuak (LL)	75.880	78.811	–3,7
Belarrezko eta lugorriak(*)	60.485	62.056	–2,5
Fruta-arbolak	1.501	1.981	–24,3
Olibondoak	167	147	13,6
Mahastiak	13.653	14.544	–6,1
Beste zurezkoak	73	83	–12,0
Larre iraunkorrak	111.371	111.462	–0,1

4.13. taula. Nekazaritza-azalera erabiliaren bilakaera EAEn. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

Probintzaka xehatzen badugu, ordea, beraien arteko aldeak ikusi eta bakoitzaren ekoizpen-joerak identifikatu ahalko ditugu:

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2013	2009	2009-2013	2013	2009	2009-2013	2013	2009	2009-2013
(NAE) (ha)	102.954	102.101	0,8	39.919	44.528	–10,4	44.378	43.644	1,7
Lur landuak (LL)	70.752	70.759	0,0	2.748	4.085	–32,7	2.380	3.967	–40,0
Belarrezko eta lugorriak(*)	57.530	56.935	1,0	1.958	2.647	–26,0	997	2.474	–59,7
Fruta-arbolak	93	110	–15,9	538	736	–26,9	870	1.135	–23,3
Olibondoak	164	139	18,0	-	1	-	3	7	-
Mahastiak	12.918	13531	–4,5	250	681	–63,3	485	333	45,6
Beste zurezkoak	47	45	4,4	2	21	–90,5	24	17	41,2
Larre iraunkorrak	32.202	31.342	2,7	37.171	40.443	–8,1	41.998	39.677	5,8

(*)Familia-baratzeak barne

4.14. taula. Nekazaritza-azalera erabiliaren bilakaera probintziaka. Iturria: Eustat. Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta.

4.2.1.9. Diagnostikoa osatzeko, datuak

Diagnostikoa osatzeko, NBALAPk 2009ko nekazaritza-zentsuan oinarrituta jasotako datuak aurkezten dira jarraian, era laburbilduan[67]:

- Ustiategien izaera juridikoa: % 95 inguru pertsona fisikoei dagokie eta % 5 pertsona juridikoei.
- Ustiategiko buruen artean emakumeak % 31 dira.
- EAEko ustiategien ia erdietan (% 46,4), pertsona bakar batek egiten du lan ustiategian, eta ustiategiko burua izaten da gainera.
- Euskal ustiategietan lan egiten duten langileen kopurua, aldi baterako soldatakoak (tenporeroak, etab.) izan ezik, 29.500 da, eta horien artean % 5 baino ez da langile finkoa. Ondorioz, ustiategiko langileen batez besteko kopurua 1,8 da.
- EAEko ustiategien % 25ean, ustiategian lan egiten duen kide batek gutxienez kotizatzen du nekazaritzako erregimen berezian (NEB), edo nekazaritzako langileen sistema berezian (NLSB), langile autonomoen araubide bereziaren barruan, eta kotizatzailea ustiategiko burua izaten da gehienetan.
- Ustiategiko batez besteko lan-karga 1,05 ULU[68]koa da 2009an, eta horietatik % 92,5 soldatarik gabeko pertsonek (ustiategiko buruak, familia-laguntzakoak edo pertsona bazkideak) egindako lanari dagokio[69].

67. NBALAP, 21.-28. or.

68. Ustiategiko urteko Lan Unitateak.

69. Familia-laguntzakoak ez diren edo soldatapekoak diren ULUak bikoitza baino gehiago izatera pasatu dira, 1999an 152.686 izatetik 2009an 325.286,3 izatera (Galdós eta Ruiz, 2013: 122).

– Ustiategiko buruaren batez besteko adina 58 urtekoa da EAEn: Araban, batez besteko adina 54 urtekoa da. Ustiategien % 33an ustiategiko burua 65 urtetik gorakoa da.
– Ustiategiko buruen ia % 93k ez du prestakuntzarik, ustiategian eskuratu duenaz gain.
– Ustiategien tamaina txikia kontuan izanda ere, ustiategiko buruen % 62k dio ustiategitik kanpo ez duela irabazizko beste jarduerarik edo erretiratuta dagoela; % 30,6k, berriz, beste lan bat du kanpoan eta haren diru-sarreren iturri nagusia da gainera.

4.2.1.10. Diru-laguntzak

Orain arteko diru-laguntza politikek eragin argia izan dute lurraren erabilera eta kudeaketan.

> Jasotako diru-laguntzetan bolumen-gehikuntza nagusiak 1992 eta 1999 urteetatik aurrera ematen dira NPBren[70] segidako erreformak aplikatzearen ondorioz.
>
> NPBren politikek ez dituzte nekazaritza-produktu guztiak berdin tratatzen eta sektore- zein lurralde-desitxuratze handiak sortzen dituzte, eskualde ezberdinak ezberdin tratatzen dituzten nekazaritza-produktuetan baitaude espezializatuak, eta horrek eskualde horiek tratamendu desberdinak jasotzea dakar (Murua *et al.,* 1996). Hala, Araban, 1990ean Nekazaritza Errentaren % 3,6 diru-laguntzetatik zetorren eta 2001ean % 21era hazi zen; Gipuzkoan, aldiz, proportzio hori % 2,2koa zen 1990ean, eta % 13,6koa 2001ean. Bizkaian % 9koa zen 2001ean (ezberdintasun hori lurralde horretako baratzezaintzaren pisu handiagoari dagokio ziurrenik, azpisektore hori izanik NPBk gutxien babestuenetako bat) (Murua *eta al.,* 2006: 75)[71].

Hori kontuan hartuz, itxuraz behintzat hain erabatekoak diruditen 2015eko aldaketek ere izango dute eraginik aurrerantzeko joeretan.

> 2015-2020 aldirako NPBren erreformak nabarmen aldatu du laguntza-eskubideen zuzeneko ordainketen eredua; lehen ordainketa bakarreko eskubideak zirenak, orain, oinarrizko ordainketa-eskubideak dira. (...) Gainera, oraingo erreformak aldaketa handia ekarriko du laguntza akoplatuak definitzerakoan, bai laguntza-kopuruari dagokionez, baita haiek eskuratzeko irizpideei dagokienez ere[72].

Labur esateko,

> 2014. urtera arte, urte hori barne, ordainketa zuzenen barruan zeuden, batetik, ordainketa bakarrak, eta, bestetik, sektore jakin espezifiko batzuetarako ordainketa gehigarriak.

70. Nekazaritza Politika Bateratua.
71. Egileak itzulia.
72. 2015-2020 NPBren Erreforma: Ordainketa Zuzenak. Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila. <http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/informazioa/2015-2020-npbren-erreforma-ordainketa-zuzenak/r50-pac1520/eu/> [kontsulta: 2015-11-03].

(...) nekazariek Oinarrizko Ordainketa bat jasoko dute, nekazari bakoitzak laguntza-erregimen guztietatik jaso dituen zenbatekoen arabera kalkulatzen dena. Gainera, baldintzapekotasunaz aparte, ingurumenarentzat onuragarri diren neurri batzuk betetzen baditu, laguntza osagarri bat (ordainketa berdea edo *greening*a) jasotzeko aukera izango dute. Nekazaritzan hasitako gaztea bada, lehen bost urteetan osagarri gehigarri bat jasoko du. Azkenik, laguntza gehigarri batzuk ezarri dira arazoak dauzkaten sektore jakin batzuentzat[73].

4.2.2. Basogintza

Erabilerak kontuan hartzen baditugu, baso-azalerak, zati zuhaiztunak eta zuhaitzik gabeak (larreak, sastrakadiak eta harkaiztiak), 491.526 ha okupatzen ditu, EAEko azalera osoaren % 68[74].

4.2.2.1. Baso-azaleraren banaketa



4.1. grafikoa. EAEko baso-azaleraren banaketa.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011[75].

Baso-zuhaizti azalerak EAEko azalera osoaren % 54,9 okupatzen du. Portzentajeak ezberdinak dira, ordea, probintzia bakoitzean: Araban % 46,4, Bizkaian % 59,5 eta Gipuzkoan % 62,9. Hostozabalen azalerak koniferoena gainditzen du, baso-landaketen hedadura baso naturalena baino handixeagoa den arren[76].

73. 2015-2020 NPB Ordainketa Zuzenak. Gidaliburua. Dokumentu osoa hemen: <http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/pac2015_pagosdirectos/eu_def/adjuntos/1.Vision_General_PAC_%20febrero2015_eu.pdf> [kontsulta: 2015-11-03].

74. *El bosque vasco en cifras,* HAZI Fundazioak Euskadiko baso-inbentarioaren inguruan eginiko txostena, 1 or. Egileak itzulia. Dokumentua: <https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inventario_forestal_2011/es_agripes/adjuntos/El%20bosque%20vasco%20en%20cifras%202011_2012.pdf> [kontsulta: 2015-11-03].

75. Egileak itzulia.

76. HAZI Fundazioa, *op. cit.*, 1. or. Egileak itzulia.

> Baso-inbentarioen arabera, azken urteetan hostozabalek okupatutako azaleran gorakada hauteman da, kostatik gertuen dauden guneetan eukaliptoa sartzearen ondorioz, batez ere Bizkaian, eta tokiko basoa berreskuratzera zuzendutako ekimenak direla-eta (pagoa eta haritza) Gipuzkoan. Araban abeltzaintzaren beherakadak pagadien berreskuratzea ahalbidetu du gune batzuetan, baita soilunedun basoaren hazkundea ere, basogintza jardueraren uzteagatik segur aski (Murua *et al.,* 2006: 132)[77].

4.2.2.2. Baso-azaleraren jabetza

Laugarren Baso Inbentario Nazionaleko Euskadiri dagokion txostenaren arabera,

> EAEko baso-azaleraren % 46 titulartasun publikokoa da, gainontzeko % 54a jabetza pribatu edo ezezagunekoa izanik.
>
> Mendi publikoen artean, Erabilera Publikoko katalogazioa duten eta komunalak ez diren herri-jabariko entitateei dagozkienak dira gehienak, guztiaren % 87 okupatuz; gainazalen bestelako hurrenkera batean, tokiko ondare-entitateen mendi publikoek, autonomia-erkidegoko herri-jabariko mendiek eta autonomia-erkidegoko ondare-mendiek jarraitzen diete garrantzian, azken horiek foru-aldundien jabetzako mendiak hartzen dituztelarik beren baitan. Mendi pribatuen artean, erregimen arrunteko elkarteei dagozkienak gailentzen dira»[78].

4.2.2.3. Jabetzen egitura (Murua et al., *2006: 134)*

- Baso-minifundioak dira nagusi.
- Baso-zatikatze garrantzitsua ageri da.
- Titular adinduak.
- Baso-kultura urria.

4.2.2.4. Baso-jabeen adina (Murua et al., *2006: 145).*

Lehen sektorearen gainontzeko arloetan gertatzen den bezala, euskal forestalisten batez besteko adina altua da: titularren 2/3 baino gehiago 50 urtetik gorakoak dira, eta 40 urtetik beherakoak ez dira % 10era iristen.

4.2.2.5. Espezieen banaketa

Pinus radiata

125.000 ha okupatzen ditu, eta erkidegoko baso-zuhaiztiaren % 32. EAEko azalera gehien duen baso-masa da. Ekoizpen-izaeradun landaketa da eta 600 metrotik beherako azalera zabalak hartzen ditu Gipuzkoa eta Bizkai osoan zehar, baita

77. Egileak itzulia.
78. Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011, 54. or. Egileak itzulia.

Arabako ipar-mendebaldeko muturrean ere (probintzia horretako kota baxuenak dituzten lurrekin bat eginez)[79]. Radiata pinuarena da basotze-hedadura zabalena.



4.1. irudia. Radiata pinudien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Ondorengo bi grafikoetan, ikusiko dugu nola banatzen diren pinudi hauek maldaren zein altitudearen arabera:



4.2. grafikoa. Maldaren araberako pinudien banaketa EAEn.
Iturria: Euskal basoa zenbakitan, HAZI Fundazioak Euskadiko baso-inbentarioaren inguruan eginiko txostena, 7. or.[80].

79. Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011, 14. or.
80. Egileak itzulia.

Pinudien ia % 40 % 30etik beherako malda duten lurretan kokatzen da, nekazaritzarako aproposak izan daitezkeenak. Pinudien ia erdia, 200-400 metro arteko tartean kokatzen da.



4.3. grafikoa. Altitudearen araberako pinudien banaketa EAEn. Iturria: Euskal basoa zenbakitan, HAZI Fundazioak Euskadiko baso-inbentarioaren inguruan eginiko txostena, 8. or.[81].

Fagus sylvatica

50.000 ha okupatzen ditu, eta erkidegoko baso-zuhaiztiaren % 13.

Altitude handiena duten guneetan ageri da, 600-1.200 metroen artean nagusiki, toki itzaltsuetan.



4.2. irudia. Pagadien banaketa EAEn. Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

81. Egileak itzulia.

Hostozabalen baso mistoak

Pagadien antzeko hedadura hartzen dute, baso-zuhaiztien % 12 pasatxo. 600 metrotik beherako gune itzaltsuetan azaltzen dira, banaketa uniformearekin EAE guztian.

4.3. irudia. Hostozabalen baso mistoen banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Quercus ilex

Artadiek 23.500 ha okupatzen dituzte, eta erkidegoko 4. multzo nagusia da. Eremu atlantikoan gutxi batzuk azaltzen diren arren, Arabako eremu mediterraneoko mendi-inguruetan dira nagusi 400-1.000 metroen artean, eguzkitara.

4.4. irudia. Artadien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Quercus faginea

Erkameztiek 22.000 ha okupatzen dituzte, eta Araban azaltzen dira ia esklusiboki 600-1.000 metroen artean.



4.5. irudia. Erkameztien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Ekoizpenerako beste konifero aloktono batzuk

Zuraren ekoizpenera zuzendutako landaketa hauek 19.000 ha okupatzen dituzte eta erkidegoko baso-zuhaiztiaren % 5 hartzen dute. Gipuzkoan kokatzen dira bereziki, 200-800 metroen artean, gune itzaltsuetan.



4.6. irudia. Ekoizpenerako bestelako konifero aloktono batzuen banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Pinus sylvestris

15.500 ha okupatzen ditu, eta jatorri naturalekoak dira gehienak, ia esklusiboki Araban azaltzen direlarik, 600-1.000 metroen artean.

4.7. irudia. Pinu gorrien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Eucalyptus sp.

14.200 ha okupatzen ditu, eta ia esklusiboki Bizkaian azaltzen da, kostatik gertu, eragin kantauriarreko guneetan, eta 400 metrotik behera betiere.



4.8. irudia. Eukaliptadien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Pinus nigra

Ia 13.000 ha okupatzen dituzte, ekoizpen-izaeradun landaketak dira gehienak. Erkidegoaren erdialdean ekialdetik mendebaldera doan zerrenda zabal batean kokatzen dira nagusiki. 1.000 metrora irits daitezke, baina normalean 400-800 artean azaltzen dira, eguzkitara.



4.9. irudia. Larizio pinuen banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Quercus robur, Quercus petraea

Hariztiek EAEko baso-zuhaizti azaleraren % 3 okupatzen dute, bioerregio atlantiko osoan zehar sakabanatuta azaltzen direlarik, Bizkaian eta Arabako iparraldean nagusiki. 800 metrora irits daitezkeen arren, 600 metrotik behera kokatzen dira printzipalki, gune itzaltsuetan.

4.10. irudia. Hariztien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Quercus pyrenaica

Ameztia masa nahiko puruak sortzeagatik bereizten da. 600-800 metroen artean kokatzen da batez ere, eguzkitara. Araban azaltzen da ia esklusiboki.

4.11. irudia. Ameztien banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

Pinus pinaster

6.400 ha okupatzen ditu, eta ekoizpenerako landaketak dira nagusiki. Bizkaian azaltzen dira gehien, 600 metrotik behera.

4.12. irudia. Itsas pinuaren banaketa EAEn.
Iturria: Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi 2011.

4.2.2.6. Zur-eraldaketaren industria

Coste de la no agricultura en el País Vasco liburuaren ekarpenak jasoko dira jarraian, industria horren azaleko argazki bat egiteko:

> 80ko hamarkadara arte, bertan ekoitzitako zura papergintzara bideratzen zen nagusiki, eta zerratokietara apenas % 20.
>
> Hala ere, papergintza-industria radiata pinua beste lehengai batzuekin ordezkatzen hasi zen, eta egoera horrek aldatzera egin zuen, 90eko hamarkadako bigarren erdirako guztiz alderantzikatuz: paper-industriara ez da ekoitzitako zur-bolumenaren laurdena baizik zuzentzen, gainontzeko hiru laurdenak tokiko edo gertuko eskualdeetako zerratokietara bideratzen delarik (egun, EAEn ekoitzitako zuraren % 30, kalitate onenekoa, beste eskualde batzuetako altzarien industriarako esportatzen dela estimatzen da).
>
> Zuraren industria-adarrean mila enpresa pasatxo egon arren, egun enpresa horien kopuru oso murritz batek baino ez du harremanik radiata pinuaren zuraren tokiko ekoizpenarekin: zerra-industriako enpresak edo zerratokiak (papergintzak protagonismoa galdu du) (Murua *et al.,* 2006: 148-149)[82].

4.3. TURISMOA

Turismoa indar handiz sartu da landa-eremuan. Horri dagokionez, 2015-2020 aldirako LGPren arabera azken urteetan bilakaera positiboa izan duen sektorea izan da EAEn, eta nekazaritza-turismoko establezimenduen bilakaera ere positiboa izan omen da era berean. Txosten horrek adierazten duenez, 2008-2011 tartean bai establezimenduen kopuruak bai eskainitako lekuek landa-eremuetan % 10,28 egin dute gora. Bilakaera hori EAEko landa-eremuek jasaten duten garapen turistikoaren isla dela nabarmentzen du, eta sektoreak enpleguan egin dezakeen ekarpena oso faktore garrantzitsua dela gune hauen hazkunde ekonomikorako.

Hari horri tiraka, NBALAPk zera dio:

> Ikuspegi ekonomiko batetik, industrian, artisautzan eta merkataritzan enpresa txikiak ezartzeak, eta aisiarekin, turismoarekin eta atsedenarekin loturiko zerbitzuak eskaintzeak garrantzi handia du. Azken alde horrekin loturik, hiriko eta landa-inguruneko populazioaren arteko harremanen hazkunde nabarmenak azpimarrarazten du natura-ondarea eta berdeguneak babestearen eta gizakiak historian zehar eraikitako paisaia kontserbatzearen onura[83].

4.4. LANDA-INGURUNEKO SUSTAPEN-POLITIKAK

2008an Ruiz Urrestarazu, Galdós Urrutia eta Porcal Gonzalok argitaratutako EAEko mendiguneetako landa-garapenerako ekimenen inguruko artikuluan (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 123-153) argi gelditzen da egungo egoera zuzenki lotuta dagoela aurrera eramaten diren politikekin. Nekazaritza-jardueren ingurukoetan,

82. Egileak itzulia.
83. NBALAP, 19. or.

adibidez, ustiapenetako egituren hobekuntza lotzen da haien azalera eta ekonomia-hazkundearekin, eta lursailen birmoldaketarekin, Landa Garapenerako Programek onartzen dituzten Nekazaritza Politika Bateratuen ildotik. Horrek, ustiategien kopurua gutxitzea dakar, eta zehazki, txikienak desagertzea.

Mendiguneetako industria-garapenari dagokionez, zera adierazten du artikuluak:

> Nekazaritzak ekonomiaren motor bezala zuen garrantziaren galeraren aurrean, landa-garapenaren helburuetako bat landa-eremuaren dibertsifikazio funtzional eta ekonomikoa, eta biztanle guztiei zuzendutako estrategia eta neurrien sustapena dira, ez baserritarrei zuzendutakoak soilik. Xede horretan oinarritzen dira Espainiako Landa Garapen Iraunkorrerako Programaren 3. ardatza eta EAEko Landa Garapenerako Programakoa. Horiek eskualde-izaerako Landa Garapenerako Programen bitartez zehazten eta ezartzen dira. Ardatz hori artikulatzen duten neurrien artean, nekazaritzakoak ez diren jardueren sustapena nabarmentzen da, eta testuinguru horretan, mikroenpresen garapen eta sorrerara, industria landa-ingurunera erakartzera, eta jarduera turistikoak sustatzera bideratutako laguntzak (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 140)[84].

Artikuluak hainbat hausnarketa interesgarri egiten ditu tertziarizazioaren inguruan, eta aurretik NBALAPk esandakoarekin bat dator:

> Ekoizpen-jardueretako ekonomia zerbitzu-jardueretakoa bihurtzea, tertziarizazio bezala ere ezagutua, azken hamarkadetako gizarte garatuen joera bereizgarria da. Ez du bakarrik hiri-eremuan eragiten, landa-eremuan ere eragina du. (...) EAEko eremu menditarretan hirugarren sektoreak duen garrantzia ikuspuntu bikoitz batetik egiazta daiteke: enplegutik eta ekonomian duen parte-hartzetik (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 146)[85].

Horrez gain, azken bi hamarkadetan zehar, hainbat europar, nazio, eskualde, eta tokiko izaerako plan eta programak turismoaren sustapena landa-garapenerako estrategia gisa bultzatu dutela nabarmentzen du (LEADER, Espainiako Landa Garapen Jasangarrirako Programa, EAEko Landa Garapenerako Plana, Eskualdeetako Landa Garapen Programak, eta abar).

> Turismoa landa-eremu behartsuen biziberritzerako tresna eraginkor gisa ulertzen da, besteen artean errenta eta lanpostuak sortzeko gai dena, are gehiago ondorengo faktoreak kontuan hartzen baditugu: batetik, landa eta mendiaren balioaren handitze gorakorrak eskaintzen duen aukera batez ere hiritarra den eskaera baten aldetik, gero eta aisialdi denbora zatituagoa duena, eta turismo masiboak asebetetzen ez duena, eta, bestetik, landa-eremu hauetariko askok eskaintzen dituzten aisialdirako aukera handiak, normalean jasotzen dituzten natura- eta kultura-ondareen aberastasuna delaeta (Porcal, 2003: 66) (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 147-148)[86].

84. Egileak itzulia.
85. Egileak itzulia.
86. Egileak itzulia.

Horretarako hainbat plan eta programa sortzen dira, honako helburu honekin:

> Landa-garapenerako eta turismoaren garapenerako plan eta programa ezberdinetan aisialdirako eskaintza egituratu eta integral bat sortzea proposatzen da, zeinak baliabideak, azpiegiturak eta zerbitzuak bilduko dituen, eta finean, produktu turistikoen finkatzea ahalbidetuko duen, sustatu eta komertzializatu daitezkeenak. Euskal Turismoaren I. Marketin Planak, Hor Dago! Plana 2009-2012, barne hartzen dituen produktu turistikoen testuinguruan, Euskadiko paisaia naturala *Berdea* markapean zabaldu zen (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 148)[87].

2014-2017ko Euskadiko Turismo Marketin Planeko produktu-kategorien lehenespen-mailako *Natura* litzateke aurreko *Berdea* produktuaren oinordekoa, eta gehiago zehaztu nahi izanez gero, horren barneko *TOP bizipenak* ataleko *Paisaia/ Natura*[88].

Kontuan hartzekoa da artikuluak aipatzen duen beste aspektu bat:

> 1998tik agroturismoa izan da euskal administrazio publikoak bereziki babestutako modalitatea, nekazaritza-errentarekin osagarria den aktibitatea eta ustiapenen jasangarritasuna finkatzeko ulertua den heinean (Porcal, 2002: 459). Hala, nekazaritzakoak ez diren jardueren dibertsifikaziorako neurri bezala jaso dira 2007-2013ko EAEko LGPn (Ruiz, Galdós eta Porcal, 2008: 149)[89].

2015-2020ko LGPn, eskala txikiko turismorako azpiegiturek beren tokia izaten jarraitzen dute.

Aurrez aipatutako artikuluan hiru kasu praktiko aztertu ondoren, Ruiz Urrestarazu, Galdós Urrutia eta Porcal Gonzaloren ondorioetako batekin gelditzen gara gu: plan eta programa ezberdin horien lorpenek industria- eta zerbitzu-sektoreetan izan dute eragina, eta ez, aldiz, nekazaritzakoan, zeinak bilakaera negatiboa izaten jarraitzen duen. Baina badakigu egitura horietatik kanpo, tokitik bertatik jaioak, turismoa eta lehen sektorea eskutik lotuta eta modu orekatu eta oparoan joan daitezkeela zenbait kasutan (Milikua, 2013).

87. Egileak itzulia.

88. 2014-2017ko Euskadiko Turismo Marketin Plana, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

89. Egileak itzulia.

5. Nekazaritza eta basogintzaren funtzio-aniztasuna

Hain garrantzitsua kontsideratzen den aspektu horretan sakontzeko, *Coste de la no agricultura en el País Vasco* liburuko zatiak jasoko ditugu, euskarara ekarriak. Letra lodiz adieraziko dira azpimarratu nahi direnak.

> Azken hamarkadotan, nekazaritzako aldaketekin eta haren baldintza ekonomikoekin batera, zenbait ikuspegi analitiko sortu dira, zeinek sektore ekonomikoen, gizartearen eta lurraren beraren edota ingurune fisiko hurbilenaren arteko harremanen zailtasunaz ohartarazten baitute, tokiko eta eskualdeko ikuspegi batetik. Testuinguru horretan, **funtzio-aniztasunaren paradigma** ageri da, jatorria Brundtland txosteneko (1987) garapen iraunkorraren kontzeptuaren formulazioan duena eta, dagoeneko dakigun bezala, jarduera ekonomikoek belaunaldi arteko elkartasuna aintzat hartu behar dutela dioena.
>
> Nekazaritzaren funtzio-aniztasunaren nozioak hauxe du **oinarrian:** nekazaritza-sistemak berez dira funtzioaniztunak, alegia, beti bete izan dituzte hainbat funtzio, elikagaiak, zuntzak eta beste lehengai batzuk ekoizteaz gain, eta, horrela, barne hartu dituzte ingurumen-funtzio, funtzio ekonomiko eta gizarte-funtzio ugari. Funtzio-aniztasuna, beraz, **jarduera ekonomiko batek aldi berean hainbat output emateko eta hainbat helburu lortzeko duen ahalmenari dagokio;** hau da, ekonomian baterako ekoizpen edo baterako produkzio izenez ezagutzen dena. Funtzio-aniztasuna, **hortaz, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-prozesuen ezaugarria da,** nahiz eta, orobat, helburutzat ere har daitekeen, eta, ondorioz, **haren alderdi interesgarrienak indartzeko berariazko politikak egin daitezke.**
>
> Funtzio-aniztasuna jorratzea **garrantzitsua** izan daiteke **ikuspegi politiko zein publikotik,** zeren, emandako output-etatik batzuek ongizatea ahalbidetuko baitute, eta beste batzuek, berriz, higatuko, eta horrek iradoki dezake positiboen ekoizpena edo hornidura indartzeko egokitasuna, ongizatea kaltetzen dutenena gutxitzen den neurrian (Murua *et al.,* 2006: 199)[90].

5.1. FUNTZIO-ANIZTASUNA NEKAZARITZAN

> Nekazaritzak, **ekoizpen-jarduera den neurrian,** hiru eremutan ditu **emaitzak: ekonomikoan, ingurumenari dagokionean eta sozialean.** Alderdi ekonomikoari dagokionez, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten nekazaritza-produktuen ekoizpena dugu aipagarri; ingurumen-alderdiari dagokionez, lurzoruak eta ekosistemak

90. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.

kontserbatzen laguntzen du nekazaritzak, bai eta biodibertsitatea ere, eta paisaia modelatzen du; alderdi sozialean, azpimarratzekoa da aisiari eta enpleguari egiten dien ekarpena, zeren zona berde eta jolaslekuen bitartez biztanleek aisialdiaz gozatzeko aukera ematen baitu. Landa-eremuan gizarte- eta kultura-ohiturak sortzen laguntzen du.

Ondorio ez komertzialak	**Ekoizpen komertzialak**	**Nekazaritzakoak ez diren jarduera komertzialak**	**Ondasun publikoen hornidura zuzena**
Paisaia	Laboreen banaketa (paisaiaren egitura eta kolorea)	Landa-turismorako eraikuntza eta ekipamenduak	Nekazaritzarako eraikinen mantenimendua; belardi loreztatuak
Ekosistema eta espezieen biodibertsitatea	Labore eta aziendaren banaketa	Ekosistema espezifikoetarako sarbide ordaindua	Hezeguneen eta beste habitat batzuen sorrera, segurtasun-ingurabideak, korridoreak, animalia basatien elikadura
Lurzoruaren kalitatea	Laboreen banaketa, azaleko laboreak		Azaleko labore iraunkorrak
Uraren kalitatea	Laboreen banaketa, azaleko laboreak (higadura)	Laku eta ibai garbietarako sarbide ordaindua	Azaleko labore iraunkorrak; moteltze-eremuak
Airearen kalitatea	Laboreen banaketa, azaleko laboreak (higadura)		
Uraren erabilera	Laboreen banaketa		
Lurzoruaren kontserbazioa	Laboreen banaketa		Azaleko labore iraunkorrak; basotzea
Berotegi-efektuko gasak	Labore eta aziendaren banaketa		Belar-estaldura iraunkorra, basotzea
Landaguneen bideragarritasuna		Ustiaketaren aparteko diru-sarrera	

Elikadura-segurtasuna	Elikadura-segurtasunerako biltegiratzea	Banaketa eta merkaturatze-adarrak	Lurzoruen emankortasunaren mantentzea, hazien bankua
Ondare kulturala	Elikadura, gastronomia ondare kulturalaren elementu bezala	Landa-tradizioak turismo-erakarle bezala	Landa-eraikuntza, egitura eta ohituren mantentzea
Animalien ongizatea			

5.1. taula. Nekazaritzako output ez komertzialak.
Iturria: Murua Múgica, J.R. *et al.,* (2006: 201). Egileak itzulia.

Nekazaritza-sistema bakoitzaren espezifikotasunek zehaztuko lituzkete output bakoitzaren ekarpen-maila eta ekoizpenen (komertzialak, komertzialak ez direnak eta nekazaritzakoak ez direnak) **elkarrekiko harremana** (Murua *et al.,* 2006: 199-200)[91]. Komertzialak ez diren ekoizpenak ustiategiko zenbait ekoizpen-jarduerarekin lotu daitezke, izan nekazaritzakoak zein ez. Bestetik, ekoizpen-prozesuko elementu bakoitzak, era berean, komertzialak ez diren zenbait output-i eragiten die. **Kanpo-efektu batzuen nekazaritzakoa ez den izaera horrek adierazten du lurraldeari, landa-eremuari berari, loturiko funtzio-aniztasuna existitzen dela,** zeinari esker gero eta gehiago baloratzen baita nekazaritzaren funtzio-aniztasuna barne hartzen duen landa-eremuko funtzio-aniztasuna.

Gainera, nekazaritzak eta landa-eremuak funtzio berriak onartzea eta garatzea batzuetan kanpo-faktoreen bultzadaren menpe dagoen prozesua da. Horrela, gizarte garatuetan, aisialdirako aukera gehiago eta errenta altuagoak izateak kontsumo-ereduen eta bizi-estiloen eboluzioa dakar. Izan ere, **landa-eremua, gero eta gehiago, atseden eta aisialdiko jarduerak egiteko kontsumo-produktutzat hartzen da,** eta, horrekin batera, haren kontserbazioarekiko kezka eta sentiberatasuna garatzen dira (Murua *et al.,* 2006: 200)[92].

Puntu honetan, hausnarketa interesgarri bat planteatzen du liburuak: «Nola **bermatu** baterako ekoizpenetik sortzen diren eta sozialki nahitaezkoak diren **ondasun eta zerbitzuen hornidura hoberena,** nekazaritza- eta basogintza**-jarduerak errentagarriak ez direnean**» (Murua *et al.,* 2006: 200)[93]. Eta orain artekoa aintzat hartuta behintzat, begi-bistakoa da nekazariak direla funtzio hori hoberen bete dezaketenak beren ekoizpen-jardueren markoan.

Hari berberari tiraka, «Nazioarteko politika eta merkataritzaren ikuspegitik, herrialde batzuetan kezkatuta daude ez ote den **nekazaritza-produkzioa eroriko eta, harekin bat, batera ekoitzitako komertzialak ez diren output-ak ere,** merkataritza liberalizatzearen eta ekoizpena sustatzeko laguntza gutxitzearen

91. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.
92. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.
93. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.

ondorioz» (Murua *et al.,* 2006: 200)[94]. Interesgarria da egileek puntu horren inguruan jasotzen duten planteamendua:

> Aitzitik, **komertzialak ez diren zenbait output-en hornidura bermatzearren, gerta daiteke nekazaritza-produktuen etxe-merkatuak babestera jotzea edo nekazaritza-produkzioa handitzea,** hornidura hori handitzeko asmoz.
>
> **EBn,** lurraren erabilera funtzioaniztunaren kontzeptua printzipio nagusi bilakatu da nekazaritzarako laguntza legezkotzat hartzeko Agenda 2000 onartzearen ondorioz, zeren **«europar ereduaren eta gure lehiakideenaren arteko funtsezko desberdintasuna Europako nekazaritzaren izaera funtzioaniztunean bilatu behar da, bai eta ekonomian eta ingurumenean, gizartean eta landa-eremuaren kontserbazioan jokatzen duen rolean ere; hortik dator nekazaritzari eusteko beharra, nekazarien errenten alde eginez»** (EB, 1999) (Murua *et al.,* 2006: 200-201)[95].

5.2. FUNTZIO-ANIZTASUNA BASOGINTZAN

> Basogintzaren helburu nagusia zura ekoiztea den arren, onartutzat jotzen da, ezen haren garrantzi ekonomiko eta soziala ekoizpen horrek eragiten dituen diru-sarrerak baino gehiago dela. **Zura ekoiztearekin batera, eta hari erabat loturik, ingurumen- eta gizarte-arloko beste ondasun eta zerbitzu batzuk ekoizten dira; horiek gero eta onartuagoak eta baloratuagoak** ditu gizarteak, oro har, eta hiriguneetako biztanleriak, bereziki.
>
> (...) **basogintzak, ekoizpen-jarduera den neurrian, hiru eremu hauetan** (iraunkortasunaren hiruki magikoa) ditu emaitzak: **ekonomikoan, ingurumenari dagokionean eta sozialean.** Alderdi ekonomikoari dagokionez, ikusi den bezala, zura ekoizteak (eta beste ondasun eta zerbitzu batzuk) aberastasuna eta lanpostuak sortzen ditu, garapen ekonomiko eta sozialaren ardatzetako bat baita, landa-eremuan bereziki. Ingurumenari bagagozkio, basoek lurzoru eta ekosistemen kontserbazioan laguntzen dute, bai eta uren erregulazioan eta ingurunearen purifikazioan ere, karbonoa finkatzea ahalbidetzen duen eta, zenbait baldintzatan, biodibertsitatea errazten eta paisaia modelatzen duen hustuleku gisa jokatuz.
>
> Alderdi sozialaz denaz bezainbatean, enpleguan eragiten du tokiko errenta-iturriak bultzatuz; horrek zalantzarik gabe landa-garapena eta landa-eremuko jarduera eta zerbitzuak mantentzea sendotzen du, zeren zona berde eta jolaslekuen bitartez biztanleek aisialdiaz gozatzeko aukera ematen baitu) (Murua *et al.,* 2006: 202-203)[96].

Aspektu hauek politika ezberdinetan izan dezaketen islaren inguruan, komenigarria litzateke ikuspegi eta figura ezberdinen inguruan gogoeta egitea:

> Funtzio-aniztasuna, basogintzarena zein nekazaritzarena, basogintza-politikarekiko helburutzat **(printzipio arauemailea)** har daiteke edo ekoizpen-jarduera horren ezaugarritzat **(printzipio positiboa),** zeinaren espezifikotasun bat elkarrekin erlazionatutako hainbat output ekoiztea den (Murua *et al.,* 2006:203)[97].

94. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.
95. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.
96. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.
97. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.

5.3. PAISAIA

5.1 taulako gainontzeko elementuei garrantzirik kentzeko asmorik gabe, izaera funtzioaniztun horretako paisaiaren alderdiari erreparatuko diogu sakonago, honako arrazoi hauek direla medio: batetik, bertan izandako aldaketa eta moldaketak modu zuzen eta argian hautematen dituztelako herritarrek; eta bestetik, horren inguruan garatu diren lege eta arauen ugaritzeagatik.

Errepasoa laburra izango da, eta aspektu zehatzetara mugatuko gara araudia aztertzean.

5.3.1. Paisaiaren Europako Hitzarmena

2000ko urriaren 20an, Paisaiaren Europako Hitzarmena onartu zuen Europako Kontseiluak Florentzian[98].

Hitzaurrean jasotzen direnen artean:

- Gogoan hartuz paisaiak **interes orokorreko rol garrantzitsua** jokatzen duela arlo kultural, ekologiko, ingurumeneko eta sozialetan, jarduera ekonomikorako baliabide onuragarria dela eta haren babesa, kudeaketa eta antolamendua enplegua sortzeko lagungarria izan daitekeela;
- Ohartuta paisaiak tokian tokiko kulturen eraketa bultzatzen duela eta **Europako natur eta kultur ondarearen funtsezko osagaia dela, gizakien ongizatea eta europar identitatea bermatzeko mesedegarria** dela;
- Onartuta paisaia **biztanleen bizi-kalitaterako osagai garrantzitsua** dela leku orotan: hiri- nahiz landa-inguruneetan, zonalde narriatu nahiz kalitate handikoetan, aparteko edertasunagatik ospetsu diren eremuetan nahiz arruntagoetan;
- Gogoan hartuz nekazaritza, basogintza, industria eta meatzaritzako ekoizpen-tekniken nahiz eskualdeko eta hirigintzako antolamenduaren zein azpiegitura, turismo eta aisiaren esparruko tekniken bilakaerak eta munduko ekonomian gertatzen ari diren **aldaketek kasu askotan paisaiaren eraldaketa bizkortu** dutela;
- **Kalitate handiko paisaiez gozatzeko eta paisaien garapenean eraginkorki parte hartzeko xede orokorrari** erantzuteko gogoz;
- Sinetsita paisaia **banakoaren eta gizartearen ongizaterako funtsezko osagaia** dela eta hura babestu kudeatu eta antolatzeak **guztiontzat eskubideak eta erantzukizunak** dakartzala;

98. Europako Kontseiluko Paisaiaren Europako Hitzarmena (Florentzia, 2000-X-20)

Lehenbiziko aldiz, hitzarmenaren 1. kapituluko 1. artikuluan ondorengo definizioak jaso ziren hitzarmenaren ondorioetarako:

a. «paisaia»: lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita;

b. «paisaiaren alorreko politika»: paisaia babestu, kudeatu eta antolatze aldera berariazko neurriak hartzea ahalbidetuko duten printzipio orokorren, estrategien eta jarraibideen formulazioa agintari publiko eskudunen aldetik;

c. «paisaiaren kalitate-helburua»: paisaia zehatz baterako, biztanleek haien ingurunearen paisaia-ezaugarriei buruz dituzten nahien formulazioa agintari publiko eskudunen aldetik;

d. «paisaien babesa»: paisaia baten alderdi esanguratsu edo bereizgarriak kontserbatu eta mantentzera bideratutako ekintzak, pasaiak haren natur konfigurazioagatik edota gizakiaren ekintzagatik duen ondarezko balioaren arabera;

e. «paisaien kudeaketa»: garapen iraunkorreko ikuspegi batetik, paisaiaren mantentze egokia bermatzera bideratutako ekintzak, prozesu sozial, ekonomiko eta ingurumenekoek eragindako transformazioak gidatu eta egokitze aldera;

f. «paisaia-antolamendua»: paisaiak hobetu, berreskuratu edo sortze aldera batik bat etorkizunera begira egiten diren ekintzak.

3. artikuluan azaltzen denez, «hitzarmen honen helburua paisaien babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea da, eta Europan alor honetako lankidetza antolatzea».

Lehenengo aspektuei erreparatuta, paisaien babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzeko hitzarmeneko 5. eta 6. artikuluetan neurri orokor eta zehatzak definitzen dira.

2009ko uztailaren 21ean, Paisaiaren Europako Hitzarmen horri atxikitzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Atxikipen horrekin, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren edukiak onartzeko eta bere erantzukizuneko esparruetan betetzeko konpromisoa hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoak.

Hitzarmen horri atxikitzearen ondoriozko konpromisoetako bat paisaia lurralde-antolamenduko politiketan sartzea da, eta, printzipio horren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan dagoeneko ezarri zen paisaia-balioak kontserbatzeko bermea, lurralde-antolamenduko bitartekoen irizpide eta helburu gisa.

1997ko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan jasota daude paisaiaren aldetik tratamendu berezia izan behar duten ikuspen-eremuak katalogatzeko beharra eta paisaiak une horretan duen moldea hausten duen edozein obra edo jardun egin ahal izateko paisaiaren azterlana aurkezteko betebeharra. Gidalerroetan zehazten da, orobat, gai horiek lurralde-planetan garatu beharko direla.

5.3.2. 90/2014 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa

Aipatu berri den araudi horren esparruan,

> dekretu honen xedea mekanismo normalizatuak finkatzea da, aurreikuspen horiek betetzeko eta, horrela, modu koherenteago eta sistematizatuagoan bete ahal izateko paisaia lurralde-antolamenduan sartzeko helburua.
>
> Lurralde-antolamenduaren esparruan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko bitartekoak identifikatzen ditu dekretuak: hala nola **paisaiaren katalogoak, paisaiaren zehaztapenak, paisaiaren ekintza-planak eta paisaian integratzearen azterlanak.** Halaber, eta hain zuzen paisaiaren tratamendua arautzeak dakarren berrikuntzagatik, Eusko Jaurlaritzak honako arlo hauek sustatzeko hartutako konpromisoei erantzuten die dekretu honek: **sentsibilizazioa, trebakuntza, hezkuntza, parte-hartzea eta paisaiaren esparruan laguntzeko beste jardun batzuk**[99].

Horrela, dekretuko artikuluen bitartez hemen letra lodiz adierazitakoak zehatz garatzen eta zehazten dira.

5.3.3. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (NBALAP)

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren sinatzaileek hartzen dituzten konpromiso orokorren artean sartzen da, halaber, lurraldea, hirigintza, kultura, ingurumena eta nekazaritza antolatzeko politikan, eta politika sozial eta ekonomikoan, edota paisaian zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketen bestelako arloko politiketan paisaia aintzat hartzeko obligazioa; izan ere, NBALAPren helburuetako bat da hori.[100]

Dokumentu honek paisaiari buruzko eranskin bat jasotzen du, eta jarraian paisaia, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza erlazionatzen dituzten laburpen batzuk jaso dira, orain arte aipatutakoak berresten dituztenak.

---

99. 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

100. NBALAP, 32. or.

Nekazaritza

Erabilera honek hainbat jarduera, eraikuntza eta instalazio, eta nekazaritza-jarduera berezi ditu berekin. Horiek guztiak dira **landa-paisaiaren moldeaketaren arduradun,** eta erabilera azkenaldian pairatzen ari den aldaketek landa-nortasuna kontserbatzeko **kontrolatu beharreko paisaia-eraginak** dituzte.

(...)

EAEko Landa Ingurunearen Garapenerako Jardun Planak (1997-2000) eta 1995etik 2017ra indarrean dagoen 2078/92 Erregelamendua Aplikatzeko Programak paisaiari buruz formulatutako oharrak kontuan hartuta, **nekazaritza-erabileraren paisaia-helburua landa-paisaiaren funtsezko ezaugarriak sortzen laguntzean eta kontserbatzean** datza. Beste paisaia-helburu batzuk erabilera horrekin lotutako jardun, instalazio eta eraikuntzen paisaia-integrazioa da, paisaiaren ezaugarriak isla ditzaten, **eta ingurumenaren eta ekologiaren kalitate-maila ahalik eta handiena kontserbatzea** ere bai.

(...)

Erabilera hori egiten dutenak sentsibilizatzea, heztea eta prestatzea **nekazariek eta abeltzainek landa-paisaia kontserbatzeko egiten duten lanaren, natura- eta kultura-ondarearen adierazgarri gisa paisaiak duen garrantzia**ren eta hori **zaintzeko premia**ren inguruan.

Abeltzaintza

Abeltzaintza da, **nekazaritzarekin batera, landa-paisaiaren moldeaketan eta kontserbazioan eragin handiena duen jarduera.** Oro har, **lurzoruaren baliabideekin loturiko abeltzaintzak landa-paisaia tradizionalaren kontserbazioa faboratzen du;** lurzoruaren baliabideekin **loturarik ez duen abeltzaintzarekin** zerikusia duten eraikuntzek, berriz, **arazo handiagoak** eskaintzen dituzte paisaian integratzeko.

(...)

Abeltzaintza-erabileraren **paisaia-helburua da erabilera hartzen duen zonako landa-paisaiaren ezaugarriak sortzea eta kontserbatzea, eta artzaintza modupean sortzen diren larre menditarretako paisaien ezaugarriak kontserbatzen laguntzea.**

(...)

Nekazariak eta abeltzainak sentsibilizatzea, heztea eta trebatzea landa-paisaiaren kontserbazioan duten funtzioaren, paisaiak natura- eta kultura-ondarearen adierazle gisa duen garrantziaren, eta hori kontserbatzeko premiaren inguruan.

Basogintza

Erabilera hau **EAEko populazioaren ohiko paisaiaren funtsezko osagaia** da eta, ondorioz, **ezinbestekoa da paisaiaren pertzepzioan duen garrantzia;** horregatik da guztiz garrantzitsua hori paisaian integratzea.

(...)

Basogintza-erabileraren funtsezko paisaia-helburua da horrekin loturiko jarduerak **ahalik eta paisaia-ezaugarri natural gehien duten paisaietan kokatzea,** kontuan hartuta zer garrantzi duen **nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerekin konbinatzen denean paisaiaren pertzepzioan beheko kotetan kokaturik** egoteagatik; eta **goragoko kotetan** gertatzen denean, **natura-ezaugarri gehien dituzten paisaiekin bat** egiteagatik. Basogintza-erabileraren beste paisaia-helburu bat da **ahalik eta kalitate ekologikoko maila handiena lortzea,** paisaiaren tratamenduak horretan lagun dezakeen neurrian[101].

101. NBALAP, 34.-36. or.

6. Politikak eta legeria

Politika zehatzen ondorioz jaiotzen dira lege zehatzak. Lehentasunezkotzat jotzen diren gai eta irizpideen arabera, politika jakin batzuk babesten dituzten legeen eraginpean, jardun konkretu batzuk faboratu egingo dira, eta beste batzuk debekatu. Legearen eragin-esparruaren arabera, gizartearen segmentu ezberdinei eragingo die, helmen handiagoa edo txikiagoa izango dute. Badira era nabarmenean egunerokotasunean nabari ditzakegun legeak (hainbat, bat aipatzekotan tabakoaren aurkako legea), eta badira halako ikusgarritasunik (eta batez ere propagandarik) gabe gure egunerokotasuneko egiturazko aspektuetan eragina dutenak.

Landa-eremuari oro har, eta nekazaritza eta basogintzako erabilerei zehazki lotutako lege eta arau ugari plazaratu dira azken hamarkadetan. Ezin dira inondik inora konparatu duela bi belaunaldi lehen sektorean aritzen zirenen baldintzak eta egun sektore horretan enplegatu nahi duen inork bete beharrekoak. Gizartearen bilakaerak eragin zuzena izan du horretan, lerrokatutako politika, eredu eta legeek. Ondoren, horien errepaso bat egingo da, hainbat dokumenturen laguntzarekin. Baina ezertan hasi orduko, zera argitu behar da: alde izugarria dago idatzizko posizio eta planteamenduen eta errealitatean egikaritzen direnen artean. Teorian jasotakoan soilik oinarrituz gero, lurralde-antolamendua, eskala eta eragin-esparru ezberdinetako legeak egungo beharrizanetara egokitu eta egoki erantzuten ari direlako ustea eraiki dezakegu. Tamalez, errealitatearekin alderatzen den unean, bien arteko aldeak ez du zalantzarako tokirik uzten. Are gehiago, errealitateak, askotan, paperean errezatzen denaren kontrako bide argia hartzen du.

Ondoren, paperean aurki ditzakegun horiek aztertuko ditugu. Lege eta arauek elkarri eragiten diote, eta, hortaz, ez dira modu isolatuan maneiatuko, multzoka edo taldeka baizik. Lege bat talde batean baino gehiagotan azal daiteke, zein artikulu edo atali egiten dion erreferentzia. Letra lodiz adieraziko dira azpimarratu nahi diren aspektuak.

6.1. 17/2008 LEGEA, 193/2012 DEKRETUA, 126/2012 DEKRETUA ETA NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (NBALAP)[102]

17/2008 Legearen, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren Atariko Tituluan zehazten dira lege horren xedapen orokorrak, xedeak eta helburuak. Hala ere, bestelako dokumentuen bitartez egingo dugu argazkia:

> **Nekazaritza-jarduerari eta elikagaiei buruzko jarduera-ildo zuzenak Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legean (abenduaren 23koa, EHAAren 250. zk., 2008/XII/31) jasota daude.** Nekazaritza- eta elikagai-sektoreetan parte hartzen duen erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak gauzatzeko jarraibideak zehazten dira bertan, sektorea kudeatzen duten erakunde- eta administrazio-sare konplexua koordinatu eta sare horren eta herritarren arteko harremana bideratzearekin batera.
>
> **Sektorearen sustapen ekonomikorako zuzentarau nagusiak finkatzen ditu lege horrek, Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB) delako nazioz gaindiko esparruan** inbrikatuz. Nekazaritza- eta elikagai-sektoreen antolamendu orokorra da lege horren aplikazio-esparrua, eta alor hauek biltzen ditu: ekoizpena, eraldaketa, ontziratzea, merkaturatzea eta nekazaritza-ingurunearen multifuntzionaltasunari lotutako jarduerak, oro har. Era berean, baso-sektoreko bigarren eraldaketa eta merkaturatzea ere hartzen ditu, ustiategian edo nekazaritza-industrian bertan eginez gero (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 7).

Lege horretan esandakoek lurraldean duten garrantzia (eta balizko eragina) zehazte aldera, NBALAP[103]ren Memoria dokumentuko 4. Esparru Juridikoa atalera joko da.

> 4.1. Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legea
>
> (...)
>
> Legearen xede eta helburuen artean, honako hauek nabarmendu behar dira Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko LAP honen esparruan:
>
> – **Nekazaritza-jardueraren eta horren izaera multifuntzionalaren aitorpen soziala,** betiere Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen kudeaketa orekatuan eta landa-ingurunearen zein kultura-ondarearen kontserbazioan duen garrantzia aintzat hartuta.
> – **Nekazaritza-lurzoruaren defentsa,** nola horren balio agronomikoa hala biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta bermea dela aintzat hartuta.
> – **Nekazaritza-ustiategien jarraitutasuna ziurtatzea, landa-ingurunean garapen ekonomikoaren oinarrizko tresna** diren aldetik.

102. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa; 193/2012 Dekretua, EAEn Nekazaritza-lurra Kontserbatzeari eta Lur horren Erabilpena Sustatzeari buruzkoa; 126/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzkoa, eta Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (NBALAP).

103. NBALAP, 36. or.

– Ustiategien bideragarritasun ekonomikoaren mesederako izango den **egitura-dimentsionamendua sustatzea eta zaintzea.**

– **Nekazaritza-lurzorua babestea,** batez ere **zona behartsuenetan eta hirigintza-presiopean dauden zonetan.**

– **Nekazaritzaren multifuntzionaltasunak biltzen dituen jarduerak babestea,** hala nola lurralde- eta paisaia-kudeaketa eta ingurumen-babesa.

6.1.1. Nekazaritza-lorzoruari dagozkion alderdiak

NBALAPren Memoria dokumentuko 4. Esparru Juridikoa atalerekin jarraituz:

(17/2008) **Legeak,** halaber, **nekazaritza-lurzoruari dagozkion alderdien esparrutzat jotzen du Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana,** eta, beraz, plan hori **EAEko landa-espazioa antolatzeko indarrean dagoen esparrua da,** lege horren 12. artikuluak ezarritakoaren arabera.

Bereziki garrantzitsua da **13. artikuluan** biltzen duen **nekazaritza-lurzorua erabiltzea sustatzeko neurrien araudia;** izan ere, neurri horien artean, **nekazaritza-balio handiko lurzoruaren babesa dago, betiere lurraldea antolatzeko dagokion arloko planak ezartzen duenaren arabera**[104].

NBALAP beraren I. Eranskineko bigarren dokumentuarekin[105] osatuko da Memoria dokumentuko 4. atala:

13.a artikuluan, nekazaritza-lurzoruaren erabilera sustatzeko neurrien artean, lurralde historiko bakoitzean **nekazaritza-lurzoruko funts bat sortzea** biltzen da. Eta **14. artikuluak,** berriz, **horretarako oinarriak eta** hori osatzen duten ondasun eta eskubideen **helburua** definitzen ditu.

Era berean, **15. artikuluak** nekazaritza-lurzoruaren **bitartekotza-bulegoak** —nekazaritza-arloan eskumena duen foru-sailera atxikitakoak— arautzen ditu eta nekazaritza-lurzoruen fondoen ondasunak eta eskubideak kudeatzeko eta administratzeko zeregina ezartzen die.

---

104. Behin betiko onartu diren Arloko Planak: EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LAP, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP, EHEko Errepideen PO, Arabako Errepideen AP, Bizkaiko Errepideen AP, EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko LAP , EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko LAP, EAEko Ekonomi Jarduetarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko LAP, EAEko Hezeguneen LAP, EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko LAP, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituretako LAP. Idazten eta tramitatzen ari direnak: EAEko Kostaldea Babesteko esta Antolatzeko LAPren aldaketa, EAEko Kultura Ondareko LAP, EAEko Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko LAP, EAEko Portuak Antolatzeko LAP, EAEko Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako LAP. Hortaz, «betiere lurraldea antolatzeko dagokion arloko planak ezartzen duenaren arabera» horrek kolokan jartzen du «nekazaritza-balio handiko lurzoruaren babesa», asko baitira gainjarri dakizkiokeen lehentasunak (36. orria).

105. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAP. Behin betiko onespenari buruzko dokumentua – 2014 D dokumentua. Eranskinak, 7. orria.

Memoria dokumentuko 4. atalera itzuliz:

(13. artikuluan aipatutako) Nekazaritza-balio handiko lurzoruen **babes-erregimen berezi** hori Legearen **16. artikuluak** ezartzen du, honela zehazki:

«1. **Nekazaritza-balio handiko lurzoruak,** une bakoitzean euskal landa-espazioa antolatzeko erreferentzia-esparruan ezarritakoari jarraituz horrela definitzen direnak, **estrategikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, eta gizarte-interesekotzat jotzen dira.**

2. Euskal Autonomia Erkidegoan **nekazaritza-balio handiko lurzoruei buruz aurreikusitako edozein proiektuk edo jardun administratibok** arloan eskumena duen foru-organoaren **txostena egitea behar**ko du».

Txosten horrek **dagokion proiektuaren edo jardunaren eragina baloratu** beharko du. Txostena Lurralde Antolamendurako Batzordeari helaraziko zaio, azter dezan. Ondoren, batzordeak berak bere txostena prestatuko du, **azken txostena, loteslea izango dena hirigintza-planeamenduko figurei dagokienez.**

NBALAPren I. Eranskineko lehenengo dokumentuan Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa (AAEP) zehazten da. Dokumentu horren arabera nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazioko protokoloaren helburua administrazio publikoei tresna jakin bat eskaintzea da, betiere, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen xede eta sektore-helburuak aintzat hartuta, lurralde-garapeneko proposamenek eraginpeko ustiategi bakoitzean eta dagokion esparruko nekazaritza-lurrean duen eraginaren ebaluazio objektiboa eta erreala egitea ahalbidetzeko, sektore-arloko alderdien balorazioa erabakiak hartzeko prozesuan txertatuta[106].

Horren inguruan, urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoan nekazaritza-jardueretan lurralde oinarriak duen garrantzia aintzat hartu, eta kalte-ordainak lursailetan ordaintzea aurreikusten da[107]. Lengoaia ekonomikotik

106. NBALAP. I. Eranskina. Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa (AAEP).

107. 5. artikulua.– Kalte-ordainetarako proposamena, administrazioaren proiektuak edo jarduerak egiteagatik.

1. Behin abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako izapideak bete ondoren, administrazioaren edozein proiektuk edo jarduerak **nekazaritzaren aldetik balio handia duten nekazaritza-lurretan eragiten badu** –nekazaritza-sektorearen mesederako direnak izan ezik–, proiektuaren edo jardueraren titularrek **kalte-ordainen proposamen bat** egin beharko dute, **lan hori egiten den lekuan galduko diren nekazaritza-lursailengatik, nekazaritza-lurren funtsen alde**.
2. Kalte-ordainen proposamena egingo da, **ahal dela, nekazaritza-erabilpeneko lursailetan**; kalte-ordaina ematera behartuta daudenek eduki edo eskura ditzaketen lursailak izango dira, eta **eragindako ustiategietatik ahalik eta gertuen egon behar dute**. Nekazaritzako lursailik eduki ezean, kalte-ordaina funts ekonomikoen bidez emango da, zeinak nekazaritza-lurren funtsetan sartuko baitira, euren helburuak betetzeko erabil ditzaten.

haratago, beharrezko lurralde-oinarri horren galeraren ordainetan lurralde-oinarria bera eskaintzeak diruak ordezkatu ezineko nolakotasuna onartzen dio.

17/2008 Legeak finkatutako zuzentarauen bidez nekazaritza-jarduerarekin zeharkako nahiz zuzeneko lotura duten alderdietako bakoitza arautzen duten dekretuak garatzen dira. Horren adibidea da lege hori garatzen duen, urriaren 2ko 193/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoa. Xedea esku-hartze publikorako hainbat neurri martxan jartzea da, nekazaritza-azalera erabilgarriak ez galtzeko eta abandonatzeko, eta lur horiek etenik gabe eta behar bezala nekazaritzarako erabil daitezen sustatzeko, bereziki gutxiegi erabilitako lurrak izendatzeko eta horiek nahitaez uzteko prozedura. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa, eta aplikatzeko gainerako araudiak oinarri direla, honako arau hauek zehazten dira dekretu honetan[108]:

- Nekazaritza-lurra eta lur horri loturiko ondasun eta eskubideak hartzeko eta eskuratzeko prozedurari buruzkoak
- Nekazaritza-lurra beste helburu batzuetarako erabiltzeagatik eman beharreko kalte-ordainei buruzkoak
- Gutxiegi erabilitako lurrak izendatzeko eta horiek nekazaritza-lurren funtsei uzteko prozedurari buruzkoak.

Horrez gain, bertako 2. artikuluan[109] xedatzen da 17/2008 Legeko hainbat artikuluk zehaztutako figuren kudeaketa eta eskumena.

17/2008 Legera bueltan, goian aipatutako 20. eta 21. artikuluak, eta orain arte aipatu ez den 104. artikulua jasotzen dira jarraian, garrantzi handia dute eta:

> **20. artikulua.– Nekazaritza-lurrak gutxiegi erabiltzea.**
>
> 1.– Lege honen ondorioetarako, nekarzaritza-lursail bat gutxiegi erabilitakotzat joko da, **honako kasu hauetakoren bat edo gehiago** gertatzen badira:
>
> a) Lurrak **degradazio-prozesuan** baldin badaude **eta neurri zuzentzailerik ezarri ez** bazaie.

108. 193/2012 Dekretua, urriaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

109. 2. artikulua.– Lurralde historikoen eskumenak.

1.– **Lurralde historikoek kudeatu**ko dituzte, **nekazaritza-lurren bitartekaritza-bulegoen bidez, nekazaritza-lurren funtsak.** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen **14 eta 15. artikuluetan sortzen dira funts horiek**.

2.– Era berean, **lurralde historikoek eratu eta kudeatuko dituzte gutxiegi erabilitako lurren inbentarioak.** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko **17/2008 Legearen 20. eta 21. artikuluetan eta Dekretu honen 11. artikuluan zehazten dira** inbentario horiek.

3.– **Nekazaritza-lurren bitartekaritza-bulegoak, nekazaritza-lurren funtsak eta gutxiegi erabilitako lurren inbentarioak lege eta dekretu hauen bidez arautuko dira**: abenduaren 23ko 17/2008 Legearen II. Tituluan xedatutakoaren bidez; dekretu honetan xedatutakoaren bidez, hala dagokienean; eta haien eratze- eta garapen-arauetan xedatutakoaren bidez.

b) Lur horietan egiten diren jardunbide edo erabilera desegokiek **arriskuan jartzen badituzte uztak, alboko lursailen ustiapena edo ingurune naturala.**

c) **Nekazaritza-jarduerarik gabeko nekazaritza-lurra,** non eta ez den hala laborantza aldetik interesgarria delako edo lurrak hala edukitzea justifikatzen duen aparteko arrazoiren bat dagoelako.

2.– **Agintari eskudunek gutxiegi erabilitako nekazaritza-lursail bat atzematen dutenean, ikuskapen-akta bat egingo dute,** halakotzat deklaratuko dute eta lursail horren **jabeari jakinaraziko diote** egoera horri eusteak zer ondorio izan ditzakeen, lege honetan xedatutakoaren arabera.

3.– **Foru-administrazioek jarraipena** egingo diote gutxiegi erabilitakotzat jotako nekazaritza-lur horren erabilerari. Lursail batean **hiru urtez jarraian** mantentzen bada gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurraren izendapena, lege honen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko da lursail horren titularra, eta lursaila helburu horrekin sortutako **gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurren inbentarioan sartuko da.**

4.– **Arauz** ezarriko da **nekazaritza-lurrak gutxiegi erabilitakotzat jotzeko prozedura, bai eta gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurren inbentarioa sortzeko eta kudeatzeko prozedura** ere. **Urtero eguneratuko da inbentario hori.**

Eta 104. artikuluak zera zehazten du:

104. artikulua.–Nekazaritza-lurren inguruko arau-hausteak eta zehapenak.

1.– Nekazari-lurra gutxiegi erabiltzeak edo gaizki erabiltzeak eragindako arau-hausteak (lege honen 20.3 artikuluan zehaztutakoak) **zehapena ekarriko dio nekazaritza-lur horiek biltzen dituen ustiategiaren titularrari.** Zehapenaren zenbatekoa honela kalkulatuko da: hektarea bakoitzeko ordaindu beharrekoa bider gutxiegi erabilita edo gaizki erabilita deklaratu zaizkion hektarea guztiak.

2.– Hektarea bakoitzeko zehapenaren zenbatekoa izango da, oro har, **nekazaritza-lurra den aldetik hektarea bakoitzak duen balioaren halako bi.** Zehapena gutxienez 10.000 eurokoa eta gehienez 120.000 eurokoa izango da.

Zehapen horiek espekulazioaren tentazioak amortizatutako lurrak zirkulazioan jartzeko eragingarriak izan beharko lukete, eta horrek kontuan hartzeko eragina izan lezake lurren erabileran, ingurumenean eta abarretan. Lur-jabeek plangintzetako adierazpenak irmoak direla eta beren landa-izaerako jabetzak hiri-helburuetako prezioetan salduko ez dituztela barneratzen duten unean, lurrokiko beste jarrera bat hartuko lukete ziurrenik, eta aberastean baino dirua ez galtzean pentsatzen hasiko lirateke. Berriz «ekonomia».

Bestalde, lur horiek lehen sektorerako jasotzeko bidea 21.artikuluaren bitartez adierazten da, izaera funtzioaniztunaren baitako funtzio soziala argudiatuta[110].

110. 21. artikulua.–**Lurraren erabilera nekazaritza-lurren funtsei lagatzea**.

1.– Lege honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-arloan eskumena duen sailak proposatuko du, dekretu bidez, **gutxiegi erabiltzen dela-eta landa-lursail edo landa-finka batek lurraren erabileraren funtzio soziala ez duela betetzen deklaratzea.**

6.1.2. Lur-funtsak

Lur-funtsen gaiari helduz,

Van Dijk eta Kopeva (2006) idazleek lur funtsa edo lur bankua horrela definitzen dute: landa guneen garapen soziala eta hauen nekazaritza indartzeko hainbat probintziek sortutako erakundea. Erakunde honen helburua lurrak birbanatzea da nekazaritza-lur guztiak erabilera bat izateko eta nekazaritza-munduaren egoera hobetzeko (Llorente, 2014: 54).

6.1.2.1. Nekazaritza-lurren funtsa Bizkaian

Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza lurren funtsaren ondasunak kudeatzeko eta administratzeko Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoa sortu zen 28/2010 Foru Dekretuaren bitartez. Bitartekaritza Bulegoa Bizkaiko Nekazaritza Sailari atxikita dagoen Basalan Akziozko Baltzua S.A-ri egokitu zitzaion (Llorente 2014: 59).

Bizkaiko nekazaritza lurren funtsa Euskal Herri mailan urte gehien daraman proiektua da, hala ere oso berria da (2011. urtean lehenengo lur lotea esleitu). Bizkaiko nekazaritza lurren funtsean dauden lur gehienak publikoak dira, kasu batzuetan Foru Aldundiarenak eta beste batzuetan udaletxe ezberdinenak. Lur pribaturen bat dago baina ez da bereizgarria, orokorrean lur publikoak dira guztiak (Llorente 2014: 60).

Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean ageri denez,

31 hektarea banatu dira 7 lur-zatitan Busturian eta Bermeon, 7 gazte izan direlarik onuradunak lehenengo esleipen-fasean, 2011ko abenduan; 6 hektarea banatu dira 4 lur-zatitan Busturian eta Galdamesen, 4 gazte izan direlarik onuradunak bigarren esleipen-fasean, 2012ko ekainean; 16 hektarea banatu dira 3 lur-zatitan Mundakan eta Arrankudiagan, 3 gazte izan direlarik onuradunak hirugarren esleipen-fasean, 2013ko otsailean; 20 hektarea banatu dira Loiun eta Mundakan, 9 onuradun egon direlarik eta horietatik 7k sortu zutelarik lehenengo Agrogunea, kasu honetan ekologikoa, laugarren esleipen-fasean, 2013ko abenduan; eta orain 25,5 hektarea banatu dira, geografikoki oso sakabanatuak, 14 onuradun izan dituztelarik[111].

2.– Landa-lursail edo -finka batek ez du betetzen lurraren erabileraren funtzio soziala, **baldin eta lursail edo finka hori bi urtez segidan egon baldin bada gutxiegi erabilitako lurren inbentarioan** (20. artikuluan, nekazaritza-lurrari buruzkoan, ezarritakoa).

3.– Deklaratzen bada landa-lursail edo -finka batek ez duela betetzen lurraren erabilearen funtzio soziala, **lursail edo finka hori kokatuta dagoen ustiategiko titularrak nahitaez laga beharko dizkio lursailok, hamar urterako gutxienez eta hogeita hamar urterako gehienez, nekazaritza-lurren funtsei, baldin eta lur horien jabea bada.**(...)

4.– **Arauz garatuko da lurraren erabileraren funtzio soziala ez dela betetzen deklaratzeko prozedura, bai eta deklarazio horren ondorengoa** ere.

111. <http://www.bizkaia.eus/home2/bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=14290&SelTab=D&idioma=EU&dpto_biz=2&codpath_biz=2> [kontsulta: 2015-11-10].

6.1.2.2. Nekazaritza-lurren funtsa Gipuzkoan

Eusko Jaurlaritzaren 17/2008 Legeari jarraituz, Gipuzkoako Lurralde Historikoak ere bere nekazaritza-lurren funtsa sortu zuen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa arautzeko 2013ko martxoaren 5eko 10/2013 Foru Dekretuaren bitartez.

> Proiektu honetan alokatu diren nekazaritza-lur guztiak publikoak dira. Udaletxeak edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurrak izan dira lur funtsera bideratu direnak. Gipuzkoan ematen ari den azpiegitura handien eraikuntzaren ondorioz soberan gelditu diren lur asko lur funtsera ere bideratu dira, batez ere Bidegi-ren (Gipuzkoako Foru Aldundiak bertako errepide sarea egiteko sortu duen erakundea) obretatik eta AHT-ren (Abiadura Handiko Trena) obretatik soberan gelditu diren lurrak (Llorente 2014: 66).

Gipuzkoako lurren funtsaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak darama (Nekazaritza Saila), aurretik sortutako Etorlur enpresa publikoak nekazaritzan egindako saiakera eta proposamenek ez baitzuten arrakastarik izan.

Une honetan ez da lursailik eskaintzen Gipuzkoako nekazaritza-lurren funtsean[112].

6.1.2.3. Nekazaritza-lurren funtsa Araban

Arabako Lurralde Historikoak bere nekazaritza lurren funtsaren programa sortu zuen, eta hura kudeatzeko Aldalur Araba SL erakunde publikoa (2009an).

> Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren bitartez Aldalur erakunde publikoa eta ondorioz nekazaritza lurren funtsa sortu zuen baina orain arte ez da ezer gehiago egin. Ez dira lur loteen deialdiak atera ezta inolako emaitzarik lortu. Bertan behera gelditu den proiektua dela esan dezakegu (Llorente, 2014: 72).

6.1.3. Agroguneak eta agroaldeak

Bizkaian, laugarren esleipen-faseko 9 onuradunetatik 7k lehenengo Agrogunea sortu zutela aipatu da, 2013an. Gipuzkoan askoz lehenagotik dago martxan figura hori. Mikel Zendoia Behemendiko teknikariaren esanetan, «agroaldeak lurraren arazoari irtenbidea emateko sortu ziren, duela 10-12 urte»[113], eta Juan Cruz Alberdi Collantesen hitzetan, «agroaldearen eredua Lur bankoak hartzen du bereziki Gipuzkoan, eta neurri txikiago batean Bizkaian, ekimen berriak gauzatzeko». Probintzia bakoitzean izendapen ezberdina jaso arren, funtsean gauza bera direla esan daiteke.

Baina zer da agroalde bat? *Elhuyar* aldizkariak argitaratutako 2005eko erreportaje batek honela definitzen ditu: «Industrian erabiltzen den kontzeptu bat nekazaritzan aplikatzearen ondorioa. Izan ere, agroalde batean nekazaritzako

112. <http://www.nekagip.net/nekazaritzalurrenfuntsa.html> [kontsulta: 2015-11-10].

113. Oarso Bidasoko Hitza (2013/02/22): «Agroaldeak, nekazaritza-sektorea indartzeko irtenbide eraginkorrak», Oarso Bidasoko Hitza.

jarduerak batzen dira. Azpiegitura komunak administrazioak finantzatzen ditu eta hainbat lursail bereizten dira; horietan lan egin nahi duen orok du lurrok alokatzeko aukera (Kortabitarte, 2005: 21).

Industrialdeekin alderatuz, ondoko desberdintasunak azpimarratzen dira erreportajean: «Batetik ekonomikoa eta bestetik kokapena; izan ere, agroaldeak egiteko, oro har, ez dira lurrak hautatzen, bazterretan kokatzen dira eta askotan betelanak egiten dituzte, beste ezertarako nahi ez diren lurrak baitira. Horrez guztiaz gain, ekoizleak inoiz ez dira lur horien jabe egiten (Kortabitarte, 2005: 23).

Egun ezagunagoak egiten zaizkigu, eta NBALAPren 22. artikuluak ere jasotzen ditu «Nekazaritza-aldeak»[114] izenpean.

6.1.4. Ekoizpen-metodoen inguruan

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legearekin jarraituz, atentzioa ematen du ekoizpen-metodoen inguruan 23. artikuluak jasotakoak. Jakina da orain arteko politika publikoek ustiapen-eredu intentsiboak faboratu dituztela eta estentsibo eta eskala txikikoak ikusezin bihurtu egitura ofizialetan. Orain arte behintzat, Landa Garapenerako Programek LAGen premisak kontuan hartu eta NPBri zehatz-mehatz jarraitzen diotela ikusiko dugu, eskalan, ekoizpenaren bolumenean, eta datu ekonomikoetan oinarritzen diren laguntzak bideratzeko orduan, enpresa-profilik ez duten familia-ustiategiak eredu horren bazterrean kokatuz:

> **23. artikulua.– Ekoizpen-metodoak.**
>
> 1.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek **nekazaritza-jarduera ekonomia aldetik modu bideragarrian eta iraunkorrean gauzatzen dela ziurtatuko dute; bai eta erabilitako ekoizpen-metodoek nekazaritza-lurraren eta bere inguruaren iraunkortasuna, elikagaitarako ekoizpenen osasun-segurtasuna eta animalien ongizatea bermatzen dutela, eta nekazaritza-jarduera merkatuaren eskaeretara egokitzen dela.**
>
> 2.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek **transgenikorik gabeko produktuen alde eta transgenikorik erabiltzen ez duten ekoizpen-metodoen alde egingo dute,** gizakiaren elikakatera bideratutako produktuetan[115].
>
> 3.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek **artisau-ekoizpenaren garapenaren alde** lan egingo dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak erre-

114. 22. artikulua.- **Nekazaritza-aldeak (nekazaritzako lursailen poligonoak, labore intentsibo profesionalekoak)**

1.– Lurra zuzenean erabiltzea behar duten laborantzetarako nekazaritza-aldeak (laborantzak hidroponikoak edo antzekoak izan gabe), ahal bada, II. eta III. mota agrologikoen barruan lant daitezkeen lurretan ezarriko dira, lur horiek lauak edo malda gutxikoak izanda betiere.

2.– Lurrik gabeko laborantzak, hidroponia edo loreontzia oinarri dituzten jardueren kasuan, haiek lugorrietan jartzea sustatuko da; besteak beste, itxitako zabortegietan, betelan-lekuetan, eta abar.

115. Adierazpen honek bestelako helburuetarako transgenikoen erabilerari ateak irekitzen dizkiola dirudi.

gelamendu bidez arautuko du ekoizpen hori. Besteak beste, babestutako ekoizpen motak, higiene eta osasun aldetik bete beharreko baldintzak, identifikatuko duen kalitate-ikurra, kudeaketa- eta kontrol-sistema, eta **Artisau Ekoizleen Erregistroa abian jartzea jasoko dira araudi horretan.** Artisau-ekoizpenak Lege honen IV. tituluan jasotako printzipioak errespetatu beharko ditu beti; alegia, identifikazioaren, elikagai-segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak.

4.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek **honako helburu hauek dituzten ekoizpen-metodoak sustatuko dituzte lehentasunez:**

a) **Kalitatezko elikagaiak** lortzea.

b) Nekazaritza-produktuak lortzea **ekoizpen integratua**ren bidez.

c) Nekazaritza-produktuak lortzea **ekoizpen ekologikoa**ren bidez.

d) **Basogintza-ekoizpen iraunkorra ziurtatua** iristea.

e) **Bertako espezie eta arrazak mantentzea.**

f) **Basoko espezie-aniztasuna sustatzea.**

5.– Hainbat produkzio-metodo daudenez, horiek arautzeko eta kontrolatzeko araudia egin eta aplikatuko da, eta **metodo edo laborantza horiek bateragarri diren erabakitzeko zehaztapen teknikoak ezarri**ko dira.

6.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoko material genetikoa babestu, sustatu eta bultzatuko dute, elikagaiak ekoitzi eta egiteko eta laborantzako zein basogintzako jarduera edo erabileratan erabiltzeko baliagarri den heinean[116].

852/2004 Erregelamenduak (EEE), Europako Parlamentu eta Kontseiluarenak, 2004ko apirilaren 29koak, elikagaigintzako produktuen higieneari buruzkoak, baldintza tekniko berberak ezartzen ditu beraien baserriko produktuak eraldatuz, transformazioa egin ostean zuzeneko salmenta egiten duten baserritarrentzat eta agroindustriarentzat.

Agroindustriak sortutako elikagaiak eta lurrari lotutakoak ez dira berdinak ordea:

- Bolumen ezberdinak maneiatzen dituzte.
- Ekoizpen-eredu ezberdinean lan egiten dute.
- Elikagaiak merkaturatzeko esparrua ez da berdina.

116. Ez dago oso argi «laborantzako zein basogintzako jarduera edo erabileratan erabiltzeko baliagarri den heinean» horrek zer esan nahi duen. Argi dagoen gauza bakarra zera da, orain arte jarraitutako politikek tokiko aberastasun agrogenetikoa gainbehera larrira eraman dutela, eta instituzioetatik kanpo kokatutako hainbat ekimen izan direla arazo horri erreparatu eta ondare horren berreskurapenean pausoak eman dituztenak. Euskal Herriko Hazien Sarea da horietako bat.

Espainiako Estatuak 852/2004 (EEE) Erregelamenduaren irakurketa hertsi bat burutu izan du, baina badira Europar Batasunean beste aukera batzuei bide eman dieten adibideak. Austrian adibidez, 1988tik nekazaritza-politika ekosoziala bultzatu izan da eta familia-ustiategiak jarri dira erdigunean. Agroindustria faboratzen duten politiken aurrean, programa agroekologiko emankor eta eraginkorra eraman du aurrera eta Europako bionekazari gehien dagoen tokia da[117]. Frantziakoa izan daiteke beste kasuetako bat. Kataluniako Generalitatearen Kataluniako Elikagaien Segurtasuneko Agentziak, bestalde, Europar Batasunak higienearen inguruko Erregelamenduetan aurreikusitako malgutasunaren gaineko zenbait xedapenen ulermen hobe baterako argitaratutako hainbat lanerako idazki biltzen ditu, bai operadoreentzat baita eskumenak dituzten administrazioentzat ere, bere webguneko higiene-paketeei dagozkien irizpideen inguruko atalean. Dokumentu horiek aurreikusitako malgutasunerako neurri guztiak jasotzen ez dituztela ere ohartarazten du.

17/2008 Legeak, aldiz, eredu intentsibotik at kokatzen diren ustiapenen jarduerak arautu eta orain arte aurkezten zitzaizkien traba batzuk gainditzeko ekarpenak jaso dituela ikus dezakegu, hala nola 49. artikulua, Ekoizpen-sektoreari laguntza eta bultzada ematearen ingurukoa, edo 56. artikulua, Osasun-baimenen ingurukoa.

126/2012 Dekretuak, uztailaren 3koak, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzkoak (EHAAren 128. zk., 2012/VII/31), honako helburuak definitzen ditu 1. artikuluan:

> 1.– EAEko **elikadura-kultura gordetzen eta ingurumena zaintzen laguntzen duten elikagaien artisau-ekoizpen eta -lantze tradizional txikiak sustatzea eta babestea.**
>
> 2.– Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategietako **tokiko baliabideen balioa handitzea, haiek iraun ahal izan dezaten** eta, horrenbestez, **landa-inguruetako biztanleak koka daitezen, natura– eta paisaia-inguruneari eusten laguntzeko;** izan ere, zer baldintzatan garatzen den kontuan hartuta, ingurumena funtsean errespetatzen duen jarduera da.
>
> 3.– **Lantze-metodo tradizionalak sustatzea, artisau-trebezian oinarrituta.**
>
> 4.– **Kalitatean bereizitako produktuak garatzea.**
>
> 5.– **Merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatzea, zuzeneko salmentaren eta txikizkako merkataritzaren bidez, kontsumitzaileekiko harreman zuzena eta landa-ingurunearen, itsasertzaren eta hirien arteko trukea bideratzeko.**

117. 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoan (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendutako Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jasotako datua.

Egia esan 17/2008 Legeak aurkezten zuen malgutasuna, dekretu honek gorpuztu egiten du. Baina liburu honetan zehar behin eta berriz ikusiko den bezala, 7. artikuluak[118] malgutasun horien guztien aitortza egiten du betiere goragoko mailako legeen pean.

Beste behin kontraesankorrak dirudite dekretu honen edukiak eta kokatzen deneko esparru juridikoak.

6.2. 84/1993 DEKRETUA; 168/1997 DEKRETUA, ETA 19/1995 LEGEA[119]

Garrantzitsua da gaur egun, legez, nekazaritza-ustiategitzat zer hartzen den argitzea, sailkapen horrek eskubide eta betebehar batzuk baitakartza berekin.

> **EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortu eta arautzen duen 84/1993 Dekretuan (Nekazaritza eta Arrantza Sailarena, martxoaren 30ekoa) zehazten da** zer hartzen den nekazaritza ustiategitzat eta zer ez. Europako Ekonomia Erkidegoaren **Nekazaritza Politika Bateratuaren Erreformari jarraiki** EAEko **Ustiategien Erregistroa sortu behar** izan zen. Nekazaritza-ustiategietako titularrek **nahitaez inskribatu behar** dituzte beren ustiategiak erregistro horretan, beraientzat nahiz beren ustiategientzat **sustapen-neurririk eskatu ahal izateko.**
>
> Honela definitzen dira ustiategiak erregistroan: nekazaritza-ekoizpenerako eta merkatu-xedeei begira titularrak edo titularrek enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, normalean ekoizpen-baliabide berberak erabiltzen dituena eta kudeaketa bakarra duena, unitate tekniko-ekonomiko beraren barruan. Hortaz, **enpresa-profilik ez duten familia-ustiategi guztiak definizio horretatik kanpo** gelditzen dira.

---

118. 7. artikulua.– Elikagaien artisau-ekoizpenaren higiene– eta osasun-baldintzak.

1.– Elikagaien artisau-lanketa, -ekoizpen eta –eraldaketan bete beharreko higiene– eta osasun-baldintzak osasun publikoaren esparruan horretarako indarrean dagoen araudiaren arabera ezarriko dira, **horrelako ekoizpenetan aplikatzekoak diren eta produktu edo produktu-multzo bakoitzerako egindako arau teknikoak zehaztuko diren malgutze-irizpideei jarraituz, honako hauetan ezarritakoa bazter utzi gabe:** 852/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, elikagaigintzako produktuen higieneari buruzkoa; 853/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, animalia-jatorriko elikagaietarako higiene-arau espezifikoak ezartzen dituena; eta 854/2004 Erregelamendua (EEE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, gizakiak jateko diren animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeko arau espezifikoak ezartzen dituena.

119. EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortu eta arautzen duen 84/1993 Dekretua, Nekazaritza eta Arrantza Sailarena, martxoaren 30ekoa; 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituena, eta Nekazaritzako Ustiategiak Modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legea.

Nekazaritza-ekoizpeneko jarduerak zein diren eta zein ez zehazten da, halaber. Nekazaritza ustiategia erregularizatu eta erroldatu eta gero, izaera berezia edo lehentasunezko izaera onartu zitzaien batzuei.

Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 168/1997 Dekretuak (uztailaren 8koa) EAEko lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak arautzen ditu.

EAEko nekazaritza-ustiategi tradizionalek egiturazko aldaketa sakonak jasan zituzten XX. mende amaieran. Teknologian oinarritutako ustiapen-eredurako aldaketa eta Europar Batasuneko integrazioak egokitzapen-prozesu zaila ekarriko zuela iragarri zuen dekretuak. **Familia-mailako nekazaritza-ereduak lurraldearen kolonizazioa eta landa-sarearen iraupena bermatzen dituela onartu arren, orduko nekazaritza-politikaren arabera eredu horrek egiturazko hutsune batzuk zituela esaten da,** adibidez: ustiategi askoren neurri urriegia, titularren zahartzea, lurmerkatuaren zurruntasuna, **zenbait titularren gaitasun profesional urria, erakunde eta elkarterik ez egotea nekazaritzako ekoizpen eta merkaturatzearen inguruko sektoreak egituratzeko...** Egiturazko hutsune horiek zuzendu eta nekazaritza-ustiategiak modernizatu, eta, horrela, haien eraginkortasun eta lehiakortasuna hobetze aldera, **modernizazioan oinarritutako politika aplikatzen hasi** ziren, ekoizpen-ahalmenaren igoera, kalitatearen eta ekoizpen-baldintzen hobekuntza, kostuen murrizketa eta ekoizpenaren berregituratze eta dibertsifikazioa hartuz modernizazio horren ardatz gisa. Lortu nahi ziren beste helburu batzuk hauek ziren: bizi-maila eta lan-baldintzak hobetzea, natur ingurunea kontserbatzea eta natur inguruneko aisia bultzatzea.

Geroago, **Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko 19/1995 Legea (uztailaren 4koa) argitaratu zen. Zerga-mailako onurak eta "lehentasunezko ustiategiak" kontzeptuari lotutako eskubideak eta laguntza publikoak lortzeko baldintzak** finkatzen dira bertan, eta legeria zibileko zenbait alderdi (eskualdatzeak, zenbait landa-finken zatiezintasuna, atzera eskuratzeko eskubideak mugakideen alde) eta landa-errentamenduei buruzko legeen eduki batzuk aldatu zituen legeak.

Lehentasunezko ustiategiaz ematen den definizioa azpimarratu eta aztertu beharra dago, geroago onartutako dekretu eta agindu askok ez baitute askitzat jotzen definizio hori, ustiategiei berez dagozkien eskubide guztiak onartzeko garaian. Honela definitzen dira **lehentasunezko ustiategiak: gutxienez nekazaritzako lan-unitate (NLU) batentzako lana ematen dute, titularra nekazari profesionala izanik eta behar besteko trebakuntza-maila izanik, titularra hemezortzi urtetik gorakoa eta 65etik beherakoa da eta ustiategia dagoen eskualdean bertan edo mugakide diren eskualdeetan bizi da, EAEk bere lurralde-antolamenduan finkatutako eskualdeen arabera.**

NLUak zenbatzeko hainbat bide onartzen ditu legeak, baina askotan Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Aginduan jasotako kalkulua aipatzen da bakarrik, bai udal-izapideetan eta laguntzak bideratzeko moduari buruzko informazioan ere.

(...) errenta bateratua finkatzeko garaian ez dira kontularitzako datuak edo zerga datuak onartzen, ez eta jardueraren NLU ez tabulatuak azterketa teknikoen bidez kalkulatzea

ere. Dekretua betetzeko eskatu behar zaio Administrazioari, 2001eko **Aginduan finkatutako taulari eta kalkulu-metodoari jarraiki NLUetara iristen ez den nekazari asko baitago, nekazaritzatik edo abeltzaintzatik bakarrik bizi dena. Taula horiek eguneratu gabe egoteaz gain, ez dituzte erabilitako laborantza-metodoen, merkaturatze-ereduen eta eraldaketa-moldeen arteko desberdintasunak aintzat hartzen.**

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legean **ustiategiko bertako produktuak eraldatzeko prozesua (ustiategiko titularrak egina) nekazaritza-jardueratzat jotzen baldin bada, eragiketa horiek aintzakotzat hartu beharko lirateke nekazaritzako lan-unitateak kalkulatzeko garaian,** nekazaritza-errenta osatzeaz gain, lanorduak eta baliabideak eskaintzen baitzaizkie eragiketa horiei (Emaús Gizarte Funtzazioa *et al.,* 2011: 8-10).

6.3. LANDA GARAPENERAKO 10/1998 LEGEA; EAE-KO 2007-2013RAKO LANDA GARAPEN IRAUNKORREKO PROGRAMA (LGIP); EAE-KO 2015-2020RAKO LANDA GARAPENEKO PROGRAMA (LGP); LAG-EN BERRIKUSPENA ETA NBALAP

Bestalde, **esparru desberdinetatik nekazaritza-sektorean parte hartzen duten arlo eta proiektu guztiak koordinatzeko asmoz, Landa Garapenerako 10/1998 Legea** onartu zen (EHAAren 80. zk., 1998/V/4).

185/2008 Dekretuak (azaroaren 11koa) Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzen du, EAEko 2007-2013rako Landa Garapen Iraunkorreko Programarekin (LGIP) bat etorriz (EHAAren 225. zk., 2008/XI/24)[120].

2007-2013ko LGPk bere gain hartzen du ondoren LAGen berrikuspenean aurkeztutako eskualde-hiri kontzeptua, eta halako irakurketa egiten du:

Hiri barreiatu tankerako honetan, hiri-eskualdea, zaila egiten da lurralde-banaketa eta banaketa sozioekonomiko argiak ezartzea hiri- eta landa-testuinguruen artean. Horren ondorioa dira **nekazaritzako elikagaien kontsumitzaile potentzialetatik gertu dauden landa-eremuak, oro har ongi komunikatuak eta zerbitzuen estaldura handi samarrarekin; baina oso gogorrak dira, orobat, lurzoruaren okupazioaren gaineko presioak** (hiri, azpiegitura eta aisialdirako erabilerak), eta landaguneko edukidun (nekazaritza batez ere) lan-jarduerak atxikitzeko oso ahulduak daude eremuok, oso gertu dauden hiri-jardueren erakarguneen erakarpen-indarraren aurrean[121].

2015-2020ko LGP ere 2007-2013koaren ildo berekoa da. Planteamenduak bertsuak izan arren, diagnosian askoz xehatuago eta garatuagoa da 2007-2013koa. Hori dela-eta, horri jarraituko zaio zatirik handienean. LGP horrek EAE igarotzegune batean kokatzen dela adierazten du: «Iberiar Penintsularen barnealdearen eta Europaren arteko **korridore ekonomikoa;** horrek **hiri- eta azpiegitura-**

120. Ibid., 10.-11. or.

121. Landa Garapenerako Programa 2007-2013, 21. or. Egileak itzulia.

eskari sendo bat dakar, lurzoru librearen, beronen landa-izaerako jardueretarako erabilgarritasunaren eskasiarekin»[122].

Gidalerroon berrazterketaren ondorioz, Euskal Hiria NET deitutako Lurralde Estrategia berrian[123], korridore ekonomikoaren ideia horrek eta inguruko eskualde eta herrialdeekiko harreman logistikoak are indar handiagoa du. Oso adierazgarria da «LAGen 1997ko lurralde-eredua osatzen duten oinarriak: C Euskal Hiria Plus» atala, azpiatalen izenburuei erreparatzea baino ez dago:

C.1. Lurralde irekia
C.2. Europako Hegoaldeko Dortsala eta Diagonala
C.3. Euskal Hiria. Errotula bat Europa berrian
C.4. Euskal Hiria Plus
C.5. Inguruneko lurraldeekin lankidetzan aritzeko aukerak

Atal horretatik jaso dira ondorengo irudiak ere; «korridore ekonomiko» eta «hiri eta azpiegituren» erabateko gailentasuna argia da adierazpideotan.



6.1. irudia. Europar espazioaren esparru egituratzaileak (Europa 2000+). Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

122. Ibid., 22. or. Egileak itzulia.
123. 1 Eranskinean jasotako dokumentua.



6.2. irudia. Atlantikoaren eta Mediterraneoaren arteko konexioa. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.



6.3. irudia. Euskadi, europar zentraltasunaren errotula. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.



6.4. irudia. Euskal Hiria Plus[124]. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

Arreta ematen du erabilitako lengoaiak: hondoa beltza, erliebea gutxi gorabehera hauteman daiteke (azaltzekotan) baina lauso, eta biztanleria-gune, azpiegitura-sare eta balizko fluxu ekonomikoek hartzen dute garrantzi guztia. Deigarria baita mapak gauez irudikatzea, argi-puntuak (hiri-puntuak) dir-dir egin ahal izateko. Eskala kontu baten ondorioz izan zitekeela pentsa genezakeen adierazi nahi den horren ulermena errazteko bidean (esanguratsua oso adierazi nahi den horren eduki eta enfasia), baina gertuagoko eremuetan irizpideek berberak izaten jarraitzen dute.

124. Euskal Hiria Plus Euskal Autonomia Erkidegoa nukleotzat duen eskualde-sistema da, bere inguruneko lurraldeak eta hiriak hartzen dituena. (...) Euskal Hiria Plus, Euskal Autonomia Erkidegoaren nazioarteko proiekzioa finkatzeko eta Europako eta mundu osoko garapen-dinamiketan esku hartzeko dugun ahalmena sendotzeko proposamena da. Euskal Hiria NET (2012: 36)



6.5. irudia. Euskal Hiria Plus eta inguruneko lurraldeak. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

Lurraldearen izaera fisikoaren ikusezintasuna erabatekoa da, lerro zuriak erabat nagusitzen dira dena delako beltz horren gainean. Giza ukitua hirietako argi eta azpiegitura (nagusiki) azkarrek adierazten dute, beste giza kokalekuen formen ordezkapenik ez, hortaz. Beste desplazamendu ereduek ere ez. Konplexua da dokumentuan erabiltzen diren hainbat kontzepturen uztarketa argi ulertzea, ustezko bateraezintasunak aurkezten baitituzte. Aurrerago, LAGei dagokien atalean aztertuko dugu gai hori.

Ingurumena, ekologia eta naturaguneak oso presente daude dokumentuan zehar, baina hiria, hiri-sistema eta eskualde-hiria dira beti erreferentzia eta neurri. EAEko Sistema Naturalen mapa bera oso adierazgarria da:



6.6. irudia. EAEko Sistema Naturalak. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

Hiru hiriburuetako metropoliek eta dagozkien argiek ez dute indarrik galtzen; are gehiago, azpimarratu egiten dira Eremu Funtzionalen eraldaketa-ardatzekin batera.

Eraldaketa-ardatzen azterketara iritsi behar da hondoan egunez ateratako koloretako ortoargazki bat (hemen irudia zuri beltzean ageri den arren) aurkitzeko. Korridore ekologikoa eta naturagune babestuak ere non oinarritzen diren antzeman daiteke, kolore-orbanen gardentasun-maila xumearen ondorioz.



6.7. irudia. Ibaizabalgo Eraldaketa Ardatza. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

Bide batez, eraldaketa-ardatzen inguruko aipamen batzuk egin nahi dira:

> **Eraldaketa Ardatzak** esparru naturalei, hiriguneei eta azpiegitura-elementuei heltzeko aukera ematen duten lurralde-proiektu integral gisa planteatzen dira.
>
> (...)
>
> Elementu lineal horiek **balio natural handieneko eremuak errespetatu behar dituzte eta ekosistema natural narriatuak berreskuratzeko ekimenak garatzeko espazio libreak txertatu** edo, beste kasu batzuetan, gaitasuna duten espazio libreak aisia bateragarriko edo ingurumen-hezkuntzako erabileretarako egokitu, batik bat hiriguneen inguruetan. Paisaiaren kudeaketa sentikorrak eskatzen du espazio eraikiak eremu libre handiekin txandakatzea. Eremu libre horiek argi eta garbi zehaztu behar dituzte urbanizazioaren mugak eta baita esparru naturalak, nekazaritza-paisaiak eta baso-eremuak Ardatzen diseinuan txertatu ere.
>
> (...)
>
> **Eraldaketa Ardatzetako hiri-esparruek gero eta hiri-intentsitate handiagoko gune bihurtzeko bokazioa dute,** bai bizitegi-dentsitateari dagokionez eta bai zerbitzu-, erabilera- eta jarduera-dentsitateari dagokionez. Erabilera eta jardueren nahasketaren bitartez **fusioko hirigune konplexu, askotariko eta erakargarriak sortzeko** ekonomia-, ingurumen- eta lurralde-aukerarik onena dentsitatearen, askotariko erabilera eta tipologien, jarduera- eta enplegu-aukeren aniztasunaren, bizileku-modalitatearen eta bizilekua, lana, ekipamenduak eta aisia txertatzeko aukeren konbinazioa da[125].

Kasuan-kasuan aztertu beharko dira ardatzok, benetan eremuok jasotzen dituzten denetariko funtzio horien uztarketa nola egiten den egiaztatzeko. Eraldaketa-ardatz ezberdinetan gertatuko dena biltzen duen definizioa orokorra dela dakigun arren, kasuistika zinez kontrajarriak dira bertan proposatzen direnak, intentsitate-igoera eta ekosistema natural narriatuak berreskuratzeko ekimenak, adibidez.

6.3.1. LAGen berrikuspenean sakontzen

> 2. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK ETA HAIEN ERAGINA BASERRITARREN NEKAZARITZAREN GARAPENEAN
>
> **Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 10.31 artikuluaren arabera, lurraldea eta hirigintza antolatzeko legeak onartzeko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio oso-osorik.** EAEren Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legeak (maiatzaren 31koa, EHAAren 131. zk., 1990/VII/3) antolamendu-tresna hauek zehazten ditu: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA edo LAG), Lurraldearen PlanPartzialak (LPP edo LZP) eta Lurraldearen Plan Sektorialak (LPS edo LAP) (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 16).

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak zera gogorarazten du:

125. LAGen Berrikuspena, 68.-70. or.

> **LAPen izenpean, lurralde-arloko eragina duten tresnak arautzen dira;** horien konfigurazioan lurralde-antolamenduaren izaera integratzaile eta lehentasunezkoak eta LAAekiko errespetuak nagusitu behar du. **LAPek LAA edo LZPekin dituzten kontraesanek horiek jasotzen dituen LAPen zati hori baliogabetzea ekarriko dute**[126].

6.3.3.1. Herritarren parte-hartzea

Emaús Gizarte Fundazioa Taldeak, Mugarik Gabeko Albaitariek eta EHNE Bizkaiak kaleratutako dokumentuarekin jarraituz,

> **Lurraldearen Antolamendurako Europako Gutunean** azpimarratzen denez, **antolamendu-planak prestatzen direnean beharrezkoa da herritarrek parte hartzea,** eta, hala, lurraldea antolatzeko edozein neurri onartzen eta aplikatzen denean parte hartzeko aukera izan behar dute Europako herritar guztiek esparru instituzional egoki baten bidez, **eta lurraldea antolatzeko politika guztiek herritarren parte-hartze aktiboa izan behar dute oinarrian.** LAA-ak behin betiko onartu zituen 28/1997 Dekretuan (otsailaren 11koa) ere azpimarratzen da partehartzea ezinbestekoa dela lurraldea eta hirigintza antolatzeko planak prestatu eta gauzatzeko garaian.
>
> **Lurraldearen antolamendua funtzio publikoa da** eta honako hauek izan behar dute bere funtsezko helburuak: eskualdeen garapen sozioekonomiko orekatua, bizi-mailaren hobekuntza, natur baliabideen kudeaketa arduratsua, ingurumenaren babesa eta lurraldearen erabilera arrazionala. **Prozesu zeharo politikoa da lurralde-antolamendua:** oinarritzat hartzeko moduko irizpide unibertsalik ez duenez, gizarteko talde guztien helburu kontrajarrien artean sortzen den gatazkari erantzun behar dio. Hori dela eta, **funtsezkoa da komunitate osoak parte hartzea** prozesu horretan (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 16).

Liburuan aurrerago azalduko den bezala, etorkizuneko bideei begira jarriz gero, egungo gobernantza-ereduek berrikuspen sakona jaso beharra daukate.

2012ko otsailaren 24ko Aginduaren bidez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Aldaketaren Hasierako Onespena eman zitzaion berrazterketaren ondorioz.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzak hiru parte-hartze bilera antolatu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan zehar. Ekimenak itxiak ziren, baina Eusko Jaurlaritzako *Irekia*[127]ren bitartez *streaming*ean jarraitzeko aukera eskaini zen prozesuaren «gardentasuna» bermatzeko, eta hiritarren elkarrekintza eta ekarpenak sare sozial eta plataforma digitalen bitartez jasotzeko. Guztiz zalantzagarria da hautatutako bide horren eraginkortasuna Europatik adierazitakoa betetzeko orduan.

---

126. NBALAP, 37 or.

127. <www.irekia.euskadi.eus> webgunetik jasotako informazioa: «Euskadiko gobernu irekiaren ernamuina da Irekia, gardentasuna, partehartzea eta lankidetza ekarriko dituen aginte-moduaren garatzeko tresna baliagarria. Herritarren eta administrazioaren arteko komunikazioa bideratzeko Interneteko zuzeneko zubia da Irekia. Hizkera soila darabil, administrazio kutsurik gabekoa, eta Open Government delakoaren hiru erro nagusietan oinarritzen da: Gardentasuna, Partehartzea eta Lankidetza».

Parte-hartzearekin lotutako hurrengo notizia ez zen 2014ra arte iritsi. Madrilen kokatutako arkitekto gazte talde bat buru zuen diziplina anitzeko lantalde bati esleitu zitzaion parte-hartze prozesu integral batean oinarritutako EAEko LAGen berrikuspenerako proposamena idazteko eskaintza.

Beste isilune luze baten ondoren, 2015eko urrian Eusko Jaurlaritzako euskadi.eus webgunean Euskal Hiria Kongresuaren 2015eko edizioak LAGen berrikuspenerako prozesu parte-hartzailea abian jartzea ekarriko duela argitaratu da. Eta azaroan, EHAA 208. zenbakiak (2015/XI/02) Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak deitutako ondorengo lehiaketaren iragarkia kaleratu du: IRAGARKIA, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena idatzi eta izapidetzeko prozesu parte-hartzailea bideratzeko laguntza teknikorako zerbitzuaren lizitaziorako (Espedientea: 026SV/2015). Emate-data azaroaren 18a da.

6.3.3.2. LAGen inguruko zenbait irakurketa

> **EAEko etorkizuneko eredu sozioekonomikoa diseinatzeko proposatutako oinarrizko dokumentuko sarreraren arabera, euskal ekonomiak, etorkizunera begira, eskalako aglomerazio ekonomiaren alde egin behar du, eta plataforma logistikoek garrantzi handia izango dute eredu horretan, garraio-azpiegitura berrien eraikuntzarekin batera.** Proposatutako ekimenen artean hauek nabarmentzen dira: **Bilboko aireportua hub intermodal handia** bihurtzeko asmoa, **Bilboko AHTren geltokiarekin lotura** izanik, **Bilboko portua merkantzien itsaso bidezko konexiorako gune handia** bihurtzeko asmoa, **Gasteizekin tren bidezko lotura gune logistiko gisa duen pisua areagotzeko eta merkantzien fluxuen antolakuntzaren gune nagusi gisa Forondak duen pisua indartzeko.**
>
> Proiektu horiek ekonomia guztiz liberalizatzeko politikak sendotzen dituzte. **Eredu horretan ekoizpenari, banaketari eta merkataritzari lotutako jarduera gehienak jarduera globaltzat hartzen dira edo, bestela, oinarri lokaleko ekonomia tradizionalak beren lurralde-oinarriak galtzea eragingo dute ekonomia-egitura handiagoetan (erregionalak, nazionalak eta nazioartekoak) txertatuta bukatzeko, betiere, mundu-mailako merkatu bakarreko egitura eta dinamikei lotuta eta haien mende.** Eskala txikiko metaketa-espazioak askoz erlazio konplexuagoak dituzten truke-espazio handiagoetan txertatzen joan ahala, nabarmen handituko dira erregio, herrialde eta kontinenteen arteko fluxuak eta etengabe trukatuko dira produktu eta zerbitzuak. Horrek **garraio-azpiegitura gero eta trinkoago eta zabalagoak garatzeko eta eraikitzeko beharra ekarriko du, garraioaren kostuak nabarmen murriztuz.** Aipatu berri dugun testuinguruan, XIX. eta XX. mendeetan integrazio ekonomikoaren bidez sortutako metaketa-espazio nazionalek ("barne-merkatu" nazionalek) gainezka egingo dute. Hortaz, **produktu globalen banaketak fluxuen zirkulaziorako azpiegitura konplexuen beharra dakar, batetik, eta merkantziak biltzeko, izakinak kudeatzeko, zamak zatikatzeko eta trukatzeko… gune espezializatuak sortzeko beharra, bestetik.**

> **LAA-ak berraztertzeko egindako proposamenaren bidez eredu hori areagotu nahi da (...). Ibilgailuen trafikoan oinarritzen da** proiektu hori eta horrek berekin dakartza kutsadura handiagoa, lanpostuen ezegonkortasuna, espekulazioa, nekazaritzako lanpostuen galera, eskualde-mailako denda eta negozio txikien desagerpena eta, azken batean, injustizia sozial handiagoa (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 16-17).

Etxabek[128] (2011) LAGen inguruko zenbait azterketa kontsultatu zituen gaiaren egungo egoeraren ikuspegi bat eratzeko eta, aspektu problematiko azpimarragarrienen artean, lurralde-prozesu eta -politikak markatzen zituena merkatu-ekonomiaren logikaren esklusibitatea zela hauteman zuen.

> Era berean, proposatutako eredu horretan **Euskal Hiria izeneko eskualde-hiria bultzatzen da. Egitura polizentriko, integratu eta lehiakorra eratu nahi da, landa-ingurunea eta hiria kontrajarriaz, biak bateraezinak eta elkarren baztertzaileak izango balira bezala** (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 16).

LAG dokumentuak berak honela aurkezten du kontzeptua:

> **Euskal Hiria kontzeptuak** euskal eskualde-hiria adierazten du. Paisaia, ingurune fisikoa, landa- eta hiri-ingurunea, euskal hiriburuen arteko eta **euskal hiriburuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-sistema osatzen duten hainbat tamainatako gainerako hiriguneen arteko erlazioak eta osagarritasunak jasotzen dituen lurraldeari buruzko ikuspen integratuari** dagokio kontzeptua[129].

Eta hiri-erreferentzialtasuna agerian uzten du:

> Euskadi Lurralde Sare bihurtzen ari da. Sare hori, oso garatua dagoen eta gero eta erlazio hertsiagoa duen **zentro anitzeko hiri-sistemak osatzen du, metropoli-eremuak, hiri ertainen sistemak eta landa-eremuak bere barnean hartzen dituenak.** Leku bakoitzaren nortasuna osotasunak eskaintzen dituen aukerekin bateratzen duen lurraldea da[130].

128. Etxabe Gutierrez, I. (2012): «La necesidad de un cambio de modelo de desarrollo y su reflejo en la Ordenación Territorial (El caso de las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco)», *Territorios en Formación,* **2**, 21-36.

129. LAGen Berrikuspena, 26. or.

130. Ibid., 26. or.



6.8. irudia. Sare-hiria. Iturria: LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET (2012). Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza, 2012.

Hirien defentsa horretan, nolabaiteko justifikazioa ere ageri da, hiri-nukleo handien ontasuna (edo txarkeria eza) argitzeko:

> Gaur egun, **hiri-nukleo handiak ez dira, lehen bezala, inguruneko baliabideak xurgatzen dituzten elementuak.** Euren eraginpeko eremua garatzen laguntzeko elementu bihurtu dira[131].

«Elikadura-burujabetzarako politika publikoak. EAEko azterketa» dokumentuarekin jarraituz:

> **Hiriari lotutako espazioen aldeko apustu sendoa egiten da, beraz, eta bertan landa-ingurunea aisialdirako esparrutzat hartzen da,** era askotako guneak jarriaz han: aire zabaleko jardueretarako guneak, atsedenguneak (bizileku berriak), turismo-guneak, kirol-guneak (golf-zelaiak), energia berriztagarriak ekoizteko lursailak… **Landa-ingurunea eta hiria ez dira elkar baztertzaileak, ordea, eta hiriak ez luke landa-ingurunea hiriko biztanleentzako atseden edo aisialdirako lurrak eskuratzeko bereganatu beharreko espazio gisa ikusi beharko.** Proposatutako lurralde-antolamendurako ereduak, gainera, natur baliabide (lur) eta lurzoru asko eta asko kontsumitzen ditu eta kontsumismoa (hau da, kontsumitze hutsagatik kontsumitzea) aldezten du sutsuki (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 16).

Baliabide eta kontsumoaren inguruko hausnarketa, Etxaberen beste baieztapen honen ildo berean doa:

131. Ibid., 28. or.

> Esan daiteke LAG zera dela, horretarako baliabide naturalak mugagabeak direlako sinesmenarekin diseinatutako plangintzetan oinarritutako hazkunde eta garapena mantendu eta gehitzera bideratutako dokumentua (Etxabe, 2011: 30)[132].

Azpiatal honen hasieran aipatu bezala, LAGak aztertzerakoan, halako kutsu kontraesankor bat nabari da, bai edukiaren aldetik, baita lengoaiaren aldetik ere. «Jasangarritasun», «ingurumen», «natural»... hitzak bolo-bolo darabiltza dokumentuak, baita «korridore ekologiko», «ekosistema» eta abar ere. Hitz horiek «berdetasuna»[133] dakarkigute gogora, imajinatzeko gai garen marketin-karga guztiarekin.

> 5.2. Korridore ekologikoak[134]
>
> (...)
>
> Haranek eta banalerroek eratutako **korridore ekologikoek natura**-guneei jarraitutasuna emango dieten **sare berdea** sortzen lagunduko dute, eta, horrela, lurraldearen **barietate eta aberastasun ekologikoa, erakargarritasuna eta paisaia dibertsitatea** areagotuko dira. Gainera, hobetu egingo ditu ibaietan eta inguruneko mendietan erakargarriagoak izateko argumentu sendoa duten herrigune askoren **irudia** eta **natura**rekin harremanetan egoteko aukerak[135].

Deigarria da gisa horretako hitzon kopurua, eta deigarria da ere «irudi» eta «erakargarritasun»arekin ezartzen den erlazioa.

> Korridore ekologikoen sareak aukera ematen du, **erabilera horiek biodibertsitatearen babesaren eta fluxu ekologikoen mantentzearen aurkako gatazkarik sortzen ez duten eremuetan, tokiko biztanleentzat aisiaguneak eta naturarekin harremanetan egoteko gune erakargarriak sendotzeko,** paisaia hobetuta eta konexio elementu biguna eskainita[136].

Esan bezala, korridore horiek zeharkatzeko proposatzen diren guneek egiturazko planteamenduarekiko zalantzak sortzen dituzte, idatziz, lehentasunak eta errespetatu beharrekoak argi azaldu arren.

---

132. Egileak itzulia.

133. Ramo, B. (2012): «Oi berde ahalguztiduna!», *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **12,** 5-7.

134. «Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako Zuzendaritzak 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak 1995ean egindako azterlana oinarri hartuta, eta aurrerapen handia da Korridore Ekologikoen Sarea lurralde- eta arlo-antolamenduaren esparruan ezartzeko. Korridore Ekologiko Sare hori tramitazioan den Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen (LAA) berrazterketan jasotako lurralde-eredua sostengatzen duen zatitzat jo da gero. LAAak bere berrazterketaren ondorioz izandako aldaketa ez-garrantzitsuak sare teilakatuen formako eredu bat ezartzen du, eta lotura ekologikoko prozesuek zeregin garrantzitsua dute hor» NBALAP, D Dokumentua. Eranskinak, 21. orria.

135. LAGen Berrikuspena, 98. or.

136. Ibid., 98. or.

Horrez gain, dokumentuan zehar behin eta berriz aipatzen dira ekosistemak, baina berrikuntzakoak. Natura-eremuko lengoaiarekin hiri-prozesuak izendatzean ere, horiek «berdeagoak» dira.

> Euskal Hiria Eskualde Hiria Berrikuntza Ekosistema bihurtzeak EAEn berrikuntza-faktore horiek sustatzeko eta gure lurraldea eta gure ekonomia-jarduerak egoera berrietara moldatzea errazteko proposamena darama berarekin.
>
> **Berrikuntza Ekosistemak berrikuntzak sortzeko zentro izateko bokazioa duten lurraldeak dira.**
>
> (...)
>
> Hiri eta lurralde dinamiko eta erakargarriak dira ekosistema berritzaileen elementu nagusiak, berrikuntza-zentroen kokalekuen inguruko arauak aldatzen ari diren garai honetan. **Berrikuntzako gune berriak ez dira jadanik aurreko etapako teknologia-parkeak, zentro historikoak, kostaldeko guneak, landa- eta nekazaritza paisaiak edo arkitektura bereziko hiriguneak baizik. Nortasuna eta kalitatea duten guneak dira, lana, etxebizitza eta aisialdia errealitate erakargarri, iradokitzaile eta bizi-kalitate handikoaren zati banaezin gisa txertatzeko gai direnak[137].**

Dokumentuan zehar hiru ardatzon errespetua ere aipatzen da, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa. Teorian ederki dagoen horrek gero praktikan ez du bere tokia aurkitzen, eta, berriro ere, Etxaberen hitzetan topatu dugu gakoa:

> (...) funtsezko arazoetako bat zera da proposamenak LAGek (1997) ezarritako ereduan oinarritzea, hau da, azaleko **berrikuspen bat** izatea, sakontasun gutxikoa. Berrikuntza nagusia **indar handiz azaldu den jasangarritasunerako zeharkako diskurtsoa** izan da (Etxabe, 2011: 30)[138].
>
> Diskurtso **horrek geruza bat gehiago bailitzan gehitu nahi dio kontzeptu hori oinarrizko ereduari,** eta hori da arazoa, ez baitu zenbait kontu ordezkatu edo lekualdatzen termino horren benetako esanahiarekin, benetan kontsekuentea den planteamendu batek egin beharko lukeen bezala. Gainera, berrikuntzarekiko banaezina bailitzan mahaigaineratzen da terminoa, lurraldearen lehiakortasuna handitzeko helburu komunarekin (Etxabe, 2011: 31)[139].

Hala dio Euskal Hiria NET[140] dokumentuaren aurkezpenak:

> **Berrikuntza eta jasangarritasuna txanpon beraren bi aurpegi dira:** gure lurraldea etapa berri baterako prestatzeko premiarenak, alegia.

137. Ibid., 25. or.
138. Egileak itzulia.
139. Egileak itzulia.
140. LAGen Berrikuspena, Euskal Hiria NET. Aurkezpena

Teoriaren eta praktikaren arteko aldearen beste adibide bat, zera da:

5.1. Ingurumen-oreka berriak

Euskadiko ekosistema naturalen eta ingurumenaren egoerak nabarmen egin du onera azken urte hauetan. Horretan lagundu dute beste hainbat elementuk ere, esaterako, kokaguneen ohiko trinkotasunak eta **LAGek xedatu eta hirigintza legeriak garatutako lurzoru urbanizaezineko eraikinak kontrolatzeko neurriek.** Horrek, urbanizazio lausoaren prozesuak mugatu ditu gure lurraldean[141].

Landaguneen kasua aztertzean ikusi da hori ez dela horrela, eta hutsune nabariak dituela legeriak kontrol-neurri horietan.

Azkenik, lehen sektorearen inguruko aipamenak bildu nahi izan dira:

Ia mende erdia darama lehen sektoreak garrantzi ekonomikoa galtzen. Hala eta guztiz ere, **orain hasi dira prozesu horri lotuta lurraldean izan diren garrantzi handiko eraginak nabarmentzen. Horrek paisaia eta baliabide naturalen kudeaketa goitik behera aldatzea eragin du.** Lehen sektoreak landaguneetan garrantzia galdu ahala, jatorriz eta bizimoduz hiritar peto-petoa den gero eta jende gehiago ari da habitat horietan bere bizilekua jartzen. Egoera, beraz, ezezaguna da eta eremu asko erabat aldatzea eragingo du. Etapa berriaren erronka nagusiak, beraz, besteak beste, badirudi **landako espazioak eta natura-guneak ikuspegi funtzionaletik eta bistaren ikuspegitik beste era batera antolatzea, lurraldearen kalitate orokorrari ekarpen erabakigarria egingo diotela bermatzea eta aldaketa-prozesuak helburu orokorren, hau da, jasangarritasunaren eta bizi-kalitatearen, arabera bideratzea** direla[142].

Eta

Aldaketa handiei aurre egin behar dien nekazaritza-guneen kudeaketa aktiboa, natura-guneen arteko lotura eta lurraldeko esku-hartzeetan paisaia-ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekimenak dira **biodibertsitatea berreskuratzeko eta baita oinarrizko baliabideak eskuragarri izatea bermatzeko, arriskuak prebenitzeko eta lurraldearen erakargarritasuna eta herritarren bizi-kalitatea sustatzeko funtsezkoak diren ziklo naturalak berrezartzeko** ere[143].

Azken paragrafo horretan batez ere ez da gako-hitz bat bera ere falta. Bi azpimarratzearren: «baliabideak eskuragarri» eta «lurraldea erakargarri». Horren ondoren, Euskal Hiriko Ingurune Fisikoaren eta Paisaien Lurralde-irizpideak atalean zehazten ditu nekazaritzako guneei buruzko irizpideak:

d. Nekazaritzako guneei buruzko irizpideak

d.1. Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LPSak **paisaiak eta nekazaritza-jarduerak mantentzera bideratutako jarduketa-programak xedatuko ditu,** eta **baita** bertan **behera utzitako edo desagertzeko arriskuan dauden soroak kudeatzera bideratutakoak** ere.

141. LAGen Berrikuspena, 94 or.
142. Ibid., 94. or.
143. Ibid., 23. or.

d.2. Zentzu horretan, lurraldearen **ingurumen- eta paisaia-hobekuntzari eta nekazaritza-erabilerak aisia-jarduerekin eta ingurumen-hezkuntzako jarduerekin uztartzeari lotutako erabilera berriak hartzeko nekazaritzako guneek dituzten aukerak aztertuko ditu.**

d.3. Zentzu horretan, **interes berezia dute jasangarritasun-eskaerei loturiko nekazaritzaren ekoizpen-erabilerari eusteko aukera ematen duten jarduerek,** esaterako, ekoizpen ekologiko eta kalitatekoek, haztegiek eta landare-ekoizpeneko eremuek, herritarrek naturarekin eta nekazaritza-jarduerekin duten harremana sustatzeko eremuek, hala nola, aisia-baratzeek eta metropoliko baratzeek, baserri-eskolek, etab.

d.4. **LPPek eta Udal Planek bertan behera utzitako nekazaritzako guneak identifikatuko dituzte euren eremuetan,** programa horiek garatzeko **ekimen pilotuak** planteatzeko xedez.

d.5. **Nekazaritza ekologikoko** deitura duten **ekoizpenek** okupatutako lurrak **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Eremua Antolatzeko Kategorian** sartuko dira.

d.6. **Beharrezkotzat jotzen da nekazaritzako ekoizpen eta paisaia tradizionalak mantentzea sustatzen duten landa-garapeneko esperientzia pilotuak egitea eta haien inguruan enpresa-, hezkuntza-, kultura-, aisia- eta turismo-jarduerak sortzea.** Erreferentzia gisa, «Ardoaren Paisaiak» izeneko esperientzia pilotuak garatzea iradokitzen da, ardogintza- eta mahastizaintza-eremuen inguruan munduko hainbat tokitan egiten ari direnen antzekoak[144].

Jarraian, NBALAPk marko juridikoaren inguruan egiten duen deskribapena jaso dugu:

4.2.1. Lurraldearen Antolamenduko Artezpideak[145].

Lurraldearen Antolamenduko Artezpideen **ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko atala egungo egoeraren, eta natura-baliabideek eta lur urbanizaezinek gizarte-eskaera berrien eta lurralde-egituraren aldaketen testuinguruan eduki behar duten garrantziaren diagnositik abiatzen da.**

Hainbat helburu ezartzen dira, hauek, besteak beste: **ekologia-, paisaia-, ekoizpen- eta zientzia- zein kultura-balioen kontserbazioa, zona degradatuak birgaitzea, gutxi aprobetxatutako natura-baliabideak baliagarri bilakatzea, baliabideen aprobetxamendu iraunkorra, ingurumen-egoerari buruzko informazio-sistemak ezartzea eta abar.**

Helburu horiek lortzeko, **Ingurune Fisikoari buruzko Artezpidearen aldeko apustua** egiten da; artezpide hori hiru ataletan egituratuta dago, aldi berean: **Artezpide Orokorrak, Artezpide Bereziak (Lurralde Eredua) eta Jarduera Positiboko Proposamenak.**

144. Ibid., 102. or.
145. 1997ko LAGak.

Zehazki, **LAAetako Lurzoruaren Tratamenduari buruzko Artezpide Orokorrak Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAP honetan zehaztuko diren hainbat helbururen antzekoak** dira. Honelaxe dio:

> a.1 **Lurzorua oinarrizko baliabidea da,** lehen mailako ekoizpen-jardueren funtsezko euskarria eta hainbat prozesu naturalen ezaugarriak zehazten dituen oinarri fisikoa delako, giza kokalekuetan eragiten duelako eta arrisku naturalak agertzea baldintzatzen duelako. Horregatik, **hori kontserbatzeak eta narriatu gabe balizko erabilerak zehazteak helburu nagusia izan behar dute lurralde-antolamenduari buruzko edozein prozesutan.**
>
> a.2. **Basoak funtsezkoak dira** lurzorua finkatzeko eta babesteko eta, horrenbestez, **antolamendu berean sartu behar dira gai hauek:** bai babestutako guneen plangintzarekin, bai basoen kudeaketa orokorrarekin loturikoak, zentzu horretan baso-guneen funtzionamendu egokiari eragiten diotenak. (…)
>
> a.3. Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana egingo da, EAEko Landarako Plan Estrategikoarekin bat etorriz;
>
> a.5. **Nekazaritza-lurzoruak euskarri-funtziotik harago doazen ezaugarriak ditu.**
>
> a.6. **Lurraldearen Arloko Planek, Lurraldearen Zatikako Planek eta udal-planeamenduak lurraren nekazaritza-ahalmena eta narriadura-prozesuekiko ahultasuna hartuko dituzte kontuan,** obrak eta azpiegiturak bilatzeko irizpide gisa, **balioetan eragina izan dezaketen hirigintzako eta ekonomiako garapen-prozesuetatik at utzi behar direnak mugatuz. Babes hori produktibitatea kontuan hartu gabe hedatuko da**[146].

Egia esan, gezurra dirudi goian irakurritakoak 1997ko LAGak zehaztu zituenik. Emaús Gizarte Fundazioa Taldeak, Mugarik Gabeko Albaitariek eta EHNE Bizkaiak kaleratutako dokumentuak dioen bezala:

> **Gaur egungo antolamendu-politikekin, EAEk 700 futbol-zelai adina nekazaritza-lur galtzen du urtero. (...) EAEn zorrotz-zorrotz bete dira Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) nekazaritza-ekoizpena desarautzeko eta merkatuak liberalizatzeko ezarritako printzipioak.** Printzipio horiei jarraiki, **nekazaritza intentsiboko eredua bultzatu da** (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 20).

NBALAPrekin jarraituz:

> LAAen lurralde-ereduan **proposatzen diren tresnak antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak dira.** Kategoriek lurraldea harrera-ahalmenaren arabera definitutako sektore homogeneotan zonifikatzea dakarte. Hirigintza-planeamenduak lur urbanizaezina sailkatzeko erabilitako izendapenak homogeneizatzea eta horiek antolatzeko irizpide orokorrak ezartzea dute helburu. **Gainjarritako baldintzatzaileek ez dute erabilera mugatzen, baliabidea mantentzeko arriskutsuak izan daitezkeen jarduera batzuk garatzeko modua baizik.** LAAek proposatutako kategoria eta gainjarritako baldintzatzaile horiek guztiak hainbat

146. NBALAP, 37.-38. or.

erabilera egoki, onargarri edo debekatu ditu berarekin (Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizearen arabera).



6.9. irudia. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak. Iturria: NBALAP, 39. or.

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPk aldaketa batzuk egin ditu LAAen antolamendu-kategorietan:

– **Ez du mugatzen «Babes Bereziko» kategoria,** ulertzen duelako, artezpideek ezartzen dutenez, LZPek eta udal-planeamenduak heldu behar diotela lan horri. Beraz, Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak ezartzen duenez, **lurraldearen zonifikazioa kontuan izanda idazten den udal-planeamenduak,** halaber, **kontuan izan beharko du balio natural garrantzitsuak dituzten zonak** (LAAek definitzen duten bezala) **babes bereziko kategoria batean sartu behar direla,** eta hor erabilera antropikoa mugatu behar da edo, aprobetxamendurik badago, modu iraunkorrean bultzatu behar da hori.

– **Ez da mugatzen «Erabilera zehatzik gabeko» kategoria,** LAPak ulertzen duelako **lursail guztiek dutela neurri handiagoan edo txikiagoan nekazaritza-eta basogintza-erabilera potentzial bat**[147].

147. NBALAP, 37.-39. or.

Jarraian, NBALAPren sistematizazioak azalduko dira:

23. artikulua. Lurraren erabileren sistematizatze orokorra eta jarduerak

INGURUMENA BABESTEA
Ingurumenaren hobekuntza.
AISIALDIA
Aisia estentsiboa.
Aisia intentsiboa.
- Jolas-eremuen egokitzapena eta erabilera.
- Aisia intentsiboari lotutako eraikinak edo instalazio handiak.
Ehiza- eta arrantza-jarduerak.
LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA
Nekazaritza.
- Nekazaritzako ustiaguneekin zerikusia duten jarduerak.
- Nekazaritzako ustiaguneekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak.
Abeltzaintza.
- Abeltzaintzako ustiaguneekin zerikusia duten praktika kulturalak.
- Abeltzaintzako ustiaguneekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak.
Basozaintza.
- Basoko jarduerekin zerikusia duten praktika kulturalak.
- Basozaintzako ustiaguneekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak.
Nekazaritzako industriak.
Erauzketa-jarduerak.

INFRAESTRUCTURAS.
Garraiobideak.
Landa-bideen eta pisten erabilera.
Aireko lineak.
Lurpeko lineak.
Izaera lineala ez duten A motako zerbitzuen instalazio teknikoak.
Izaera lineala ez duten B motako zerbitzuen instalazio teknikoak.
Obra-hondakindegiak eta hondakin solidoen zabortegiak.
ERAIKUNTZAKO ERABILERAK.
Aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hirigintza-hazkundeak
Aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hirigintza-hazkundeak.
Onura publikoko edo gizarte intereseko eraikinak eta instalazioak.
Nekazaritzako ustiaguneari lotutako egoitza isolatua.
Nekazaritzako ustiaguneari lotuta ez dagoen egoitza isolatua.
Instalazio arriskutsuak.

46. artikulua. Antolamendu-kategorien sistematizazio orokorra

GOIKATEGORIA	KATEGORIA	AZPIKATEGORIA
	Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabalekoa	Balio estrategiko handia
		Trantsizioko landa paisaia
Mendia	Basogintza	
	Basogintza-Mendi Barbana	
	Mendi larreak	
	Mendi larreak-Harkaitzak	
	Ingurumenaren hobekuntza	
	Lurrazaleko urak	
	babestea	

VI. kapituluan antolamendu-kategorietan aplikatzeko arauak zehazten dira (62. artikuluan, erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea).

54. artikulua.- Gainjarritako baldintzen sistematizatze orokorra

1.- Akuiferoen kutsadurarekiko eremu kalteberak.

2.- Eremu higagarriak.

3.- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

4.- Natura-intereseko eremuak.

5.- Korridore ekologikoak.

6.- Gutxi aldatu diren paisaiak dituzten eremuak.

Eta VII. kapituluan gainjarritako baldintzetan aplikatzeko arauak. Guztien garapen xehea, Planean bertan jasotzen da.

6.3.2. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea

Lurraldearen arautze politikoaz gain, beharrezkoa da, halaber, lurraldeko lurzoruaren eta hirigintzaren arautze praktikoagoa. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak (ekainaren 30ekoa, EHAAren 138. zk., 2006/VII/20) arautzen ditu EAEko hirigintza-gaiak. Hauek dira lege horren xede nagusiak: lurzoruaren erabilera antolatzea, programatzea, zuzentzea, ikuskatzea, kontrolatzea eta, hala dagokionean, exekutatzea eta lurzoruaren eraldaketa zaintzea, urbanizazioaren eta eraikuntzaren bidez gauzatzen den hiri-antolamenduaren exekuzioaren bidez. **105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko neurri urgenteei buruzkoa (EHAAren 118. zk., 2008/VI/23).**

(...) Landa-inguruneko edo landaguneetako lurzoru urbanizaezinari dagokionez, halako lurretan eraiki daitezkeen eraikin motak arautzen ditu legeak (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 20-21).

Landaguneak aztertu ditugunean ere azaldu da, baina NBALAPren laburpena jasotzen da hemen:

> 4.3. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea
>
> (...)
>
> – Lurzoru urbanizaezineko eraikuntzak: **NBALAPren 11. artikulua** («Lurzoru urbanizaezinean nekazaritza-eraikinak eraikitzeko baldintzak») **eta LAParen matrizean jasotako arautzea 2/2006 Legearen 28. artikuluan ezarritako lurzoru urbanizaezinaren arautzearekin bat etorrita egituratzen dira.**
> – **Nekazaritza-ustiategiarekin loturiko etxebizitzak: LAParen 12. artikuluak jasotzen ditu** baratze- edo abeltzaintza-ustiategi ekonomikora lotutako oin berriko etxebizitza egiteko eta eraikitzeko ekintzei buruzko baimenak eta dokumentazioa, **2/2006 Legearen 31. artikuluak ezarritakoari jarraituz.** Halaber, **baserriak berreraikitzeko baldintzatzaileak eta horretarako baimena jasotzen ditu, lege horren 30. artikuluak xedatutakoari jarraituz.**
> – **Landa-nukleoen erregimen berezia: LAParen 40. artikuluak** «Existitzen diren nukleoetan babestutako hazkundeak», **2/2006 Legearen arabera** definitzen du landa-nukleo kontzeptua, eta **nukleo horiek hazteko baldintzatzaileak adierazten ditu lege horren 29.5 artikuluari jarraituz**[148].

6.3.3. NBALAPren Esparru Juridikoa, labur

«4. Esparru Juridikoa» atalean, orain arte ikusi ditugun Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legeaz, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko Legeaz (LAL) eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeaz gain, ondorengoak biltzen ditu NBALAPk: Natura Babesteko Legea, EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, Uren Legea, Kosten Legea, Mendiei buruzko Legea, eta Aeronautika-arloko legedia. Arloei buruzko Estatuko zein EAEko legeria ugariak lurralde-aukeren kontsiderazio integratua zaildu egiten duela aipatzen du NBALAPk, eta, ondorioz, plangintza espazio zabaletan eta arloko eta hirigintzako politikak bateratzeko, koordinatzeko eta integratzeko baldintzetan egiteko premia nabari dela.

NBALAPk kritika ugari jaso ditu. Behin eta berriz errepikatzen gabiltzan bezala, hitzek eta ekintzek bide ezberdinak hartzen dituzte. Bertako 1. artikuluko 2. puntuak xedatutako helburuei erreparatuz gero:

> **2.- LPSaren helburu nagusiak hauek dira:**
>
> a) **Nekazaritzako lurra definitzea eta babestea,** bereziki **balio agrologiko handiko lurra,** nekazaritza eta basozaintzako jarduna orekatua izateko **funtsezko baliabide gisa.**
>
> b) **Gaur egungo landa-egoera zehaztea.**

148. NBALAP, 41. or.

c) **Lurralde-antolamendua sustatzea, plangintza landa-irizpideetatik planteatuta.** Ildo horretan, LAG Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Ingurune Fisikoaren Gidalerroa oinarri hartuta, gidalerro horrek nekazaritza eta basozaintzako sektorearen beharrak eta optikak jaso behar ditu. Horrela, zenbait erronka daude:

1.- **Nekazaritza eta basozaintzako jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatzen duten oinarrizko faktore**en barruan sartzen direla ziurtatzea.

2.- Nekazaritza eta basozaintzako jarduerak modu bideragarrian egiteko **behar diren lursailak (kalitatea eta kopurua kontuan izanik) bermatzea.**

3.- **Landa-inguruneko eragileak eta herriak** antolamendu- eta babes-politiken barruan **inplikatzea.**

4.- **Landatarraren papera birdefinitzea,** aro industrialaren ondoko fasean sortutako testuinguru sozioekonomikoan: erabilera publikoa, bizi-kalitatea...

d) **Jarduteko bitarteko baliagarriak eta onargarriak planteatzea,** haien bidez sektorea eta sektorearen baliabideak defendatzeko nekazaritzarako eta basozaintzarako ez diren beste erabilera batzuen aurrean

f) **Udal-plangintzak, lur urbanizaezina zonakatzean, zenbait irizpide eta kontzeptu beregana ditzan gomendatzea,** eta LAGetan proposatutako Ingurune Fisikoaren kategorizazioa garatzea LPSan.

g) **Nekazaritza-babesa eta ingurumen-babesa bateragarri bihurtzea.**

h) LPS honen **emaitzak hedatuko direla bermatzea, lurralde-kudeaketako eta -plangintzako beste dokumentu batzuetan kontuan izateko.** Bitarteko honek nekazaritza eta basozaintzako politika gainerako politika sektorialekin lurralde-eremu bateratu batean txertatzeko eskaintzen duen aukera aprobetxatzea.

Ezin helburu makalak direnik esan, baina plan, lege eta eratorritako dekretuek balizko tresna ahaltsuak aurkezten dituzten arren, gero ez dira aplikatzen, luze jotzen dute... Eta bateragarritasun konplexuak gertatzen dira kasu askotan. Tarte eta zirrikitu horietan guztietan badago lana.

6.4. BESTE ARLO BATZUETAKO LEGEAK[149]

Orain arte azaldutakoarekin suma zitekeen agian, baina aurrerago etorkizunari begira jartzeari dagokion atalean berretsiko da lurraldea, komunitatea eta legeria ez direla elementu isolatutzat hartzen. Landa-eremu hori, lurzoruari lotutako erabilera eta jardueren aldetik ez ezik, jarduera eta erabilera horiekin erlazionatutako beste aspektu batzuetatik ere aztertu nahi da, funtsezkoak dira-eta. Zer araudi dago lurra kudeatu eta lantzen duten baserritarrentzat? Eta baserritar emakumeentzat? Ba al du eraginik horrek lurron kudeaketa errealean? Jarraian errepasoa, labur:

149. Atal honetako lege eta aipamen gehienak, 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoan (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendutako Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jasotakoak dira.

6.4.1. Titulartasun partekatua

6.4.1.1. 297/2009 Errege Dekretua, nekazaritza-ustiategietan titulartasun partekatua izatearen ingurukoa.

Ustiategiko titularrari ezartzen zaizkion ekoizpen-eskubideak, primak, kuotak, diru-laguntzak eta abar titularkide biei egotziko zaizkiela ezartzen du.

6.4.1.2. 35/2011 Titulartasun partekatuaren legea

- Kudeaketa, ordezkaritza eta ardura partekatua.
- Irabazien banaketa % 50.
- Titular biak diru-laguntzen onuradun zuzenak.
- Lehentasunezko ustiategi izendatzeko abantailak.
- Formazioa jasotzeko lehentasunak.
- Titularkide izan gabe lanean aritu eta kobratu ez duen emakume baserritarra dibortziatuz gero edota ustiategia eskualdatuz gero, ordainsaria jasotzeko aukera.

6.4.2. Gizarte-asegurantza

6.4.2.1. 36/2003 Legea, azaroaren 11koa

2123/1971 Dekretuak ezarritako murrizketak kendu (baserri berean senaremazte bakoitzak bere gizarte-asegurantza kotizatu ezina).

6.4.2.2. 2005eko urriaren 20ko hitzarmena, norbere kontu lan egiten duen baserritarren enkuadraketa eta kotizazioaren ingurukoa (30/2005 aurrekontuen Legea)

% 30eko hobaria gizarte-segurantzan sartzeko 3 urteko iraupenarekin (40 urtetik beherakoei)

6.4.2.3. 18/2007 Baserritarrak norbere kontu lan egiten dutenen erregimenean txertatzea

6.4.3. EAEko legerian: 17/2008 Nekazaritza eta Elikadura Legea

4. art. Lege honen ondorioetarako, ustiategiaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badu, horietako bakoitza ustiategiaren titularkidetzat joko da

76. art. Ustiategiaren titularrari dagozkion laguntza, eskubide, kuota eta indarrean dagoen araudiko bestelako neurri baliokideak, guztiak, titularkide bakoitzarentzat izango dira, ustiategian daukaten partaidetzaren araberako baldintza eta mugetan, edo beraiek erabakitako baldintza eta mugetan.

Ustiategiaren titulartasunak dakartzan ondorio sozial, laneko, ekonomiko, fiskal eta bestelako ondorio guztiak ere izango ditu titulartasun partekatuak; kontu zibiletan, merkataritzan, lan-kontuetan eta fiskalitatean indarrean dauden arauekin bat etorriz beti.

6.4.4. Emakume baserritarren estatutua

6.4.4.1. 17/2008 Nekazaritza eta Elikadura Legea

> 75. art. Emakume Nekazarien Estatutua, eta ekintza positiboak bultzatzeko politikak.
>
> a) Prestakuntza-programa bereziak sortzea.
>
> b) Dirulaguntzei lehentasuna eman eta inbertsioak finantzatzen laguntzea.
>
> c) Kudeaketa-organo publiko nahiz pribatuetan ordezkaritza handiagoa izateko mekanismoak sortzea.
>
> d) Lana eta familia uztartzea; horretarako, kontuan hartuko dira haurdunaldia eta amatasuna, baimenak eta lizentziak, eta familiari laguntzeko zerbitzuak.

6.4.4.2. Eusko Legebiltzarrak onartutako 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa (EHAAren 200. zk., 2015/X/21)

> Onartu berri den lege hau aurrerapausoa dela aitortu arren, zehaztasun falta egotzi diote sektoreko hainbat eragilek. Ibilbidea ikusi behar orain.

6.4.5. Baserritarren eskubideen deklarazioa

Nazio Batuen Erakundeak 2013ko otsailaren 24an onartu zuen Giza Eskubideen Kontseiluan.

Deklarazioak lehen sektorean lanean dabiltzan gizon-emakumeen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aldarrikatzen ditu.

Eskubide berrien aintzatespena bilatzen du: Lurrarekiko eta lurraldearekiko eskubidea (4. art), Haziekiko eskubidea eta tradiziozko nekazaritzaren jakintza eta praktikarekiko eskubidea (5. art).

6.4.6. Europako egungo nekazaritza-ereduaren nondik norakoa[150]

> EAEko nekazaritza ezin da ulertu neurri handi batean haren gidari eta baldintzatzaile diren espazio eta merkatu zabalagoak kontuan hartu gabe. NPBren erreformak, egitura-

150. Atal honetako lege eta aipamen gehienak, 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoan (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendutako Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jasotakoak dira.

politika berriek eta landa-garapenak, zein MMAren negoziazioen esparruko Europako nekazaritza-ereduaren defentsak mugatuko dute gure nekazaritzaren eta landa-espazioaren etorkizuna, Europako gainerako lekuetan adina[151].

6.4.6.1. Europako nekazaritza-politikak (NPB)

– II. Mundu Gerraren ostean elikagai falta. Gosetea.

– NPBen sorrera.
  Helburua: Nekazaritza-ustiapena sustatzea eta elikadura bermatzea.
  Tresnak: Barne-prezioak lagundu.
  Mugak babestu.

– 1970ean elikagaien autohornikuntza. Soberakinak hazten dira:
  • Diru-laguntza bidez esportatu.
  • Barne-mailan suntsitu.

– AEBren haserrea. Merkataritza-arau multilateralak inposatu.

– 1980ko hamarkadan EBk neurri politikoak hartu zituen soberakinekin amaitzeko.
  Kuotak edota mugen ezarpenak: esne-produkzioan, laborantza-lurren kopu-ruan, abelburuetan, etab.

– 2000. urtean NPBren erreforma.
  Nekazaritzaren lehiakortasuna.
  Eredu industrial eta intentsiboaren ezarpena.
  Nekazaritza-politikak mundu-mailako merkatuari begira.
  Nekazaritza familiar edota ustiategi txikien desagerpena.

– Europako nekazaritza-politikak, Munduko Merkataritza Erakundearen esanetara.
  Uruguaiko Erronda (1994), estatuek merkataritza-arau multilateralen ezarpena onartu:
    Nekazaritza-produktuen liberalizazioa.
  Garapenerako programa, Doha (2004):
    Nekazaritza-produktuen liberalizazio handiagoa.
  NPBren erreforma (2003)
    Zuzeneko diru-laguntzen desakoplamentua (lur-jabeentzat; ekoizpenetik bereiziak).
    Modulazioa edo murrizpena (urtero % 3ko murrizpena, % 20ra iritsi arte).
    Baldintzatasuna (ingurumenaren zaintza, animalien ongizatea, elikagaien osasungarritasuna).

151. NBALAP, 29. or.

NPBren erreforma (2015-2020 aldirako).
Laguntza-eskubideen zuzeneko ordainketen eredua aldatu.
Oinarrizko ordainketa.
Ordainketa berdea edo *greening*a.
Laguntza gehigarriak.

6.4.6.2. Euskal-nekazaritzaren historian erakundeek jarraitutako estrategiak

6.10. irudia. Euskal-nekazaritzaren historian erakundeek jarraitutako estrategiak
Iturria: NBALAP, 30. or.

6.5. MUNDU MAILAKO LEGERIAK: MERKATARITZA ETA INBERTSIO LANKIDETZA TRANSATLANTIKOA (TTIP)[152]

Oro har, eremu guztietan AEBn indarrean dagoen legeriarekin parekatzea da helburua:

> Tratatu horrek Europako, nazioko eta tokiko araudietan izango du eragina.
>
> Enpresen interesen arabera lan-, ingurumen- eta osasun-estandarrak moldatu ahal izango dira.

152. 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoko (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jaso da, Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendua.

Helburuetako bat da elikadura arautzen duten arauak AEBn eta Europar Batasunean berdinak izatea. Elikagaien segurtasuna ezberdin kontrolatzen da AEBn eta Europar Batasunean:

Europan: ekoizten den unetik mahairako prozesu guztiak kontrolatzen dira. «Zuhurtzia» printzipioa aplikatzen da, horrela, produktuak arautu egiten dira, kaltegarriak ez direla frogatu bitartean.

AEBn: produktuen azken itxura besterik ez da aintzat hartzen. Elikagaiak merkaturatzen dituzten enpresa guztiak errugabeak dira kontrakorik frogatu ezean. Produktu bat debekatu ahal izateko, osasunean edo ingurumenean egindako kalteak frogatu beharko ditu gobernuak.

II. atala

«Erraza da oinatzak ezabatzea,
baina zaila dena lurra ukitu gabe ibiltzea da»

«Proiektatu ezazu zaila den hori
oraindik erraza den horretatik.
Handia dena gauzatu
oraindik txikia den puntutik abiatuta.
Zaila den guztia erraz hasten da beti.
Handia den guztia txikitik hasten da beti»
Laozi (egileak itzulia)

1. Sarrera

Liburuaren izenburuak aukerak aipatzen ditu, eta lehenengo atalean aukera horien oinarri izango litzatekeen testuingurua erakutsi da, egungo argazkia.

Ezaguna da galtzen dugun une arte izan dugun horren balioaz jabetzen ez garela, eta hori ardatz harturik, kasu honetan, galbidean dagoen hori nekazaritza da. Ezin panorama latza denik ukatu, baina analisi-lan interesgarri baten bitartez aurreikus genezake galera horrek aurrera eginez gero zer eragin izango lukeen fase bakoitzean, maila teorikoan bederen. Balizko desagrarizazio horren kostua hainbat aspektu kontuan hartuta egin da, jardueraren funtzio-aniztasunari erreparatuz.

Egungo egoerari eustea aukera bat litzateke agian, egoera horri ez eusteak ekar lezakeena kontuan hartuz gero.

2. Desagrarizazioaren kostuak

Coste de la No Agricultura en el País Vasco[153] liburuak interes handiko azterketa eskaintzen du. Liburuko 5. eta 7. kapituluetan, desagrarizazioaren kostua eta ingurumen-zerbitzuen balioespena aurki daitezke, 9. kapituluan laburpen bat jasotzen delarik. Desagrarizazioaren kostuen kalkulurako metodologia liburuan sakon azaltzen den arren, zehaztapen batzuk gureganatuko ditugu:

> IO (Input-Output) analisiaren bitartez, lehen sektoreko adarren ekoizpenean gauzatutako aldaketek ekonomiaren osotasunean izango lituzketen ondorioen simulazioak burutu dira, EAEko 2002ko jatorriko eta helmugako taulek eskainitako datuen gainean eskaera-eredua aplikatuz. Abiapuntutzat hartutako hipotesietan, lehen sektoreko adarretako ekoizpenen murriztapena, bere osotasunean, inportazioek ordezkatuko dutela ezarri da. Inportazio horiek lehen mailako produktuen azken eskaeraren murrizketa baliokide bat dakarte, zeinak, aldi berean, ekonomia-adarren osotasunean ekoizpen-murriztapenak eragiten dituen. Horrela, eskaera-eredua aplikatuz, ekoizpenaren beherakadak ekoizpen, lanpostu eta kanpo-dependentzian duen osoko eragina lortzen da. Honako lau egoera hauen arabera egin dira simulazioak:
>
> 1 Egoera: *Abeltzaintza* eta *Basogintza* adarretako ekoizpen osoaren % 50eko murrizketa, eta *Nekazaritza* adarrekoaren % 25ekoa.
>
> 2 Egoera: *Abeltzaintza* eta *Basogintza* adarretako ekoizpen osoaren % 75eko murrizketa, eta *Nekazaritza* adarrekoaren % 50ekoa.
>
> 3 Egoera: *Abeltzaintza* eta *Basogintza* adarretako ekoizpen osoaren % 90eko murrizketa, eta *Nekazaritza* adarrekoaren % 50ekoa.
>
> 4 Egoera: *Abeltzaintza* eta *Basogintza* adarretako ekoizpen osoaren % 100eko murrizketa, eta *Nekazaritza* adarrekoaren % 75ekoa (Murua *et al.,* 2006: 181)[154].

Goian esan bezala, liburuak zehaztasun osoz adierazten ditu erabilitako datuen iturriak, datu berriak lortzeko bideak, metodologia eta abar. Atal honen helburua ez da, ordea, xehetasun horietan barrentzea, hemen aurkeztu nahi den tesi orokorrerako erabilgarria den informazio orokorra jasotzea baizik. Hori dela-eta, laburpen-taulak dira nagusiki gureganatutakoak. Gainontzeko xehetasun eta zehaztapen guztiak *Coste de la No Agricultura en el País Vasco* liburuan aurkituko dituzue.

153. Murua, J.R. *et al.* (2006): *Coste de la no agricultura en el País Vasco,* Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz [ISBN 84-457-2441-X].

154. Egileak itzulia.

Aipatutako lau egoeretako bakoitzak honela eragingo luke ondorengo aspektuetan:

	Nekazaritza BEGa* (1999-2001)	1 Egoera		2 Egoera		3 Egoera		4 Egoera	
		*	%	*	%	*	%	*	%
EAE	363,8	–145,1	–40	–246,6	–68	–272,7	–75	–329,6	–91
Araba	173,7	–49,5	–28	–97,5	–56	–97,9	–56	–145,6	–84
Bizkaia	108,1	–52,5	–49	–82,7	–76	–96	–89	–101,8	–94
Gipuzkoa	83,2	–43,1	–52	–66,4	–80	–78,7	–95	–82,2	–99

2.1. taula. Nekazaritza BEGaren gaineko eragina (* milioi eurotan). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 184)[155]

BPGaren bariazioa (%)	1 Egoera	2 Egoera	3 Egoera	4 Egoera
EAE	–0,3	–0,6	–0,7	–0,8
Araba	–0,7	–1,4	–1,4	–2,0
Bizkaia	–0,2	–0,4	–0,5	–0,5
Gipuzkoa	–0,3	–0,5	–0,6	–0,6

2.2. taula. BPGaren gaineko eragina. Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 184)[156]

	Nekazaritza Errenta* (1999-2001)	1 Egoera		2 Egoera		3 Egoera		4 Egoera	
		*	%	*	%	*	%	*	%
EAE	376,1	–123,8	–33	–202,1	–54	–220,3	–59	–263	–70
Araba	179,7	–39,8	–22	–77,6	–43	–75,3	–42	–113,8	–63
Bizkaia	109,9	–46,4	–42	–70,3	–64	–80,7	–73	–83,5	–76
Gipuzkoa	86,1	–37,6	–44	–55,2	–64	–64,3	–75	–65,7	–76

2.3. taula. Nekazaritza Errentaren gaineko eragina (* milioi eurotan). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 185)[157]

	Hasierako egoera (2002)	1 Egoera		2 Egoera		3 Egoera		4 Egoera	
		Bariazioa	%	Bariazioa	%	Bariazioa	%	Bariazioa	%
Nekazaritza-lanpostuak	9.754	–4.097	–42	–6.594	–67,6	–7.559	–77,5	–8.466	–86,8
Guztizko lanpostuak	891.647	–4.418	–0,5	–7.108	–0,8	–8.149	–0,9	–9.141	–1,0

2.4. taula. Lanpostuen gaineko eragina EAEn. Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 187)[158]

155. Egileak itzulia.
156. Egileak itzulia.
157. Egileak itzulia.
158. Egileak itzulia.

	Hasierako egoera (2002)*	1 Egoera		2 Egoera		3 Egoera		4 Egoera	
		Baria-zioa*	%	Baria-zioa*	%	Baria-zioa*	%	Baria-zioa*	%
Nekazaritza-elikagaien inportazioak	3.320	+206,4	+6.2	+346,4	+10,6	+386,1	+11,6	+464,2	+14
Guztizko inportazioak	27.973	+191	+0,6	+319,8	+1,1	+357,7	+1,3	+427	+,15

2.5. taula. Nekazaritzako inportazioen eta guztizko inportazioen gaineko eragina EAEn (* milioi eurotan). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 188)[159]

2.1. INGURUMEN-ZERBITZUEN BALIOESPENA

Ekosistemen balioa ondasun eta zerbitzuen balioespen ekonomiko osoaren bitartez zenbatesten da. Balio ekonomiko osoa honako balio hauek osatzen dute (Murua *et al.*, 2006: 208)[160]:

- *Erabilera zuzenaren balioa*: zuzenean erabiltzen diren ingurumen-ondasun eta zerbitzuen (elikagaiak, erregaia) eta kontsumo-erabilerarik ez dutenen (paisaia, aisialdia) balioa da.
- *Zeharkako erabilera*: ekosistematik kanpo hornitzen diren ekosistema-zerbitzuen balioa da (uren arazketa edo karbonoaren finkatzea, adibidez).
- *Erabilera-aukera*: etorkizunean erabilia izateko aukera gordetzearen balioa.
- *Ez erabiltzearen balioa*: gizabanakoek baliabidearen existentzia hutsa nahiago dute, erabili ez arren.

Ingurumen-zerbitzua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Aisialdi- eta paisaia-erabilera	4.720	10.950	14.480	30.150
Biodibertsitatea	8.110	6.190	5.740	20.040
Karbonoa finkatzea	1.150	2.790	1.860	5.800
Ekosistemen babesa BNG	2.800	3.770	3.180	9.750
Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko paisaia	1.740	1.790	2.520	6.050
Balio osoa	**18.520**	**25.490**	**27.780**	**71.790**

2.6. taula. EAEko ingurumen-zerbitzuen balioespena (1.000 €). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 213)[161]

Emaitza horiek EAEko lehen sektorean dituzten ondorioak, nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko erabilera, baso mendi-larre eta harkaiztiko erabilera, eta parke-erabilera kategoriek emandako ingurume-zerbitzuen balioetatik eratortzen dira (Murua *et al.,* 2006: 218)[162].

159. Egileak itzulia.
160. 208. orrian oinarrituta. Egileak itzulia.
161. Egileak itzulia.
162. Egileak itzulia.

Erabilera-kategoria eta zerbitzua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko erabilera	3.330	2.420	3.070	8.820
Paisaia	1.740	1.790	2.520	6.050
Biodibertsitatea	1.590	630	550	2.770
Baso, larre eta harkaiztiak	11.050	14.910	16.530	42.490
Aisialdi- eta paisaia-erabilera	3.590	7.280	9.930	20.800
Biodibertsitatea	6.520	5.560	5.190	17.270
Karbonoa finkatzea	930	2.070	1.420	4.420
Parkeak	4.150	8.160	8.170	20.480
Aisialdi- eta paisaia-erabilera	1.130	3.670	4.540	9.340
Biodibertsitatea	2.800	3.770	3.180	9.750
Karbonoa finkatzea	220	720	450	1.390
Balio osoa	**18.520**	**25.490**	**27.780**	**71.790**

2.7. taula. Nekazaritza- eta abeltzaintza-, baso- eta parke-erabileren balioespena (1.000 €). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 217)[163]

2.2. LABURPEN-TAULA

Nekazaritza-ekoizpenaren galeraren eraginak	Egoera moderatua	Muturreko egoera
Nekazaritza BEGaren gaineko eragina	145,1	329,6
Nekazaritzakoa ez den BEGaren gaineko eragina	18,1	38,5
Ekoizpena, guztira	163,2	368,1
Lanpostuen galera	26,7	55,4
Lanpostuak, guztira	26,7	55,4
Lurzorua mantentzea	6	9
Basoa mantentzea	1,8	
Basoa berreskuratzea	3,6	
Lurzoru eta basoak mantentzea, guztira	11,4	13,4
Guztizko kostu ekonomikoak	**201,3**	**436,9**

2.8. taula. Desagrarizazioaren kostu ekonomikoa (milioi €/urteko). Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 257)[164]

Desagrarizazioaren kostu ekonomiko kuantifikaturen % 80 ekoizpenaren beherakadari eta lanpostuen suntsiketari dagokio.

Lehengaien tokiko ekoizpenaren jaitsierak bertako lehengaien horniketari lotutako zenbait industriaren (harakintza-industria, esne-industria, pentsu-industria, ardo eta mahasgintzaren industria, sagardotegiak, zerratokiak…) desagerpena ekar lezake.

163. Egileak itzulia.
164. Egileak itzulia.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren galerak sortutako eragin ekonomikoa ez da mugatzen ekoizpenaren balioaren jaitsierara, lanpostuen galerara eta ingurumen-zerbitzuen narriadurara, zeren nekazaritza- eta baso-lurren kontserbazioaren arazo erantsia planteatzen baitu, zeinak kostu gehigarri bat ekarriko lukeen (Murua *et. al.,* 2006: 258-259).

Horrez gain, jarraian desagrarizaziotik eratorritako beste galera batzuk (Murua *et. al.,* 2006: 256)[165]:

Nekazaritzako feria eta azokak:

- 737 baserritarren saltoki, tokiko azoketan.
- 322 nekazaritza, abeltzaintza eta eskulangintzako feria.
- Zeregin biziberritzailea erdi-mailako nukleoetan, merkataritza erakartzeko faktore gisa.
- Merkaturatze zuzena (baratzezaintza batez ere).

Nekazalturismoa:

- 174 nekazalturismoko etxe eta 74 landa-etxe.
- 7,7 milioi euroko urteko fakturazioa (zenbatespena).
- Eragindako gastu gehigarria: 10,5 milioi euro (zenbatespena).
- Tokiko zerbitzuen eginkizun dinamizatzailea.
- Emakume baserritarren eginkizuna sendotzea.

Beste immaterial batzuk:

- Nekazaritzako elikagaien *know-how*a.
- Kalitatezko ekoizpenak.
- Kultura-ondarea (arkitektura, ohiturak, etab.).

165. Hizkuntza-zuzenketen arduradunak itzulia.

3. Legedia

Liburuko 1.6. atalean landa-eremuari oro har, eta nekazaritza eta basogintzako erabilerei zehazki lotutako zenbait lege eta arau aztertu dira, egungo testuingurua osatzen dutenak. Bertan, legeek politika zehatzei erantzuten dietela aipatu da, eta horiek egitate iraunkor bezala aurkezten zaizkigun arren, egoeraren araberakoak dira, koiunturalak alegia.

Hortaz, plantea dezagun bestelako egoera bat. Lurraldearen antolamendua gizarte guztiaren politika ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoaren adierazpen espaziala den aldetik, alda dezagun arlo horietan guztietan nagusitzen den politika hegemonikoaren ikuspegia; egungoa aukera bat da, izan daitezkeen aukera ugarien artean. Argi dago ez dela egokiena, eta badaude proposamen politikoak, modu holistiko, integral eta errespetuzkoagoan aspektu horiek guztiak uztartu eta munduan dugun tokia kontuan hartuz eraikitzen direnak.

3.1. LAA-AK

«Pujadas eta Font-en (1998) definizioari jarraituz, aipatu izan diren arlo edo gai nagusien (ingurunea, gizartea, ekonomia, marko juridiko eta administratiboa, kultura…) etorkizuneko planifikazioa eskatzen du lurralde-antolamenduak. Horrela, arloko politika guztiak garatu behar diren aurrez aurreko markotzat hartzen da» (Arbaiza eta Lozano, 2010: 236), eta «Gomez Orearen (2007) arabera, lurralde-antolamendua, beste lehentasun eta beharren artean, ikuspegi planifikatzailean oinarritu behar da, merkatuaren legeetan eta lurralde-sistemako interes-taldeen jokoan oinarritutako bilakaera espontaneotik kanpo. Izan ere, plangintzarik ezean, merkatuak zehaztu eta arautzen dituelako lurraldean eragiten duten ekintzak» (Arbaiza *et al.,* 2010: 44). Hori dela-eta, tresna horretan jarriko dugu enfasia bestelako planteamendua aurkezteko esparru gisa[166].

Aipatutako egileek lurraldea antolatzeko ereduaren aldaketa beharrezkoa suertatzen dela diote, «produkzio-, kontsumo- eta garraio-dinamikak ingurumenaren jasotze-ahalmenarekin lotu eta baliabideak modu egokian erabiliz. Horrela, iraunkortasun edo jasangarritasunaren paradigman oinarritzen dira, oro har, Euskal

166. Egoera eta koiunturez ari garela, liburuan jada aipatu den bezala, LAGen berrikuspenerako prozesu parte-hartzailea abian jartzekotan den honetan interesgarria eta komenigarria da bestelako eredu edo norabideak egon badaudela kontuan izatea.

Herriak lurralde-antolamenduaren inguruan aurkezten dituen etorkizuneko erronka nagusiak» (Arbaiza eta Lozano, 2010: 236).

EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideen inguruan lan osoena eta sakonena burutu duen eragilea DOT-Desazkundea[167] taldea izan da. Bertan, egungo lurralde-ereduarekin bat ez datozen hainbat arlotako profesionalek (arkitekto, abokatu, ingurumen-teknikari…), talde-lanean, honako lurralde-eredu baten aldeko gidalerroak proposatu dituzte, ondorengo ezaugarriekin:

Birbanatzailea:

- birlokalizazioa eta deszentralizazioa
- subsidiariotasuna (eskualdeak)
- lurralde-orekaren bilaketa

Funtzioaniztuna:

- jardueren dibertsifikazioa
- gertutasuna
- habitat-funtzioa

Solidarioa:

- hiri eta herrien arteko lankidetza eta elkarrekikotasuna
- zerbitzuetara modu zuzen eta bidezkoan heltzeko bermea

Iraunkorra:

- aztarna ekologikoa da gainditu ezin dugun defizita

Xede horretarako bost estrategia planteatzen dituzte:

1. estrategia: Lurralde eredua eta aztarna ekologikoa
2. estrategia: Elikadura-subiranotasuna
3. estrategia: Gizarte- eta lurralde-kohesioa
4. estrategia: Lurraldera egokitutako hirigintza-eredua. Gure herri eta hirietatik ikasten
5. estrategia: Lurraldearen gizarte- eta deliberazio-gobernantza

Eta estrategia bakoitzaren baitan, helburuak:

1 estrategia: Lurralde eredua eta aztarna ekologikoa

1. HELBURUA: Lurralde-, ekonomia- eta gizarte-politikak ingurumen- eta gizarte-mailako eraginak bere baitan jasoko dituzten adierazleen arabera definitzea.

167. <http://dot-desazkundea.org/> [kontsulta: 2015-12-30].

2. HELBURUA: 2030. urterako EAEko aztarna ekologikoa % 50 murriztea, eta 2050. urterako biogaitasunarekiko oreka lortzea.

3. HELBURUA: «Naturarekin batera proiektatzea» oinarri hartuta, lurralde-alternatiba ezberdinak lantzea.

4. HELBURUA: Lurralde-eredu alternatiben balorazio eta konparaketan kapital mota ezberdinak integratzea, eredu egokia definitu ahal izateko.

2. estrategia: Elikadura-subiranotasuna

5. HELBURUA: Elikadura-subiranotasuna ahalbidetzea, horretarako lurra eskuratzea.

6. HELBURUA: Familia-nekazaritza iraunkorraren ereduaren aldeko apustua egitea.

7. HELBURUA: Nekazaritza bizi bat mantentzea, eta nekazaritza-lanpostuak sortzea, baldintza duinetan.

8. HELBURUA: Elikadura-subiranotasunarekin bateragarria den basogintza-politika iraunkor bat burutzea.

9. HELBURUA: Abeltzaintza-hondakinen kudeaketa zaintzea.

10. HELBURUA: Egiturazko berdintasun ezarekin amaitzea, eta emakume baserritarren profesionaltasuna aitortzea.

3. estrategia: Gizarte- eta lurralde-kohesioa

11. HELBURUA: Eskualdeen bitartez lurraldea artikulatzea, Lurralde Hitzarmen baten alde.

12. HELBURUA: Gizarte- eta lurralde-zuzentasuna.

13. HELBURUA: Lurraldearen gobernantza demokratikoaren bidezko identitatea, kidegoa.

4. estrategia: Lurraldera egokitutako hirigintza-eredua. Gure herri eta hirietatik ikasten

14. HELBURUA: Hirigintza-eredua lurraldearen ezaugarri eta mugetara egokitzea.

15. HELBURUA: Gure lurralde-ereduaren identitate-elementuak balioan jartzea.

16. HELBURUA: Hirigintza barreiatua eta lurraldearen aldiritzea ekiditea.

17. HELBURUA: Biztanleriaren egiazko beharrizanetan oinarritutako hirigintza-eredua faboratzea.

5. estrategia: Lurraldearen gizarte- eta deliberazio-gobernantza

18. HELBURUA: Herritarren diagnostikoa, diagnostiko parte-hartzailea.

19. HELBURUA: LAAen helburu eta irizpide orokorrak zehazteko deliberazio-prozesua.

20. HELBURUA: Pertsonen eskala galduko ez duen hirigintza publiko bat lehenestea. Gizarte-bizitza eta eguneroko bizitzarekin lotutako gaiak hirigintzaren erdigunera bueltatzea.

3.1.1. Elikadura-burujabetza (eta agroekologia)

Zertaz ari gara hori diogunean?

Bizilur, Etxalde eta EHNE-Bizkaiak gauzatutako *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten. Elikadura-burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitzeko zenbait proposamen*[168] txostenetik ondorengoak jaso dira:

> Elikadura burujabetza, eremu publikoak lurraldearen antolamendua deitzen zaionari begiratzeko modu bat da, tresna hori eduki politiko handikoa eta garrantzitsua izanik halako proiektu kolektiboak definitzeko (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 21).
>
> Elikadura-burujabetza marko integraltzat hartzea, tokitik bertatik hasita, bestelako bizimodu ereduak eraikitzeko, burujabetzen elkargunea izenekoan zehazten da; hau da, burujabetza gutxienez bost eremu estrategikotan bultzatuko duten aukerak proposatu behar dira (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 5):
>
> – Ondasun naturalen burujabetza: elikadura burujabetzarako, lurra, ondasun natural guztiak, bizi-espazioak dira, aniztasunerako, ingurumenaren, kulturaren eta belaunaldien jasangarritasunerako espazioak. Ondasun erkideak dira, eta zaindu eta babestu egin behar ditugu. Lurra funtsezkoa da elikadura burujabetzarako, oinarria, nekazaritzan oinarrituriko ekonomietako haziekin batera (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 20).
> – Energia burujabetza: oinarritzat jasangarritasuna, hurbiltasuna eta tokikoa, baliabideen kontrola eta haien kudeaketa publikoa eta herriak eredu posible eta gero eta hurbilagoko horren jabe izatea eta parte-hartzea izango ditu (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 22).
> – Tokiko elikadura- sistemen gaineko burujabetza: elikadura burujabetzaren proposamenaren muina jasotzen du; izan ere, elikagaien ekoizpen, eraldaketa, banaketa, truke, merkaturatze eta kontsumo ereduei dagokie. […] Horren aurrean, elikadura burujabetzak elika-katearen gaineko kontrola berreskuratzea proposatzen du, elikadura salgaia ez eskubidea delako maximan oinarrituta. […]Horrela, funtsezko bi kontzeptutan oinarritzen da: nekazaritzara itzultzea

168. Emaús Gizarte Fundazioa Taldea, Mugarik Gabeko Albaitariak, EHNE Bizkaia (2011): *Elikadura-burujabetzarako politika publikoak,* EAEko azterketa, Donostia, < http://emauscursos.com/pdf/EAEko+Azterketa.pdf >.

eta birkokapena, edo gure marko teorikoari jarraikiz, agroekologiaren eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomien aldeko apustua (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 23).

– Emakumeen burujabetza eta autonomia: elikadura burujabetzaren oinarria da planeta eta ingurua errespetatzen duen eredu batek bere baitan hartu behar duela zainketa, duina eta unibertsala, erdigunean jarriko duen eredu bat, eskubide gisa, eta horiek bermatzen gizarte osoak duen erantzunkidetasuna zehaztuta. […] Elikadura burujabetza izango bada, feminista izango dela, eta bestela ez dela izango (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 26).

– Komuna denaren antolamenduaren eta ezagupen askearen gaineko burujabetza: ezagupena eta informaziorako irispidea funtsezkoak dira, errealitateari begiratzeko eta hura munduko kokapen jakin batetik aztertzeko elementuak ematen dizkigutelako, eta horren arabera, erabaki ahal izango dugulako agendak, lehentasunak eta nola eta nortzuen artean konpondu nahi ditugun horiek guztiak. […]Elikadura burujabetzarekin konprometiturik dagoen administrazio batek komuna dena antolatzeko beste modu batzuk, proiektu kolektibo alternatibo horiek definitzeko espazioak, denborak eta baliabideak bermatu beharko lituzke (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 28-29).

Elikadura-burujabetza proposamen alternatibo, integral eta ireki gisa ulertuta, antolatzeko beste modu batzuk eraikitzeko markoa izango litzateke (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 18):

– Bizitzak erdigunean jartzeko.
– Elikadura eskubide gisa bermatzeko.
– Pertsonen ongizatea sustatzeko.
– Natura eta izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko.
– Demokraziaz ulertzen den hori zabaltzeko eta eraldatzeko.
– Harreman sozial berdinkide, solidario eta interdependentzian oinarrituak eraikitzeko.
– Lurra eta aberastasuna birbanatu eta banatzeko.
– Datozen belaunaldiei horren guztiaren jasangarritasuna bermatzeko.

Lurraldeari[169] buruz ikuspegi integral batetik hitz egitean, ordea, honako alderdi hauek hartzen ditu (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 14):

– Alderdi ekonomikoa, lurraldea baliabideen iturri gisa.
– Harremanei eta boterearen jardunari dagokien alderdia.
– Ingurumenari dagokiona, gizakion eta naturaren arteko harremana.
– Alderdi kultural eta sinbolikoa.

169. Aurrerago atal bat eskainiko zaio *lurralde*ari.

Hori dela-eta, lurraldea eta tokian tokikoa jarduteko eremu estrategiko gisa aurkezten dizkigu dokumentuak, bizi-alternatibak abian jarri eta eraikuntza kolektiborako.

Dokumentuak honako hiru gako hauek kokatzen ditu **elikadura-burujabetzaren oinarri**an (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 7):

- **Erabakitzeko eskubidea**, herriek euren elikadura-sistema definitzeko eta euren iritziz egokiak diren politikak garatzeko gaitasuna, *zer* eta *nola* ekoitzi, zer eta nola banatu, *zer* eta *nola* kontsumitu zehazteko... Beraz, herriak subjektu burujabe definitzen ditu, aukera horiek eraikitzeko ahalmena duten subjektu gisa.
- Nekazariengandik eurengandik sortu eta eraikitzen da. Horrek esan nahi du ekintzarako eta praktikarako proposamen politikoa dela; ahalduntze eta ezagupen kritikoaren sorkuntza-prozesuen sustapenean oinarritzen dela, eta aukera horien **eraikuntza kolektibo eta herritar**raren alde egiten duela.
- **Nekazaritzan oinarrituriko ekonomien** eta haiei atxikiriko ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemen defentsa; eta **agroekologia**, aukera horien eraikuntza definitu behar duen ikuspegi gisa, bai alderdi teknikoenetik bai alderdi soziekonomiko eta politikotik.

Beste bi gakoak ulerterrazagoak izango direlakoan, azken horretan sakonduko da.

Nekazaritzako ekonomiak, neurri txikiagoko ekoizpen-sistemak dira, tokikoak, askotarikoak, hurbileko banaketa- eta merkaturatze-sistemetan oinarrituak, eta kooperazioa eta autokudeaketa gisako balioak lehenesten dituztenak; eredu agroekologikoaren dimentsio guztiak garatzeko gaitasun eta potentzialtasun handiena dutenak dira. Beraz, elkarri lotuta ulertu behar diren bi elementu eta elikadura-burujabetzaren proposamenerako ezinbestekoak direla esan daiteke.

Nekazaritzako ekonomiak aipatzean, nekazaritza iraunkorrari egiten diogu erreferentzia, jakina:

> «Nekazaritza jasangarria nekazaritzako metodo tradizionalen aurkikuntzaren eta birbalorizazioaren eta praktika ekologiko berrien berrikuntzaren arteko konbinazioa da». Etxalde mugimenduarentzat nekazaritza iraunkorra da elikadura burujabetzaren oinarria. Nekazaritza iraunkorraren definizioa ondorengo ardatz hauetan oinarrituta dago: baserritarren autonomia eta transmisibilitatea, produkzioaren banaketa, naturarekin bat lan egin, kalitatezko produktua, tokiko garapena, kontsumorako ekoizpena (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 8-9).

Nekazaritza mota horren inguruan, Mixel Berhokoirigoinen hitz ederrak ere gureganatzea merezi du:

> Laborantza iraunkorrak bere lurraldearekin lotura organikoa dauka. Laborantza ez da baserrian mugatzen. Laborantzaren geroa, beste aktoreekin batera finkatzen da. Guztiena den espazioan, nola elkarrekin erabaki laborantzaren eta beste aktibitateen

> lekua? Nola egin, Euskal Herri honetan, hain mugatua dugun lurrak utz dezan gizarteak dituen betebehar guziak betetzen, elkarren errespetuan eta orekan? Guzienak diren ura eta bioaniztasuna nola zaindu, jakinez memento berean laborarien bizibide-tresnak direla? (Berhokoirigoin, 2010: 195).

Nekazaritza mota horren alternatiba-izaera nabarmentzen du ondoren, hiru baldintza hauek betetzen badira:

> 1) Kuadro politikoak lagundu behar du zentzu horretan joaten.
>
> 2) Laborari bakoitzak bere baserriko hautuetan ahal duen guzia alde hortara egin behar du.
>
> 3) Eta gizarteak ere bere ekintzetan (kontsumo edo beste) botere bat badu laborantza eredu bat sustatzeko (Berhokoirigoin 2010: 200).

Emaús Gizarte Fundazioa Taldeak, Mugarik Gabeko Albaitariek, eta EHNE Bizkaiak kaleratutako dokumentuak, zera gehitzen du:

> Lurrari lotutako nekazaritza kalitate oneneko elikagai kantitate egokia ekoizteko gai da kanpoko baliabiderik batere edo ia batere erabili gabe, eta ez du kalterik sortzen ingurumenean. Era berean, barne-merkatura edo eskualde-mailako merkatura bideratutako elikagaien ekoizpena lehenesten duenez, elikadurari lotutako justizia soziala garatzen da maila globalean, gosearen eta pobreziaren globalizazioa bultzatu beharrean. Labur esanda, baserritarren nekazaritzak gizartea kohesionatzen du, ekonomia lokala bultzatzen du, eragile guztiek onurak ateratzen dituzteneko zirkuitu laburrak indartzen ditu eta balio erantsia ematen dio garatzen deneko gizarteari (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 18).

Agroekologia, aldiz, honela defini daiteke:

> Baliabide naturalen maneiu ekologikoa, baliabide horien maneiu industrialaren egungo ereduaren aurrean aukerak aurkezten dituzten ekintza sozialen bidez, potentzial endogenotik sortutako proposamenak abiapuntu hartuta eta ekoizpenaren eta produktuen aukerako zirkulazioaren eremuetatik bestelako garapena lortu nahi dutenak. Guztia, krisialdi ekologiko eta sozialari aurre egiten lagunduko duten ekoizpen eta kontsumo erak ezarri ahal izateko, eta horrela, neoliberalismoari eta globalizazio ekonomikoari aurre egin ahal izateko (Sevilla Guzmán, 2006).
>
> Hortaz, diziplina anitzeko ikuspegia da, jasangarritasunaren hiru dimentsio erakusten dizkiguna: ekologikoa (ezagupen tradizionalak, sistema integratu eta anitzak, ekoizpen estentsiboa, teknika ekologikoak, ondasun naturalen maneiu sostengagarria, energia eraginkortasuna eta kontsumo baxua, etab.); sozioekonomikoa («nekazaritza eta elikagaigintzako tokiko sistemak», banaketa-sistema bidezkoak, tokikoak sustatuta, ekoizle eta kontsumitzaileak atxikita, etab.); eta dimentsio sozio-politikoa (ekoizpen hori gertatzen deneko botere-harremanak aldatzeko premia eta desberdintasunei –generoa, adina, ipar-hegoa, klasea,–aurre egitea azpimarratzen dituena, aukera horien eraikuntza kolektiboa bultzatuz) (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 8).

Politika eta legerien jarrerak honakoa izan beharko lukeela dio dokumentuak: «Gaien sektorializazio eta zatiketaren aurrean, tokiko politiken eremuan (eta administrazio publikoko beste maila batzuetan ere) oso ohikoa dena, gure ustez, **ikuspegi holistiko, integral eta zeharkakoa** garatu behar dugu tokiko planak eta proposamenak definitzerakoan» (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 34). Lehenengo atalean ere ikusi dugu sektore-mailako erabaki potenteek gainontzeko esparru ugaritan eragiteko duten ahalmena, elkarri lepoa ematen diotelarik, hortaz, ikuspegi hori guztiz beharrezkoa da.

Bestalde, aipatutako dokumentuak (Emaús Gizarte Fundazioa *et al.,* 2011: 19-20), zera proposatzen du:

> Nekazaritza-sektore bizi baten aldeko apustuak estrategikoa izan behar du onartzen diren hurrengo LAAetan: lurrean oinarritutako nekazaritza defendatu behar da, elikagaiak ekoizten dituena, natur ingurunea errespetatzen duena, transgenikorik gabea eta kontsumo lokalaren beharrei erantzuten dioten nutrizio-kalitateko elikagaiak ekoizten dituena. Lurraldearen antolamendua gizarte guztien politika ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoaren adierazpen espaziala den aldetik, Administrazioak lurraren erabilerak planifikatu eta erregulatzeko daukan tresna da, eta nekazaritza-erabilerak (errealak nahiz potentzialak) ez hipotekatzeko erabil dezake tresna hori.
>
> Nekazaritza-lurrak babesteko esparru kultural, legal eta geografiko bakoitzera egokitutako tresnak diseinatu eta aplikatu behar dira, «nekazaritzarako» lurrak «nekazaritzarako ez» diren lurrak bihurtzea galarazteko.
>
> Onura publikoko mendietako lurretan pinuak eta are eukaliptoak ere landatzeko joera handiegia dago, lurrok nekazaritzako lurrak nahiz basoak izan arren.
>
> [...]Onura publikoko mendiek ezin dute beren multifuntzionaltasuna baztertu, eta garrantzitsua da larreak, basoberak eta baso-landaketak larratze nahiz artzaintzaren bidez mantentzea. Abeltzaintza estentsiboa ingurunea gehien errespetatzen duten jardueretako bat da, natur baliabideak modu arrazionalean aprobetxatzen dituelako, baliabide horiek kontserbatzen lagunduz bide batez. Era berean, landa-inguruneko biztanleak beren herrietan bizitzen jarraitzea bultzatzen dute jarduera horiek. LAAek hori guztia jaso beharko lukete, erabilerak banatu eta jarduera erregulatzeko duten zereginari erantzunez.
>
> [...] abeltzain-elkarteekin batera mendi publikoak antolatzeko planak prestatzeko eskatu beharko liekete antolamendu-arteztarauek toki-erakundeei, eta horretarako jarraibideak eman beharko lituzkete.
>
> Basogintzari dagokionez, […]etorkizuneko LAAek bertako espezie hostozabalak —zur nobleak edo kalitatezko zurak direlakoak— bultzatu beharko lituzketela uste dugu. Era berean, espezieen dibertsifikazioa eta plantazio mistoak sustatu beharko lirateke, balio handiko zura eskuratu eta lurzoruaren aprobetxamendu integrala lortzeko. Era horretara basogintza jasangarriagoa landuko litzateke, bioaniztasuna lagunduz eta arrisku biotiko eta abiotikoak murriztuz. Horrek arrisku ekonomikoak gutxiagotzea ekarriko luke, halaber, egoera hobeagoa izango baikenuke merkatuen balizko gorabeherei aurre egiteko.

3.2. NBALAP-N ERE BADAGO ZER HOBETU[170]

– Bere helburu nagusia den nekazaritza-espazioak definitu eta babesteari uko egiten dio: helburu nagusi eta orokor izatetik, beren-beregi adierazitako helburu konkretua izan behar du, espresuki, burutu beharrekoa.

– Dokumentuak ez du lurraren arazoa aztertzen: zeintzuk dira egun laborantza-lanetarako lurra eskuratzeko dauden arazoak? Horren inguruko irakurketak behar luke izan diagnostikoaren eta memoriaren abiapuntua; zegoen nekazaritza-lur kopurua, dagoena, eta etorkizunera begirako asmoen inguruko informazioa, estatistika eta eboluzioa agertu beharko litzateke. Horren harira, zenbat nekazaritza-lur dago egun baso bihurtua? Zenbat nekazaritza-lur jan dute industria, etxebizitza edota azpiegiturek? Zenbat lur dago abandonatuta edota azpierabilita (ha)? Dokumentuan, zerrenda eta kartografia egokiz, udalez udal eta probintziaz probintzia laborantzarako zenbat lur publiko dagoen agertu beharko litzateke.

– Ez da nahikoa 17/2008 Nekazaritza Politika eta Elikaduraren Legea aipatzea; ekintzak falta dira.

– Ez dago eredu agroekologikoaz hitz egiten duen artikulu bakar bat bera ere; ez da barne-merkatua indartzearen aldeko hautua egiten; ez da lortu nahi den elikadura-subiranotasunaren portzentajea eta horra heltzeko tresnen eta baliabideen zerrenda ezartzen. Hori dela-eta, orain arteko jardunbideen inertziekin jarraitzea izango da plan honen emaitzarik ziurrena.

3.3. HAPO-K ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK[171]

HAPOren (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) lanketan honako irizpide hauei jarraitzea proposatzen da:

– Idazle taldea diziplina anitzekoa izatea. IEEB[172] plangintzaren parte izatea, ez aparteko dokumentu bat.

– Lurrek, egun, zer erabilera duten zehaztea.

– Erabilera horiek egokiak diren edota berrantolaketarik eskatzen duten aztertzea.

– Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurra babestea; behar izanez gero, desklasifikatzea.

170. 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoan (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendutako Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jasoa.

171. 2014-2015 ikasturtean burututako «Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen» graduondoan (UPV/EHUren Berezko Titulua, UEUren sustapenez) Iratxe Arriolak eta Jabier Azpitartek zuzendutako Ikuspegi Juridiko-Politikoa irakasgaitik jasoa.

172. Ingurumenean duen Eraginaren gaineko Ebaluazio Bateratua.

- Lurraren sailkapen agrologikoa egitea: ortugintza, frutagintza, abeltzaintza, basogintza…
- Herriaren elikadura-beharrak kontuan hartzea, herriko lurrekin (NAEa) zenbat ekoitzi daitekeen, eta egun zenbat ekoizten den kalkulatzea. Elikadura-behar horietan oinarrituz, elikadura horren % bat bertakoa izateko konpromisoa hartzea.
- Lurraren babes horrekin zenbat lanpostu lortuko liratekeen kalkulatzea.

4. Eta hirietan zer?

Liburuaren izenburuak landa-eremuari erreferentzia egin arren, orain arte ikusitakoek, eta batez ere hemendik aurrera ikusiko ditugunek, lurraldearen osotasunari begiratu behar diogula erakutsiko digute: landa-eremu, hiri-eremu eta bitarteko eremu guztiek elkarri eragiten diote, interdependenteak dira, eta hobe litzateke aspektu hori oso kontuan hartzea.

Zuzenekoak, zeharkakoak, barrukoak, kanpokoak, osagarriak, positiboak, suntsitzaileak… ugariak dira eragin horien izaera eta aurpegiak.

Ikus dezagun orain hiri eta inguruetan fokua jarriz zer-nolako ekarpenak egin ditzaketen aurrez aurkeztutako planteamenduetara, ez baitira gutxi.

4.1. HIRIAK, ZIKLOAK

Gizakiok zenbait fluxu naturalen menpeko gara, eta Mumfordek[173] berak 1922an adierazi zuen azken urteetako praxi okerrak gorpuztu duen hori: «Onerako zein txarrerako, airea arnastu, elikagaiak jan, ura edan behar dugu, eta baldintza horien erdiespena errefusatzeagatiko zigorrak halabeharrezkoak dira» (Arosemena, 2012: 32)[174].

Izquierdok gai horri buruz hausnartzen du:

> (Hiriek) alde batera utzi zituzten berrogei urte eskas lehenago eragin eremuko parte ziren herrixkak. Akats larria. Eta hori konpondu behar dugu, ez soilik kanpoko elikadura mendekotasuna arintzeko, baita behar ditugulako ere, lurraldea kudeatzen lagun diezaguten, ingurumen zerbitzuak eman diezazkiguten, ingurumen arriskuak saihets ditzaten eta bioaniztasuna gordetzeko laguntza eman diezaguten (Izquierdo 2015: 22).

Jarraian, hiriak landa-eremuarekin elkarbanatzen dituen zikloak gainbegiratuko dira, nekazaritzako elikagaien sistemekin lotuta:

Ziklo ekologikoak hirietako elikaduran (Arosemena, 2012: 40)

---

173. Mumford, L. (1922): The Story of Utopias, Boni and Liveright, New York. Aipamena: Arosemena (2012).

174. Egileak itzulia.

Ziklo naturalei lotutako nekazaritza-ekoizpen sistemen menpekoa da hirietako elikadura; paradoxikoki, hirien beraien eraginek aldatzen dituzte ziklo horiek.

Naturagune batean ez bezala —non zikloak itxiak direla kontsideratzen den—, hiriek ziklo irekiko metabolismoa dute ezaugarri.

Materiaren zikloa (Arosemena, 2012: 40)

Nekazaritzako elikagaien hirietako sisteman hiriak beharrezko dituen nekazaritza-sistemak hirietatik urrun kokatzen dira (baita beste kontinente batzuetan ere). Horrek, mantenugaien zikloa ixteko aukera zailtzen du (hau da, hirietako hondakin solido organikoak landutako lurretara itzultzea), eta kasu batzuetan eragotzi. Nekazaritza industrialean, ongarritze-prozesuak, mantenugaiak medeatze kimikoen bitartez zuzkitzeko helburua du soilik, hortaz, ez dira uztetatik ateratako mantenugaiak birziklatzen.

Uraren zikloa (Arosemena, 2012: 41).

Bestalde, nekazaritza-sistemetan ura fotosintesian esku hartzen duen lehengai nagusia da. Hala ere, hiriak elikatzen dituen nekazaritza konbentzionalak gehiegizko edateko ur kopurua kontsumitzen du, eta gainera, agrokimikoen erabilerak (pestizida, ongarri…) lurpeko urak kutsatzera hel daitezke.

Bi egoeretan, hiriek eta nekazaritza-sistemek uraren zikloa eta baliabide hidrikoak aldatzen dituzte, ziklo ireki eta desorekatuei bide emanez.

Aztarna ekologikoa (Arosemena, 2012: 42).

Haragi ugaridun dietek barazkietan oinarritutako dietek baino hiru aldiz landutako lur gehiago behar dute, eta, ondorioz, aztarna ekologiko handiagoa sortzen dute.



4.1. irudia. Espainiako animalia eta landareen elikadura-aztarnen erkaketa (m²/bizt.). Iturria: Arosemena (2012: 43). Egileak itzulia.

4.1.1. Hiri-ereduaren eta nekazaritza-sistemaren arteko harremana

Liburuaren lehen atalean politika eta legeei eskainitako zatian, elikagaien ekoizpen, banaketa, transformazio, kontsumo eta abarretan hainbat faktorek eragiten dutela ikusi dugu: sozialak, politikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak… *Agricultura urbana* liburutik ondoko gogoeta jasoko dugu: «Elikadura-sistema osoa hirietako eskari eta eskakizunek gidatzen dute bereziki; egitate hau haziz doa hirietako biztanleria gora baitoa, beraz, nekazaritzako elikagaien ereduak hirien eta hauen lurraldeen konfigurazioarekin badu harremanik, hiri-ereduaren isla den heinean» (Arosemena 2012: 46)[175]. Liburuko lehenengo atalean ikusi dugu EAEko probintzietako hiru hiriburuak erdian dituzten hiru metropoli-eremuek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 72 hartzen dutela.

Horren harira, Nerea Morán eta Jose Luis Fdez. Casadevante *Kois*-ek *Raíces en el asfalto. Pasado, presente y futuro de la agricultura urbana* liburuan bidaia interesgarri bat egiten dute hiri-teoriek nekazaritzarekin harremanean izandako bilakaeran. Liburuaren izen bereko blogean zera jaso dute:

> Elikadurarekin lotutako jarduera eta prozesuek, historikoki, paper garrantzitsua jokatu dute hiriaren konfigurazio eta produkzioan. […] Bai fisikoki bai funtzionalki elkarri lotutako bilakaera batetik abiatuz, nekazaritza- eta hiri-espazio eta erabilerek elkar kontuan hartu gabe, edo elkarren aurka ere, eboluzionatu dute. Horrela, ekoizpenerako espazioen gertutasuna, behinola hiriko bizitzarako ezinbestekoa, mespretxatua izan da, distantzia handiko komunikazioen erraztasunean oinarrituta. Era berean, hiri-hondakinen eta ekoizpenerako lurren ongarriketaren arteko lotura hautsi da, hiri-metabolismoan gakoa den prozesua izanik[176].

Argi dago bilakaera horretan egoera latzetara eraman gaituzten planteamenduak erabili direla, baina badaude horiek zuzendu eta bide berriei ekiteko proposamenak.

4.1.1.1. Sitopia

Carolyn Steel arkitektoak sortua, *sitopia* hitza *sitos*, janaria, eta *topos*, tokia, hitz grekoetatik dator. Hirigintza-diseinua elikagaietatik abiatuz birpentsatzeko proposamen gisa jaio da. Haren helburua da giza beharrizanen eta naturaren beharrizanen arteko oreka bat sortu ahal izatea. Egilearen hitzetan: «Janaria bizitzako *sine qua non*a da; hala hartuko bagenu, sakonki aldatuko litzateke gure bizimodua»[177]. Hori guztia *Hungry City: How Food Shapes our Lives*[178] liburuan azaltzen du.

---

175. Egileak itzulia.

176. <https://raicesyasfalto.wordpress.com/2015/03/16/sitopia-o-de-como-los-alimentos-configuran-la-ciudad/#more-142> [kontsulta: 2015-11-25]. Egileak itzulia.

177. Mar Toharia (2015-05-07), <http://blogs.elpais.com/seres-urbanos/2015/05/sitopia-los-alimentos-y-las-ciudades.html> [kontsulta: 2015-11-22]. Egileak itzulia.

178. Steel, C. (2008): *Hungry City: How Food Shapes our Lives,* Random House UK, berrinprimatzea 2013ko martxoaren 7an [ISBN-13: 978-0099584476].

Agricultura Urbana[179] liburuak, elikagaien sistemak eta hiri-ereduak erkatzen ditu. Nekazaritzako elikagaien ereduak eta egungo lurralde-ereduak elkarrekin eboluzionatu dutela dio, eta elkarrenganako eraginak sortzen dituzten ezaugarri batzuk dituztela; elikadura-sistema industrialaren eta barreiatutako hiri-ereduaren ezaugarri baliokideak erlazionatzen ditu ondoren (Arosemena, 2012: 46-47)[180]:

Ekoizpena: hiri-funtzioen banaketa eta nekazaritza-sistema globala.

Banaketa: lurralde-barreiadura eta hirietarako elikagaien garraio globalizatua.

Kontsumoa: autoaren hiria azalera handiko saltokietako salmentekin lotua.

Hondakinak: hiri-kutsakorra; alferrik galdutako elikagai-hondakinak.

Arosemenak era argian azaltzen digu zein den egungo hiriek jarraitu beharreko bidea jasangarritasun eta elikagai-independentziaren mailak igotzeko:

> Hiri-sistemek lurraldearen gainontzeko guneetan egin duten presioa jaistea dakar horrek. Asmo horrek egungo hiri-eredu eta -funtzionamendua birplanteatu behar du; hiri konpaktu eta plural baten konfigurazioa, eta «besteren» lurraldeak ustiatzeko beharrizanaren murrizketa ditu ondorio.
>
> Hortaz, hiri-funtzionamendurako nahitaezkoak diren baliabideen ekoizpenean lurzorua optimizatzea beharrezkoa da. Hiriko nekazaritzako elikagaien sistemaren ikuspegitik, horrek elikagaien ekoizpenaren zati bat hiri-funtzioen baitan ezartzea beharrezkoa dela esan nahi du, tradizioz bateraezinak kontsideratu direlarik.
>
> Tokiko barazki-ekoizpena gako garrantzitsu bat da elikaduran parte hartzen duten zikloak ixteko aukeragatik, sistemaren iraunkortasunerako nahitaezko baldintza.
>
> Hiri-nekazaritzak elikadura-sistema eta hiri-ereduaren gain duen ahalak helmen esanguratsua du, zenbait hiri-sistematan positiboki eragina izateko gaitasun handiarekin —garraioa, hondakinen kudeaketa, komertzioa eta sistema berdea—, horrela, hiri-iraunkortasunaren osoko hobekuntzan ekarpena eginez.
>
> Orduan, hiri iraunkorrak elikagaien ekoizpena, prozesatzea, banaketa eta kontsumoa integratu beharko lituzke toki jakin bateko ingurumen- eta sozioekonomia-ingurunean (Arosemena, 2012: 48)[181].
>
> Ekosistemari dagokionez, integrazio horrek irizpide nagusi bezala zikloak tokian bertan ixtea izango lukeen eredu bat sortuko luke (Arosemena, 2012: 50)[182].

179. Arosemena, G. (2012), *op. cit.*
180. Egileak itzulia.
181. Egileak itzulia.
182. Egileak itzulia.



4.2. irudia. Zikloen bitartezko hiri- eta nekazaritza-sistemen integrazio-eredua. Iturria: Arosemena (2012: 51). Egileak itzulia.

Kasu honetan, bertakotutako elikadura-sistemaren eta hiri-eredu iraunkorraren ezaugarri baliokideak erlazionatzen ditu (Arosemena, 2012: 50-51)[183]:

Ekoizpena: hiri askotarikoa eta autosufizientzia.

Banaketa eta kontsumoa: mugikortasun iraunkorra eta tokiko merkatuak.

Hondakinak: materiaren zirkulua itxi.

4.2. HIRIKO ETA HIRI INGURUETAKO NEKAZARITZA ZENBAIT PLANGINTZATAN

Egia esateko, liburu honetan planteatzen gabiltzanak ez du inongo berritasunik; tokikotzeak, birlokalizatzeak… egitura egonkor eta seguruagoak sortzea baizik ez dakar. Eta sen onari kasu pixkat egiten badiogu, gure bazkari dagokionez kontuan hartzeko aspektua dela ezingo dugu ukatu.

Jarraian, munduan zehar ideia horri jarraiki beraien plangintzetan tokiko elikagaien ekoizpena txertatzen duten hainbat adibide izendatuko ditugu. Interesgarria da bakoitzaren inguruan sakontzea, batzuek eta besteek aspektu ezberdinak jorratzen baitituzte, gai beraren ingurukoak izan arren. Mende erdiko ibilbidea duenik ere bada.

183. Egileak itzulia.

- Boloniako Sare Ekologikoa (Italia). Landa-egiturak eta nekazaritza-paisaia tradizionala berreskuratzen dituen nodo eta korridore berdeen lurralde-sistema.
- Delft-ko Bieslandse Bovenpolder (Herbehereetako Hego Holanda). Hiri-ingurunean garatutako abeltzaintza jasangarriaren saiakuntza.
- El Prat de Llobregat inguruan biodibertsitatearen eta nekazaritza-erabileren kontserbazioa metropoli-azpiegituren aurrean (Katalunia). Herritarren presioak sustatutako eskualde- eta udalerri-mailako administrazioen arteko negoziazio-prozesua eta lurralde-plangintzaren koordinazioa.
- Nekazaritza Grenobleko «Y»an (Frantzia). Tokiko nekazari eta politikarien baterako defentsa, hirigunearen eta nekazaritza-eremuaren arteko harremanaren bitartez elkarbizitza lortzeko.
- Garapenerako plangintza eta nekazaritza-erabileren babesa Londres Handian (Britainia Handia). Autohornikuntza eta hurbileko nekazaritzaren bidean europar hiriburu handi batean.
- Milan hegoaldeko Nekazaritza Parkea (Italia): nekazaritza-espazio periurbano bat hiri-sistemara sartu zen lehen aldia.
- Nekazaritza-lurren babesa Montpellierko Aglomerazio Komunitatean (Fran-tzia). Nekazaritza sostengatzen duten lege eta instituzioak, lurraldea ondasun kolektibo gisa defendatzen duten kolektiboekin batera.
- Munich Ikuspegia (Alemania). Eraztun Berdea hiri-hazkunde barreiatua gelditu eta landa-paisaia babesteko tresna bezala. Paisaia-, ekoizpen-, ekologia- eta aisialdi-funtzioen integraziorako espazioa, hiriaren zerbitzura.
- Landa Ondasun eta Zerbitzuen Kudeaketa Oost Zuid Hollanden (Herbehereak). Paisaia kontserbatu, biodibertsitatea lagundu eta biztanleen bizikalitatea hobetzeko nekazaritza funtzioaniztunaren funtsezko eginkizuna.
- Hiri Hazkundearen Muga Portlandeko metropoli-eremuan, Oregon (Ameriketako Estatu Batuak). Hiri-hazkundea kontrolatzeko hirigintza-tresnak, nekazaritza eta basogintza babesteko.
- Sabadelleko Nekazaritza Parkea (Katalunia). Hiri-hazkundeari eustea biztanleriarentzako nekazaritza-espazio bat berreskuratzearen bitartez.
- Pianako Parkearen sorrera Toscanan (Italia). Neolandatarren haziak bere fruituak eman ditu Pianan, nekazari eta kontsumitzaileen arteko hurbileko harremanei irekia dagoen lurraldean.
- Ille de France eskualdeko Projet Agricole Urbain (Frantzia). Hiri-inguruetako landaguneak eraztun berde moduan babestea bilatzen du.
- Nekazaritza-sektorearen bizitasuna Vienako metropoli-eremuan (Austria). Gainbeheran zegoen sektore baten babes politikotik, bertako biztanleen nekazaritzaren ingurumen- eta gizarte-balioen gaineko kontzientziara.

– Torontoko Elikagaigintza Politiken Kontseilua, Toronto Food Policy Council (Kanada). Elikagaien segurtasuna bultzatzen duten politika eta programak garatzea du helburu. Hiri-nekazaritza Torontoko elikagaien sisteman txertatzen du.
– Rosario (Argentina). 2002ko otsailetik aurrera, Rosarioko Munizipalitateko Gizarte Sustapenerako Idazkaritzak Hiri Nekazaritza Programa sortu zuen tokiko elikagai-sisteman forma parte-hartzaile eta solidarioak bultzatzeko, elikagai osasuntsuak kontsumitu eta elikagaien segurtasuna hobetzeko xedearekin.

Plangintzetan aurki ditzakegun adibideez gain, ugariak dira tokiko nekazaritza-ekoizpena bultatzen duten gizarte-antolakuntzak, hala nola New Yorkeko *Green Guerrillas*, Bostoneko *Food Project* erakundea, Budapesteko *Biokultura*…

4.3. MERKATURATZEKO BIDE LABURRAK (MBL-AK)

Orain arte ekoizpenaren inguruan ikusi eta esandakoak zinez interesgarriak dira, baina ez dute askorako balioko produkzio hori merkaturatzeko eta banatzeko bideak kontuan hartzen ez badira. Alderdi hori da egun gure lurraldeetan trantsizio agroekologiko eta elikadura-subiranotasunerako arazo nagusia. Esther Vivasen esanetan, gure plateretara iristen diren elikagaien % 75 zazpi enpresa handiren kontrolpean daude[184]. «Inburutaren teoria» esaten dio horri berak[185]. Egoera horri aurre egiteko, hainbat dira hautatutako bideak, kontsumo-taldeak kasu.

> Kontsumo taldeen sistema ez da gaur egun sortua, 1980ko hamarkadan Japonian jarri zuten martxan teikei dinamikaren harira. Japoniara lehenago iritsi zen industrializazioa eta erresistentzia mugimendu gisa eratu zen. Hortik AEBetara egin zuen jauzi mugimenduak, CSA egiturapean (Community Supported Agriculture), eta ondoren Europan finkatu zen (Larretxea, 2012).

Community Supported Agriculture (CSA), *Teikei*, *AMAP*, *Reciproco*, *ASC*... izenak ezberdinak izan daitezke, baina funtsa berbera da: biztanle aktiboak tokiko ekoizleekin engaiatzen dira beraien uzten arrisku eta ekarpenak partekatzeko. Eta aliantza hori oso boteretsua suertatzen ari da aurrez aipatu dugun «inbutuaren teoria» horren aurka. Gurean ere asko ugaritu dira kontsumo-taldeak azken hamarkadan, baina MBL horrez gain, kontsumitzaileen kooperatiba eta elkarteak, baserritarren merkatuak, baserritarren dendak, jantoki kolektiboak edo kontsumo soziala, eta ustiategiko salmentak aurki ditzakegu.

184. Mercadona, Carrefour, Alcampo, El Corte Ingles, Eroski eta erosketa-zentral bi, supermerkatu txikiagoak biltzen dituzten Euromagi eta Iffa.

185. «Esther Vivas y la Feliz Navidad de Mercadona», Jordi Molina, eldiario.es, 2014-12-25.

> Hurbiltasun zirkuituek baino ez digute eskaintzen behar besteko aukera, kontsumitzen ditugun elikagaien ekoizleekin batera erabakitzeko eta behar besteko informazioa edukitzeko[186].

Horri lotuta:

> Ekoizpen eta kontsumoaren arteko gertutasunak gure gizartean elikagaien balioa berresleitzea ahalbidetzen du, bai arazo sozial eta ekologikoak, baita nekazaritza-jarduerari lotutako ekosistemek sortzen dituzten zerbitzuen balioak ere txertatuz. Azken finean, merkaturatze-bide laburrak elikadura-katearen barneko botere-berroreka baten gainean eraikitzen dira. Ekoizpen- eta kontsumo-sektoreek ekoizpen batzuen edo besteen, edota maneiu zehatzen balioa erabakitzeko gaitasuna leheneratzea bilatzen dute, merkatuek esleitutako prezioez gaindi, […] zer eta nola ekoitzi erabakitzea (López 2015: 51)[187].

Horrez gain, pentsaera horri jarraituz, aukeratu dugun bizimoduaren araberako gauzen balioa —*erabilera-balioa*— gure ekonomia-estrategiaren erdigunean jartzeaz ari gara, eta ez merkatuko prezioen araberako balio hutsa —*aldaketa-balioa*— bakarrik (López, 215: 46).

Bestalde, ezin dugu ahaztu MBLek ingurumen-onura garrantzitsua dakartela, enbalatzeak eta elikagaien garraiorako distantzia eta hotz-kateak murrizten baitituzte; hori elikagaien freskotasun eta kalitatearen mesederako da ezinbestean.

4.4. KONTSUMOA, EKINTZA POLITIKOA

Fenomeno eta mugimendu hauek guztiak testuinguru zabal baten barnean kokatzen dira.

Eta egia esateko, «planeta osoan milioika dira esklabotzaren antzeko baldintzetan kontsumoaren aparatua koipeztatzeko eta sistemak behar duen etengabeko kapitalaren metatze-prozesurako lanean diharduten pertsonak. Azken hamarkadetan gizarte zibila enpresei erantzunkizunak eskatzen hasi zaie, eta kontsumoa ekintza politiko bezala ulertzen»[188].

Diskurtso hori gertuago ekarrita, *Gaur8*n argitaratutako Basherri deituriko kontsumo-taldearen inguruko erreportajean ondokoa jaso da: «Elikadura gizakion oinarrizko eskubidea da eta gai politikoa da, dudarik gabe; elikagaiak jasangarritasun irizpideak jarraituz ekoiztea zein kontsumitzea ekintza politiko eta erreibindikatiboa da, gizatasuna galdu duen industria globalizatu bati aurre egiten diona. Desorekari eta justizia faltari aurre egitea da, elikadura burujabetzaren bidetik»[189].

186. EHNE Bizkaiko testuekin Mundubatek 2012an argitaratutako *Merkaturatzeko Ziurkuitu Laburrak Euskal Herrian* liburuxkatik ateratako aipamena, 58. or.

187. Egileak itzulia.

188. «Ssociólogos. Blog de sociología y actualidad», 2013-09-05 <http://ssociologos.com/2013/09/05/la-perversa-historia-de-las-cosas-el-consumo-como-un-acto-politico/> [kontsulta: 2015-11-26]. Egileak itzulia.

189. *GAUR8*n kaleratutako BASHERRI SAREAren inguruko erreportajea, <http://www.naiz.eus/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2015-11-21-06-00/hemeroteca_articles/bertako-elikagaiak-

Euskal Herriko Laborantza Ganberako lehendakari ohia den Mixel Berhokoirigoinek ere egunean, gutxienez hiru aldiz, politika egiteko aukera edo ahalmena dugula dio: jatordu bakoitzeko bat, eta ahora zer eramaten dugun —zer kontsumitu erabakitzen dugunean—, gure herriarekin hartzen dugun konpromisoa, hori ere, politika egitea dela.

kontsumitzea-erabaki-politikoa> [kontsulta: 2015-11-26].

5. Lurraldea

Elikadura-burujabetzari dagokion atalean, lurraldeari buruz ikuspegi integral batetik hitz egitean, honako alderdi hauek hartzen dituela ikusi dugu:

- Alderdi ekonomikoa, lurraldea baliabideen iturri gisa.
- Harremanei eta boterearen jardunari dagokien alderdia.
- Ingurumenari dagokiona, gizakion eta naturaren arteko harremana.
- Alderdi kultural eta sinbolikoa.

Funtsezko gaia izanik gehiago sakondu nahi da haren fisikotasunaren garrantzian, noski, baina baita hortik haratago duen garrantzian ere. Horretarako, Daniel Lópezen *Producir Alimentos Reproducir Comunidad* liburuko zati hau:

> Raúl Zibechik (2011) *lurralde*aren ideia azpimarratzen du, honela ulertzen duelarik: «Harreman kapitalista hegemonikoak ez diren harreman sozial ezberdinak hedatzen diren espazioak, kolektiboek desberdinak diren bizimoduak praktika ditzaketen tokiak. […]Landa-eremuetan existitzen diren lurraldetutako gizarte-harremanen osotasunak (indigenak, baina lurrik gabeko baserritarrenak ere) ikusgarri egiten hasi dira hiri batzuetan», eta kapitalismoarekiko eta ezker zaharraren proposamen zentralista eta bertikalekiko ezberdina den proiektu burujabetua duen mugimendu sozial eta politiko baten parte dira. Ikuspegi horietatik abiatuta, ekoizpena erdigunean kokatzen da burujabetutako proiektu hauetan. Eta produkzio-eremuaren baitan, lehen sektoreak lehentasuna erdiesten du oinarrizko beharrizana izateagatik, eskala globaleko merkatulogikan bete-betean sartzeko duen zailtasunagatik, bere inplikazio biologikoengatik eta lurralde gehien behar duen ekonomia-jarduera izateagatik (López 2015: 46)[190].

Lurraldearen alderdi produktiboen aurretik, harremanak aipatu dira. Ezartzen diren harremanek eragin zuzena dute ekoizpenean, inposatutako ekoizpen-ereduek harremanetan duten bezalaxe.

Lópezek, lurraldea, tokiko kontrabotere eta ekonomien eraikuntzan, gutxienez hiru zentzu hauetan ezinbestekoa dela adierazten du (López 2015: 188):

190. Egileak itzulia.

- Ekoizpenerako espazio fisiko legez, nekazaritza-jarduerarako bereziki.
- Bizikidetzarako, konfiantza sortzeko eta lotura sozialak berregiteko.
- Tokikotutako identitateen berreraikuntza eta erreprodukziorako, identitate globalekin oposizioan.

Interesgarria da oso egileak liburu horretan jasotzen dituen David Harvey-ren hitzak: langileriak «espazioa eskuperatu eta sortzeko gaitasun burges horri aurre egiten ikasten ez duen artean, ekoizpen eta harreman sozialen geografia berri bati forma ematen ikasten ez duen artean, indarrezkoa baino ahultasunezkoa den jarrera batetik jokatuko du beti»[191].

Nekazalgoaren subalternotasuna[192] ere aipatzen du bere lanean, ondorengoa jasoz: *«Ikasketa Subalterno*en tradizioak nekazalgoa aktore subalterno kontsideratzen du aldiriko lurraldeen kolonizazio kapitalistan. Lurralde horien artean, nekazaritza-modernizazioaren aurreko europar landa-eremua sar dezakegu» (López 2015: 42)[193].

Orain arte azaldutakoen harira, Camarerok «existentziazko lurraldeak bizikidetza espazioak dira, eta ez ekoizpen- eta kontsumo-espazioak soilik»[194] esatean, behin eta berriz ahotan darabilgun nekazaritza-ekonomia horri egiten dio dei, ekonomia horren isla espazialari, ekoizpen- eta kontsumo-harremanen gainetik harremanak sortzen dituenari.

Lehen sektorea lurrarekiko lotuen dagoen sektorea dela diogu, batez ere nekazaritza- eta abeltzaintza- eta baso-erabilerei dagokienez; lotura horren ondorena da «(lurraldea) finkoa, mugatua eta ordezkapen-aukerarik ez duen baliabidea izanik, jarduera hori ez den beste asmo batzuetarako erabiltzeak itzulgarritasun- eta berreskurapen-arazo larriak plantea ditzakeela», eta «hori-dela eta, nekazaritza- eta abeltzaintza- eta baso-erabilerari dagokienez, elikagaien segurtasunaren ideia inguruaren segurtasunaren edo inguru seguru eta osasungarrien terminoetan birformulatu beharko litzateke» (Murua *eta al.,* 2006: 117)[195]. Nahi eta nahi ez espazioarekin, lurrarekin zuzenean lotu behar dira planteamendu hauek guztiak, bertan jasoko baitute izana. Lurra da proposamen hauen guztien *sine qua non*a.

191. Harvey, D (2003): *Espacios de esperanza,* Madril, Akal. Aipamena: Zibechi (2006), López (2015). Egileak itzulia.

192. «Gramscirentzat, "subalternoak" boterea duten klaseen menpe dauden beste klaseak dira, kapitalismoan langileak, patriarkatuan emakumeak, eta demokrazia kapitalista eta patriarkalean emakume langileak. Botere hegemonikora iritsi ezin daitezkeenak dira subalternoak. Subalternoen historia zatikatua da, Spivakek dioen moduan, ez dute baliabiderik beren errepresentazioa, berezko irudia eta berezko ahotsa izateko, ez baitute kulturarik, ez baliorik, ez prestigiorik; ez dute erakundeetarako sarbiderik. Horregatik, beren historia ez da historia unibertsala, ez da sikiera historia». «Euskaldun egiten gaituena», Jule Goikoetxea, *BERRIA*, 2015-06-10.

193. Egileak itzulia.

194. Camarero, L.A. (2009): «La sostenible crisis rural», *Documentación Social,* 155. Aipamena: López (2015). Egileak itzulia.

195. Egileak itzulia.

> Lurraldea ez da soilik ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta kontsumoa islatzen duen azalera, sozialki eraikitako espazio bat delako (Healey eta Barret, 1990) (Arbaiza eta Lozano, 2010: 236).

5.1. LUR-INPORTAZIO BIRTUALAK

Lurraren gaia hemen bezain garrantzitsua da munduko beste edozein tokitan. Eta arazoa, are larriagoa. Mendeetan zehar beraien lurrak landu dituzten ehunka milaka baserritar kanporatuak dira guk «baliabide»tzat ditugun ondasunak pribatizatzeko: lurra, ura… Planetako beste leku batzuk bilakatzen ditugu gure «baratze». Lópezek fenomeno hori labur azaltzen digu:

> 2008an, Europar Batasunak Espainiako Estatuaren antzeko azaleran ekoitzitako nekazaritza-produktuak inportatu zituen. Baina beste lurralde batzuetako lurrik emankorrenak gorde zituen horretarako.
>
> 2008an oinarrizko elikagaien prezio globalak igo zirenetik, fenomeno hori hedatu, eta *lurren pilaketa* deitutakoa dugu orain. Herrialde aberastuetako estatu eta korporazio pribatu handiak nekazaritza-azalera izugarriak erosten dabiltza prezio merke-merkeetan esportaziorako nekazaritza-jardueretarako (López 2015: 19)[196].

Horrek gosea, migrazioak eta miseria dakartza, eta zerikusi zuzena du *elikagai kilometriko* (Hill, 2008) edo *petroelikagai*ekin (Jones, 2001): «Beren ekoizpen eta banaketan, ahoratuak izatean ematen dutena baino askoz energia gehiago gastatzen duten elikagaiak dira, klima-aldaketa eta energia-baliabideen agortzean modu garrantzitsuan lagunduz (López 2015: 17)[197]». Nekazaritzako elikagaien eredu horrek garraio- eta logistika-azpiegitura handiak behar ditu herrialde batetik bestera bidaiatzeko, eta garraioan beharrezkoa izango den hotz-katea, edota etxeetan bertan beharrezkoa den hozte eta prozesatzea ere kontuan hartu behar ditugu eskakizun energetikoak zenbatestean.

196. Egileak itzulia.
197. Egileak itzulia.

6. Begirada berriro ere landa-eremura bueltatuta, zer?

Liburuko lehen atalean erabilitako Jaime Izquierdoren *Naturaren kontserbazio kulturala* argitalpenera joko da berriz.

> Landa lurrak industrializazio ondoko modernitatean sartzeko (Egonkortze Planetik gaurdaino industriako eta hiriko pentsamendu hegemoniko eta bakarrak eragindako hausturak lehengoratuta), erreforma programa zabal bat diseinatu behar da: hiriko nekazaritza sustatu —aisialdirako edo gertuko hiriko merkatuari zuzendua— hirien, herrien eta eskualdeko herri-buruen kanpoaldean; egiteko hobea bilatu dibertsifika daitezkeen nekazaritza intentsiboko lurrei eta ingurumenean integratu, eta, azkenik, berrikusi egokia ote den «natur guneen» kontserbazio biokratikoaren politika pasiboa —tarteka mingarria, lurraren ondare kudeaketari dagokionez, *asiste con indolencia al desmontaje en la gestión patrimonial del territorio de una larga y acertada tradición histórica*[198]—. Politika pasiboak alde batera utzi eta kontserbazio politika aktibo eta tokiko bati lekua utzi behar zaio; agroekologikoa izan behar du, lurraldekoa eta kultur norabidea duena, Estatuko nekazaritza jatorria duen lurraldeei bizitasuna bueltatzeko, orain bazterrean utzita eta noraezean baitaude (Izquierdo 2015: 7).

Lópezek, bere liburuan zera dio: «Gallarrek *Baserritarren aldeko Landatasun Berri* baten azaleratzeari buruz hitz egiten du, landa-garapenaren diskurtso hegemonikoek eraikitako desideologizazioaren kontrako identitate kontrahegemoniko legez» (López 2015: 44)[199].

Eta berak, ondorengoa gehitzen du: «Bizimodu hiritar eta merkataritzakoak hegemonikoak direnik ezin uka, baita gure landa-eremu eta nekazaritza-sektorean ere» (López 2015: 45)[200]. Baina Izquierdoren hitzetara itzuliz, «herrixkan, hiria berrasmatzeko funtsezko osagai asko topa daitezke» (Izquierdo 2015: 21).

Egile berdinarekin jarraituz:

- Helburua ez da espezie, arraza edo paraje hau edo bestea mantentzea, baizik eta tokiko eredu kulturalak, informazioak, ezagutzak eta nekazarien sistema adimentsuak zaindu eta bideragarri egitea, bertatik bere lurrak kudea ditzaten arrazen, espezieen eta parajeen aurreikuspen bateratzaile berriarekin. Hitz gutxitan esanda, nekazariek bizitza osoan egin zutena eta orain «teknikoki» ingurumenaren

198. Euskarazko «tradizio historiko luze eta egoki baten basogabetzeari minik gabe begiratzen dio» bertsioan jatorrizkoaren ideia galtzen da.

199. Egileak itzulia.

200. Egileak itzulia.

kudeaketa arkeologikoa[201], funtzio anitzekoa eta iraunkorra deitzen zaiona (Izquierdo 2015: 15).

- Tokian iraunkortasuna, egonkortasun ekosistemikoa, errenta, enplegua, paisaia eta bioaniztasuna sortzen ikasi behar dugu, baita nekazaritza eta elikadura ekoizpenean eta herrietatik gainerako gizartera eskaintzen diren jolaserako zerbitzuetan, ingurumenekoetan eta ekologikoetan adierazitako soberakinak merkaturatzen ere (Izquierdo 2015: 19).
- Ekonomia naturarekin adiskidetzea ez da aukera politiko sinple bat, premiazko behar politikoa baizik (Izquierdo 2015: 19).

Eta hori guztia gauzatzeko, industria aurreko nekazaria berrasmatzea eta *ekokultore* bihurtzea proposaten du, «hau da, tokiko nekazaritza eta elikaduraren sistemako eta hari lotutako topobioaniztasunaren kudeatzaile profesionala» (Izquierdo 2015: 26).

201. Itzulpena gaizki dago, gaztelaniazko jatorrizko testuan, *agroecológico*.

7. Landa-eremuarekiko eta elikadura-gaiekiko interesa

Ez da kasualitatea sektorekoak ez diren esparru ugari bertara begira jartzea. Arreta ematen digute, adibidez, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean bigarren urtez jarraian antolatutako Elikadura Burujabetzako Jardunaldiek (2014 eta 2015) edota Leongo MUSACek (Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoak) antolatu duen Arte Garaikiderako Sarrera Ikastaroaren bederatzigarren ediziorako hautatu duen gaiak («Bizitzari eutsi; landa-eremutiko aliantzak, esperientziak eta ikasketak»).

Bi horietako bati ere garrantzirik kentzeko inongo asmorik gabe, eta azkenaldian esparru arras ezberdinetatik antolatu diren ekimenei muzin egin gabe[202], aurten Milanen egin den Nazioarteko Erakusketak[203] ere begiak elikagaien ekoizpenean jarri izana ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Ikusgarritasunaren aldetik behintzat ez. Eta programa ere ez da edonolakoa izan, Vandana Shiva[204] tartean. «Feeding the Planet, Energy for Life» lemapean, gure planetako kontraesanen inguruan hausnartu, eta horientzako konponbideak bilatzeko gonbitea egin zuten antolatzaileek: ia mila milioi pertsona gose diren artean, urtean ia hiru milioi pertsona hiltzen dira obesitatearen ondorioz. Horrez gain, urtean 1,3 bilioi tona janari alferrik galtzen dira. Nekazaritza, garapen iraunkorra eta gosearen aurkako borroka bezalako gaiei aurre egiteko toki bezala aurkeztu dute erakusketa.

Horrez guztiaz gain, *WE-Women for Expo* sortu dute aurten. Emakumezkoen begirada erdigunean jarrita —Nazioarteko Erakusketa batean gertatzen den lehen aldia da—, elikadura eta iraunkortasunaren gaia jorratu dute «The other half of the Planet - Women's Weeks» ekimenen baitan.

Ikusi egin behar da hori guztia mundu mailan aldaketak jazotzen ari diren seinale den, edota lehenago beste kontzeptu batzuekin gertatu den bezala oraingoan ere kapitala ari den garrantzi handikoa izan daitekeen mugimendu bat kapitalizatzen.

---

202. Gaian engaiatutako eragileek sozializazio-lan eskerga egiten dute, eta bitarteko teknologi-koekin helmena are handiagoa da. Horrez gain, ugariak dira azken urteetan Emaús, Mundubat, Mugarik Gabe, VSF, Bizilur erakundeek sortutako euskarri anitzeko materiala.

203. < http://www.expo2015.org/en> [kontsulta: 2015-11-28]

204. Fisikaria, ikertzailea, aholkularia, ekintzailea, ama… Biopirateriaren aurkako eta biodiber-tsitatearen aldeko jardunagatik mundu-mailan ezaguna, baita nekazaritza eta elikaduraren inguruko jardun eta paradigmak aldatzearen aldeko lanagatik ere, besteak beste.

8. Ondorioz

Liburuaren bigarren atal hau irakurri ondoren, batek baino gehiagok pentsa lezake fundamenturik gabeko proposamenak direla, lehen sektorearen eta landa-eremuaren gorazarre hutsala, *rural idyll* sukar bat.

Halakoetatik urrun, berariaz, asmoz, egindako proposamena da. EAEko landa- eta hiri-eremuak aztertu ondoren, ondasunak, biztanleria-mugimenduak, material- eta kapital-fluxuak, sektoreen jardunak, ingurumenaren egoera, giza faktoreak… Hemen azaltzen denaren aldeko aldarria indartzen da.

Lehenago ere esan da, elikadura-burujabetza marko integraltzat hartzea, tokitik bertatik hasita, bestelako bizimodu-ereduak eraikitzeko, burujabetzen elkargune izenekoan zehazten dela; hau da, burujabetza gutxienez bost eremu estrategikotan bultzatuko duten aukerak proposatu behar direla. Baina abiapuntua eta ardatza, lehen burujabetza hori.

Planteamendu horri jarraiki, nekazaritza iraunkorraren bidez, elikadurari lotutako justizia soziala, gizarte-kohesioa, tokiko ekonomia- eta ingurumen-onurak lortuko lirateke. Ez da gutxi. Berroreka eta berrantolaketa bat jazoko litzateke.

Egungo zifra makroekonomikoak buruan dituen horrek ez du ildo horretako zenbakirik aurkituko, zenbakiak txikiak izango dira, toki(eta)koak. Eta hala izatea nahi da. Merkatu-logika hegemonikoak edo printzipio kapitalistak aplikatu nahi izatekotan, ekuazioak kale egingo du. Bilatzen dena ez da ekimen txikietatik hastea, gero ekimen horiek eskalaz handitzen joan, eta eskala-ekonomian sartzeko, handi egin eta arrakasta hemengo logikak munduko beste toki batzuetan bertako desberdintasun sozioekonomikoak eta berariazko politikak baliatuz lortzeko. «Txikia» izaten jarraitu nahi da, txiki askok saretuta funtzionatzeak duen boterea izango baita denen handitasuna. Ez da munduari lepoa ematea proposatzen, guztiz kontrakoa baizik. Jar gaitezen bakoitza munduan dagokigun tokian.

Horrek trantsizio bat ekarriko du, ezin bestela izan. Eta trantsizioa aipatzen denean, ez da mundu-mailako iraultza bat aipatzen[205], trantsizioak duen ona hori baita, hasi bizilagunen komunitate batetik, auzo, herri, eskualde, hiri, erkidego, estatu… eskala denak onartzen ditu, egoki artikulatuta egonez gero.

205. Edo bai?

Trantsizio beste eskala barneratzen du «metabolismo» kontzeptuak. Labur esateko, *X* zeharkatzen duten material- eta energia-fluxuen kuantifikatzean datza. Berriz ere, *X*, komunitatea izan daiteke, auzo, herri, eskualde, hiri, erkidego, estatu…

Liburuan zehar egungo hiri-ereduaren metabolismoaren izaera aipatu da jada, hau da, materia- eta energia-ziklo irekiena. Atal hau hiru ideia azpimarratuz bukatu nahi da:

8.1. TRANTSIZIOA

> Erregai fosilekiko mendekotasuna eta etorkizun hurbilean izango den gabeziak hiri[206] metabolismoa bestelako energia testuinguruan nola antolatu pentsarazten digu. Hiriak trantsizio fasean sartu behar dira, garraio, eraikuntza eta kontsumo eta beharrezko energia sortzeko modu berriak asmatzeko, hirietako bizitzari euste aldera[207].

Behar horri erreparatuta, mundu-mailan bada bide horri ekin dionik, *Transition Towns* deiturikoak, *Transition Network*[208] gunean saretuta.

> Trantsizio-mugimenduaren helburu nagusia da, fluxu metabolikoak birkokatuz eta hauen gaineko autarkiaren bidez, hiriaren kudeaketa eta formalizazioa hiritarren eskuetara bueltatzea. Alabaina, ez dago erabateko autosufizientzia lortzeko gai den komunitaterik, eta hau ez da mugimenduaren helburua. Aitzitik, gizarteak eta ingurumenak dituen potentzialak guztiz aprobetxatzea du xede; hala, erresilientzia handiko antolaketa bat bilatzen da, energia-lehia batean sartzen ez dena, ezagutza eta informazioaren elkarbanatzean oinarritzen dena baizik (Tijero, 2011: 32).

Utopia hutsetik urrun, mundu-mailan indartsu hedatu den fenomenoa da. Egun ia 500 dira ekimen «ofizialak», Transition Network sarean erregistratutakoak. Baina kopuru hori handiagoa da erregistro ofizial horretatik kanpo kokatzen diren ekimenak kontuan hartuz gero: bidean egon, talde-funtzionamendua izan eta ekimenak antolatu arren sendotu gabe dauden taldeak, izen ezberdinez deitu arren helburu berdinak dituztenak (desazkundea, petrolioaren ondorengo herriak…) eta abar.

> Bi lan-ildo nagusitan laburbildu daiteke beraz, giza-proiektu hauen lana: alde batetik, buruaskitasuneko ekonomia berri bat osatzea, eta bestetik, kohesionatutako gizarte bat sortzea.
>
> Mugimendu hauen azken helburua da gizartea erregai fosilen mendekotasunetik ahalik eta azkarren askatzea, energia berriztagarrien sistemak ordezkatu dezan (Iruretagoiena, 2010: 13).

206. Hiri, eskualde, estatu, auzo…
207. <http://klima-aldaketavg.blogspot.com.es/2010/04/herritarrak.html> [kontsulta: 2015-11-29].
208. <https://www.transitionnetwork.org/> [kontsulta: 2015-11-29].

8.2. METABOLISMOAK

Ongizatearen hobekuntza-baliabideen erabilera eta kutsaduratik lokabetzea funtsezkoak direla dio Iñaki Artok garapen iraunkor bat lortzeko. Norabide horretan aurrera egiteko, gizartearen metabolismoaren ezagutzatik abiatzea beharrezkoa dela adierazten du, eta hori azaltzeko honela defintzen du zertan datzan hori:

> Hau da, gure gizarteek lehengaiak zer neurritan «irensten» dituzten aztertu behar da, ondasun eta zerbitzuak sortzeko «metabolizatuak» direnak, eta ze neurritan «iraizten» dituzten atzean utzitako material eta kutsadura (Arto 2009: 43)[209].

Egilearen esanetan, horrela,

> metabolismo sozial horren ikuspuntu sistemikoa lortuko dugu, baliabide naturalen fluxu fisikoak erauzten direnetik deuseztatzen diren arte aztertuz, produkzio-, erabilera- eta birziklapen-prozesuetatik pasatuta, eta bidean zeharreko galerak ere kontuan harturik. Azken finean, natura-baliabideen kontsumoa ingurumenak baliabide horiek eman eta hondakinak xurgatzeko duen gaitasunarekin lotzean datza (Arto, 2009: 43)[210].

Horretarako, 1990-2004 tarterako ariketa hori egiten du Artok berak *El metabolismo social del País Vasco desde el análisis de flujos de materiales* lanean. Eta lana bere osotasunean interes handikoa izan arren, ondokoa azpimarratu nahi da jarraian: «EAEko guztizko eskakizun materialen % 83 kanpotik dator; kanpo-baliabideekiko dependentzia altua agerian uzten du horrek» (Arto 2009: 68)[211].

Hori hala izanik, «beharrezkoa suertatzen da euskal gizartearen metabolismoaren ezagutzan aurrera egitea, ondoren iraunkortasunean lagunduko duten bestelako estrategiak martxan jartzeko (estrategia teknologikoa, estrategia ekosistemikoa, produktu-estrategia bateratua, etab.)» (Arto 2009: 68)[212].

Behin puntu honetara iritsita, baliabide materialen inguruko kanpo-dependentzia ezagutu dugu, baina liburuan zehar hainbeste aldiz aipatu ostean, zein da gure elikagaien autohornikuntza-maila?

8.3. NEKAZARITZA-PRODUKTUEN AUTOHORNIKUNTZA

> Elikadura-subiranotasun eta -segurtasunaren inguruko ideiak iraganeko gerra-egoerek baldintzatutako helburu politiko estrategikoei egiten die erreferentzia. Helburu horien arabera, herrialde orok, herrialde horretako biztanleen oinarrizko elikagai-beharrizanak asetzeko, guztiak ez badira zati garrantzitsu bat, bere gaitasun eta independentziaren alde egitea du helburu. Hala, NPBk bere jatorrian elikagaien segurtasuna helburu nagusien artean planteatzen zuen, Europako gizartearen memorian II. Mundu Gerraren ondorioz pairatutako laztasun eta menpekotasunak presente zeuden

209. Egileak itzulia.
210. Egileak itzulia.
211. Egileak itzulia.
212. Egileak itzulia.

unean. Ia 40 urte geroago, Munduko Elikagaien Segurtasunaren inguruko Erromako Adierazpenak (1996) ondorengoa azaltzen du: «Pertsona orok elikagai osasuntsu eta nutritiboak eskuratzeko duen eskubidea, elikadura egoki bat izateko eskubidearekin batera, eta pertsona guztiek goserik ez pasatzeko duten oinarrizko eskubidearekin batera» (Murua *et al.,* 2006: 116)[213].

EAEko kasuan beharrezkoa da elikagaien segurtasunaren kontzeptua birplanteatzea, horri ekitea, aurkezten dituen autohornikuntza-maila baxua eta inportazio-maila altua kontuan hartuta.

Sektorea	Etxean (t)	Etxetik kanpo1 (t)	Guztira	Ekoizpena	Autohornikuntza-maila (%)
Haragia	123.860	27.855	151.715	21.987 2	14
Behia	29.680	8.415	38.095	15.632 2	41
Ardia eta ahuntza	6.379	1.255	7.634	1.000 2	13
Txerria	19.960	3.881	23.842	1.189 2	5
Hegaztiak	31.155	5.641	36.796	2.0172	5
Esne likidoa	232.617	40.088	272.705	246.258 2	90
Gazta ondu eta erdi-ondua	4.583	969	5.552	1.135 2	20
Barazkiak	114.355	23.323	137.678	38.240 2	28
Ardoa (000 l)	33.098	44.740	77.838	40.962 2	53
EJPKA Ardoak (000 l)	5.914	16.162	22.076	40.962 2	185

1 Estatu-mailako portzentajearen arabera estimatutako datua.
2 Idiazabal Gaztaren ekoizpena (Nafarroa barne).
* Eskualde jakin batean produzitutako kalitatezko ardoa.

8.1. taula. EAEko autohornikuntza-maila, 2002.
Iturria: Murua, J.R. *et al.* (2006: 118)[214]

Hala ere, Iparralde Globaleko Elikagaien Segurtasunaren egoera aztertzen ari garen honetan, komenigarria da Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) 2015eko *Elikagaien Segurtasun-gabeziaren Egoera Munduan*[215] (SOFI) txostena aipatzea, ezin baitugu ahaztu gure autohornikuntzarako gaitasun falta dela hein handi batean besteen gosearen eta mundu-mailako ingurumen-eraginen arduradunetako bat egungo politiken diseinu zorrotzaren pean (politikak toki batean eta bestean tokiko elikagai-autonomia deusezteko diseinatuta baitaude, horrek dakartzan mundu-mailako ondorio larriekin). Guk gertuko elikagai osasuntsuak faltan botatzen baditugu ere, beste batzuek urruneko kalitate baxuko

213. Egileak itzulia.

214. Egileak itzulia. Liburuan datu horien inguruko zenbait ohar eta zehaztapen egiten dira. Informazio gehiagorako kontsultatu *Coste de la No Agricultura en el País Vasco.*

215. FAO, IFAD eta WFP (2015): The State of Food Insecurity in the World 2015. Meeting the 2015 international hunger targets: taking stock of uneven progress. FAO, Erroma [ISBN 978-92-5-108785-5].

elikagairik ere ez dute; horrekin ez diogu inori kalitate txarreko eta osasunaren kalterako den elikagairik opa, tokikoak eta nutritiboak diren elikagaiak pertsona ororen eskura izatea baizik.

Esther Vivasek bere azken liburuan (Vivas, 2014) gai horri ekin eta sakon aztertzen ditu: gosetearen zergatiak, elikagaiekin espekulatzea ahalbidetzen duten mekanismoak, *lur sukarra*, txirotasunaren eta elikaduraren arteko loturak, nekazaritza industrialaren eta klima-aldaketaren arteko harremana, emakume baserritarren ikusezintasuna, transgenikoen eragina, kontsumitzen dugunak gure osasunean dituen ondorioak eta abar. Argi dago zerbaitek ez duela ongi funtzionatzen 1.000 milioi pertsona inguruk gosea pairatzen badute, 12.000 milioi pertsonentzako elikagaiak ekoizten diren artean. Eta gosetuen kokapena bera ere ez da txiripa: «Goseak eguneroko erronka izaten jarraitzen du munduan zehar barreiatutako ia 795 milioi pertsonarentzat, 780 milioi garapen-bidean dauden herrialdeetan kokatuta daudelarik»[216].

Aurreko paragrafoa beharrezkoa zen ondorengo adierazpenekin amaitzeko:

> Garapen tekniko eta teknologikoen maila altuak lortu dituzten eta errenta-maila altua duten herrialde aberatsetan batez ere (elikadurako produktuen transformazioa guztiz orokortuta dagoen horietan), elikagaien segurtasunaren inguruko ardura handia dago egun, berau elikagai osasuntsuak kantitate eta prezio eskuragarrietan lortzeko eskakizun bezala ulertuta (Murua *et al.,* 2006: 116)[217].

Has gaitezen bada lanean.

216. José Graziano da Silva, FAOko Zuzendari Nagusia, goian aipatutako dokumentuaren laburpenetik hartutako aipua, < http://www.fao.org/3/a-i4671e.pdf> [kontsulta: 2015-11-25]. Egileak itzulia.

217. Egileak itzulia.

III. atala

«Se trata de volver los ojos a lo que hizo la cultura campesina conservando su fondo y actualizando sus formas. Conservar el qué y cambiar el cómo[218]. Izan ginen horren esentzia galdu ez dadin, ostera ere izan ginen horretan bihurtu beharrik gabe» (Izquierdo, 2015: 15).

218. Euskarazko itzulpen ofizialak gauza bera esaten ez duela eta, jatorrizkoa jaso da. Hala ere, «Nekazaritzako kulturak funtsa mantenduz eta formak eguneratuz egin zuen horri ostera ere begiratu nahi zaio. Gaia mantendu eta modua aldatu».

1. Sarrera

Praktika agroekologikoak lurrarekin estuki lotuta daude. Egun, nekazaritza eta abeltzaintzarako lur falta nabaria daukagu Euskal Autonomia Erki-degoan. Liburuaren lehen atalean ikusitakoei so eginez, isurialde mediterraneoari dagokion egituraketa baino malkartsuagoa da isurialde atlantikokoa. Azkenengo horretakoak kostarekiko elkarzut dauden bailara estuak dira, eta gune lauak garapen oso mugatuko haranetan aurkitzen dira. Malda oso parametro mugatzailea da gainera, ez nekazaritzarako bakarrik, erabilera guztietarako baizik (Ainz, 2002). Horregatik, lur lauok izan dira okupazioa gordinen pairatu dutenak, eta nekazaritza-erabilera izan da gainontzeko erabilerekin konparatuz galtzaile nagusia.

Lan honen helburuetako bat lurralde-oinarriaren inguruko gogoeta egitea izan da; azken atal honetan, gogoetatutakoak lurreratzen saiatuko gara. Horretarako, EAEn artifizializatuen dagoen probintzian (Bizkaia) kokatzen den landa-izaerako udalerri bat (Atxondo) hartuko da kasu praktiko bat garatzeko euskarri gisa. Landa-eraikin «hutsak» eta eraikinoi dagozkien lursailak identifikatu, eta nekazaritza-ustiaketan eta produktuen transformazioan oinarritutako tokiko ekonomia bat sustatzeko oinarritzat hartuko dira. Egungo egoeraren erradiografia bat egingo da ondoren azalduko diren parametro jakin batzuen arabera, eta, parametro horiei beste batzuk gehituta, etorkizuneko balizko egoerak irudikatuko dira. Lurrei emandako erabileren araberako ondorioen kasuistika era grafikoan irudikatuko da, egoerok alderatuz.

2. Kasu praktikoa: Atxondo

2.1. UDALERRIA[219]

2.1.1. Ingurune fisiko eta naturala

Atxondo Durangaldea eskualdeko ekialdean kokatuta dago. lraganean udalerri ziren Apatamonasteriok (3,3 km²), Arrazolak (9,2 km²) eta Axpek (10,7 km²) osatzen dute. 23,2 km²-ko azalera hartzen du; eskualde osoko %7,3 eta Bizkaiko %1.

2.1.2. Mugak

I: Abadiño; H: Otxandio; E: Elorrio; M: Izurtza.

2.1.3. Geologia eta geomorfologia

Udalerriak korridore-egitura du, iparraldean Memaia mendiak eta hegoaldean kareharrizko mendizerra batek ixten baitute. Egiturari dagokionez, Durangaldeko eskualde osoa egituratzen duen HE-lM norabidea duen mendizerraren barruan aurkitzen da.

2.1.4. Hidrologia

Hegoaldetik iparraldera Txareta edo Arrazola ibaiak zeharkatzen du udalerria, lbaizabal ibaiaren ibaiadarra, mendilerroetatik datozen ubide eta errekasto ugarien uremaria jaso ondoren, horrekin Apatamonasterion lotzen dena. Bakarrik Arabarekin mugakide den Atxondoko eremua arro mediterraneoari dagokio, bertako urak Azunza ibaira baitoaz, Urkiola ibaiaren adarra.

2.1.5. Ezaugarriak

- 1.450 biztanle inguru.
- Dentsitate baxuko udalerria.
- Duela gutxi sortu izanak ondo bereizitako 3 gune eragiten ditu, inguru eta errealitate ezberdinekin.

219. <wikipedia. 1/es.wikipedia.org/wiki/Axpe-Achondo> webgunetik, Atxondoko Tokiko Iraunkortasun Diagnostikotik (2006) eta 3. Baso Inbentario Nazionaletik ateratako informazioa.

– Apatamonasteriok hiritar izaera nahiko nabaria du, Atxondon emandako industrializazio-prozesuaren ondorioz sortua.
– Axpe eta Arrazola landa-izaerako guneak dira.

2.1.6. Ekonomia

Industria da Atxondoko jarduera nagusia. Establezimendu kopurua aztertuta, ordea, hirugarren sektoreak geroz eta pisu handiagoa duela ikus daiteke.

Lehen sektorea:

– Kareharrizko mendi-mazeletako malda nabarmenek ez dute lurren ustiaketa zabala ahalbidetzen, hortaz, zatiak lantzen dira.
– Jasotakoak, norbere kontsumorako edo eskualdeko merkatuetan saltzeko izaten dira.
– Abeltzaintza garatuago dago.
– Historikoki meatzaritza garrantzitsua izan da, Erdi Arotik —eta batzuk agian lehenagotik— ustiatuak izan diren kobre, berun eta burdinazko meatzeak aurki daitezke bertan. XX. mendean gelditu zen aktibitatea. Meatze horien garrantzia, Atxondoko bailara osoa zeharkatzen zuen meatze-trenaren eraikuntzan islatzen da.

Bigarren sektorea:

– Apatamonasterion kokatzen da, errepide ondoan; metalaren inguruan antolatzen da, eta dibertsifikazio baxukoa da.

Hirugarren sektorea:

– Txikia da udalerriaren eguneroko beharrizanak asetzeko, eta Durango gertu egoteak eragin handia du; erosketa espezializatuagoak egitera hara gerturatzen dira biztanleak.
– (landa-)Turismoak bere tokia du, eta kalitate oneko eta izen handiko jatetxeak ere badaude.

2.1.7. Paisaia

Urkiolako Parke Naturalaren inguruko mendietan barrena zabaltzen da. Babestutako Natur Gunea udalerriaren azaleraren % 26 da (613 ha). Baso-azalera zuhaiztuaren banaketari dagokionez, 2005. urtean udalerriko azalera osoaren % 68 zen, hortik % 53 landaketa-basoa (koniferoak batez ere) zelarik.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerek ustiatutako azalerari dagokionez, udalerriko azaleraren % 0,05 nekazaritza-erabilerei zuzendutakoa zen 2005ean, eta % 18 abeltzaintza-erabilerei zuzendutakoa.

Landa-eremuari dagokionez, nekazaritza-jarduerei loturik ez dauden etxebizitzak eraikitzeko joera ikusi da.

2.1.8. Komunikazioak

BI-632 errepide inguruan antolatzen da. Apatamonasterio auzotik zeharkatzen du udalerria, eta Durango eta Arrasate lotzen ditu (Beasain-Durango ardatzaren parte). Durangon N-634 errepidearekin eta AP-8 autobidearekin (Bilbo eta Donostia batzen dituena) batzen da, eta Arrasaten AP-1-arekin (Araba eta Debarroarekin elkartzen du). Trafiko handia jasaten du errepide horrek, eguneko 13.000 ibilgailutik gora, eta Apatamonasterioko biztanleentzat oinezko zein ibilgailu bitartezko sarbidea asko zailtzen du.

Apatamonasteriotik, Axpe eta Arrazola auzoekin lotzen duten errepide lokalak irtetzen dira: BI-4332: Apatamonasterio-Arrazola eta BI-3312: Martzaa-Axpe-Santiago.

2.1.9. Zergatik Atxondo?

Udalerriaren portzentaje altu bat landa-eremuari dagokio.

Historikoki, lurraren ustiapenarekin estuki lotutako jarduerak nagusitu dira, eta nabaria da oraindik ere:

- Udalerriaren dentsitate baxuko habitat sakabanatua (landa-jarduerak).
- Garai batean meatzegintzak izandako garrantzia nabarmentzen duen trenbidearen aztarnak.
- lnteres arkeologikoa izan dezaketen elementuen kopuru altua, udalerrian zehar barreiatuta.



2.1. irudia. Atxondoko inguru naturala eta nekazaritzakoa. Iturria: Durangoko Eskualde Egituraren LZPtik egileak Atxondoren azalerara mugatua, intereseko legenda zatiarekin.

2.2. MATERIALAREN LORPENA

Lan hau egin ahal izateko, udalerriko landa-eraikinak identifikatzeko, landa-lana eta elkarrizketak egin dira. Ondoren, Atxondoko Udalean bildutako datuekin gauzatu da bakoitzari dagokion lursailen erlazioa. Eraikinen egoera landa-lanean oinarritu da, eta horien tamaina, landa-lanean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 1:5000 IGN kartografia bektorialeko planoetako neurketetan. Egungo erabileren datuak katastrotik ateratakoak izan dira, hori ere Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Katastroaren webgunetik. Altimetriaren inguruko datuak aurrez aipatutako 1:5000 ING planoetatik lortu dira, eta malden ingurukoa Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean, Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planeko dokumentaziotik, Mapa Klinometrikotik hain zuzen.

Behin datuak eskuratuta, sistematizazioari ekin zaio. Egitura berberari jarraituz, fitxa tipo bi sortu dira beraien arteko alderaketa grafikoa errazteko; batak egungo egoera deskribatuko du, besteak egungo egoera hori gehi balizko bi egoera berri.

3. Fitxa tipoak: MEDEA metodologia

Udalerrian zehar sakabanatutako eraikin «huts»ekin erlazionatutako lursailak aztertuko dira; kakotxen artean «hutsak», definizio horren inguruko indefinizioa ez baita makala. Legalki hutsune handiak daude eraikin hutsa zer den eta zer ez den kontsideratzeko orduan. Identifikatutako eraikinetatik, 4 «huts-hutsik» daude, eta beste 14 indefinizio horretan kokatzen ditugu. Horietako bat ere ez da lehenengo bizilekua beraien jabeentzat, baina erabilera-intentsitatea oso zabala da: bertan bizi ez baina inguruko herrietatik egunero baratzera joaten direnetatik hasi eta uda-sasoian baino gerturatzen ez direnetaraino.

Bigarren multzo horretako kasu gehienetan, jabeek erabiltzen ez dituzten etxe inguruko lursailak abereak dituzten beste auzokideek erabiltzeko uzten dituzte izaera pribatua duten akordioen bitartez. Ez dira gutxi izango «garbitze aldera» emandakoak. Basoei dagokienez, ezin izan da halako ondoriorik atera, mantenu gutxiago behar dutela-eta, oinordekoen artean kudeatzen direla uste baita. Duela 30 urteko egoerarekin alderatuta aldaketak nabarmenak diren arren, Atxondoko lurretan ez da beste toki batzuetan suma litekeen utzikeria edo sasitzarik hautematen.

Eraikinen kasuan, beste kontu bat ere argitu behar da: fitxetan lursail multzo batzuetan (gehienetan) eraikin bat baino gehiago ageri dira. Kasu askotan hutsik dauden eraikinak beste eraikin batzuen jabe diren lurjabeenak izaten dira, eta beste eraikin horietan bizi dira gainera. Batzuetan gertu daude eraikin biok, eta beste batzuetan urrun. Hori ere kontuan hartzeko datua da, oso posiblea baita eraikin hutsei dagozkien lursailak bertako jabeek erabiltzea beste eraikin batzuei lotutako ustiapenetan, edota lehen aipatu ditugun beste forma horietan.

Bestalde, ez da eraikinen kokapena azalduko. Lursailok lanerako duten balioa oinarri erreal bat eskaintzea da; oinarri fisikoari dagokionez, planteatzen diren hipotesiak egingarriak izango lirateke. Aurrez aipatu den kasuistika zabal horri erreparatuta, egia da emaitzek ere halako aberastasun bati erantzungo lioketela. Etxebizitza «huts» gehienak betetako landa-eraikinen jabeenak badira, jabetza horiei dagozkien lurrek nolabaiteko erabilera jasoko dutela pentsatzen da. Baina posible da ere egun bizitegi hori inguruarekin inongo harremanik ez duen jendeak okupatzea. Edota nolabaiteko erabilera eman bai, baina asurialde kantauriarrean gero eta ohikoagoa den lurren azpierabileraren dinamikaren parte izatea. Lur horien

potentzialaren analisiarekin, eta erabilera- eta kudeaketa-proposamen berriekin, posible litzateke agian bi eraikinetako bizilagunentzako beste lan sortzea. Hautatzen den bizimoduarekin estuki lotua joango litzateke aukera hori, jakina.

Baina hutsik dauden eraikinak identifikatzearen potentzialik handiena hauxe da: nekazaritza iraunkorrean oinarrituz, tokiko ekonomia ardatz instalatu nahiko luketen pertsonentzako azpiegitura horren existentzia bera. Etorkizunean, eraikin horien barne-banaketa eta kudeaketa-ereduez ere pentsatu beharko da.

Eraikin «huts» bat jasotzen duen jabetza bakoitzeko lursailen ezaugarri nagusiak aztertuko dira:

- **M**alden portzentajeak
- barnean jasotzen dituen **E**raikinak (kopurua, okupazioa, egungo egoera)
- eraikinen eta lursailen arteko **D**istantzia
- **E**rabilera motak eta azalerak
- lursailen **A**ltimetria

Ezaugarriok jasoko dituen informazio-sistematizazioari MEDEA metodologia deituko diogu, eta fitxa tipoetan adieraziko da.

4. I fitxa tipoa

Hona hemen egungo egoera deskribatzen duen I FITXA TIPOaren azalpena:



4.1. irudia. I fitxa tipoa. Iturria: Egileak egina.

1- Fitxaren zenbakia.

2- Lursailen barnean jasotako eraikinak. Okupazioa eta egungo egoera[220] azaltzen dira.

3- Lursailen irudikapena. Datuak errealak izan arren, lursailak deskontestualizatu egin dira; fitxan agertzen den lursailen hurrenkera eta haien arteko distantziak modifikatuak izan dira.

4- Eraikinen inguruko legenda.

5- Erabilera moten legenda eta bakoitzaren azalera (m^2-tan).

6- Erabilera ezberdinen azaleren portzentajeak lursail osoarekiko.

220. Egoeraren inguruko datuak orientatiboak dira, kanpoaldeko analisi baten emaitza baitira.

7- Altimetriaren inguruko legenda. Lursailen erabileren parametro garrantzitsua izan daiteke, batez ere, espezie ezberdinen kokapenari dagokionez.

8- Garaiera-tarte bakoitzean jasotako erabileren adierazpen grafikoa.

9- Malden inguruko legenda. Lursailak erabiltzeko parametro mugatzailea da, malda batetik aurrera, erabilera batzuk jasotzea ezinezkoa baita.

10- Malda-portzentaje bakoitzean jasotako erabileren adierazpena.

11- Lursail bakoitza eraikinetik zein distantziatara kokatuta dagoen adierazten du. Distantzia hori kontuan hartzekoa da eremu bakoitzean garatuko den ekintza erabakitzeko orduan.

Fitxa horien irakurketa egokirako gutxieneko tamaina eta kolorea beharbeharrezko baldintzak dira. Hori dela-eta, hemen txikian eta zuribeltzean jasoko diren arren, CDko dokumentazioa kontsultatzea gomendatzen da (ikus CDko 2. eranskina), ulermen egoki bat bermatzeko.



4.2. irudia. F1 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.3. irudia. F2 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.4. irudia. F3 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.5. irudia. F4 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.6. irudia. F5 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.7. irudia. F6 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.8. irudia. F7 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.9. irudia. F8 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.10. irudia. F9 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.11. irudia. F10 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.12. irudia. F11 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.13. irudia. F12 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.14. irudia. F13 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.15. irudia. F14 Fitxa. Iturria: Egileak egina.



4.16. irudia. F15 Fitxa. Iturria: Egileak egina.

Behin egungo egoeraren argazkia burututa, oinarri fisiko berdin horri parametro berri batzuk gehituko zaizkio; horietan oinarrituko dira balizko egoera berriak.

5. Parametroak

Hortaz, zein parametrok dute eragina egungo egoeratik etorkizuneko egoera(k) eraikitzeko orduan?

Ondorengo hauek identifikatu dira:

5.1. AZALERA

- 30 kontsumitzailerekin (otzaren bitarteko salmenta zuzena eginez), soldata bat ateratzea posible litzateke elikagaiak eta produktu transformatuak kontuan hartuz. Produkzio-bolumen hori izateko, gutxienez 1 ha lur behar dela kalkulatzen da.
- Taula batzuen bidez, abeltzaintza ekologikoak hektareako eta urteko eduki beharko liratekeen buru kopurua erregulatzen du, animalia moten arabera.
- Animalien biltegiratzeak eraikinaren kanpoaldean egin daitezke, desmuntagarriak diren eraikuntza-sistemekin; horrela, ustiapen-estrategia aldatuz gero, lur hori berreskuragarria izango da[221]. Bestalde, produktuen transformaziorako eraikinen behe-oinetan 50 m² inguruko espazio bat beharko litzateke. Aztertutako eraikin guztiek dute halako lekua. Eraikin bakoitzak instalazio mota ezberdinak prestatuko balitu, tokiok partekatu eta ustiapenak produktu ezberdinekin aberasteko aukera izango lukete, sare-izaera eta egitura sendotuz.

5.2. MALDA

- Gauzatuko den aktibitate bakoitzari malda jakin bat dagokio:

  < % 15: posible da baratzezaintza praktikatzea, eremu mekanizagarria malda baxuenetara mugatuta egon arren.

  % 20-30: muga. Malda horretatik aurrera, ez da nekazaritza-aktibitateetarako lur egokia kontsideratzen.

221. Kontuan hartu beharko da gai honen inguruko legedia, 515/2009 Dekretua eta NBALAPko araudia kasu.

– Malda leunen kolonizazioa ia osoa dela ikus daiteke: eraikuntza edo azpiegiturak aurkitzen ez diren tokietan, radiata pinuaren landaketa zabalak antzeman daitezke.

5.3. DISTANTZIA

Eraikinekiko gertutasunak ere, lurren erabilera baldintza dezake. Eraikuntza lagungarriak betidanik existitu diren arren, zaintze- eta biltegiratze-behar handienak dituzten aktibitateak etxe inguruetan kokatuko dira, arreta gutxiagokoak (basogintza kasu), urrunen dauden lursailetara eramanez.

5.4. DENBORA

Parametro honek aldaketa-estrategia nola garatuko den azalduko digu.

Aztertutako informazioa aintzat hartuta, erabilera-aldaketa batzuk proposatzen dira; aldaketon berehalakotasuna ezinezkoa denez, bi fase berri garatuko dira.

0 EGOERA: egungoa.

1 FASEA: egungo baldintzak kontuan izanik, aurrera eraman ahalko liratekeen aldaketak jasoko lituzke, belardi → ortu, adibidez. Transformazio orok beharko du bere trantsizio-denbora, baina tarte labur-ertain batean garatzea aurreikusten da.

2 FASEA: egungo baldintzak aldatu beharko lirateke aurrera ateratzeko. Nagusiki, radiata pinuen landaketak botatzea izango dira aldaketok. Pinuok bota ondorengo momentutik hasi eta denbora tarte ertain-luzean garatuko da.

6. Informazio osagarria

6.1. BASOAK

Egun, lursailen azaleraren zatirik handiena baso-erabilerek hartzen dutela ikusi dugu, eta horien artean, radiata pinuak. Hori dela-eta, ezinbestekoa da baldintza hori kontuan hartzea.

Horretarako, *Coste de la No Agricultura* liburuak baso-jabeei egindako inkesten emaitza batzuk jasoko dira, etorkizunera begirako panorama irudikatze aldera:

> Galdetutako forestalista gehienek (% 87) egun baso bat botako balute berriz landatuko luketela adierazten dute. Forestalista gipuzkoarren eta tamaina txikieneko basoak dituztenen artean antzematen da gogo gutxien eta zalantza gehien (jarrera hori % 21ek eta % 43k agertzen dute, hurrenez hurren).
>
> Hala ere, oro har, % 37k baizik ez du interesgarria kontsideratzen berriz inbestitzea-landatzea; % 25ek ez du interesgarri jotzen, eta heren bat beste aukerarik ez dagoelakoan dago. Berriz ere, gipuzkoar forestalisten artean dauka baiezko biribilak indar gutxien (% 21ek bakarrik kontsideratzen du interesgarri, hala kontsideratzen ez duen % 41en aurrean). Aurreikusi zitekeen moduan, gehiengo zabal batek, berriz landatzearen kasuan, berriro ere radiata pinua sartuko lukeela berresten du, aukera komertzialen artean gutxieneko erakargarritasuna duen beste aukerarik apenas existitzen ez delako.
>
> Berriz landatzea intereseko ez izatekotan zer aukera hartuko luketen galdetuta, inkestatutako erdiek egoera hori planteatu ere egin ez dutela, eta kasu horretan zer aukera hartuko luketen ez dakitela erantzun dute. Uztearen alde dagoen proportzio garrantzitsu bat dago (% 20) (uztea/berezko basoa). Jarrera horrek presentzia handiagoa dauka gipuzkoar forestalisten artean (% 28), eta bereziki tamaina txikienekoenen artean (% 57). Jabetza saldu edo jaregiteko gogoak gutxieneko presentzia dauka (agian, baso-lurzoruaren balio baxua eta familia-loturak direla-eta) (Murua *eta al.,* 2006: 147-148)[222].

«Beste aukerarik ez», «berriro ere radiata pinua sartuko lukeela berresten du, aukera komertzialen artean gutxieneko erakargarritasuna duen beste aukerarik apenas existitzen ez delako»... Agerikoa da etsipen-giroa. Etsipena baino gehiago intereseko ezer ikusten ez duenaren gogogabetasuna. Hala ere aukerak badaude, eta liburuan zehar ikusi ditugun beste hainbat arlotan bezala, basogintzan ere ari dira beste eredu batzuen aldeko aldarriak azaltzen. Horren adibide dira Errotuz elkartea[223],

222. Egileak itzulia.

223. <http://www.euskalnet.net/errotuz/> [kontsulta: 2015-12-02].

edota *Baso Ahaztuak* dokumentala[224]; gure lurraldearen halako azalera hartzen duen erabilerak bide ugari irekitzen dizkigu.

Liburu honetan, ondorengoa da baso-eremuetarako radiata pinuaren alternatiba-proposamena:

6.1.1. Balio handiko espezieen landaketa baso mistoetan[225]

Definizioa:

Kalitatezko zura ematen duen A espezie bat beste onura batzuk sortzen dituen (polinak, fruituak...) B espeziearekin nahastean datzan basogintza-eredua da. B espezieko aleak A espezieko aleen hazkuntzan lagungarri izango dira gainera.

Funtsa:

«Espezie ezberdinen arteko lehia espezie bereko aleen arteko lehia baino txikiagoa da».

B espeziearen onurak:

- A espezieko aleen hazkuntzako lehen fasean, babesa eskaintzen dio: haizea, izozteak...
- Inguruko babes horren onurak:

  Forma zuzenagoa.

  Hazkuntza erradial homogeneoa.

  Fustean azaltzen diren adarrak mehetzea.
- Espezie-elkarteek A espeziearen diametro eta altueraren hazkuntza nabarmena erakutsi dute (% 20-30)

Abantailak[226]:

Biologikoak: plaga eta gaixotasunen arriskua murriztu, produkzio-sistema egonkortu.

Ingurunekoak: lurzoruaren berreskuratze eta hobekuntzan laguntzen dute, biodibertsitaterako baliabideak gehituz.

Estetikoak: paisaiaren dibertsifikazioa.

224. <https://www.makusi.tv/eu/videos/2077/> [kontsulta: 2015-12-02].

225. Informazio hau, Errotuz. Asociación para la Promoción del Uso Sostenible de los Recursos Forestales elkarteak erraztu eta egileak itzulitakoa da.

226. Espezieekiko toki egokian baldin badaude.

Ekonomikoak: merkatuaren eskaerak asetzeko malgutasun gehiago, A espeziearen hazkuntza hobea, zuraren kalitate hobea.

Sozialak: tokiko lurjabeentzako ekoizpen-alternatiba, sozialki ongi baloratua.



6.1. irudia. Balio handiko espezieen baso mistoetarako espezie-konbinazioak. Iturria: egileak egina Errotuz elkarteak emandako informazioarekin.

6.2. ELIKAGAI-SEGURTASUNA: ATXONDOKO BIZTANLEENTZAKO EKOITZITAKO ELIKAGAIEN KALKULUA

Atxondok 1.393 biztanle jasotzen zituen 2014an. Elikadura-subiranotasunaren bidean, atxondoarrek tokiko produktuekin elikatzeko hautua egingo balute, ondorengo azalerak beharko lirateke EHNE Bizkaia sindikatuak 100 pertsona elikatzeko 2010. urtean emandako datuen arabera:

Elikagaia	100 pertsona elikatzeko beharrezko azalera (ha)	Atxondoko biztanleak elikatzeko beharrezko azalera (ha)	%
esnea	3,2	44,576	5,1
arrautzak	4,62	64,36	7,3
ortuariak	1,5	20,89	2,4
zerealak	4,77	66,44	7,5
fruta	0,43	5,99	0,7
okelarako	48,65	677.7	**77,1**
behikia	19,2	267,45	30,4
txerrikia	28,93	402,99	45,8
oilaskoa	0,55	7,66	0,9

6.1. taula. Atxondoko biztanleak elikatzeko beharrezko azalera. Iturria: egileak egina EHNE Bizkaiak emandako datuekin.

Deigarria da okelarako behar den azalera, gainontzeko elikagaiekin alderatuta (% 77,1).

6.3. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Egoera-aldaketak onura sozial, kultural eta ingurumeneko argiak ekarriko dituela pentsa daiteke, baina funtsezkoa da ekonomikoki izan ditzakeen eraginak ere nolabait kuantifikatzea. Horretarako, azaldutako elementu bakoitzak hilabetean sortutako diru-sarreren balioespena jasoko duen taula bat egin da.

Barazkigintzako kalkuluak honela atera dira: 30 saski astean, saskia 12 eurotan. 1.440 euro dira horiek, baina tokian tokiko ekoizpena ezberdina izango da. Osagarritasuna bilatze aldera, frutagintza edo arrautza-ekoizpenarekin laguntzea gomendatzen da, hala jaso da hemen. Horrela, eta sinplifikazio ariketa bat eginez, 1.000 euroko zifra bat planteatzen da, gizarte-segurantza eta bestelako gastuen nolabaiteko isla bezala. Alde nabarmena egon daiteke produktuen dibertsifikazio-maila eta moten arabera.

Baso mistoen landaketen balioespen ekonomikoaren kalkulurako, Errotuz elkarteak emandako datuak erabili dira. Gainontzeko elementuen diru-itzulera nahikoa berehalakoa da, hilabeteko edo urteko denbora-zikloei jarraitzen baitiete. Baso-landaketen kasua bestelakoa da, ordea. Diru-sarrera nagusia landaketa hori botatzean egiten da, eta zikloak 30-55 urte bitartekoak izan daitezke. Hainbat diru-laguntza daude bidean, eta horiek kontuan hartu dira bukaerako kalkulurako, diru-sarrera guztiak banatuz landaketak noiz botatzea erabakitzen den aintzat hartuta. Hala, pinu edo eukaliptoaren kasuak ziklo laburreko landaketak diren arren, landaketa mota hauek ziklo luzeagokoak dira, eta nabaria da azken urteetan balioak gora egiten duela, 45 urterekin edo 55 urterekin bota, 6 bider irabazi handiagoak lortzen baitira.

Balioespen ekonomikoa egitean, hortaz, baso horien balioa hilero kuantifikatzen da, diru-sarrera erreal esanguratsuena behin botatakoan jasoko dela jakin arren. Bien bitartean, landaketa egiteko diru-laguntza jasoko da lehenik eta garbiketa egiteko diru-laguntza ondoren, baita bakanketa eta inausketa egitekoak ere. Horrez gain, bakanketako zuhaitzen salmenta ere egingo da. Laguntza horiek jasotzeko Basoen Kudeaketa Jasangarrirako Plan Teknikoa (BKIPT) gauzatu beharra dago derrigorrez, eta plan hori ere diruz lagunduta dago.



6.2. irudia. Bideragarritasun ekonomikoa justifikatzeko taula. Iturria: egileak egina elkarrizketetatik jasotako datuekin, eta EHNE Bizkaia elkarteak emandako informazioarekin.

Orain arte ikusitako datuekin, proposatutako erabilera-aldaketa eta, hortaz, egoera berria, grafikoki adieraziko da.

Lehenago egin den bezala, fitxa tipo bat sortu da, FITXAK II, eta jasotako informazioaren laburpen-funtzioa beteko du.

Kontuan hartu beharreko parametroen kopuruak gora egin duenez, aurrekoan baino elementu gehiago agertzen dira.

7. II fitxa tipoa



7.1. irudia. II fitxa tipoa. Iturria: egileak egina.

1- Fitxaren zenbakia.

2- Lursailen gaur egungo erabilerak.

3- Lursailen erabilerak I. fasean.

4- Lursailen erabilerak II. fasean.

5- Lursailen altimetriaren adierazpena.

6- 0/1/2 egoerei dagozkien lursailen erabileren portzentajeak.

7- 0/1/2 egoeren malda % bakoitzean jasotako erabileren adierazpena.

8- 0/1/2 egoeren garaiera-tarte bakoitzean jasotako erabileren adierazpena.

9- Egoera bakoitzean sortutako lanpostu kopurua.

10- Atxondoko biztanleak tokiko produktuekin elikatu nahi izango bagenitu, bide horretan egindako ekarpenaren portzentajea.

11-12-13 Erabileren, malden eta altimetriaren inguruko legendak.

14- 2 faseari dagozkion erabileren azalera eta portzentajeak.

15- Lursail bakoitza eraikinarekiko zein distantziatara kokatuta dagoen adierazten du.

16- Basogintzaren planteamendu berriaren inguruko legenda.

17- Atxondoko biztanleak elikatzeko beharrezko elikagaien proportzioak.

(Ikus CDko 3. eranskina)



7.2. irudia. F1 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.3. irudia. F2 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.4. irudia. F3 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.5. irudia. F4 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.6. irudia. F5 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.7. irudia. F6 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.8. irudia. F7 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.9. irudia. F8 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.10. irudia. F9 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.11. irudia. F10 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.12. irudia. F11 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.13. irudia. F12 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.14. irudia. F13 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.15. irudia. F14 Fitxa. Iturria: egileak egina.



7.16. irudia. F15 Fitxa. Iturria: egileak egina.

8. Emaitzak[227]

Gauzatutako fitxetatik lortutako emaitzak ondorengoak dira:

Lursailen erabilerari dagokionez, EGUNGO EGOERA.



8.1. grafikoa+taula. Lursailen egungo erabilerak. Iturria: egilea.

Lursailen erabilerari dagokionez, 2 FASEKO EGOERA.



8.2. grafikoa+taula. Lursailen 2. faseko erabilerak. Iturria: egilea.

227. Dokumentazio hau eskuragai (eta koloretan) dago erantsitako CDan (4. eranskina).

Lursailen maldari dagokionez, EGUNGO EGOERA.



	% 0-5	% 5-10	% 15-20	%20-30	% 30-50
ortuak	1,08	2,63	1,65	0,05	0
negutegiak	0	0	0	0	0
lorategiak	0	0	2,17	0	0
alf lurrak	0	0	0,13	0,89	3,06
belardiak	8,81	5,87	2,13	0,34	0
bazkalekuak	87,9	71,55	57,45	36,59	10,19
dents.alt.sag.	0	0,52	0,55	0	0
lurz arrokatsua	0	0	0	0	1,21
hariztia	0	0	0,24	0,01	0,11
pagadia	0	0	0	0	4,98
artadia	0	0	0	0	0,45
haz.geld.hostzbl	0,87	3,05	0,19	1,35	2,56
haz.ert.hostzbl	0	1,7	0,18	0	0
hostozbl nahastea	0	1,87	2,4	1,6	3,25
eukalitadia	0	0	0	0	0
radiata pinua	1,35	12,8	32,92	59,17	74,18

8.3. grafikoa+taula. Lursailen malda-tarte ezberdinetako gaur egungo erabilerak. Iturria: egilea.

Lursailen maldari dagokionez, 2. FASEKO EGOERA.

	% 0-5	% 5-10	% 15-20	%20-30	% 30-50
ortuak	14,67	22,33	7,27	0,09	0
negutegiak	6,09	9,69	4,38	0,12	0,02
lorategiak	0	0	0	0	0
alf lurrak	0	0	0	0	0
belardiak	9,17	8,28	1,18	0,34	0
bazkalekuak	62,93	32,38	48,01	42,21	12,41
dents.alt.sag.	4,91	9,35	6,23	4,18	0,42
lurz arrokatsua	0	0	0	0	1,2
hariztia	1,36	1,27	14,04	17,8	6,34
pagadia	0	0	0	0,31	7,33
artadia	0	0	0	0	0,45
haz.geld.hostzbl	0,87	3,11	0,18	1,37	2,54
haz.ert.hostzbl	0	1,73	0,18	0	0
hostozbl nahastea	0	1,91	2,34	1,62	3,23
bm1	0	9,02	10,74	15,29	39,55
bm2	0	0,93	5,45	16,67	26,51

8.4. grafikoa+taula. Lursailen malda-tarte ezberdinetako 2. faseko erabilerak. Iturria: egilea.

Lursailen garaierari dagokionez, EGUNGO EGOERA:



	0-300	300-600	>600
ortuak	0,93	0,1	0
negutegiak	0	0	0
lorategiak	0,91	0	0
alfer lurrak	0	5,64	7,19
belardiak	3,53	0	0
bazkalekuak	52,97	13,83	0
dents.alt.sag.	0,3	0	0
lurz arrokatsua	0	2,5	21,31
hariztia	0,29	0	0
pagadia	0	4,75	63,6
artadia	0	0,36	0
hazk.geld.hostzbl	1,51	1,67	0
hazk.ert.hostzbl	0,3	0	0
hostozbl nahastea	0,86	3,4	0
eukalitadia	0	0	0
radiata pinua	38,41	67,75	7,91

8.5. grafikoa+taula. Lursailen garaiera-tarte ezberdinetako gaur egungo erabilerak. Iturria: egilea.

Lursailen garaierari dagokionez, 2. FASEKO EGOERA



	0-300	300-600	>600
ortuak	5,92	0	0
negutegiak	2,94	0	0
lorategiak	0	0	0
alfer lurrak	0	0	0
belardiak	2,35	0	0
bazkalekuak	44,55	8,68	0
dents.alt.sag.	5,23	0,23	0
lurz arrokatsua	0	2,7	21,51
hariztia	13,35	6,32	0
pagadia	0	8,09	71,45
artadia	0	0,39	0
hazk.geld.hostzbl	1,29	1,92	0
hazk.ert.hostzbl	0,2	0	0
hostozbl nahastea	5,83	0	0
bm1	8,56	37,37	0
bm2	9,79	34,31	7,04

8.6. grafikoa+taula. Lursailen garaiera-tarte ezberdinetako 2. faseko erabilerak. Iturria: egilea.

Sortutako lanpostuei dagokienez, bideragarritasun ekonomikoaren taulari jarraitu zaio, eta soldata bat adierazten duen ikono bat sortu. Lehen aipatutako sinplifikazioak bere horretan jarraitzen du; barazkigintzako jarduerak frutagintza edo bestelako jarduerekin osatuko dira, eta basogintzako diru-iturriak hileroko ekarpenetan adierazi dira. Gauzak horrela, eta beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharko liratekeela jakinda (lanaldiaren luzera, ustiapena zer tokitan kokatzen den, ustiapen horren dibertsifikazioa eta ekoizten dituen produktu mota...), 600-1.000 euro arteko diru-irabazia irudikatuko luke ikono horrek. Hala ere, berriz azpimarratu nahi da hainbat direla zifra bat emateko orduan kontsideratu beharreko faktore eta aldagaiak.

Testuinguru horretan, HASIERAKO EGOERAN 22,25 ikono genituen…



8.1. irudia. Kalkulatutako egungo lanpostuak. Iturria: egilea.

Eta 2. FASEAN 59 (+% 265).



8.2. irudia. Kalkulatutako 2. faseko lanpostuak. Iturria: egilea.

Azkenik, udalerriari eginiko elikagaien ekarpena:

Elikagaia	Egungo egoera (%)	2. Faseko egoera (%)
esnea	17,5	18,6
arrautzak	18,89	12,24
ortuariak	3,37	31,37
zerealak	10,89	13,08
fruta	2,6	65,7
okelarako		
behikia	7,42	7,27
txerrikia	1,17	5,22
oilaskoa	27,33	23,69

8.7. taula. Udalerriari eginiko elikagaien ekarpena egun eta 2. fasean. Iturria: Egilea.

9. Ondorioak

Emaitzetatik ateratako ondorio bezala, hurrengoak azpimarratzen dira:

- Lanpostuen sorrera.
- Lursailen izaerarekin bat datozen erabileren ezarpena.
- Azpierabilitako lursail zein eraikinen aprobetxamendua.
- Pinu-landaketen nagusitasunari buelta ematea:

  Eragin ugari izango lituzke honek. Batetik, lurren izaera aprobetxatuz, beste erabilera batzuentzat egokiak diren lursailak erabilera berriontzat libre geldituko lirateke; lehenago barazkigintza edo abeltzaintzarako erabiltzen ziren hainbat lur pinudi bilakatuak izan dira.

  Bestetik, paisaiaren dibertsifikazioa ekarriko luke. Punta zorrotzetan bukatutako masa ilunak, forma biribilduagoko eta kolore ugaritako masek ordezkatuko lituzkete. Urtaroen iragaitea ikusiko litzateke bertan adierazita. Baso-larratzea ere berreskuratu ahalko litzateke.
- Ingurumeneko onurak.
- Udalerriko elikadura-segurtasunari ekarpena:

  Udalerriko biztanleentzako elikagai-iturri fidagarri eta segurua izango litzateke. Bertan ekoitzitako produktuak kontsumitzeko hautua egingo balitz, kanpo-dependentzietatik askeago bihurtuko lituzke bertako biztanleak. Ekoizpena agroekologiaren printzipioetan kokatuko genuke, kalitatezkoak eta osasuntsuak diren produktuak lortuz.
- Aurreko puntuarekin lotuta, onura sozialak:

  Lanpostuen sorrera onura sozial argia da, baina batez ere ez direlako edonolako lanpostuak; balio erantsi ugari dakartzate beraiekin. Planteatzen den sistema berri honetan, merkaturatze-sistema laburrak edota salmenta zuzena lehenesten dira. Nekazarien eta kontsumitzaileen arteko hurreratzea dakar honek. Hainbat ehundura sozial berreskuratuko lirateke. Kontsumitzaileak ez dira produktu baten erosle soil izango, produktuon atzetik dagoena ezagutu eta baloratuko duten neurrian, sare hori guztia sostengatuko dute beren erosketekin. Alde biko konpromisoak hartuko dira denek irabazten duten esparruan.

Horrez gain, gizabanakoen arteko hartu-emanak, bai barru-kanpo zein barru-barru formetan, berdintasunezkoak izango dira. Lan produktibo eta erreproduktiboak kontuan hartuko dira lan- eta ardura-banaketak egiteko orduan, eta kontu handia izango da aurrez ezarritako genero-rolekin.

– Onura kulturalak:

Esan bezala, berraktibatutako ustiapenok tokikotasunarekin, natura-baliabideekin... errespetuzkoak izango dira. Hori dela-eta, tokiko ezagutzak, tokiko ondasunak (haziak, adibidez) berreskuratu eta aplikatzeko berebiziko esparrua izango da.

Bibliografia

Ainz, M.J. (2002): «¿Es posible el caserío? Perspectiva territorial», *Ponencia: Libro blanco de la agricultura y el desarrollo rural,* Gasteiz.

Ainz Ibarrondo, M.J. *et al.* (2011): «Dispersión urbana en el Suelo No Urbanizable del País Vasco: la distorsión del planeamiento en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai», *Estudios Geográficos*, **72(271)**, 371-401.

Alberdi Collantes, J.C. (2010): «Euskal Herriko nekazaritza-guneen inguruko gogoeta», in J.K. Arbaiza eta P. Lozano (ed.), *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak*, UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7], 175-190.

Aranburu, A. *et al.* (2006): *Red Natura 2000 en la CAPV: configuración actual y aportación al Desarrollo Sostenible.* XVI Congreso de Estudios Vascos: Desarrollo Sostenible-IT. el futuro, Eusko Ikaskuntza, Donostia [ISBN-10: 84-8419-022-6; ISBN-13: 978-84-8419-022-6], 111-118.

Arbaiza, J.K. eta Lozano, P. (2010): «Lurralde-antolamenduaren erronkak Euskal Herrian: eredu-aldaketaren beharra», in J.K. Arbaiza eta P. Lozano (ed.), *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak,* UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7], 235-250.

Arbaiza, J.K. *et al.,* (2010): «Lurraldearen antolamendurako figurak Euskal Herrian», in J.K. Arbaiza eta P. Lozano (ed.), *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak,* UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7], 43-76.

Arosemena, G. (2012): *Agricultura urbana. Espacios de cultivo para una ciudad sostenible,* GG, Bartzelona [9788425224232].

Arto, I. (2009): «El metabolismo social del País Vasco desde el análisis de flujos de materiales», *Revista de Economía Crítica*, **8** [ISSN: 2013-5254], 43-80.

Bauer, G. eta Roux, J.M. (1976): *La rurbanization, ou la ville éparpillée,* Ed. du Seuil, Paris.

Berhokoirigoin, M. (2010): «Lurralde-antolaketa Ipar Euskal Herrian: Laborantza-ereduaren garrantzia», in J.K. Arbaiza eta P. Lozano (ed.), *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak,* UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7], 191-200.

Berry, B.J.L. (1976): «The counterurbanization process: urban America since 1970», in B.J.L. Berry (ed.), *Urbanization and counterurbanization – Urban Affairs Annual Reviews,* **11,** 17-30.

Emaús Gizarte Fundazioa Taldea, Mugarik Gabeko Albaitariak, EHNE Bizkaia (2011): *Elikadura-burujabetzarako politika publikoak. EAEko azterketa,* Donostia, <http://emauscursos.com/pdf/EAEko+Azterketa.pdf>.

Etxabe Gutierrez, I. (2012): «La necesidad de un cambio de modelo de desarrollo y su reflejo en la Ordenación Territorial (El caso de las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco)», *Territorios en Formación,* **2**, 21-36.

Eusko Jaurlaritza (1997): *LAG, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak,* Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

————————, (2009): *EAEko ingurumenaren egoera 2009,* Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

————————, (2012): *LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz. Euskal Hiria NET,* Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

————————, (2014): *EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala,* Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

————————, (2014): *Euskadiko Ingurumen Profila 2013,* Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

FAO, IFAD eta WFP (2015): *The State of Food Insecurity in the World 2015. Meeting the 2015 international hunger targets: taking stock of uneven progress,* FAO, Erroma [ISBN 978-92-5-108785-5].

Galdós Urrutia, R. eta Ruiz Urrestarazu, E. (2008): *Geografía del País Vasco,* Nerea, Donostia [ISBN 978-84-96431-49-2].

———————— eta ————————, (2008a): «La diversidad de la montaña vasca. Ensayo de tipología para políticas territoriales», *Boletín de la AGE*, **47**, 31-49.

———————— eta ————————, (2013): «La pérdida de los espacios agrarios, artificialización del suelo y forestación en España y en el País Vasco», *Lurralde: inves. espac*, **36**, 121-133.

Hill, H. (2008): *Food Miles: Bacground and Marketing,* ATTRA-National Sustainable Agriculture Information Service, National Center for Appropriate Technology.

Iruretagoiena, U. (2010): «Roberto Bermejorekin solasean», *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **4** [ISSN 1889-7185], 12-14.

Izquierdo Vallina, J. (2015): *Naturaren kontserbazio kulturala,* HAZI fundazioa - Eusko Jaurlaritza.

Jones, A. (2001): *EatingOil: Food Supply in a Changing Climate,* Sustain/EFRC, Berkshire.

Kortabitarte Egiguren, I. (2005): «Agroaldeak, nekazaritza denon eskura?», *ELHUYAR aldizkaria*, **208,** 21. or.

Larretxea, U. (2012): «Elikadura burujabetza. Gure elikaduraren kontrola berreskuratuz», *Argia,* **2.335,** <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2335/elikadura-burujabetza#gehigarria-japoniatik-euskal-herrira-2> [kontsulta: 2015-11-27].

Llorente Iglesias, O. (2014): «Euskal Herriko nekazaritza lurren funtsaren azterketa eta balorapena», *Gazte Geografia*, **1(2014)** [ISSN 2341-3239], 53-74.

López, D. (2015): *Producir alimentos, reproducir comunidad,* Libros en Acción, Madril [ISBN 978-8494318313].

Milikua Larramendi, L. (2013): «(1+3) sektorea + auzolana = zerain», *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **14** [ISSN 1889-7185], 18-20. Online kontsulta: <http://www.unibertsitatea.net/blogak/aldiri/2013/06/24/14-zenbakia-homo-turisticus/>.

Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente (2013): *Laugarren Baso Inbentario Nazionala - Euskadi (2011),* Madril, 222-223.

Murua, J.R. *et al.* (2006): *Coste de la no agricultura en el País Vasco,* Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz [ISBN 84-457-2441-X].

Ramo, B. (2012): «Oi berde ahalguztiduna!», *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **12,** 5-7.

Ruiz Urrestarazu, E.; Galdós Urrutia, R. eta Porcal Gonzalo, Mª.C. (2008): «Iniciativas de desarrollo rural en las montañas del País Vasco», *POLÍGONOS. Revista de Geografía*, **18**, 123-153.

Steel, C. (2008): *Hungry City: How Food Shapes our Lives,* Random House UK [berrinprimatzea 2013ko martxoaren 7an] [ISBN-13: 978-0099584476].

Tijero, D. (2011): «Hiri-birgaikuntzarako trantsizio-mugimendua», *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **6** [ISSN 1889-7185], 30-32.

Torres Elizburu, R. (2007): «Las migraciones internas en el País Vasco durante el periodo 1991-2001. evidencias de un proceso de contraurbanización», *Boletín de la AGE*, **43,** 85-105.

————————, (2010): «Kontraurbanizazioa Euskal Autonomia Erkidegoan: lurralde-antolamendu orekaturako arazoa», in J.K. Arbaiza eta P. Lozano (ed.), *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak,* UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7], 115-126.

Uriarte, M. (2015): «Hiri bazterreko paisaietara hurbilketa teorikoa» in I. Alegria, A. Latatu eta M. J. Ormaetxebarria (ed.), *I. Ikergazte Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu-bilduma* (Durango, maiatzaren 13-15), Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Eibar [ISBN: 978-84-8438-540-0], 489-494.

Van Den Berg, L.; Drewett, R.; Klaassen, L.H.; Rossi, A. eta Vijverberg, C.H.T. (1982): *URBAN EUROPE: A study of growth and decline,* A. Wheaton & Co. Ltd., Exeter.

Vivas, E. (2014): *El negocio de la comida. ¿Quién controla nuestra alimentación?,* Icaria, Bartzelona [ISBN: 9788498886276].

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Hirigintzaren oinarriak
Unai Fernandez de Betoño Saenz de la Cuesta
2014an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-528-8

Eraikuntzaren biologia. Sarrera
Garbiñe Pedroso Conejero eta Inhar Agirrezabal Saenz de Santamaria
2014an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-530-1

Liburuan landutako gaiekin *Aldiri* aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Eredua bera da zalantzan jarri behar dena
Barcena, Iñaki; Iturralde, Kepa, *Aldiri* **2,** 4-5.

Mugikortasun iraunkorra: benetako alternatiba edo betiko politika izendatzeko etiketa berria?
Hoyos, David, *Aldiri* **4,** 8-11.

Larrialdi energetikoan gara
Bermejo, Roberto; Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **4,** 12-14.

Tokiko ekonomiaren testuingurua irudikatzen
Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **4,** 22-23.

Hiri-birgaikuntzarako trantsizio-mugimendua
Tijero, David, *Aldiri* **6,** 30-32.

Nekazaritza, arkitekturarako inspirazio-iturri
Fernandez de Betoño, Unai, *Aldiri* **7,** 32-35.

Euskal Hiria eta lurralde-antolakuntza. Estrategia garatuen eta lurralde-planen ibilbide motelaren artean
Ocio, Mikel, *Aldiri* **8,** 4-7.

Lurralde-mailako gai sektorialen gaineko erabakiek interes guztien parlamentu parte-hartzailea beharko lukete
Busturia, Marisi; Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **8,** 8-10.

Lurralde-antolakuntzaren erronkak, gaur
Etxabe, Ion, *Aldiri* **8,** 22-24.

Lurraldearen Antolamendurako Artezbideak: Euskal Hiria, ala bestetik, eredu eutsigarri, kohesionatu eta koherente baten arteko hautua
Bilbao, Aitor, *Aldiri* **8,** 25-27.

Hausnarketa lurralde-kultura parte-hartzailearen inguruan
Arbaiza, Joseba K., *Aldiri* **8,** 31-33.

Europar Batasunaren energia-politikaren bidaia-orri berria eta horren ondorioak Euskal Herriko garraio eta eraikuntzan
Bueno, Gorka, *Aldiri* **10,** 31-33.

Ekohiriak eta energia
Tijero, David, *Aldiri* **10,** 40-43.

@ Euskal Hiria Orain: iragana eta geroaren artean
Calzada, Igor, *Aldiri* **11,** 38-39.

Oi berde ahalguztiduna!
Ramo, Beatriz, *Aldiri* **12,** 5-7.

Agortuko diren baliabideak kontrolik gabe ustiatzen ari gara
Rueda, Salvador; Gortazar, Ander, *Aldiri* **12,** 8-9.

Berdeak ez diren ekintza berdeak
Milikua, Leire, *Aldiri* **12,** 18-20.

Lorategi-mahaia
Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **12,** 21-23.

Garapen iraunkorrari buruzko Rio+20 konferentziari buruzko zenbait hausnarketa
Onaindia, Miren, *Aldiri* **12,** 26-28.

Hirigintza-disziplinaren norabideaz. Ekologia paradigmaren bidegurutzean
Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **12,** 29-31.

Gasteiz hiriburu berdea, begirada kritikoa
Fernández de Pinedo, Kike, *Aldiri* **12,** 32-36.

Arantzadi, XXI. mendeko parkea?
Ronco, Teo, *Aldiri* **12,** 38-41.

Hiri-nekazaritza Bilbo inguruan
Tijero, David, *Aldiri* **12,** 42-45.

(1+3) sektorea + auzolana = ZERAIN
Milikua, Leire, *Aldiri* **14,** 11-13.

Hezkuntzari loturiko turismoa naturarekin bateragarria da
Monge, Manu; Asua, Jon; Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **14,** 14-17.

Erresilientziaz
Gabilondo, Iosu, *Aldiri* **12,** 14-16.

Industriaren kokaleku eraberrituak. Lantegi-monumentuen hiritik landa-eremu estetikoetara
Vivas, Isusko; Lekerikabeaskoa, Amaia, *Aldiri* **15,** 47-51.

Hiri-antolamendu planak. Hiri utopiko bukaezinak
Carballo, Daniel, *Aldiri* **16,** 32-33.

Detroit gaur. Business as usual nahikoa ez denean
Detroit Future City, *Aldiri* **19,** 9-12.

Trans-hirigintza eta herri-eraikuntza
Ahedo, Igor; Iruretagoiena, Ula, *Aldiri* **19,** 18-20.